

Gonzalo Nardiz

(1905-2003)

Jon Penche González



EUSKO JAURLARITZAKO NEKAZARITZAKO LEHEN SAILBURUA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

Jon Penche González

Gonzalo Nardiz

(1905-2003)

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako lehenengo Sailburua



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017

Lan honen erregistro bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2017ko urria

Ale kopurua:

110 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Egilea:

Jon Penche González

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:

EkipoPo

Inprimaketa:

Leitzaran Grafikak

L.G.:

VI XXX-2017

EDUKIEN TAULA

HITZAURREA	5
1. FAMILIARTEA	8
2. HAURTZAROA ETA GAZTAROA	11
3. EAE/ANV-N SARTZEA	13
4. ERREPUBLIKA LORTZE ALDERA	17
5. BERMEOKO UDALA	21
6. EAE/ANV BIURTEKO AURRERAZALEAN	25
7. KUDEATZAILE BIZKAIKO ALDUNDIAN	29
8. EAE/ANV BIURTEKO BELTZEAN	33
9. FRONTE POPULARRA ETA ESTATU-KOLPEA	37
10. EUSKO JAURLARITZAKO NEKAZARITZAKO LEHEN SAILBURUA	41
11. NEKAZARITZA SAILAREN KUDEAKETA	45
12. BILBOREN, SANTANDERREN, SANTOÑAREN ERORIKOA	51
13. FRANTZIAREN ETA BARTZELONAREN ARTEAN	57
14. NEKAZARITZA-BABESLEKUAK	61
15. ERBESTEA FRANTZIAN: SAILARTEKO BATZORDEA	65
16. GONZALO NARDIZ ETA EUSKO JAURLARITZAREN KRISIA	69
17. ALEMANEN INBASIOA FRANTZIAN	75
18. MEXIKO	79
19. IPARRALDEKO ERBESTEA: AGIRREREN GOBERNUAK (1946-1960)	85
20. NARDIZ ETA EUSKAL MUGIMENDU FEDERALISTA	93
21. EAE/ANV ERBESTEAN	99
22. ORDEZKARIA BAIONAN: LEIZAOLAREN GOBERNUAK (1960-1979)	105
23. EUSKADIRA ITZULTZEA	109
ONDORIOAK	113
ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA	117

PRÓLOGO

Hace ya 25 años que el Gobierno Vasco instauró los premios “Gonzalo Nardiz Bengoetxea” en homenaje al que fuera el primer consejero de Agricultura del Gobierno Vasco. Estos premios se dedicaron en un primer momento al campo de la etología, siendo después destinados al reconocimiento de las trayectorias profesionales en los sectores agrario, pesquero y de la industria alimentaria, a aquellas personas o colectivos que se han destacado por haber desarrollado una prolongada trayectoria profesional de especial relevancia en los sectores agrícola, ganadero, forestal o pesquero.

A pesar de la existencia de estos premios, tanto el Gobierno Vasco en su conjunto, como nuestro departamento en particular, le debían a Gonzalo Nardiz un reconocimiento mayor en forma de biografía, que le pusiera a la altura de otros de aquellos inolvidables consejeros que formaron parte del primer gabinete vasco, y que dejara constancia de su trayectoria política y personal para que nuestra generación y las venideras conozcan quién fue el primer titular del área de agricultura del autogobierno vasco y en qué difícil coyuntura tuvo que desarrollar su labor.

No en vano, hay que recordarlo, Gonzalo Nardiz fue el único consejero de aquel primer Gobierno Vasco, junto a Jesús María Leizaola, que se mantuvo en su puesto desde 1936 hasta 1979, siendo además, el último de aquellos hombres en fallecer, en el año 2003, concretamente.

Gonzalo Nardiz asumió las competencias de agricultura, ganadería, pesca y riqueza forestal en un momento tan complicado para este sector como fue el contexto de la Guerra Civil. La coyuntura bélica marcó la actividad de su Departamento, provocando que la mayoría de sus esfuerzos estuviesen dedicados a conservar y preservar el patrimonio agrícola, ganadero y forestal, que estaba en peligro por la falta de mano de obra en el campo en tiempo de guerra y por las necesidades tanto del ejército como de la población civil.

La acción de la Consejería de Agricultura estuvo dedicada a controlar los recursos existentes y evitar su consumo indiscriminado, preservando así la riqueza agraria, ganadera y forestal del territorio bajo la jurisdicción del Gobierno Vasco, que se correspondía básicamente con los límites de la provincia de Bizkaia. En materia agrícola, su departamento se centró en el control de la calidad de piensos, abonos y semillas, en procurar que todos los terrenos cultivables se pusieran en explotación y en intensificar la producción, singularmente, el cultivo de la patata, para tratar de abastecer a la población. En materia ganadera, se trató de poner orden en una materia tan sensible en tiempo de guerra, articulando medidas para evitar el sacrificio masivo de cabezas de ganado. Por último, en materia forestal, el departamento que dirigía Nardiz se centró en conservar la riqueza natural, evitando la tala descontrolada de arbolado por la carencia de combustibles.

Pero su labor como titular de Agricultura no se detuvo con la marcha forzada al exilio. Así, nada más pisar suelo francés, Nardiz trató de llevar a cabo la instalación en el sudoeste galo de refugios agrícolas; una suerte de granjas en las que los exiliados vascos tendrían alojamiento y trabajarían la tierra, cuyo producto serviría tanto para el autoconsumo como para suministrar a otros refugios vascos. El proyecto no se pudo llevar a cabo por problemas económicos, pero nos da una idea de la constante actividad de Gonzalo en el terreno agrícola y ganadero a pesar de encontrarse ya fuera de Euskadi.

Por otra parte, la labor política desarrollada por Gonzalo Nardiz en su largo exilio de 42 años tuvo como fin primordial el mantenimiento de la legitimidad del Gobierno Vasco, manteniendo enhiesta la bandera de un ejecutivo que era producto de la voluntad de los vascos, cualquiera que fuera su ideología. Nardiz insistió siempre que el Gobierno debía mantenerse firme y unido, esperando la oportunidad de volver un día a una Euskadi democrática y dar el testigo a un nuevo gabinete. Hacía, de esta forma, efectivas las palabras que el Lehendakari Aguirre pronunció en Turtzios antes de abandonar tierra vasca: El Gobierno Vasco sigue en su puesto, lo mismo en Euzkadi que donde quiera que se encuentre.

Sirva este libro para homenajear a uno de aquellos padres fundadores del autogobierno vasco, al primer consejero de Agricultura del Gobierno Vasco, del que nos sentimos herederos.

ARANTXA TAPIA OTAEGI

Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras

HITZAURREA

Hogeita bost urte badira Eusko Jaurlaritzak “Gonzalo Nardiz Bengoetxea” sariak ezarri zituenetik, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako lehen sailburu izan zenaren omenez. Sari hauek, hasiera batean, etologiaren eremura bideratu ziren, eta, gero, nekazaritzaren, arrantzaren eta elikagaigintzaren sektoreetan egindako lana aitortzera; alegia, nekazaritzaren, abeltzaintzaren, basogintzaren edo arrantzaren sektoreetan garrantzi handiko lana egiteagatik nabarmendu diren norbanakoen edo kolektiboen ibilbidea aitortzera.

Sari hauek gorabehera, Eusko Jaurlaritzak berak eta, zehazki, gure sailak aitorten handiagoa zor zioten Gonzalo Nardizi, biografia erako aitorten bat, Nardiz lehen euskal kabinetea osatu zuten sailburu ahaztezin haien parean jartzeko eta jasota uzteko zer nolako ibilbide politikoa eta pertsonala izan zuen; hartara, gure belaunaldiak eta ondoren etorriko direnek jakingo dute bera izan zela nekazaritzaren eremuko burua lehen euskal autogobernuan, eta jakingo dute, halaber, zein testuinguru zailtan lan egin behar zuen.

Izan ere, gogorarazi beharra dago Gonzalo Nardiz izan zela 1936tik 1979ra postuan jarraitu zuen sailburu bakarra, Jesús María Leizaolarekin batera, lehen Eusko Jaurlaritzan; hil ere, hura hil zen azkena: 2003. urtean, zehazki.

Gonzalo Nardizek bere gain hartu zituen nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta baso-aberastasuneko eskumenak, sektore horretarako oso une zailean hartu ere: Gerra Zibilaren garaian. Gerra-egoerak erabat markatu zuen haren sailaren jarduera, eta, batez ere, nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-ondarea zaintzen eta babesten saiatu zen, ondare hori arriskuan baitzegoen, gerraren ondorioz landa-eremuan eskulanik ez egoteagatik eta armadak eta herritar zibilek zituzten premiengatik.

Nekazaritza Sailak zeuden baliabideak kontrolatzen jardun zuen, eta baliabide horiek neurri gabe erabili zitezkeen saihesten. Horrela lortu zuen nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-aberastasuna babestea Eusko Jaurlaritzaren jurisdikzioan, zeina funtsean bat zetorren Bizkaiko probintziaren mugekin. Nekazaritzaren arloan, haren sailaren zeregin nagusia pentsu, ongarri eta hazien kalitatea kontrolatzea izan zen, landatzekoak ziren lur guztiak ustiatzen jartzea eta produkzioa areagotzea: bereziki, patataren hazkuntza, herritarrak jateko hornitzen saiatzeko. Abeltzaintzaren arloa ordenatzen saiatu zen, gerra garaietan horren berezia den arloa izaki, eta, horretarako, neurri batzuk hartu zituen abelburuak masiboki sakrifikatzea saihesteko. Azkenik, basogintzaren arloan, natura-aberastasuna zaintzen ahalegindu zen Nardiz gidari zuen saila, erregai-eskasia zela-eta arbolak kontrolik gabe botatzea saihesteko.

Nekazaritzako titular izateagatik zegokion zeregina, ordea, ez zuen bertan behera utzi nahitaez erbesteratu behar izan zuenean. Hain zuzen ere, Frantziako lurra zapaldu bezain laster, herrialdearen hegomendebaldean nekazaritza-babeslekuak instalatzen saiatu zen Nardiz: etxalde moduko batzuk, euskal erbesteratuei aterpea eta lurra lantzeko aukera emateko, eta lortutakoa autokontsumorako eta beste euskal erbesteratu batzuk hornitzeko baliatzeko. Proiektua ezin izan zen gauzatu diru-kontuak tarteko, baina balio liezaguke ikusteko nola etenik gabe jarraitu zuen Gonzalok nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloan, Euskaditik kanpo egonda ere.

Bestalde, Gonzalo Nardizek, erbestean egon zen 42 urte luze horietan, lan politikoa ere egin zuen, helburu behinena Eusko Jaurlaritzaren legimitateari eustea zuela, betiere, zutik mantenduta ideologia bateko eta besteko euskal herritarren nahiaren emaitza zen gobernu baten ikurrina. Nardizek behin eta berriz esan zuen Gobernuak tinko eta batuta jarraitu behar zuela, eta beti gorde zuen Euskadira itzultzeko itzaropena, Euskadi demokratiko batera, kabinete berri bati lekukoa emateko. Horrela, gauzatu egin zituen Agirre Lehendakariak Turtziosen, euskal lurra utzi baino lehen, esandako berbak: Eusko Jaurlaritzak dagokion lekuan jarraitzen du, bai Euskadin, bai edonon.

Izan bedi liburu hau euskal autogobernuaren buru fundatzaileetako bat omentzeko, Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritzako lehen sailburua omentzeko, haren oinordeko sentitzen baikara.

ARANTXA TAPIA OTAEGI

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako sailburua

RESUMEN

Gonzalo Nardiz nació en Bermeo el 25 de noviembre de 1905. Sus padres fueron Gregorio Nardiz Zulueta y Dionisia Bengoechea Ydoyaga.

Gregorio Nardiz, tras pasar un tiempo como empleado de la Diputación Provincial de Vizcaya, a finales del siglo XIX se dedicó al negocio naviero, adquiriendo barcos de vapor, lo que le granjeó abundantes beneficios. Por otra parte, Gregorio Nardiz estuvo políticamente vinculado al PNV, representando al cual fue concejal del Ayuntamiento de Bermeo entre 1911 y 1915. Falleció en 1925.

Gonzalo Nardiz realizó los estudios elementales en Bermeo, trasladándose luego a Bilbao a estudiar el bachillerato en el colegio Santiago Apóstol. Posteriormente estudió la carrera de náutica, completando la formación con viajes por el sur de Francia e Inglaterra, para conocer los puertos de la zona y aprender francés e inglés. De esta forma, cuando falleció su padre, en 1925, Gonzalo Nardiz tenía una sólida formación académica y se disponía a dirigir el exitoso negocio familiar.

Es en los años finales de la década de los 20 del pasado siglo cuando la política se cruzó en el camino de Gonzalo Nardiz, dejando en manos de su madre el negocio familiar. Su introducción en la vida política vino de la mano de algunos amigos del pueblo con los que comentaba lecturas y compartía preocupaciones sociales, viendo al PNV como un partido antiguo.

De esta forma, con una ideología nacionalista impregnada de perspectiva social, Gonzalo Nardiz se adhirió a Acción Nacionalista Vasca (ANV), partido fundado el 30 de noviembre de 1930 con un horizonte autonomista dentro de un régimen democrático y republicano en España. De hecho, ANV se presentó a las elecciones del 12 de abril de 1931, las que depararon la marcha de Alfonso XIII al exilio y la proclamación de la II República española, dentro del Bloque Antimonárquico, junto al PSOE y los partidos republicanos.

Gonzalo Nardiz fue elegido concejal del Ayuntamiento de Bermeo en 1931 representando al Bloque Antimonárquico. Dentro de un clima de crispación política extrema en el pueblo, Nardiz era un concejal bien visto por la mayoría jeltzale.

Uno de los hitos destacados de la vida política de Nardiz durante la II República fue su papel como gestor de la Diputación de Bizkaia en el segundo bienio republicano, en las que las Comisiones Gestoras estuvieron dominadas por el Partido Radical, que presidía del ejecutivo republicano. Formó parte de la “comisión de los dieciocho”, una delegación integrada por representantes de las Comisiones Gestoras y de los Ayuntamientos vascos para preparar el referéndum y presentar el Estatuto en las Cortes. Tras la aprobación del texto estatutario en plebiscito, Nardiz y sus compañeros de Comisión viajaron a Madrid a entregar el Estatuto en el Parlamento.

ANV, a la altura de 1936, se definió como un partido netamente izquierdista con un programa socioeconómico socialista no marxista y democrático no revolucionario, que le llevó a ingresar en el Frente Popular junto a socialistas, comunistas y republicanos. Nardiz estaba de acuerdo

con esta definición, puesto que fue elegido vocal del Comité Nacional de partido en junio de 1936.

Tras el golpe de estado del 18 de julio de 1936, Gonzalo Nardiz se puso inmediatamente manos a la obra a defender la legalidad republicana. En Bizkaia, nada más conocerse la magnitud de la sublevación se formó la Comisaría General de Defensa de la República. Gonzalo Nardiz se encontraba encuadrado dentro de la delegación de guerra, que encabezaba el socialista Paulino Gómez Saiz, como comisario de abastos, armamento y abastecimiento de la tropa. Tras constatar la fuerza de la sublevación militar, la Comisaría fue sustituida por la Junta de Defensa, en la que Gonzalo Nardiz fue nombrado delegado especial del Departamento de Defensa para intervenir y resolver todo lo concerniente al abastecimiento de tropas.

Una vez que se aprobó el Estatuto de Autonomía en Cortes, el Lehendakari José Antonio Aguirre nombró a Gonzalo Nardiz consejero de Agricultura del primer Gobierno Vasco. Su Departamento se instaló en el Palacio Zababuru y tuvo como objetivo inmediato conservar y preservar el patrimonio agrícola, ganadero y forestal, que estaba en peligro por la falta de mano de obra en el campo en tiempo de guerra y por las necesidades tanto del ejército como de la población civil.

Tras la caída de Bilbao, Nardiz acompañó al Lehendakari y al resto de consejeros a Trucíos y de allí a Santander, donde se instalaron en un chalet en la zona de Cabo Mayor. La situación en la capital cántabra era muy difícil para los refugiados vascos, acercándose muchos a los miembros del Gobierno Vasco para saber qué hacer. Con los franquistas en la puerta de la ciudad, el Lehendakari y su gobierno no tuvieron más remedio que salir en dirección al País Vasco-Francés. Sin embargo, no sería la última vez que pisara Nardiz suelo cántabro, puesto que con motivo de la reunión de tropas vascas en torno a Santoña y Laredo, fue enviado por Aguirre junto a Leizaola hasta Santoña para ver cómo se podía sacar al ejército vasco de allí.

Durante los siguientes meses, Gonzalo Nardiz vivió a caballo entre Baiona, donde tenía su residencia fijada, y Barcelona, donde estaba instalado el Gobierno Vasco, pero donde su cartera no podía desarrollar ninguna competencia, aunque su figura tenía mucho peso político. En Barcelona tuvo que lidiar con la crisis que, entre ANV y PNV, supuso el nombramiento de su compañero de partido Tomás Bilbao como ministro sin cartera del Gobierno de la República en sustitución del jeltzale Manuel de Irujo, que había dimitido.

Paralelamente a su actividad barcelonesa, durante ese tiempo, Nardiz estuvo dedicado en Francia a la creación de refugios agrícolas en el sur del país galo, la única actividad que, directamente relacionada con su consejería, realizó en esta primera parte de su exilio. Se trataba de alquilar propiedades en las que los refugiados vascos trabajarían en el campo agrícola y ganadero para autoabastecerse y poder enviar el excedente a otros refugios del Gobierno Vasco. Sin embargo, después de varios estudios, el proyecto se desechó por problemas económicos fundamentalmente.

Tras la caída de Cataluña, el Gobierno Vasco se instaló en París. Nardiz fue encargado por el Lehendakari para presidir una Ponencia Interdepartamental, cuya función fue la de estudiar el problema de la formación de un censo de responsables a los cuales alcanzaría la ayuda del Gobierno. Esta ponencia había sido establecida con la función de velar por la distribución equitativa de los beneficios que se prestaban a los ciudadanos vascos, acelerar la liquidación de los servicios existentes y coordinar los trabajos que se realizasen entre los jefes de los diferentes servicios para tales fines. En total, el Gobierno Vasco se hacía así responsable del sostenimiento de 4.957 personas con diversa responsabilidad política y de sus 5.792 familiares, contando un total de 10.749 hombres y mujeres.

Nardiz se quedó en París hasta pocos días antes de la entrada de los nazis en la capital francesa. Con los alemanes a las puertas de París, Nardiz y su esposa, Mercedes Iriondo, consiguieron

coger un tren que les llevó a Burdeos, zona donde se habían concentrado otros miembros del Gobierno Vasco. De Burdeos el grupo viajó a Marsella, a la denominada “zona libre”, con la esperanza de poder salir cuanto antes hacia América. Estando en Marsella, sin embargo, Nardiz fue detenido por la policía y enrolado en una compañía de trabajadores, donde estuvo un año, con el peligro que fuera enviado a un campo de concentración nazi. Finalmente, gracias a las gestiones realizadas por el Cónsul de Venezuela y el esfuerzo de Leizaola, pudo salir de aquel campo de trabajo.

El 14 de abril de 1942, los consejeros Nardiz, Toyos y Aznar, sus familias y otras personalidades vascas, consiguieron salir de Marsella hacia Casablanca, donde embarcaron en el buque “Nyassa”, que les llevó a México.

En el país azteca, Nardiz se instaló en casa de unos familiares de su esposa y participó en diversas actividades del exilio vasco. Se encargó de la edición del periódico Euzko Deya, participó en iniciativas culturales, en la vida de ANV y en los actos llevados a cabo por la Delegación Vasca de México, dirigida por Monzón.

A comienzos de 1945, la necesidad de que el Gobierno Vasco se presentase preparado y legitimado institucionalmente ante el inminente desenlace final de la II Guerra Mundial, que podría traer el fin del régimen franquista, hizo que el Lehendakari se viera en la obligación de convocar a su gabinete en Nueva York, reuniones a las que asistió Nardiz junto al resto de miembros del Gobierno que estaban en América.

En 1946, tras el fin de la II Guerra Mundial, y según lo acordado en Nueva York, los consejeros residentes en México abandonaron el país en dirección a Francia. Nardiz, tras pasar por París, se instaló en Iparralde con su esposa, donde nacería su hijo José Luis. Su vida consistía en ir todos los días a la Delegación del Gobierno Vasco en Baiona a evacuar asuntos de despacho, a la vez que mantenía correspondencia y reuniones con diversas personalidades de la oposición antifranquista tanto del exilio como del interior. Además, durante este tiempo que media desde su llegada a Francia hasta la muerte de Aguirre, Nardiz se ocupó de la organización del Congreso Mundial Vasco de 1956.

El fallecimiento del Lehendakari Aguirre supuso para Nardiz una catástrofe, tanto colectiva como personal. En ese momento, Gonzalo jugó un papel clave en la continuidad del Gobierno Vasco y en la elección de Leizaola como nuevo presidente del ejecutivo vasco.

Ya antes de la muerte de Aguirre, en marzo de 1959, Nardiz había sido nombrado Delegado del Gobierno en Bayona, puesto que desempeñaría hasta los años 70. Gonzalo Nardiz, desde su posición como delegado en Bayona, vivió de cerca todos los cambios que se sucedieron en las décadas de los 60 y 70, reuniéndose también en este período con personas y colectivos de diferente signo político.

Por otra parte, hay que destacar la figura de Gonzalo Nardiz como presidente del Consejo Vasco por la Federación Europea, órgano fundado en 1951. Como tal, acudió a las reuniones del Consejo Federal Español del Movimiento Europeo y a los Congresos del Movimiento Europeo, resaltando su presencia, en 1962, en el Congreso de Munich, el denominado por el franquismo como “Contubernio de Munich”, al que asistieron dirigentes políticos antifranquistas tanto del exilio como del interior.

Tras la muerte de Franco, ANV llegó como un partido débil y mal preparado para afrontar los retos políticos y electorales que tenían por delante. El Gobierno Vasco en el exilio, en el que se encontraba Nardiz, se mantuvo en su puesto velando por la legitimidad y la lealtad a la causa vasca, no regresando a Euskadi hasta que pudiera pasar el testigo a un nuevo Gobierno Vasco elegido democráticamente.

Gonzalo Nardiz regresó a Euskadi, por primera vez tras 42 años de exilio, en mayo de 1979,

6 meses antes de que lo hiciera el Lehendakari Leizaola de forma oficial, convencido de que el proceso estatutario no tenía ya marcha atrás y con una ANV que se desangraba internamente. A partir de entonces, Gonzalo Nardiz, consumada ya su misión de haber mantenido el Gobierno Vasco en el exilio y poder entregar el relevo a un nuevo ejecutivo autonómico, abandonó la política y pasó a vivir en el anonimato.

Falleció en Bilbao el 25 de octubre de 2003. A su funeral, celebrado en la iglesia de Santa María de Bermeo, acudió el Gobierno Vasco en pleno. Sus restos reposan, junto a los de su padre, en el cementerio de su Villa natal.

HITZAURREA

Lan honetan, Gonzalo Nardiz Bengochearen biografia politikoa biltzen da, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako lehenengo sailburuarena. Lan honetan, Nardiz jaunaren ibilbide politikoaz gain, Nekazaritza Sailaren buru zela egindako kudeaketa eta Eusko Jaurlaritzako kide gisa erbestean 1937tik 1979ra bitarte gauzatutako zeregina ere aztertuko ditugu. Nardiz jauna izan zen, Jesús María Leizaolarekin batera, kargua 1936ko urrian hartu zuen eta demokraziarako trantsizioraino kargu horri eutsi zion sailburu bakarra.

Hainbat galderari erantzun nahi diegulako ekin diogu proiektu honi. Lehenengo galdera honako hau da: nor izan zen Gonzalo Nardiz eta zer gaitasun zituen lehenengo Eusko Jaurlaritzako sailburu izendatua izateko? Bigarrenik, jakin nahi genuen Gerra Zibilak iraun zuen aldian Nekazaritza Sailaren buru zela gauzatutako kudeaketak zer garrantzi izan zuen Euskadin eta erbesteratuta egon zenean Frantzian; era berean, jakin nahi genuen zer jarduera gauzatu zituen sailburu gisa erbesteratuta egon zen aldi osoan.

Izan ere, diktaduratik demokraziarako trantsizioalditik gaur egungo garairaino lehenengo Eusko Jaurlaritzan izandako pertsona ospetsuei buruzko ezagutzak eta lehenengo Eusko Jaurlaritzak egindako kudeaketari buruzko ezagutzak aurrerapen handia izan badu ere, oraindik badaude sakonki ezagutzen ez ditugun pertsona ospetsuak eta alderdiak, esate baterako Gonzalo Nardiz.

Ildo horretan, Jaurlaritza hartako pertsona batzuk aztertu dira, modu desberdinean bada ere, hala nola Agirre bera¹ edo Leizaola², Monzón³, de la Torre⁴, Aznar⁵, de los Toyos⁶, Espinosa⁷ edo Gracia⁸sailburuak, baina Jaurlaritza hartako beste pertsona ospetsu batzuei ez zaie behar adinako arretarik eskaini; esate baterako Gonzalo Nardizi, Ramón Aldasorori edo Juan Astigarrabiari. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak berak, 80ko hamarkadaz geroztik, lehen Jaurlaritza

1 Agirre Lehendakariari buruz diharduten lan asko daude, eta lan horietako batzuk orain dela oso denbora gutxi argitaratu dira. Lan horien artean honako hauek nabarmendu behar ditugu: Carmelo Garitaonaindia, *José Antonio Aguirre, el primer Lehendakari*, Bilbo, IVAP, 1990; Aitor Zuberogoitia, *José Antonio Aguirre*, Donostia, Elkar, 1997; Ludger Mees, *Aguirre, el primer lehendakari (1939-1960)*, Irun, Alberdania, 2006; Ludger Mees (koord.), *La política como pasión. El Lehendakari José Antonio Aguirre (1904-1960)*, Madril, Tecnos, 2014.

2 Carmelo Landa Montenegro, *Jesús María Leizaola: vida, obra y acción política de un nacionalista vasco (1896-1937)*, Bilbo, Sabino Arana Fundazioa, 1995; Iñaki Anasagasti, *Jesús María de Leizaola: primer consejero de justicia y cultura del Gobierno Vasco*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 1986.

3 Koldo Izagirre, *Telesforo Monzón (1904-1981)*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 1999.

4 Eliodoro de la Torre: *primer consejero de Hacienda del Gobierno Vasco*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 1984.

5 Koldo San Sebastián, *El fuego de la utopía: biografía de Santiago Aznar Sarachaga, primer consejero de industria del Gobierno Vasco*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2001.

6 Ángel Comonte Santamaría, *Juan de los Toyos González: biografía de un pequeño gran hombre*, Barakaldo, Juan de los Toyos Fundazioa, 2010.

7 Lorenzo Sebastián García, «Alfredo Espinosa Orive (1903-1937): detención, procesamiento y ejecución de un consejero del Gobierno Vasco», *Sancho el Sabio*, 28 (2008), 213-246. orrialdea.; Jon Penche, *Alfredo Espinosa Orive (1903-1937). Un republicano al servicio de Euskadi*, Bilbo, Eusko Jaurlaritza, 2012.

8 Jon Penche, *Juan Gracia Colás (1891-1941). Primer consejero de Asistencia Social del Gobierno Vasco*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2016.

hartako sailburu batzuen biografiak argitaratu ditu, baina beste hainbat pertsonarenak ez zituen argitaratu, hain zuzen ere oraindik memoria eta ekintza politikoa modu «ofizialean» berreskuratu ez duten pertsonenak.

Bestalde, Jaurlaritza hartako lan osoa biltzen duten azterlanak izan dira, baina egin diren azken ekarpen horietako batzuek⁹ ez dute sakontasunez aztertzen Nardiz sailburua bera eta Nekazaritza Saileko buru zela egindako lan garrantzitsua.

Gonzalo Nardizi dagokionez, litekeena da hainbat arrazoi izatea pertsona hori lehenago kontuan ez hartzeko. Lehenik eta behin, hark ordezkatzeko zuen alderdia, Eusko Abertzale Ekintza (EAE/ANV), trantsizioan desagertu zelako eszena politikotik, eta, horrenbestez, Gonzalo Nardiz behar bezala aldarrikatu ez zenez, pertsona hori ahaztua izan zen pixkanaka. Bigarrenik, Gonzalo Nardizek, 1979an Euskadira itzuli zenean, jarduera politiko oro utzi egin zuelako eta oso maila diskretuan jardun zuelako. Nolanahi ere, Bermeoko Udalak omenaldi bat egin zion 80ko hamarkadan eta Eusko Jaurlaritzak Gonzalo Nardiz sariak sortu zituen, baina horrekin ez zen lortu pertsonaiaren memoria berreskuratzea.

Ikerketa oro dauden iturrien, iturri horien kokapenaren eta eskuragarritasunaren mende dago. Gauza bat da proiektu bat, proiektuaren helburuak eta lan-hipotesiak proposatzea, eta beste gauza bat da hasiera batean helburutzat hartu genuen guztia garatzea ahalbidetuko diguten iturriak aurkitzea. Ildo horretan, ikerketa honek alderdi batzuetan osatu gabe geratzeko arriskua zuen, Gonzalo Nardizek erbestera atera ondoren gauzatu zuen jarduerari buruzko erreferentzia oso gutxi zeudelako. Haren biografiari buruz egin diren hurbilpen laburretan (hainbat lanetan behin eta berriz errepikatu da biografia horretako edukia) esaten da Gonzalo Nardiz Bermeoko zinegotzi izan zela II. Errepublikan eta Bizkaiko Aldundiko kudeatzaile izan zela, baina ez da ia ezer aipatzen Amerikara atera ondoren Eusko Jaurlaritzan bete zuen zereginari buruz. Datu horiek alde batera utzita, biografia-ohar horiek guztiek Nekazaritzako sailburu gisa bete zuen zeregina hartzen zuten kontuan, eta Euskadiko nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta basoaren aberastasuna babesteko ez ezik, herritarrei bizigaiak emateko ere egin zuen lana nabarmentzen zuten. Hortaz, lan honek funtsezko galdera hauei erantzun behar zien: nor izan zen Gonzalo Nardiz eta zer merezimendu zituen 1936an lehen Eusko Jaurlaritzako sailburu izendatua izateko?, zer kudeaketa egin zuen Nekazaritza Saileko buru zela? eta zer eginkizun bete zituen Euskadiko Jaurlaritza Euskal Herritik atera zenean Katalunian, Frantzian, Mexikon eta Iparralden?

Lehenik eta behin, ahozko iturriak hartu genituen kontuan, Gonzaloren semeak –José Luis Nardizek– familiarteari eta pertsonaiaren ibilbide politikoari buruz eman liezagukeen lekukotza baikenuen. Gainera, Gonzalo Nardizen artxibo pertsonal eta argazki-artxibo txiki bat zeukan, ikerketarako oso baliagarria izan dena.

Ondoren, artxibo-iturriak kontsultatu genituen. Hurbileneko artxiboetatik hasi ginen, hala nola Bizkaiko Elizaren Histori Artxibora jo genuen gure pertsonaiaren familiarteari buruzko datu pertsonalak eta profesionalak lortzeko, Euskadiko Artxibo Historikoan Nekazaritza Saileko buru zela egindako kudeaketari eta Lehendakartzarekin zituen harremani buruzko dokumentazio guztia aurkitu genuen eta Sabino Arana Fundazioan EAJri buruzko jarduna biltzen da.

Hirugarrenik, iturri horiek guztiek zituzten hutsuneak betetzeko, prentsara jo genuen lana gauzatzeko informazioaren iturri osagarri gisa. Horretarako, Bilboko *El Liberal* egunkaria hustu genuen, baita *El Noticiero Bilbatino*, *Euzkadi*(Bilbo), *Euzkadi* (Bartzelona), *Euzko Deya* (Mexiko), *Euzko-Izpar-Banatzea* (Paris), *Tierra Vasca* (Buenos Aires eta Mexiko) ere.

9 José Luis de la Granja Sainz irakasleak 2010. urtean egindako *El Lehendakari Aguirre y sus Gobiernos* izeneko erakusketaz ari gara, hain zuzen ere. José Luis de la Granja Sainz izan zen erakusketa horren komisarioa eta erakusketa horren ondoren izen bereko liburua atera zen. Halaber, Iñaki Garrido Yerobiren eta Aitziber Lekuona Iludainen lanak ere gogoratu behar dira: *Las raíces del árbol del exilio. Las biografías de los consejeros del primer Gobierno de Euzkadi*, Oñati, IVAP, 2006, baita Iñaki Anasagastirena ere (zuz.), *El Primer Gobierno Vasco*, 3 liburuki, Bilbo, Eusko Jaurlaritza, 1986,

Azkenik, beste sailburu batzuen biografiekin gertatu zaigun ez bezala, Nardizen bizitza politikoa urte askokoa denez eta Eusko Jaurlaritzan hainbeste urtez egon denez, pertsonaiaren ibilbide politikoa alderdi batzuei buruzko erreferentzia mordo bat genuen.

Biografiaren kontaketa ordena kronologikoan egin da, jakina, baina 23 kapitulu laburretan banatu da. Kapitulu horietan gure pertsonaiaren bizi-ibilbidearen hainbat aldi edo bere kudeaketaren hainbat alderdi biltzen dira, irakurleak hobeto ulertu ahal izateko. Bermeoko familiartearekin hasi eta 1979an Euskadira itzuli zenean buka, II. Errepublikak iraun zuen bitartean EAE/ANVn izandako jarduera, sailburu gisa egindako kudeaketa, Katalunian eta Parisen erbesteratuta egon zenean izandako zeregina, Amerikara joatea eta Europara itzultzea sailburu gisa jarduten jarraitzeko ere tartean.

Eskerrak emateko atalean ezin ditugu ahaztu proiektu hau egitera bultzatu gintuzten eta proiektu hau egiten lagundu ziguten pertsonak. Lehenik eta behin, jakina, eskerrak eman nahi dizkiogu José Luis Nardizi eta beraren familiari beren oroitzapenen atea irekitzeagatik. Bigarrenik, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari adierazi nahi diogu gure esker ona, ekonomiari eta erakundeari dagokienez emandako babesarengatik, zehatzago esanda, Bittor Orozi, Elena Gutiérrez Pérez del Notariori eta Nerea Haigi. Ondoren, kontsultatu ditugun artxibo eta liburutegietako langileei: Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboko Cristina Castillori, Euskadiko Artxibo Historikoko Roberto Kerexetari eta Faustino Ruizi eta Sabino Arana Fundazioko Luis de Guezalari eta Marian Morenori.

Azkenik, eskerrak eman behar dizkiet lanbidekideei, beti eman dizkidatelako aholkuak eta laguntza, hau da, Iñaki Anasagastiri eta José Luis de la Granjari. Eta, nola ez, nire familiari.

1. FAMILIARTEA

Gonzalo Nardiz Bengoechea 1905eko azaroaren 25eko 11:30ean jaio zen Bermeon, Arostegi kaleko 33ko lehenengo solairuan zehazki. Hurrengo egunean bataiatu zuten Santa Eufemia elizan, aita-amabitxiak Juan de Oraindi, Bakiokoa, eta izeba Rufina Nardiz, Bermeokoa, zirela¹⁰.

Haren gurasoak Gregorio Nardiz Zulueta eta Dionisia Bengoechea Ydoyaga ziren. Aita Bermeon jaio zen 1865eko maiatzaren 9an, eta ama, berriz, Ibarrangelun 1875eko azaroaren 26an. Aitaren aldeko aitona-amonak José Nardiz Goyenechea, upelgilea, eta Justa Zulueta Abasgoitia ziren, biak Bermeokoak; amaren aldeko aitona-amonak, aldiz, Emeterio Bengoechea Gastañaga eta Fermina Ydoyaga Arrizabalaga izan ziren, biak Ibarrangelukoak, bertan jaio eta bizi zirenak, eta lanbidez nekazariak¹¹.

Gonzaloren aita, Gregorio Nardiz, Bizkaiko Diputazio Probintzian aritu zen lanean denborartean; hor Nardiz abizena ez zen arrotza, XVII. mendean geroztik familia oso lotuta egon zelako erakunde probintzialaren bizitza politikoarekin. Alabaina, XIX. mendearen amaiera inguruan konturatu zen lurruntzien alorrean negozioa egin zitekeela, ordura arte egiten ziren kabotaje guztiak belaontzietan egiten baitziren; horregatik, lurruntzi batzuk eskuratu zituen hainbat merkataritza-ibilbide egiteko. Merkataritza-alorrean arrakasta handia eman zion ibilbideetako bat Bermeo-Gijón-Bilbo linea izan zen. Linea horretan ikatza hartzen zen Gijónen eta Bilbora ekartzen zen, Lutxanako eremura, eta hor ikatz-briketak egiten ziren eta Bermeoko portu zaharrean biltegiatzen ziren. Beste ibilbideetako batek Espainiako hegoaldera eramaten zituen Gregorio Nardizen itsasontziak, gatz bila, gatz Bermeora ekartzeko. Lurruntzi horietaz gain, Nardizen enpresak beste belaontzi batzuk zituen Bilbora kabotaje-ibilbideak egiteko eta Bermeora itzultzeko.

Itsas garraioen enpresak etekin handiak eman zizkion Gregoriori, eta etekin horietako batzuk ingurunean esate baterako, Erreñezubin, Bermeon lurak erosten edo Sukarrietan jabetzak erosten inbertitu zituen.

Gregorio Dionisia Bengoechea Idoyagarekin ezkondu zen mendea aldatu eta urte batzuetara. Dionisia Ibarrangelun jaio zen 1875eko azaroaren 26an. Haren gurasoak Emeterio Bengoechea eta Fermina Idoyaga ziren, biak Ibarrangelukoak eta lanbidez nekazariak. Dionisiarentzat bigarren senarra zen; izan ere, 1893ko uztailearen 1ean, oraindik 18 urte ez zituela, Luis Gonzaga Eguiluzekin (1867an jaioa Bilbon) ezkondu zen Bermeoko Santa Eufemia parrokan. Ezkontza hartatik Luis Eguiluz Bengoechea, hots, Gonzalo Nardizen anaiordea jaio zen 1898ko otsailaren 11n Bermeon. Badirudi Luis Gonzaga Eguiluz XX. mendearen hasieran hil zela.

Nardiz Bengoechea senar-emazteek 1905ean Gonzalo izan zuten; 1908ko azaroaren 7an Justa jaio zen eta 1910. urtearen inguruan José. Justa 13 urte zituela hil zen septizemiaren ondorioz galdi batek harrapatu ondoren, José, ordea, 18 urte zituela hil zen sukar tifoidea pairatu

10 Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa (aurrerantzean BEHA), Bermeoko Santa Eufemia parrokoiko bataio-liburua.

11 BEHA, 0488/001-00 eta 7509/002-00.

ondoren. Hortaz, Gonzalo Nardiz bikotearen seme bakar gisa geratu zen 20 urte besterik ez zituenean.

Politikoki, XIX. mendean, Gregorio Nardizek jatorri ideologiko foralistak zituen. Garai hartan, nolabaiteko harremana zeukan Nardiz familiaren aldeko ahaide liberal monarkikoekin, bereziki Enrique eta Venancio Nardizekin, Gregorioren adin berekoak biak. Nardiz «monarkikoek» lotura handia izan zuten Bermeoko tokiko politikarekin; XIX. mendeko 80ko hamarkadan, Galo Nardiz Bermeoko alkate izan zen 1883. urtetik 1887. urtera bitarte, eta familia horretako hainbat senide eremu hartako monarkikoak sartzeko Bermeon 1887az geroztik abian jarri zen Liberalen Zirkuluko kide izan ziren.

Gregoriok, ordea, ez zion bere senitartekoen ildo politikoari jarraitu; aitzitik, Sabino Arana azaldu bezain laster Euzko Alderdi Jeltzaleko kide egin zen eta horren ondorioz, Nardiz ahaide monarkikoak Gregoriorekin haserretu ziren eta ez zuten gehiago hitz egin elkarrekin. Euskal nazionalismoa XIX. mendearen oso amaieran hasi zen Bermeoko eremuan sartzen, Sabino Aranak eremu horretako pertsona ospetsu batzuekin bilera bat egin ondoren. Batzoki Bermiotarra 1899. urtean inauguratu zen nazionalistek beren egoitza soziala irekitzeko Gobernu Zibilak eta Bermeko Udalak jarri zizkieten eragozpenak gainditu ondoren. Urte horretan bertan, EAJk herriko udal-hauteskundeetarako bere hautagaitza aurkeztu zuen lehenengo aldiz. Bost zinegotzi lortu zituzten eta % 50 inguruko botoen ehunekoa. 1901eko udal-hauteskundeetan, 5 zinegotzietan beste 3 zinegotzi gehitu zitzaizkien, eta era horretan, jeltzaleak talde politiko gehiengoduna izan ziren udalean, baina ez zuten alkatetza lortu, udalbatzaren presidentea izendatzeko eskumena Gobernazioko ministroari baitzegokion, eta ministro horrek zinegotzi monarkiko batzuk aukeratzen zituen beti postu hori betetzeko¹².

Euzko Alderdi Jeltzalea azaldu ondoren Bermeoko politika bereizi zuen ideia nagusia liberalen, hau da, Bilboko Batzorde Liberalaren babesa zuten tokiko jauntxokeriaren ordezkarien eta katoliko-nazionalisten arteko enfrontamendua izan zen. Bi aldeen arteko enfrontamendua izan ziren udalean nahiz udaletik kanpo eta tentsio handiko uneak bizi izan ziren. Polaritate horrek beste polaritate bat ekarri zuen 1911ko azaroaren 12ko hauteskundeen ondoren, tokiko politika zatitu zuen ideia nagusia Gregorio Nardizen urruneko ahaideak ziren eta jauntxokeria ordezkatzeko zuten Nardizen aldeko liberal-kontserbadoreen eta nazionalisten arteko borroka izan zen, 1923ra arte indarrean egon zen borroka, alegia.

Gregorio Nardiz jauntxokeriaren aurkako hautagaitzetan aurkeztu zen hauteskunde horietan. Hautagaitza horiek EAJk, Elorrietaren aldekoak ez ziren liberalek, Jaimereren aldekoek, pertsona ospetsu independenteek eta hainbat lanbide-elkarteetako kideek osatzen zituzten. San Frantziskoko hauteskunde-barruti bidez hautatu zuten zinegotzi; 276 boto lortu zituen. Hauteskunde haietan EAJk eta haren aliatuek lortu zuten garaipena eztabaidaezina izan zen: emandako botoen % 63,6 haien aldekoak izan ziren eta 7 zinegotzi lortu zituzten; liberalek, aldiz, botoen % 34,6 eta bi zinegotzi lortu zituzten. Era berean, hauteskunde horietan, jauntxokeriaren aurkako zerrenda berean, baina Eskoletako hauteskunde-barruti bidez Tomás Arana hautatu zuten zinegotzi. Tomás Arana Gregorioren koinatua zen, Gregorioren emaztearen ahizparekin, hots, María Pilar Bengoechearekin ezkondu zegoena.

Herritar gehienek jauntxokeriaren aurkako hautagaitzaren alde egin zuten, baina haien iritzian aurka bi zinegotzi liberaletako bat, hau da, Teodoro Vidachea Errege Agindu bidez hautatu izanak hainbat manifestazio eta gorabeheraren hasiera ekarri zuen, eta horren ondorioz, Vidachea bere postutik kendu zuten eta haren ordezkari jauntxokeriaren aurkako zerrendetan liberal gisa azaltzen zen Atanasio Urquiza, lehen alkateordea, jarri zuten. Arestian esan dugunez, gertakari horren ondorio nagusia izan zen ordura arte izandako tokiko harreman politikoak aldatzea; eremu horretako jauntxoak, hots, Gandariasek, eta katolikoek, nazionalistek eta

12 Ander Delgado Cendagortagarza, *Bermeo en el siglo XX: política y conflicto en un municipio pesquero vizcaino (1912-1955)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1998, 113.116. orrialdea.

beste liberal batzuek babesten zuten Elorrietaren aldeko liberalen arteko enfrontamenduaren ordez beste enfrontamendu bat sortu zen: Nardiz eta Uranga familietako tokiko liberalen eta nazionalisten arteko enfrontamendua. Liberal horiei ere Gandariasek laguntzen zien.

Gregorio Nardizen udalak 1912ko abuztuaren 12tik 13ra bitarte izan zen enbataren ondorio larriei egin behar izan zien aurre. Enbata horren ondorioz, 141 arrantzale hil ziren; arrantzale horietatik 119 bermeotarrak ziren. Sektore guztiek, eta baita udalak ere, ondorioztatu zuten arrantzaren alorreko arazoak konpondu behar zirela eta lehenik eta behin Bermeoko portuko azpiegiturak hobetu behar zirela. Era berean, Bermeoko udal-gobernuaren barnean tentsio handi bat sortu zen enbataren biktimei laguntza emateko modua zela medio, nazionalisten eta Nardizen aldeko liberalen artean tokiko botere-harremanetan hegemonia lortzeko borroka politikoekin nahasi zelako. Gregorio Bermeoko udalean egon zen legegintzaldiaren ezaugarriak udal-bizitzaren protagonista ziren bi blokeen arteko botere-borroka horiek ziren, baina zinegotzi hori ez zen bere jarduerarengatik nabarmendu. Gregorio Nardiz 1925ean hil zen, euskal nazionalismoaren ideologiari gogor helduta¹³.

13 *Ibidem*, 133.199. orriak.

2. HAURTZAROA ETA GAZTAROA

Gonzalo Nardizek Bermeon egin zituen oinarrizko ikasketak; ondoren, bere aitak maila ekonomiko ona zuenez, Bilboko Santiago Apóstol ikastetxean egon zen batxilergoa ikasteko. Bilbora trenez iristen zen Sukarrietatik, garai hartan Bermeon ez baitzegoen trenbiderik oraindik. Ikastetxe hartan Busturialdeako eremu beretik zetozen beste gazte batzuekin elkartzen zen eta Atxuriko geltokitik gazte guztiak elkarrekin joaten ziren ikastetxera.

Batxilergoa bukatu ondoren, ingeniartzako karreran matrikulatu zen, baina Gonzalo berehala konturatu zen hura ez zuela gustuko. Aitak behin eta berriz esaten zionez karreraren bat ikasi behar zuela, nautikan matrikulatu zen eta karrera hori amaitzea lortu zuen. Familiaren maila ekonomia ona zenez, prestakuntza teoriko hori bidaiekin osatu ahal izan zuen; alde batetik, Ipar Euskal Herrian egon zen eta inguru hartako portu guztiak ezagutzeaz gain, frantsesa ikasi zuen; eta bestetik, Londresen egon zen, eta han ingelesa ikasi zuen. Bidaia horiek hizkuntzak ikasteko, familiak zeukan itsas garraioaren negozioaren alderdi guztiak ikasteko eta toki desberdinetako portuak ezagutzeko eta harremanak egiteko baliatzen zituen. Horrela, 20 urte eskas zituela nautikaren alorreko prestakuntza zeukan, lau hizkuntza hitz egiten zituen (gaztelania, euskara, frantsesa eta ingelesa) eta aita 1925ean hil zitzaionez, salgaiak garraiatzeko familiaren negozioa zeukan bere eskura, behar bezala prestatu baitzuten horretarako. Horrez gain, Gonzalok bere aitaren arriben ondare osoa jaraunsi zuen; izan ere, Rufina, Gervasia eta Andresa ezkongabe zirela hil ziren eta Gonzalo Nardizen aldetik ondorengo bakarra zenez, hari utzi zioten dena. Hortaz, XX. mendearen 20ko hamarkadaren amaiera inguruan, oraindik oso gaztea zen Gonzalo Nardizek aitaren ondasun guztiak, enpresa barne, eta bere izeben ondarea zituen beretzat; izan ere, gorago adierazi dugunez, bere anai-arrebak oso gazte hil ziren.

Soldadutza artillerian, Algortako baterian, egitea egokitu zitzaion, baina Gonzalo egun batean bakarrik egon zen, guk ezagutzen ez dugun moduren batean lagundu baitzioten.

Gonzalo Nardizek gaztaroan izan zuen zaletasunetako bat futbola da. Herrian izan zen lehenengo futbol-taldean, hots, «Lagun Etxea» taldean jokatu zuen. Talde horrek 1926. urtetik 1936. urtera bitarte iraun zuen eta Bizkaiko eskualde-mailako ligan parte hartu zuen. Talde hartan bere anaia Josék ere jokatu zuen, baina Gonzalok 1927. urtearen inguruan utzi egin zuen futbola, «haurren kontua» zela uste zuelako. Beste zaletasunetako bat motoziklismoa izan zen; Londresen egon zenean harremanak izan zituen moto-fabrika batekin, fabrikari mesederen bat egin ziolako, eta Bermeora itzuli ondoren, fabrika horrek moto berri bat bidaltzen zion urtero. Hortaz, Gonzalo eta herriko bere lagun batzuk, bere jaioterria, hots, Elantxobe, Ibarrangelu eta abar garai hartan bereizten zituzten bide prekarioetan barrena ibiltzen ziren.

Familiaren negozioarekin jarraitzeko eta bizitza erosoaz izateko baldintza guztiak bere alde izan arren, Gonzalo Nardiz politikarekin liluratu zen eta familiako enpresa amaren, hots, Dionisiaren esku utzi zuen eta politikaren esparruan prestatzen hasi zen.

Bera baino zaharxeagoak ziren eta joan den mendeko 20ko hamarkadaren amaieran Bermeon egin zituen lagun batzuek sartu zuten politikan. Lagun horien artean nolabaiteko kezka sozialak

zituzten pertsonak zeuden; esate baterako, Benito Barrueta margolaria¹⁴ eta Julián Asteinza medikua. Bi pertsona horiekin, eta beste batzuekin, bilera asko egiten zituzten Barrueta-aren edo Asteinzaren etxean. Bilera horietan liburuak irakurtzen zituzten eta, ondoren, liburu horiei buruz hitz egiten zuten. Gonzalo izaten zen liburuak ozenki irakurtzen zituena, taldeko kiderik gazteena zelako. Irakurtzen zituzten lanak egile garaikideenak izaten ziren: Ortega y Gasset, Blasco Ibáñez, Pío Baroja... Bilera horietan ondorioztatzen zuten Euzko Alderdi Jeltzalea zaharkituta geratu zela, bilakatu egin behar zuela, ez zela soilik barrualdera begiratu behar, baizik eta ingurunean gertatzen zena ere ikusi behar zela, nazionalistak zirela, jakina, baina inguruko herriak ere errespetatu behar zirela.

José Luisek, Gonzaloren semeak, esaten duenaren arabera, Gonzalok ere kezka sozial horiek berak zituen, kezkatuta zegoen langile-klaseen egoerarekin; izan ere, Bermeoko olatu-hormaren obrak egiten ari ziren langileek lan egin ezin zutenean ez zutela soldatarik jasotzen ikusten zuen. Kontzientzia soziala piztu zitzaion garai hartan, baina kontzientzia hori ez zen iritsi oraindik bere jaioterrira, alderdi politikoen, hala nola alderdi sozialistaren edo errepublikanoaren indarra urria zelako.

Gonzalo Nardizek berak azaldu zuen nola hasi zen jarduera politikoan:

Garai hartan 24 urte inguru izango nituen. Asteinza medikuaren etxean elkartzen ginen Bermeon. José Manuel Ispizua, Benito Barrueta margolaria, Sarasola frantziskotar fraidea eta beste batzuk ere elkartzen ziren. Ni nintzen gazteena, eta horregatik, ni nintzen Irakurle Ofiziala. Irakurri egiten genuen. Nire prestakuntzari asko lagundu ziotenak irakurketen ondoren egiten ziren iruzkinak izan ziren (...) Hortik sortu zen dena¹⁵.

Gonzaloren amarentzat, Dionisiarentzat, zaila izan zen Gonzalo jarduera politikoan hasi izana ulertzea, semea familiaren negozioa alde batera uzten ari zelako hark ulertu ezin zituen ideia batzuegatik¹⁶. Hala eta guztiz ere, Dionisiak ez zuen inolako arazorik izan itsas garraioen enpresaz arduratzeko, herrian oso ezaguna baitzen negozioetarako zuen gaitasunarengatik.

14 Benito Barrueta Asteinza (Bermeo, 1873-Bermeo, 1953), margolari ospetsua izan zen, Madrilan eta Parisen ikasia eta batez ere Velázquez-en eta Goyaren eragina izan zuena. Hainbat erakusketa egin zituen Bilbon, Parisen eta Bruselan. Haren koadro batzuk Bilboko Arte Ederren Museoan ikus daitezke.

15 Euskadiko Artxibo Historikoa (aurrerantzean, EAH), Euzko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 2.3. orrialdea.

16 Hau esaten zion semeari: «ergela izan behar da norberak duena gainerakoei banatu behar zaiela pentsatzeko», bere semea izaten hasi zen kezka sozialak hitzordik aipatuz.

3.

EAE/ANV-N SARTZEA

Eusko Abertzale Ekintza 1930eko azaroaren 30ean sortu zen ofizialki bere lehen manifestua atera ondoren. Manifestu hori ezagunagoa da «San Andresko manifestua» izenarekin, San Andres egunean –euskal nazionalismoaren jaiegun tradizionalan– argitaratu zelako. Alabaina, joera ezkertiarreko euskal alderdi nazionalista bat sortzeko prozesua 1930. urte osoan garatu zen.

Primo de Rivera 1930eko urtarrilean erori ondoren, indar politikoek berrantolatzeko prozesu bati ekin zioten. Euskal nazionalismoa zatituta iritsi zen prozesu horretara, 1921az geroztik bi alderdi zeudelako; alde batetik, *Comunión Nacionalista Vasca* alderdia zegoen, joera autonomista zuena; eta bestetik, *Aberri* alderdia, independentismorako joera zuena. Bi alderdi horiek ez ziren berriro elkartu 1930eko azaroaren 16ko Bergarako Batzarrera bitarte, eta berriro ere Euzko Alderdi Jeltzalea deitu zitzaion Jaun-goikua eta lagi-zarra Sabinoren printzipioak, hau da, konfesionalismo katolikoa oinarri hartuta, eta berriro ere 1839. urtea baino lehenagoko egoerara itzuli ziren.

Comunión alderdiko zati bat ez zegoen ados JEL leloari eusten jarraitzearekin, eta 1930. urte horretan printzipio nazionalistak eguneratzen saiatu zen. Alde batetik, alderdiaren konfesionaltasuna, euskal lurraldeen konfederalismoa eta Sabino Aranaren ideologiaren osagai klerikala eta tradizionala kentzea nahi zuten; beste alde batetik, nazionalismoa isolamendutik atera nahi zuten eta harremanak eta aliantzak izan nahi zituzten sistematik kanpoko Espainiako alderdi politikoekin, bereziki, errepublikanoekin eta sozialistekin, alderdi horiek, Donostiako Itunaz geroztik, Alfontso XIII.a kargutik kendu eta Errepublika aldarrikatu nahi baitzuten.

Comunión alderdiaren zati horrek¹⁷ ez zuen oinarri nazionalistak berritzea lortu, eta bere iritzia gutxietsita geratu zenez Bergarako Batzarrean, ez zuen Euzko Alderdi Jeltzale berria indartu. Hala eta guztiz ere, *Aberritik*¹⁸ eta Barakaldoko Euskal Gazteriatik¹⁹ eratorritako beste kide nazionalistekin, Eusko Langileen Alkartasuneko kideekin²⁰, Madriliko *Agrupación de Cultura Vasca* elkartearen inguruan zeuden euskal ikasleekin batera²¹ eta nazionalista independenteen parte-hartzearekin²², aipatutako San Andresko Manifestua atera zuten eta EAE/ANV sortu zuten. Horiek guztiek EAJren konfesionalismoa arbuiazen zuten eta errepublikanoekin eta

17 EAE/ANVren sortzaile eta lider gehienak komunioistak izanak ziren, eta Bilbon sakon errotuta zeuden.

18 EAE/ANVren oso sortzaile gutxi ziren *Aberrikoak*; Tomás Echave eta Manuel eta Telesforo Uribe-Echevarría anaiak nabarmendu behar dira.

19 *Comunión* eta *Aberri* alderdietatik kanpo sortutako Erakundea, Primo de Riveraren diktaduran ere jardunean egon zena. Oso ekarpen garrantzitsua EAE/ANVrentzat, Barakaldoko elkarte alderdiko indartsuena eta ugariena izango zelako II. Errepublikak iraun zuen bitartean. Hortik dator Luis Ruiz de Aguirre, «Sancho de Beurko».

20 Ez ziren asko izan, baina SOVen sindikatuta zeuden eta EAE/ANV sortzen parte hartu zuten langile batzuk izan ziren.

21 Hiriburuan bizi ziren euskal ikasle gazteak, elkarte hori sortu zutenak euskal unibertsitatea eskatzeko eta euskara eta euskal kultura sustatzeko. Elkarte Eusko Ikaskuntzak babesten zuen. Honako hauek Eusko Ikasbatzakoak ziren: Luis María Elizalde eta Pedro María Irujo.

22 Horien artetik garrantzitsuenak José Olivares Larrondo (Tellagorri) izango da.

sozialistekin elkartu nahi zuten Euskadirako erregimen autonomikoa ahalbidetuko zuen Errepublika bat ezartzeko Espainian.

Joera horien guztien artetik EAE/ANV sortu zen 1930eko azaroan; behin-behineko batzorde sortzaile bat ezarri zen eta batzorde horrek sinatu zuen San Andresko Manifestua. Batzorde hori honako hauek osatzen zuten: Anacleto Ortueta, Luis Urrengoechea, José Ignacio Arana, Julián Arrien, José Manuel Ispizua, Claudio Ibáñez Aldecoa, José Domingo Arana, José Ramón Basterra, José María Belausteguigoitia, Antonio Villanueva eta Marcos Ayo Llona. José Luis de la Granja irakasleak adierazi duenez, nabarmendu behar da pertsona horiek ez zirela ateoak, prentsa *jelkideak* leporatzen zien bezala, ezta ezkertiarrak ere; profesional liberalak ziren, erdi-mailako klasekoak, politikoki moderatuak, ez ziren batere iraultzaileak, eta gainera, errepublikanoak, demokratikak eta liberalak ziren²³.

San Andresko Manifestua²⁴ –EAE/ANV sortu zuen programa eta 1936ko ekainera bitarte indarrean egon zena– Sabino Aranaren jarreretatik bilakatu nahi izan ez zuen nazionalismo horren erreplika zen, baina, era berean, berrikuntza bat zen esparru nazionalistan, antolatzeke ereduarengatik eta bere ekintza politikoarengatik. Manifestuak hiru zati zituen: alderdiaren sorrera justifikatzen zuen sarrera bat, programa bera, «Gure programa», eta ondorio politikoak.

Lehenengo zatian, sinatzaileek justifikatzen zuten alderdia agertu zela Bergaran elkartu berri ziren bi adar nazionalistak «mende hasierako bide eta printzipioen ikuskeran itxita zeudelako berriro»; horregatik, sinatzaile horiek euskal nazionalismoaren barruko bilakaerako eta aurrerapeneko mugimenduaren ordezkari gisa aurkeztu zuten beren burua, «honako uste sendo honi erantzunez: euskal nazionalismoa, nazionalismo oro bezala, ezin da aurrez ezarritako formuletan itxi, eta ezin da, halaber, ildo jakin baten eraginpean egon, mugimenduaren funtsak berak eta helburuak eskatzen dituzten atxikipenak eta eransteak kentzeko zigorraren azpian».

Manifestuaren erdialdea hiru epigrafetan banatuta dago: Funtsezko oinarri ideologikoa, bere jardunari buruzko oinarritzko araua eta egungo uneetan jarduteko irizpideak. Alderdi berriaren oinarri ideologikoa euskal ekintza nazionalaren onarpena eta autodeterminaziorako eskubidea ziren, erregimen autonomikoaren eta independentearen artetik zer zuten nahiago adierazi gabe:

Euskadiko pertsonalitate nazionalaren baieztapen afektiboa eta eraginkorra (...) eta baieztapen horretatik sortzen diren eta, aldi berean, kolektibitate nazionalari bere jomugak modu askean eskuratzea ahalbidetuko dion erregimen politikoa defendatzeko eta lortzeko hartutako erabakian gauzatzen diren ondorio natural, logiko eta juridiko guztiak onartzea eta ondorio horiei atxikitzea.

Alderdi horrek jarduteko zuen funtsezko araua Euskadiren pertsonalitatea onartzen zuten alderdi politiko guztiak kidetzat hartzea zen, alderdi horien ideologia edozein izanda ere; eta horri esker, ezkerrekin nahiz eskuinarekin akordioak lortzeko aukera zegoen:

Horri dagokionez, EAE/ANV bere adierazpenean aurreratu zuen herrialdearen pertsonalitatea –berezkoa eta bereizgarria– aitortzen edo onartzen zuen alderdi, erakunde edo indibidualtasun oro kidetzat hartuko zuela, alderdi, erakunde edo indibidualtasun horien gainerako ideologiaren edukia edozein izanda ere. EAE/ANV ideologia horiek guztiak errespetatu zituen, nahiz eta kidetetasun horretarako elkarlanak izan, errespetu bera eskatzen zuen EAE/ANVrentzat eta herrialdean errotuta zeuden sentimenduetarako.

Hirugarrenik, gaur egun jarduteko irizpideak Euskadiri eskainitako jardunak eta Espainiari eskainitakoak bereizten zituen. Euskadiri dagokionez, helburua, lehenik eta behin, honako hau

23 José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco. Estatutos de autonomía, partidos y elecciones. Historia de Acción Nacionalista Vasca: 1930-1936*, Madrid, Siglo XXI, 2008, 43.47. orrialdea.

24 Honako egunkari eta liburu hauetatik bildu dugu: *El Liberal*, 1930-12-03, eta José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, *op.cit.*, 47.51. orrialdea.

zen: euskal ezaugarri nazionalak berreskuratzeko eta hedatzeko eta euskal Aldundien artean mankomunitateak eratze lan egitea; eta bigarrenik, lurra edukitzeari eta kapitalaren eta lanaren arteko harremani eragiten dieten arazoak konpontzen laguntzea Euskadin. Espainiari dagokionez, «kolektibitate nazionalak beren jomugak edukitzeko eskubideak dituztela onartzen duten alderdiekin, Estatu Espainolaren egiturak eta egungoa bezain unitarioa izango ez den egituraketa lortu nahi duten alderdiekin eta eskubide indibidualak hobekien bermatuko dituzten alderdiekin lankidetzan jardutea zen helburua; azken batean, garai hartan errepublika aldarrikatzearekin lotuta zegoen erregimen politiko demokratikoaren alde egiten zuten alderdiekin.

Hirugarren zatian, arestian adierazi dugunez, ondorio politikoak azaltzen ziren. EAE/ANVk lortu nahi zuen Euskal Herriak Penintsulako gainerako herrieekin zituen harremanak adiskidetsuak eta elkarren onurarako izatea, ahalegin inperialistarik gabe, Euskadirekiko maitasunetik sortu zen eta gorrotorik ez zuen alderdi bat zelako. EAE/ANVk gainerako alderdiekin izango zituen harremanak adiskidetasunekoak edo etsaitasunekoak izango ziren, Euskadiren pertsonalitate bereizgarria onartzen zuten edo ezagutzen ez zuten kontuan hartuta. EAJrekin, batez ere, erakusten zuen anaitasuneko sinpatia zuela biak ideal bera lortu nahian zebiltzalako, nahiz eta EAJren burukideekin bat ez etorri haiek mugimendu nazionalistari buruz zuten ikuskerari dagokionez, gorago ikusi dugunez. EAE/ANVren jardun politikoari dagokionez, alderdi horrek legezketasunaren bideari jarraitzen zion, eta erregimen juridiko-politikoaren bilakaera – herrialdeak eskatzen zituen formula berrietan gauzatuko zena– lortu nahi zuen.

Nahiz eta San Andresko manifestua EAE/ANV sortu zuen manifestua izan, alde batera uzten ditu funtsezko gai batzuk, hala nola, erlijioaren, gizartearen, errepublikaren gaiak edo immigrazioaren edo maketismoaren gaiak. Manifestu hori osatzeko, 1931. urtearen hasieran, *Acción Vasca* EAE/ANVren egunkari nagusian programazioari buruz egiten zituzten adierazpenak hartu beharko ditugu kontuan, alderdi nazionalista, ez-konfesionala, demokratikoa eta Errepublikaren aldekoa zela esan baitzen egunkari horretan. Hala eta guztiz ere, garai hartan euskal nazionalismoarentzat oso interesgarriak eta berriak ziren gauza asko eskaintzen dizkigu, hala nola JEL leloa desagertzea, Espainiako alderdi demokratiko eta ez-zentralistekin loturak izateko irekita egotea, eta 1930era bitarte bereizita egon ziren bi ideologia elkartzea: euskal nazionalismoa eta liberalismoa.

EAE/ANV Bilbotik hasi zen hedatzen Euskadiko gainerako herrietara eta Nafarroara. Bilbotik hasi zen hedatzen hiriburu horretan zegoelako EAE/ANVren egoitza soziala, Eusko-Etxea. Gainera, egoitza horretan zuten beren egoitza Batzorde Nazionalak eta alderdiko kide ziren egunkariaren erredakzioak eta administrazioak. Bilbon ez ezik, Barakaldon ere EAE/ANVren elkarte indartsu bat zegoen, arestian esan dugunez, Barakaldoko Euskal Gazteriaren afiliazioa zegoelako. Indartsuenak ziren bi gune horietatik kanpo, EAE/ANV berehala hedatu zen Bizkaiko probintzian zehar²⁵ eta Gipuzkoan barrena²⁶ 1931. urtean. Konplikatuagoa izan zen Araban barrena hedatzea, Gasteizen izan ezik²⁷, eta Nafarroan barrena hedatzea²⁸, klerikalismoaren eragina handiagoa zelako probintzia horietan.

25 José Luis de la Granja adierazi zuen elkarteak zeudela Bilbo Handiko eskualdeko herrietan ez ezik, barnealdeko herrietan, hala nola Durangon, Igorren edo Zornotzan, eta kostaldeko herrietan ere, hala nola Lekeition, Plentzian, Gorlizan edo Bermeon bertan. José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit, 57.60. orrialdea.

26 Egile horrek berak apirilaren 14a baino lehen adierazi zuen EAE/ANVren elkarteak zeudela Donostian, Eibarren, Pasaian eta Arrasaten, eta errepublikak irabazi ondoren Iruñen, Errenterian, Tolosan, Bergaran... José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit, 60. orrialdea.

27 EAE/ANV 1931. urteko martxoan sortu zen Gasteizen. Probintzia horretako gainerako herrietan ez zen ezarri. José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit, 60. orrialdea.

28 EAE/ANV oso berandu eratu zen Iruñean, 1933. urtean hain zuzen ere, baina probintziako gainerako herrietan ez zen ezarri. José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit, 61. orrialdea.

Alderdi horretan sartu zen berehala Gonzalo Nardiz. Litekeena da Nardiz ez izatea EAE/ANVko kide alderdi hori sortu zenetik, baina seguruenik sortu eta berehala egin zela kide. Gogoratu behar dugu EAE/ANV sortu zuten eta «San Andresko Manifestua» sinatu zuten kideen artean José Manuel Ispizua bermeotarra zegoela, eta gorago ikusi dugunez, Ispizua diputatu probintzial ohia, Bermeoko alkate ohia eta Comución Nacionalista Vasca alderdiko militante ohia izateaz gain Gonzaloren adiskide mina zen, eta litekeena da Ispizuak Gonzaloren eta Asteinza medikuaren etxean egiten ziren beste kide batzuen «cicerone» moduan jardutea alderdi politiko berrian sartzeko.

Gonzalok berak esan digu noiz hasi zen EAE/ANVko kide izaten, eta alderdi berri hartatik zerk erakarri zuen:

30eko hamarkadan hasi nintzen Eusko Abertzale Ekintza ezagutzen. Nazionalismoaren postulatuetan edo ideiak errealitatearen eskakizunekin bat ez zetozela zekiten gizon nazionalista batzuen jarrera zen niretzat. Gizon horiek ikusi zuten euskal herria odolusten ari zela barrutik; euskal herriaren nortasuna itxuragabetzen ari zen. Behin betikoa edo tartekoa izango zen, baina, nolana ere, funtsezkoa izango zen soluzio politiko bat behar zela uste zuten euskal herriak autonomiaren formula batean bizirauteko.

Bestalde, Eusko Abertzale Ekintzari hasiera eman zioten gizonak konturatu ziren nazionalismoa, berez, ez zela nahikoa soluzio hori bilatzeko. Hortaz, beste indar politiko ez nazionalista batzuen laguntza behar zuten, baina horregatik ez zuten alde batera uzten Euskadirekiko debozioa eta elkarrekin bila zezaketen soluzio autonomikoa²⁹.

EAE/ANVren sortzaileei dagokienez, Gonzalo Nardizek argi utzi zigun berak ez zuela parte hartu alderdiaren sorreran, eta berriro ere honako hau esan zuen:

Nik oso gutxi bizi izan dut politikaren aldi hori. Ez nintzen politikaz arduratzen. Ia gehienak Alderdi Nazionalistako pertsona garrantzitsuak izan ziren. Esteban Urrengoetxea, Anacleto Ortueta, José Manuel Ispizua, Julián Arrien, Guimón, Gárate, Gallastegui, Antonio Villanueva, eta abar. Guztiak liberalak ziren (...) Ekintza Nazionalistaren programak, hots, San Andresko Manifestuak, hasieran ezartzen du euskal naziotasunaren finkapena bere ondorio guztiekin. Berehalako soluzio politikoak bilatuko ditu, herrialdeak nahikoa tresna politiko behar zituelako euskal herritarrek ez haserretzeko. Horixe izan zen hasiera, nire ustez³⁰.

29 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 1. orrialdea.

30 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 2. orrialdea.

4. ERREPUBLIKA LORTZE ALDERA

Berenguer jeneralak Miguel Primo de Riveraren ordeztu boterea hartu zuenean, «dictablanda» izeneko aldi bati eman zion hasiera. Aldi horretan gizarteko giroa eta gizarte-matxinadak lasaitu nahi zituen eta, horretarako, Primo de Riverak hartutako neurri batzuk indargabetu zituen. Berenguerrek Gorteetarako hauteskundeetarako deialdia egin zuen 1931ko urtarrilean, uste zuelako Berrezarpeneko jauntxo-sistemak jarraipena emango ziola Alfontso XIII.aren monarkiari 1923. urtetik 1930. urtera bitarte ezer gertatu izan ez balitz bezala. Alabaina, indar politiko gehienek Berrezarpenaren «istiluan» berriz ere parte hartzeari uko egin ziotenez, amaitu egin ziren gutxi iraun zuen hauteskunde-deialdia eta Berenguerren gobernua bera. Berenguerrek porrot egin ondoren, Aznar almirantea jarri zen gobernuan, eta 1931ko apirilaren 12an udal-hauteskundeetara deitu zuen, oposizioak eskatzen zion bezala; izan ere, bere aurreko agintariak bezala, Aznarrek uste zuen 1876ko konstituziotik ateratako normaltasunera itzuliko zirela.

Hauteskunde berri horiek plebiszitu bihurtu ziren Monarkiarentzat eta errepublikanoek eta sozialistek aukera eman zien 1919an amaitu zuten aliantza berrargitaratzeko. Errepublikanoek eta sozialistek elkarrekin osatu zituzten zerrendak hauteskundeetara aurkezteko eta hautagai monarkikoei aurre egiteko. Koalizio errepublikano-sozialistak irabazi zuen probintziako hiriburu gehienetan, baina garaipen globala monarkikoentzat izan zen jauntxoek landa-eremuan egin zituzten azpikoengatik. Erregeak abdikatu egin behar izan zuen; horregatik, Espainiatik kanpo atera zen erbestera. Apirilaren 14an II. Errepublika aldarrikatu zen eta errepublikanoek eta sozialistek osatzen zuten iraultza-batzordea Estatuaren Behin Behineko Gobernu gisa osatu zen³¹.

Euskadin, martxoaren erdialdean, errepublikanoek eta sozialistek beste indar politiko batzuei eskatu zieten “bloque antidinástico” delako alderdian sartzeko, eta EAE/ANV aipatu zuten esplizituki. EAE/ANVk martxoaren 15ean egindako Batzarrean proposatu zuen errepublikanoak eta sozialistak gonbidatzea, eta erabaki zuten egokia zela «Euskadiren nortasun bereizgarria onartzen zuten» alderdi demokratikoekin batera aurkeztea hauteskundeetara; gainera, EAE/ANVk proposatu zuen EAJ ere gonbidatzea bloque antidinástico alderdira. Hurrengo egunean, errepublikanoek, sozialistek eta EAE/ANVko kideek beren hauteskunde-akordioa sinatu zuten eta EAJ gonbidatu zuten koalizio horretan parte hartzera, baina EAJk ez zuen gonbidapen hori onartu Espainiako eskuinaren eta ezkerren aurka zegoelako, eta, gainera, Espainiako ezkerrek antiklerikalak zirela esaten zuelako³².

Alderdi errepublikanoek, PSOEek eta EAE/ANVk beren hauteskunde-manifestua atera zuten geroago³³. Manifestu horretan, alderdi politikoei, bakoitzak bere fisionomiari eusten

31 Monarkiaren eta Errepublikaren arteko trantsizioa, Alfonso XIII.ak Espainian emandako azken egunak eta buruzagi errepublikano berriak botereaz jabetzea Rafael Borrás Betriuren *Cambio de régimen* liburuan kontatzen dira. *Caída de la Monarquía y proclamación de la República*, Madril, Flor del Viento Ediciones, 2000.

32 José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit, 92.94. orrialdea.

33 1931-04-08ko *El Liberal* egunkarian jasota dago.

ziola eta tokiko beste alderdi batzuk ez egotea sentitzen zutela adierazi ondoren, esan zuten komenigarria zela alderdi politiko guztiak elkarrekin aurkeztea udal-hauteskundeetara «herriaren subiranotasunaren funtsezko printzipioak defendatzeko, gizakien eskubideak errespetatzeko eta autonomiak aintzatesteko», horixe baitzen alderdi bakoitzaren ideien oinarri erkidea. Jarraian, Erregearekin ados jarrita diktadurak urratutako printzipioak eta eskubideak zerrendatu ondoren, esan zuten ziur zeudela «egoera larri hori Botere zaharkituen ordezkari Errepublikan demokratiko federal bat jarri soilik konpon daitekeela». Politikaren arloari dagokionez, helburuak honako hauek ziren: gizabanakoaren askatasun eta eskubide guztiak lehengoratzeko eta erantzukizunak eskatzea Koroari; arlo ekonomikoari eta sozialari dagokionez, langileriaren eskubideak bermatzea justizian oinarrituta dauden eskubide sozial modernoaren printzipioen bitartez; eta Estatuaren egiturari dagokionez, printzipio federala ezartzea penintsulako pertsona ospetsuak eta udaleko eta eskualdeko autonomiak onartzea oinarritzat hartuta; izan ere, printzipio horren bitartez, Euskadiko herritarrek beren askatasunak eta eskubideak errespetatzeko berme sendoenak aurki litzateke.

EAE/ANVk oso modu aktiboan hartu zuen parte bloque antidinástico alderdiaren hauteskunde-kanpainan, mitin askotan esku hartu baitzuen hautagaiak aurkeztu ziren lekuetan. Beren diskurtsoetan erabat onartu zuten diskurtso errepublikanoa, gogor egin zuten monarkiaren aurka eta beren alderdiaren ez-konfesionaltasuna defendatu zuten. Hauteskundeak egin baino bi egun lehenago, hau da, 1931ko apirilaren 10ean, Bilbon egin zen kanpainako mitin nagusia, EAE/ANVko kide Julián Arrien tokiko errepublikanoekin batera azaldu zen, hau da, Ramón Madariagarekin eta Ramón Aldasororekin, Julián Zugazagoitia sozialistarekin eta Victoria Kent errepublikano nazionalarekin batera. Arrienek azaldu zuen bere alderdiak bloque antidinástico alderdiarekin elkarlanean jardun zuela errepublikanismoaren alde zeudelako; era berean, EAJren aurka egin zuen alderdi hori bloque alderdian sartu ez zelako eta gai erlijiosoak zela medio jeltzaleek egindako akusazioetatik defendatu zen; izan ere, jeltzaleek EAE/ANVren ez-konfesionalismoan oinarrituta esaten zuten alderdi hori antiklerikala zela³⁴.

Esan daiteke EAE/ANVren hauteskunde-emaizak onak izan zirela; izan ere, 1931ko apirilaren 12an EAE/ANVk 4 hilabete baino ez zituen eta, beraz, alderdi politiko txikia zen. Zalantzarik gabe, errepublikanoekin eta sozialistekin egindako koalizioak abantaila asko ekarri zizkion eta tamaina txikikoa izateagatik legokiokoen ordezkari bakoitzak bakoitzak handiagoa izatea ekarri zion. Bizkaian, EAE/ANVk 32 zinegotzi lortu zituen apirilaren 12an, Bilbon lortu zituen 7ak eta Barakaldon lortutako 5ak edo Arrigorriagako 4ak nabarmendu behar ditugu; gainerako zinegotziak Nerbioi ibarretan eta Meatzaldean zeuden batez ere³⁵, baita Bizkaiaren barrualdeko eta kostaldeko herrietan ere, hala nola Gernikan, Zornotzan, Plentzian eta Bermeon³⁶. Gipuzkoan, bestalde, EAE/ANVk 6 zinegotzi lortu zituen honako herri hauetan: Pasaian, Arrasaten, Mendaron, Zumarragan eta Ordizian.

Hainbat udalerritan hauteskunde-irregulartasunak izan zirela ikusi zen, eta udalerririk horietan berriro egin ziren udal-hauteskundeak maiztasun 31n. Hauteskunde horiek egin ondoren, EAE/ANVren presentzia handiagoa izan zen Udaletan. Bizkaian, 39 udalerritan errepikatu ziren hauteskundeak. Udalerririk horietan EAE/ANVk 27 zinegotzi lortu zituen Bloque alderdiaren zerrendetan, eta herri txikietan beste 5 zinegotzi lortu zituen EAJrekiko koalizioan³⁷. Emaizta oso ona izan zen EAE/ANVrentzat, Arrigorriagako eta Gorkizko alkateak lortu baitzituen.

Antzaenez, Bermeon, EAE/ANVren muina Gonzalo Nardizek eta haren konfiantzako kideek

34 José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit, 96. orrialdea.

35 3 zinegotzi lortu zituzten Erandion, 2 Sestaon eta Portugaleten, eta 1 Getxon, Abanton, Muskizen eta Trapagan.

36 2 Bermeon eta Gernikan eta bat Plentzian eta Zornotzan.

37 EAE/ANVk honako emaitza hauek lortu zituen: 5 zinegotzi eta alkateak Gorkizen; 3 zinegotzi eta alkateak Arrigorriagan; 3 zinegotzi Bermeon, Bedian, Loiu eta Zaratamon; 2 Karrantzan, Mallabian eta Mendatan; 1 Gernikan, Galdakaon, Plentzian eta Berriatuan. José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit, 115.117. orrialdea.

osatzen zuten, hau da, arestian ikusi dugunez, liburuak irakurtzeko eta liburu horiei buruzko iruzkinak egiteko etxebizitza partikularretan biltzen ziren kideek. Ander Delgadok dioenaren arabera, Bermeoko EAE/ANVren muina kultura-maila handiko talde elitista bat zen, tokiko biztanle gehienengandik urrun zegoen taldea, alegia; horregatik, ez ziren gehiegi ezarri herrian³⁸.

Gonzalok berak esan digu Bloque Antidinástico alderdiaren egoera oso txarra zela Bermeon hauteskundeen aurreko garai hartan:

Egia esan, Bermeon ez zegoen ez errepublikanorik, ez sozialistarik, eta abar. Pertsona batzuk bakarrik zeuden. Abertzale Ekintza alderdia ez zegoen. Hortaz, monarkiaren aurkako hautagaitzari eman genion botoa Gobernurako. Gogoan dut Basterretxea etorri zela eta eskatu zidala Julián Asteinzak eta nik, monarkiaren aurkako blokeko hautagaiak ginenez, utz geniezaiola Alderdiko hautagaitzan parte hartzen. Ezetz esan genion, ez zelako bideragarria. Guri monarkiaren aurkakoak ginela esaten ziguten, ezizen hori genuen, eta indarren bateratze horri leialtasunez erantzun nahi genion³⁹.

Apirilaren 12ko hauteskundeetara 4 hautagaitza aurkeztu ziren Bermeon, EAJkoa, Liga de Acción Monárquica koaliziokoa, Unión Patriótica alderdikoa eta Bloque Antidinástico alderdikoa. Azken hautagaitza horretan zegoen EAE/ANV. Bloque alderdiak mitin bat antolatu zuen apirilaren 11n, hauteskundeak baino egun bat lehenago, Salón Ideal Cinema aretoan. Mitin horretan Santi Meabek hartu zuen parte eta Sabino Aranari, EAJri eta monarkiaren eta errepublikaren arteko eztabaidari buruz hitz egin zen, besteak beste⁴⁰. Gainera, bi manifestu atera zituzten; manifestu bat José Manuel Ispizuak sinatu zuen eta bestea Gazte Sozialistak⁴¹. *El Liberal* egunkariaren arabera, manifestu horiek «jende askok irakurri zituen».

Bermeoko hauteskunde-emaitzek⁴² erakutsi zuten EAJ izan zela erabateko garailea, botoen % 41,7 eta 19 zinegotzietatik 13 lortu baitzituen. Liga de Acción Monárquica alderdiak botoen % 24,8 eta 4 zinegotzi lortu zituen, Bloque Antimonárquico alderdiak botoen % 24 eta bi zinegotzi lortu zituen, hots, Gonzalo Nardiz eta Cosme Ibarlucea; aitzitik, Unión Patriótica alderdiak emandako botoen % 8,1 lortu zituen eta ez zuen ordezkariarik izan. Nardiz eta Ibarlucea Eskolen hauteskunde-barrutitik aurkeztu ziren eta 221 eta 209 boto lortu zituzten, hurrenez hurren. Nardizen beste lagun eta alderdikide batzuk, hala nola Julián Asteinza edo José Manuel Ispizua, ez ziren hautatuak izan.

38 Ander Delgado Cendagortagarza, *Bermeo en el siglo XX...*, op. cit., 255. orrialdea.

39 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 2. orrialdea.

40 *El Liberal*, 1931-04-10.

41 *El Liberal*, 1931-04-12. Egunkarian soilik aipatzen da manifestuak zeudela, baina ez da testurik txertatzen.

42 Ander Delgado Cendagortagarza, *Bermeo en el siglo XX...*, op. cit., 260.261. orrialdea. eta *Euzkadi*, 1931-04-15.

5. BERMEOKO UDALA

Bermeon, apirilaren 14ko gauean, manifestazio bat egin zen Errepublika aldarrikatzeko udalerrian. Manifestazio hori Batzokitik atera eta Udaletxera joan zen udalbatza berri bat osa zedin eskatzeko. Aho batez, Nicolás Layuno abertzalea aukeratu zuten alkate eta alkateorde izateko EAJko burukide ziren Florencio Basterrechea, Gonzalo Albaina eta Julián Uriarte eta EAE/ANVko Cosme Ibarlucea hautatu zituzten. Zinegotzi berriek egin zuten lehenengo gauza Errepublika Federala onartzea eta Errepublika hori sendotzea izan zen. Horretaz gain, Euskadiko Errepublika Espainiako Errepublikaren barnean onartzea eskatu zuten, Alfonso XIII. aren argazkia kendu zuten, bandera errepublikanoa eta Bermeoko bandera goititu zituzten, eta atxikimendu-telegrama bat bidali zioten behin-behineko gobernuko presidente Niceto Alcalá-Zamorari⁴³.

Hilaren 23an behin betiko eratu zen Udala, udal-batzordeak izendatu ondoren. Nardizek Gizarte Ekintzako batzordea eta 1923. urtetik 1930. urtera bitarte udalak hartutako erabakiak berrikusteko batzorde berezia osatu zituen⁴⁴. Batzorde hori diktadurako udalbatzen jarduna berrikusteko eratu zen «mendeku hartzeko eta jazartzeko asmorik izan gabe, herritarren aldeko justizia egiteko eta herritarren nahia betetzeko soilik», baina batzorde horren ondorioz EAJren eta Bloque alderdiko zinegotzien, hau da, Nardizen eta Ibarlucearen arteko lehenengo liskarra sortu zen. Bloqueko zinegotziek uste zuten batzordean iragartzen zen fede on hori kezko hesi bat zela aurreko udalbatzen erantzukizunak sakonago ez aztertzeke; horregatik, gehiengo lortu zuten abertzaleei zuzentasunez joka zezatela eskatu zieten; abertzaleek zinegotzi antidinastikoen jarrera gaitzetsi zuten eta adierazi zuten batzorde hori ondorio guztiekin eraman nahi zutela aurrera.

Hala eta guztiz ere, liskarrik gogorrena udal-hauteskunde berrietarako deialdia egin zenean sortu zen. Bloque Antidinástico alderdiak uste zuen zirkunstantzia politikoak erabat aldatu zirenez, monarkikoen udalbatzetan parte hartzen ez bazuten zinegotzi gehiago lortuko zituztela; horregatik, bozketak egin nahi zituzten berriro. Izan ere, Gonzalo Nardizek, 1931ko apirilaren 28ko bilkuran, alkatea zalantzan jarri zuen, udala eratzearen legezotasunari dagokionez, eta alde egin zuen osoko bilkuratik lehenengo zinegotziak erantzun ondoren⁴⁵. EAJ, jakina, arrazoibide horren aurka zegoen eta EAE/ANV akusatu zuen zuzenean, EAE/ANV udalerrian zuen botere-kuota handitu nahi zuelako.

Horregatik, gobernuak Bermeoko udal-hauteskundeak bertan behera utzi zituenean eta maiatzaren 31rako beste hauteskunde batzuetarako deialdia egin zuenean, hertsapenak argudiatuz eta kudeaketa-batzorde bat izendatuz, EAJ EAE/ANVren aurka jarri zen. Jeltzaleen ustez, herri-subiranotasunaren aurkako eraso bat eta erabaki arbitrario bat zen; izan ere, hauteskundeak egin zirenean inork ez zuen protestarik egin.

43 Ander Delgado Cendagortagarza, *Bermeo en el siglo XX...*, op. cit., 263. orrialdea.

44 *Euzkadi*, 1931-04-24.

45 *Euzkadi*, 1931-05-05.

Gobernadoreak izendatutako batzordeko kideek beren karguak hartu behar zituztenean, hots, maiatzaren 22an, hasi zen abertzaleen presioa kalean nabaritzen. Kide horien artean EAE/ANVko Nardiz, Ibarlucea eta Toja kideak zeuden. Kargua hartu behar zutenak udaletxera hurbildu zirenean talde batzuek jarrera mehatxagarriz hartu zituzten. Talde horiek Gonzalo Nardizi utzi zioten igarotzen, zinegotzi hautetsia izan zelako, baina Tojari ez zioten igarotzen utzi, eta bi udaltzainekin etorri arren alde egin behar izan zuen; Ibarlucea ez zen saiatu ere egin jendartearen sartzen. Udaletxean zegoela, Nardizek gertatu zenaren berri eman zion gobernadoreari; bitartean, gero eta jende gehiago ari zen elkartzen «Gora Euskadi» oihukatuz. Gobernadoreak kudeatzaileei eskatu zien irmo eusteko beren karguei, baina kudeatzaileek adierazi zuten uko egin nahi zietela beren karguei, horrekin indarra ez erabiltzea lortzen bazen. Azkenik, gaueko 11:00ak arte jendea ez zen sakabanatu, kudeatzaileek beren postuei uko egin zietelako berria jakin ondoren alde egin zuten⁴⁶.

Maiatzaren 25ean, Bermeoko alkate Florencio Basterrechea eta Gonzalo Nardiz gobernadorea ikustera eta Bermeon gertatu zenaren berri ematera joan ziren. Gobernadoreak behin eta berriz esan zien kudeaketa-batzordeko kideek beren karguak hartu behar zituztela, gobernu-agindu bat etetea gai irristakorra zelako. Nardizek, bestalde, kudeatzaile-lanak betetzeko ukoa onartzeko eskatu zuen, Bloque Antimonárquico alderdiaren jarrera arrisku handian egon zitekeelako⁴⁷.

Kudeaketa Batzordeak bere kargua hartu zuen egunean, gobernadoreak Bermeo bisitatu zuen konponbide bat lortzen saiatzeko, baina emakume talde handi batek ez zion Batzokira iristen utzi, Batzokian bildu behar baitzuen alkatearekin eta Nardiz eta Ibarlucea zinegotziekin; hortaz, bilera Udaletxean egin zen azkenean. Bileran horretan, gobernadoreak EAJren eta Bloque alderdiaren iritziak entzun ondoren, onartu zuen bidegabekeria bat egin zuela hauteskundeak bertan behera utzi zituelako eta erabaki zuen Eskoletako hauteskunde-barrutiak –hots, erreklamaziorik jaso ez zuen eta Nardiz eta Ibarlucea aukeratu zituen barrutiak– hautatutako zinegotziek osatzea kudeaketa-batzordea hauteskunde berriak egin arte. Erabaki horrek Bloque alderdiaren haserrea eragin zuen, alderdi horren ustez EAJren aurrean amore ematea baitzen, baina gobernadoreak esan zuen erabaki hori hartzearekin istilu gehiago ez izatea lortu nahi zuela⁴⁸.

Amorru-giro horretan egin ziren maiatzaren 31ko udal-hauteskundeak Bermeon. Hauteskunde horietan ere EAJk irabazi zuen, botoen % 57,9 eta 14 zinegotzi lortu baitzituen; Bloque alderdiak, aldiz, botoen % 37,3 eta 5 zinegotzi lortu zituen. Nardiz Eskoletako hauteskunde-barrutiak aukeratu zuen berriro ere. 345 boto lortu zituen barruti horretan. Nardizekin batera, Bloqueak EAE/ANVko Julián Asteinza, Eugenio López de Letona eta José Manuel Ispizua hautatu zituen, baita Publio Zulueta errepublikanoa ere, baina zerrendako hainbat kide kanpo geratu ziren, hala nola lehen ere aipatu ditugun Cosme Ibarlucea eta Benito Barrueta⁴⁹. Nardiz diktadurako Udalaren erantzukizuneko batzordearen nominan sartu zen berriro ere.

Nazionalismoa udalean gehiengoduna zenez, Bloque alderdiak herrian izan zezakeen eragina murrizten saiatu zen. Alde batetik, «garbiketa» bat egin zuen udaleko langileen artean UGTri lotutako langile-erakundeei lotuta zeuden langileen garrantzia mugatzeko. Bloque Antimonárquico taldea osatzen zuten alderdi politikoen aldeko udaltzainak eta udalaren Ikasketa Zentroko irakasleak beren postuetatik kentzen saiatu zen udal-gobernua. Udaleko Bloqueko zinegotziek EAJren asmo hori salatu zuten eta adierazi zuten ideia «separatistekin» bat etortzen ez ziren funtzionario guztiak jazartzen ari zirela, eta Kudeaketa Batzorde Probintzialari

46 Gertatukoaren kontaketa egunkari hauetan irakur daiteke: *El Liberal*, 1931-05-23; *El Noticiero Bilbaino*, 1931-05-23; *Euzkadi*, 1931-05-23; baita hemen ere: Ander Delgado Cendagortagarza, *Bermeo en el siglo XX...*, op. cit., 270. orrialdea.

47 Martínez de Aragón gobernadoreak, ordea, Nardiz eta Ibarlucea kudeatzaile izendatu zituen berriro ere, baina Toja ez; haren ordez Publio Zulueta jarri zuten. *El Liberal*, 1931-05-26; *Euzkadi*, 1931-05-29; Ander Delgado Cendagortagarza, *Bermeo en el siglo XX...*, op. cit., 270. orrialdea.

48 *Euzkadi*, 1931-05-29; *El Liberal*, 1931-05-28 eta 1931-05-29.

49 *El Liberal*, 1931-06-02; *Euzkadi*, 1931-06-11.

eta gobernadoreari eskatzen ziotela kaleratzeak ezeztatuzat emateko eta kaltetutakoak beren lanpostuetara itzultzeko⁵⁰.

Bestalde, udalaren Zahar-etxea/Ospitalea eta eroetxea ogiz hornitzen zituen okindegiaren kontratuaren gainean Teodoro Olarte gasteiztar errepublikanoak –garai hartan Arabako Aldundiaren Kudeaketa Batzordeko presidente zenak– 1905az geroztik zeukan errentamendua baliogabetzen saiatu zen Udala. Olarte oso pertsona garrantzitsua zenez, gaiak ere garrantzi handia hartu zuen eta Bizkaiko Kudeaketa Batzordearen presidente Rufino Laisecak, gobernadore zibilak eta Gobernu Zentralak ere parte hartu zuten gai horretan; azken horrek udal-erabakiak eten egin zituen⁵¹.

Hain handia zen abertzaleen eta errepublikanoen arteko tentsioa ezen errepublikanoek Barne Arazoetako ministroaren aurrean salatu baitzuten bandera errepublikanoa ez zegoela behar bezala zintzilikatuta udaletxeko balkoian eta bandera «separatista», ordea, ederki zabalduta zegoela. Hori zela medio, gobernadore zibilak isun bat jarri zion Bermeoko alkateari, eta alkate horrek, aldi berean, Publio Zulueta zinegotzi errepublikanoari leporatu zion salaketa faltsua egin zuela⁵².

Gonzalo Nardizek denboraldi horretan udalbatzan egindako jarduerari dagokionez, 1931ko uztailaren 21eko bilkuran proposatu zuen mozioa nabarmendu behar da. Mozio horretan proposatu zuen euskara irakasteko gela bat sortzeko herrian eta matrikula lehenbailehen irekitzeko. EAJk oso harrera ona egin zion proposamenari; EAJk espero zuen gela hori lehenbailehen irekitzea langileek baliatu ahal izateko⁵³.

Halaber, nabarmendu behar da prentsa nazionalistan esaten zela Bloqueko zinegotzien artetik Nardiz bakarrik joaten zela Udalaren bilkuretara eta erantzukizun-batzordeko bileretara. Informazio horiek kontu handiz hartu behar dira jeltzaleen eta errepublikaren aldekoen artean lehia handia zegoelako, baina horrekin ikus dezakegu gure pertsonaia«ondo samar ikusita zegoela» aurkako fakzioan⁵⁴.

1931. urtearen amaieratik 1932. urtera bitarte, Bermeon gora egin zuen EAJren aldekoen eta Bloqueko alderdi errepublikanoen aldekoen arteko tentsio politikoak. Alde batetik, polarizazio politikoa Kofradiara igaro zen, eta Kofradian istilu larriak izan ziren. Bestalde, denboraldi horretan bi blokeetako propaganda politikoa ugaritu egin zen, bereziki errepublikaren aldeko blokekoa, ordura arte EAJren azpitik egon baitzen propagandari dagokionez. Prentsan azaltzen da ekitaldi ugari izan zirela, hala nola mitinak, txangoak, gaubilerak, jaiak, hitzaldiak, eta abar.

Horrek guztiak haztegia sortu zuen gatazka edozein unetan sortzeko. Hortaz, Kofradiaren gatazkan esparru errepublikanotik gehien nabarmendu zen pertsona baten omenez tokiko errepublikanoek antolatutako ekitaldi baten ondorioz, probintziako gobernadore zibil berriak, José María Amilibiak, bere kargutik kendu zuen Bermeoko alkate Florencio Basterrechea abertzalea. Ekitaldi horretan bandera estandarte bat eman zitzaion Guardia Zibilari. Kontua da Amilibiak 1932ko urriaren hasieran hartu zuela bere kargua eta herriak oso kontuan hartuko zituela adierazi zuela, Errepublikaren hurbileko elementuek isekarik ez jasateko, eta, ildo horretan, Bermeo zen enfrentamendu politikoa tentsio-maila handienetara iritsi zen lekuetako bat.

50 Ander Delgado Cendagortagarza, *Bermeo en el siglo XX...*, op. cit., 277. orrialdea

51 Ander Delgado Cendagortagarza, *Bermeo en el siglo XX...*, op. cit., 277.280. orrialdea.

52 Ander Delgado Cendagortagarza, *Bermeo en el siglo XX...*, op. cit., 280. orrialdea.

53 *Euzkadi*, 1931-08-05.

54 *Euzkadi*, 1931-10-09.

Hortaz, kargua hartu eta handik bi egunetara, Amilibiak bere kargutik kendu zuen Basterretxea, Guardia Zibilaria bandera emateko ekitaldi horretara ez zelako joan bertaratutako agintariei lagunduz; berriro ere esan zen, halaber, bandera errepublikanoa udaletxeko balkoiko mutur batean zegoela, eta bandera nazionalista, ordea, balkoiaren erdi-erdian.

Amilibia herrira joan zen errepublikanoen salaketen egiazkotasuna eta nazionalistek emandako elkarren kontrako bertsioen egiazkotasuna egiaztatzen. Amilibiaren iritzia oso kontrakoa izan zen; izan ere, talde nazionalistek mehatxatu eta astindu egin zituzten Amilibia eta bere laguntzaileak Udaletxerantz zihoazenean. Hori gertatu ondoren, Amilibiak Barne Arazoetako ministroari gomendatu zion Bermeoko Udal osoa bertan behera uztea Errepublika Defendatzeko Legearen babesean, eta ministroak berretsi egin zuen gomendio hori. Gobernadoreak Behin-behineko Batzorde bat izendatu zuen udalbatza zuzentzeko. Batzorde hori erregimenaren aldeko hainbat profesionalek eta langilek osatzen zuten, baita EAE/ANVko kide Gonzalo Nardizek eta Santiago Ulibarrik ere.

Bloqueko alderdi batzuk erabaki horren alde zeuden, baina beste batzuk ez, ordea, esate baterako EAE/ANV. Alderdi horrek garai hartan erakutsi zuen ez zegoela ados gobernuko politika errepublikanoarekin euskal gai autonomistari dagokionez; horregatik, alderdi horrek batzarrean erabaki zuen bere alderdikide Nardizentzat eta Ulibarrizentzat izendatutako postuak ez onartzea, alderdi horrek uste zuelako Udala bertan behera uzteko erabakia herritarrek sufragio bidez adierazi zuten nahiaren aurka zegoen neurri antidemokratikoa zela⁵⁵.

55 *El Noticiero Bilbaino*, 1932-11-02. Ander Delgado Cendagortagarza, *Bermeo en el siglo XX...*, op. cit., 298.308. orrialdea.

EAE/ANV BIURTEKO AURRERAZALEAN

Errepublika aldarrikatu ondoren, EAE/ANVk alderdia barrutik antolatu zuen berehala, alderdi horrek bere helburuak bideratzen zituen behin-behineko batzorde bat baitzeukan oraindik. Horregatik, apirilaren 15ean Batzorde Betearazle Nazionala eratu zen. Batzorde horrek prentsan azaldu zen manifestu bat argitaratu zuen. Manifestu horretan Batzordeak EAJ kritikatzeko zuen eta jeltzaleekin izandako ustezko bat-egiteari buruzko zurrumurrua gezurtatu zuen. Bi egun geroago, Batzorde horrek berak beste manifestu bat argitaratu zuen. Manifestu hori oso interesgarria zen ikuspegi politikotik begiratuta, Espainiako Errepublika Federalarekin bat egiten zuelako, Donostiako Itunaz geroztik egindako ibilbideari dagokionez Katalunia jartzen zuen Euskadik jarraitu behar zuen eredu gisa, Bizkairako, Arabarako, Gipuzkoarako eta Nafarroarako behin-behineko erakunde bat sortzea nahi zuen, erakunde horren helburua Espainiako Errepublikaren barruan euskal estatu bat sortzea izanik, nahiz eta alderdiaren azken asmoa euskaldunak Pirinioetako hegoaldean eta iparraldean gobernu bakar batean biltzea zen⁵⁶.

Autonomiari buruzko gaia alde batera utzita, geroago hitz egingo dugu horri buruz, EAE/ANVk aurre egin zion beste gai garrantzitsu bat Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeak izan zen. Errepublikanoen eta sozialisten arteko harremanak hoztu egin ziren autonomia-prozesua zela medio; izan ere, EAE/ANVko kideek nahi zuten beren koalizioako kideek «osorik» onartzea Eusko Ikaskuntzaren proiektua, haien ustez ez baitzen nahikoa sozialistek eta errepublikanoek egiten zuten «funtsezko» onarpenarekin. Errepublikano-sozialistek eta EAE/ANVko kideek elkarri hainbat gutun bidali ondoren, EAE/ANVko kideek Batzarrean, hauteskundeetan parte hartzea erabaki zuten, baina Bloque Antidinástico alderditik kanpo, nahiz eta erabaki horrek Bizkaiko probintzia soilik hartu eraginpean. Oso erabaki arriskutsua zen, EAE/ANV sortu berria eta txikia zelako, eta gainera, baliabide ekonomorik ez zuelako, ezta hurbileko prentsarik eta hauteskunde-kanpaina prestatzeko denborarik ere; gehiegi fidatu ziren beren ibilbide politikoaz eta beren garrantzia goizegi kuantifikatzea erabaki zuten eta hauteskundeetan horrenbesteko arrakasta lortzen lagundu zion errepublikaren aldeko indarrekiko aliantzatik urrundu egin ziren⁵⁷.

EAE/ANVk bakarka aurkeztu zituen hautagaitzak Bizkaia-hiriburuko barrutian eta Bizkaia-probintziako barrutian. EAE/ANVk bere indarra kuantifikatu nahi zuen, baina kolpe ederra hartu zuten buruzagiek emaitza horiekin; izan ere, Bizkaia-hiriburuko barrutian botoen % 3,8 lortu zuten eta Bizkaia-probintziako barrutian, aldiz, emandako botoen % 4,6. 4.000 pertsonak baino gutxiagok erakutsi zuten EAE/ANVrekiko konfiantza Bizkaiko lurralde osoan. Datuek argi eta garbi erakusten dute ez zutela batera ondo asmatu alderdia Bloquetik ateratzearekin eta hauteskundeetan bakarka parte hartzearekin, eta egiaztatuta geratu zen oso zaila zela alderdi abertzale ezkertiar bat Euskadin eratzea.

56 José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit, 121.126. orrialdea.

57 José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit, 179.184. orrialdea.

Bloquetik ateratzeko hartutako erabakiaren ondorioz, alderdiak barne-krisiari egin behar izan zion aurre berehala, erabaki hori zela medio parlamentutik kanpo eta oso baliabide gutxirekin geratu baitzen, eta horrek asko zaildu zuen alderdia haztea. Kideen ezinegona gero eta handiagoa zen eta buruzagi nagusiek dimititu egin zuten edo kendu egin zituzten beren postuetatik; horregatik, oso denbora gutxian erabat berritu ziren EAE/ANVko goi-karguak⁵⁸.

Hauteskunde-emaitez ekarri zuten krisiaren ondoren, 1931ko bigarren erdian, EAE/ANVk alderdiari buruzko propaganda egin zuen, batez ere hitzaldiak eta mitinak emanez.

1932ko apirilaren 1ean, EAE/ANVk manifestu bat egin zuen. Manifestu horretan EAE/ANVren doktrina laburbiltzen zen eta errepublikaren lehen urtean EAE/ANVk gauzatutako jardunak eragin zuenari buruzko balantzea egiten zen. EAE/ANVren printzipioei dagokionez, lau zutabetan laburbildu ziren. Lehenik eta behin, euskal nazionalismoa, euskal herritarrek erabateko askatasuna lortzea. Bigarrenik, euskal herritarrek autodeterminazioa lortzeko duten eskubidea, zeren, esaten zuten, Euskadiren jomuga euskaldunek erabaki behar baitzuten. Hirugarrenik, liberalismoa; horregatik, pertsonaren eskubide indibidualak eskatzen zituzten. Eta, azkenik, mugimendu interklasista gisa definitzen zuten beren burua, ez ziren klaseko alderdia, baizik eta alderdi nazionalista bat ziren, euskaldun guztiak sartuko ziren alderdi bat, euskaldun horien jatorria edozein izanik ere. EAE/ANVk Errepublikaren lehen urtean izandako jardunaren balantzeari dagokionez, alderdi horren ustez, Errepublikarekin izandako leialtasuna eta Euskadiko eta Nafarroako lau probintziatarako Estatutu bakar baten alde egitea positiboak izan ziren. José Luis de la Granja dioenez, manifestu hori ez zen berria, alderdia sortzeko egindako manifestuaren ildoak jarraitzen baitziren eta ez zituen beste gai batzuk ukitzen, hala nola erlijioaren gaia, gai soziala eta abar⁵⁹.

Geroxeago, 1932ko ekainaren 12an, EAE/ANVk bere lehen Batzar Nazionala egin zuen Eibarren. Batzar horretara lehendik zeuden udal-batzarrak bertaratu ziren eta alderdiko Batzorde Nazionala izan zen Batzar horren buru. Batzar horretan alderdiaren erregelamendu organikoa onartu zen, EAE/ANVren bandera ofiziala aukeratu zen, programa sozial bat egitea adostu zen programa hori hurrengo ezohiko bilera batean eztabaidatu eta onartzeko, Ekintzak prentsa-organo ofizial bat behar zuela ondorioztatu zen eta Batzorde Nazionalaren osaera berria hautatu zen. Organo berri hori hamabi kidek osatzen zuten, hiru kide probintzia bakoitzeko, Gabino Seijó zen presidentea eta Luis Pikaza idazkaria. Seguruenik Gonzalo Nardiz Bizkaiko probintziako ordezkarietako bat izan zen batzorde horretan, eta alderdiko goi-karguen artean egotea lortu zuen horrela⁶⁰.

1933ko lehenengo hilabeteetan, EAE/ANVk adierazpen bana argitaratu zuen. Adierazpen horiek alderdiaren programa osatzen zuten gai ekonomikoari eta sozialari dagokionez. 1933ko otsailean nafarrei, batez ere autodeterminazioan oinarritutako programa politikoari, autonomiari, ez-konfesionalismoari eta errepublikanismoari buruz egindako manifestuan, EAE/ANVk, eremu sozioekonomikoan, jabetzaren, funtzio sozialaren, lanaren bidezko balioespenaren, bidezko zerga-araubidearen eta langileen giza eskubideen alde egin zuen. Alderdi kulturalari dagokionez, honako honen alde egin zuten: kulturaren sozializazioaren alde, auzoko eskolak sortzearen alde, goi-mailako irakaskuntza doakoa izatearen alde, euskal Unibertsitatea ezartzearen alde eta euskara berreskuratzearen alde⁶¹.

Bestalde, urte horretako martxoaren 17ko *Tierra Vasca* egunkariaren argitalpen batean, EAE/ANVk bere ideiak laburbildu zituen. Politikaren alorrean euskal nazionalismoa, autodeterminazioa, Euskadiko barneko unitarismoa, ez-konfesionaltasuna, liberalismoa eta

58 Esate baterako, Batzorde Nazionaleko idazkari José Ramón Basterrak dimititu egin zuen eta San Andresko Manifestua sinatu zuten pertsona batzuk, hala nola Aldecoa, Ispizua, Ayo, Villanueva eta Basterra bera baztertu egin zituzten. José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit, 235. orrialdea.

59 José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit, 243.244. orrialdea.

60 José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit, 244.246. orrialdea.

61 José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit, 326.329. orrialdea.

beste indar politiko batzuekiko elkarlana defendatzen zituen eta antimaketismoa arbuiatzen zuen. Arlo sozialean, sistema kapitalista gaitzesten zuen sistema hori bidegabea, zapaltzailea eta gizagabea zelako, eta sistema horren ordez sistema bidezkoago bat jartzea nahi zuen.

Alderdiaren ideien printzipio gehiago erakusten ziguten adierazpen horiekin batera, EAE/ANVk 1933an Euskadin barrena hedatzeko politikarekin jarraitu zuen; horretarako, alderdiaren lokal eta zentro gehiago inauguratu zituen, mitinak, txangoak, beste nazionalitate batzuekin batera gauzatutako baieztapen nazionalistako ekintzak, protesta egiteko kanpainak eta abar antolatu zituen. Kataluniako Ezker Errepublikarreko Joan Puig Ferrater eta Josep Riera Puntí eta diputatu galegista Alfonso Rodríguez Castelao bertaratu ziren baieztapen nazionalistako bi mitinak nabarmendu behar dira. Hedatzeko politika horri guztiari asko lagundu zion EAE/ANV bere adierazpen-organoa, *Tierra Vasca*, izateak. Egunkari hori 1933ko urtarrilaren 8an argitaratu zen. EAE/ANV, 1933. urtean, nabarmen hazi zen Bizkaian eta Gipuzkoan, eta Iruñean eratu bazen ere, batez ere Bizkaian ezarri zen eta Gipuzkoan gutxiago.

Bestalde, 1933ko bigarren seihilekoan, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren ordezkaritza berritu zen EAE/ANVko Batzorde Nazionalean, eta horren ondorioz, Gonzalo Nardiz ordeztu egin zuten organo horretan.

KUDEATZAILE BIZKAIKO ALDUNDIAN

II. Errepublika oso garrantzi bereziko unea izan zen euskal probintziak Espainian behin betiko sartzeko arazoa konpontzeari dagokionez, prozesu autonomiko bat ireki zelako. Nahi zuten eskualdeek Autonomia Estatutu bat izateko aukera aurreikusi zen 1930eko udan indar antimonarkikoek Donostian izan zuten bileran⁶². Urtebete igaro ondoren, Konstituzioak zigortu egin zuen aukera hori; izan ere, Konstituzioaren arabera, Estatu errepublikanoa «integrala» zen⁶³. Horrela, Errepublika berrian errepublikano askorekin bat zetorren sistema federala ezarri ez bazen ere, haiek erregionalizatzea ahalbidetu zen, arestian esan dugunez, Autonomia Estatutuak lortuz.

Autonomiaren gaia euskal politikaren ardatz nagusia izan zen II. Errepublikan. Euskal indar politiko nagusiak ados zeuden Autonomia Estatutua lortzearekin, baina urrunago zeuden Estatutuaren irismenari, egiturari eta edukiari dagokionez. Hala eta guztiz ere, Estatutuaren gaian alderdi politikoak ados jartzeko arazo nagusia ekimen autonomikoa norik eramango zuen, eta horrenbestez, estatutuaren arrakasta hauteskondeetan norik kapitalizatuko zuen erabakitzeke garaian sortu zen. Nazionalistek ekimena udalerrien esku egotea nahi zuten, nazionalistek udalerrietan baitzuten gehiengoa eta, hortaz, hor ezar zitzaketen beren irizpideak. Alabaina, udal-gehiengo horren barruan ez zeuden Euskadiko hiru hiriburuetako Udalak sartuta, ezta Bizkaian eta Gipuzkoan industria ezarri zen lekuetako Udalak ere, eta leku horiek, hain zuzen ere, biztanle gehien izateaz gain, alderdi errepublikano-sozialista ezkertiarren esku zeuden. Udal horiek, bestalde, ekimen autonomikoa gobernuak izendatzen zituen Diputazio Probintzietako Kudeaketa Batzordeetan egotea nahi zuten, eta, beraz, ezkerreko indarren esku egotea 1931-1933 biurtekoan. Errepublikano eta sozialisten jarreraren funtsean beldur hau zegoen: indar ez errepublikano batek, EAJk esaterako, gehiengoduna zenak, etorkizuneko Eusko Jaurlaritzaren kontrola hartzea. Horregatik, uste zuten ezinbestekoa zela ezkerreko estatutu-arrakasta kapitalizatzea, Euskadi «errepublikartzea». Gogora dezagun Gorteetarako diputatuak aukeratzeko 1931n egin ziren hauteskondeetan Euskadi eta Nafarroa izan zirela Espainian eskuindarrek, EAJk eta tradizionalistek irabazi zuten leku bakarrak.

Errepublika aldarrikatu bezain laster, EAJk «alkateen mugimenduari» eman zio hasiera, Euskadiko eta Nafarroako udalerrri guztiek estatutu-ekimenari laguntzeko. Alkateen mugimenduak Estatutu bat egiteko eskatu zion Eusko Ikaskuntzari; handik hiru astera prest zeukan Estatutua

62 Kataluniak estatus autonomikoa lortzeko erabili zuen prozedura bera adostu zen Donostian: Estatutu-proiektu batean adierazitako Kataluniaren pertsonalitatea eta katalanen borondatea, eta Espainiako gorteek proiektu hori onartzeko edo baztertzeko duten erabateko subiranotasuna aintzatestea. Era berean, erabaki zen Katalunian erabiliko zen prozesu horri berari jarraitu behar zitzaioela pertsonalitate definitua zuten beste eskualde batzuetan ere, hala nola Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan edo Galizian. Iturria: José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, *op.cit.*, 5. orrialdea.

63 1931ko Konstituzioaren 1. artikuluan honako hau adierazten zen: «Errepublika Estatu integrala da, Udalerrietako eta Eskualdeetako autonomiarekin bateragarria».

Eusko Ikaskuntzak. Alderdi politikoei⁶⁴Ramón Madariaga errepublikano bilbotarrak⁶⁵ alde aurretik eginda zeukan testu batean oinarritutako Estatutuaren aurreproiektu horri buruzko iritzia eman zuen eta zuzenketak prestatu zituzten. Hortik aurrera, euskal estatutu-ekimena bi adarretan zatitu zen 1931n; alde batetik, ezkerak Kudeaketa Batzordeekin batera sortu zuena, «Ezkertiarren Estatutua» izenekoa proposatuz; eta bestetik, eskuinaren indarrek sortu zutena eta «Lizarrako Estatutuan» amaitu zena: jatorrizko aurreproiektuaren bertsio katolikoa eta etnizista. Urte horretako abenduan Konstituzioa onartzearen ondorioz, pikutara joan ziren 1931ko euskal estatutu-ekimen guztiak, Errepublikaren oinarriak bateraezintzat hartu baitzituzten estatutu horiek. Harrezkero, estatutu-ekimena Kudeaketa Batzordeen esku geratu zen. Batzorde horiek proiektua egiteko izendatu zituen Gobernuak.

EAE/ANV, Bloque Antidinástico alderdiaren zati gisa, ordezkatuta egon zen Kudeaketa Batzorde horietan autonomia-prozesuaren lehenengo aldi horretan. Hortaz, alderdia Gipuzkoako Kudeaketa Batzordean –hor Francisco Unzueta hautatu zuten– eta Bizkaiko Kudeaketa Batzordean egon zen ordezkatuta. Azken Batzorde horretarako EAE/ANVko Luis Urrungoechea eta Ignacio Arana hautatu zituzten. EAE/ANVk kudeaketa-batzordeak osatzeko modua onartu zuen, batzorde horiek autonomia lortzeko bidea zirela ikusi baitzuten. Alderdi politiko horrek, halaber, euskal autonomia lortzeko bidearen aldi horretan, baldintzarik gabe onartu zuen Eusko Ikaskuntzaren estatutu-proiektua. Proiektu bakar bat zegoen Euskadiko eta Nafarroako 4 probintziatarako eta erabat gaitzetsi zuen EAE/ANVk sustatutako alkateen mugimendua, «Lizarrako Estatutua» izenekoan amaitu zena, baita probintzia bakarreko estatutu-proiektu oro ere.

Kudeaketa Batzordeek agindu errepublikanoekin bat zetorren Estatutu bat egin zuten, baina Eusko Ikaskuntzaren testua oinarritzat hartuta. Euskadiko eta Nafarroako Udalek proiektuari buruzko irizpena egin zuten 1932ko ekainaren 19an Iruñean egindako Batzarrean, baina Nafarroako Udal gehienek, joera karlistakoek, uko egin ziotenez euskal probintziekin batera gauzatutako Estatutuari, berriro ere pikutara joan ziren autonomia lortzeko lanak⁶⁶. EAE/ANVk proiektuaren idazkuntzan parte hatu ez zuen arren, berriro ere estatutu-ekimen berri horren alde egin zuen baldintzarik gabe Kudeaketa Batzorde probintzietan zituen ordezkarier bitartez eta estatutu-testua ezagutzera emateko ad hoc sortutako probintziako, eskualdeko eta tokiko batzordeen bitartez.

Estatutu-ekimena lau probintzietan zapuztu ostean, Kudeaketa Batzordeek hiru euskal probintziatarako Estatutu bat egiteko lanei ekin zieten. Horretarako, galde-sorta bat bidali zieten hiru probintziatarako talde politiko, sindikal eta profesional guztiei, estatutu-testu berriaren edukiari buruz zer iritzia zuten jakiteko. Talde horiek guztiek galde-sortan emandako erantzunak funtsezko iturri dira Euskadiko autonomia-prozesua aztertzeko, Autonomia Estatutua antolatzeko moduari buruz talde horietako bakoitzak zuen iritzia biltzen baita. EAE/ANVren kasuan, alderdi horrek adierazi zuen euskal hiru probintziatarako estatutu bakar bat izatearen alde zegoela eta etorkizunean Nafarroa estatutu horretan sartzeko aukera emango zuen adierazpen bat gehitu behar zela estatutu horretan. Gainera, erakunde politiko berriak estatu-itxura unitarioa, Konstituzioaren barruan ahalik eta ahalmen autonomiko zabalenak eta euskal ogasun autonomoa izatearen alde zegoen. Hori guztia bat zetorren beren manifestu eta adierazpen ideologikoetan eta programakoetan aipatu zituzten printzipio politikoekin.

64 Testu osoa hemen dago: *Estatuto General del Estado Vasco. Anteproyecto de la Sociedad*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1931.

65 Filosofia errepublikanoarekin bat zetorren estatutu-testu bat sortu zuen Madariagak 1931ko urtarriletik apirilera bitarteko aldiari, Errepublika aldarrikatu baino lehen. Idoia Estornes Zubizarreta, *La construcción de una nacionalidad vasca. El autonomismo de Eusko-Ikaskuntza (1918-1931)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1991, 391.393. orrialdeak.

66 Nafarroan 123 Udalek, 189.666 biztanle ordezkatzen zituztenek (Nafarroako % 53,2), kontrako botoa eman zuten. 109 Udalek aldeko botoa eman zuten, 135.582 biztanle ordezkatuz. Aitzitik, 35 udalerrri abstenitu egin ziren bozketan (28.859 biztanle ordezkatzen zituzten). Iturriak: Juan Pablo Fusi Aizpurua, *El País Vasco 1931-1937. Autonomía, Revolución, Guerra Civil*, Madril, Biblioteca Nueva, 2002, 93. orrialdea. eta José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, *op.cit.*, 298. orrialdea.

1933ko urtarrilean, Kudeaketa Batzordeek Estatutuaren proiektu berri bat idazteko ardura zuen batzorde txostengile bat izendatu zuten; Batzorde horretan EAE/ANVko Ignacio Uría azaltzen zen. Lan guztien ondorioa 1932ko testuaren oso antzeko testu bat izan zen. Testu horretan ez zen Nafarroa kontuan hartzen, baina xedapen gehigarri bat erantsi zen egunen batean, etorkizunean, Nafarroa atxikitzen bazen ere. Testua azkar idatzi zen arren, Estatutuaren izapidetzea hainbat hilabetez luzatu zen EAJ eta errepublikanoak eta sozialistak ados jartzen ez zirelako. Autonomia-prozesua luzatzeak EAE/ANVren haserrea eragin zuen, eta EAE/ANVk, protesta gisa, kendu egin zituen Gipuzkoako Kudeaketa Batzordean zituen bi ordezkariak (une hartan batzorde horretan bakarrik zituen ordezkariak); horren ondorioz, areagotu egin zen PSOEn eta errepublikanoen arteko haustura. Azkenik, hiru euskal probintzietako udalerriek 1933ko abuztuaren 6an onartu zituzten Gasteizen Estatutuko baldintzak.

Alabaina, estatu-mailan izandako botere-aldaketa batek erabateko eragina izan zuen prozesuan. Azañaren gobernuaren erorikoak eta Alderdi Erradikala boterera igotzeak (alderdi horrek legegintza-hauteskundeetarako deialdia egin zuen) eragin zuten Estatutua berresteko erreferenduma prestatzea. Erradikalak boterean zeudela, errepublikanoen eta sozialisten aldeko euskal probintzietako aurreko gobernadore zibilen ordezkariak EAJrekin adiskidetzeko politika bat gauzatu zuten beste gobernadore batzuk jarri ziren. Aurreko gobernadoreek ez zuten mota horretako politika egin, aurkakoa baizik. Era berean, aldatu egin zen Kudeaketa Batzordeen osaera, kudeatzaile sozialistek eta Acción Republicana alderdiko kudeatzaileek dimititu egin baitzuten, eta horren ondorioz, Alderdi Erradikala izan zen erakunde horietako alderdi indartsua. Kudeaketa Batzorde berriak osatzen zituzten pertsonak izendatu zituzten gobernadoreek urriaren 10ean; Bizkaiko Kudeaketa Batzordea erabat berriro zen, Juan Gallano erradikala izendatu zuten buru eta EAE/ANVko Gonzalo Nardiz eta Miguel López Elorriaga sartu ziren; Gipuzkoako Kudeaketa Batzordean, aldiz, EAE/ANVko kide Ignacio Uría eta Antonio Luzuriaga sartu ziren⁶⁷.

Gonzalo Nardizek Irakaskuntza Publikoari buruzko batzorde txostengilea, Higiene Institutua, Euskal Kulturari buruzko batzordea eta Garraio Batzordea sartu zituen Diputazioan, Gernikako Batzar Etxeko delegatua izan zen eta Diputazioaren ordezkari izan zen hainbat elkartetan, hala nola Bermeoko Eroetxean, Langile Erretiroan, Artxiboan eta Liburutegian, Eusko Ikaskuntzan, Arte Ederren Museoa, Zornotzatik Gernikarako eta Sukarrietarako Trenbidean, Bermeoko Udal Ikastetxean, Maistren Eskola Arruntan, Prestakuntza Tekniko Industrialaren Patronatuan eta Erizainen eta Ospitaleen Epaimahai Mistoan⁶⁸. Era berean, Nardiz «hemezortzien batzordea» delakoan sartuta zegoen. Batzorde hori Kudeaketa Batzordeetako 9 ordezkari, 3 ordezkari lurralde bakoitzeko, eta Udaletako 9 ordezkari osatzen zuten eta Gasteizko Batzarrean sortu zen erreferenduma prestatzeko eta Estatutua Gortetan aurkezteko, baina orain, erradikalak boterera iritsi ondoren, erabat aldatu du bere osaera.

Gonzalo Nardizek honako hau gogoratzen du garai hartatik:

Geroago, 1933. urtean, egoera politiko berri bat azaldu zen Madrilan, eta ematen zuen egoera horrekin estatutu-helburuak lortzen lagundu nahi zela. Horregatik, Ekintza Abertzaleko kide batzuk bidali zituzten Kudeaketa Batzordeetara, haien artean ni.

Bizkaiko Batzordera bidali ninduten. Han, Estatutuei buruzko Batzordeko kide izendatu ninduten, eta horregatik, bileretara joaten nintzen. Bilera horiek, normalean, Donostian egiten ziren. Garai hartan Castro Casal zen Aldundiaren buru. Donostiako alkate Fernando Sasiain ere elkartzen zen; baita Iñaki Uría ere, garai hartan Gipuzkoako Aldundiko kudeatzaile zena. Bilera horiek egiten jarraitu genuen autonomia-plebiszitua abian jarri genuen arte. Gaur egun badakigu zer emaitza lortu ziren plebiszitu hartatik⁶⁹.

67 *El Liberal*, 1933-10-11.

68 *El Noticiero Bilbaino*, 1933-12-07; *El Liberal*, 1933-12-06.

69 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 4.5. orrialdea.

Alderdi Erradikalak zuzentzen zituen Kudeaketa Batzorde berriek lan azkarra eta eraginkorra egin zuten, errepublikanoek eta sozialistek ordura arte egindako lanarekin zerikusirik ez zuena, eta erreferenduma azaroaren 5ean egingo zela ezarri zen eta Martínez Barrioren gobernuak berretsi zuen data hori. Plebisituaren emaitza Estatutuaren aldekoa izan zen, gehienen onarpena lortu zuen Bizkaian eta Gipuzkoan. Bi probintzia horietan, bozkatzeko eskubidea zuten pertsonen ia % 90ek testuaren aldeko botoa eman zuten; Araban, aldiz, eskuindarren eragina dela medio, estatutua onartu zen, baina kontrako botoa eman zutenen edo abstenitu zirenen batura aldeko botoa eman zutenena baino handiagoa zen⁷⁰. Horren ondorioz, testua onartu ondoren, hemezortzien Batzordea (Nardiz eta Euskadiko diputatuak, kudeatzaileak eta alkateak batzorde horretan sartuta zeuden) Madrilera joan zen 1933ko abenduaren 21ean eta 22an, eta parlamentuko, Gobernuko eta Errepublikako presidenteei eman zien Estatutua⁷¹.

Estatutua Gorteetara eraman ondoren, EAE/ANVk Kudeaketa Batzorde erradikalek autonomiaren alde egin zuten lana goraiatu arren, uste izan zuen batzorde horiek dagoeneko ez zirela beharrezkoak batzorde horiek zuten helburua lortu zelako⁷². Nolanahi ere, Bizkaiko gobernadore zibilak, hots, Juan Velarde erradikalak eskatuta, batzorde horietan jarraitu zuten Aldundia demokratikoki berritzeko hauteskunde probintzialak deitzeko edo, gutxienez, kudeatzaileak zinegotziek izendatzeko Lerroux presidentek baimena eman arte⁷³. Atzerapen hori gorabehera, Aldundia osatzeari dagokionez EAE/ANVk eskatutakoa betetzen ez zenez, Kudeaketa Batzordeak bertan behera utzi zituen 1934ko urtarrilaren amaieran⁷⁴.

Gonzalo Nardizek honela laburbiltzen du Estatutua onartu zenetik kudeatzaile gisa dimititu zuten arteko aldia:

Nik uste nuen balentria horren ondoren bukatu zela nire zeregina eta joan egingo nintzela. Perea esan nion Bizkaiko Aldundian. Perea Alderdira joan zen berria ematera eta hurrengo egunean Jose Antonio Agirre eta José Horn etorri ziren niregana. Dimisioa aurkeztu behar nuela esan zidaten eta nik esan nien egia zela nik bukatu nuelako nire zeregina. Horrez gain, esan nien ez nekiela zertaz kezkatzen ziren, Euskadi egunkarian egunero iraintzen gintuztelako. Autonomia Estatutuaren proiektua Madrilera eraman arte nire postuan jarraitzeko esan zidaten, eta halaxe egin nuen.

Gu Madrilera joan ginen eta proiektua aurkeztu genuen. Alcalá Zamora zen presidentea. Gorteetako presidentea Santiago Alba. Horren ondoren dimititu egin nuen eta etxera joan nintzen⁷⁵.

70 Araban, 56.056 boto-emailek osatzen zuten hautesle-erroldatik 32.819 boto-emailek hartu zuten parte (% 58,5). Horien artetik, 26.015 pertsonak (Arabako boto-emaileen % 46,4) aldeko botoa eman zuten, eta 6.695 pertsonak kontrakoa (boto-emaileen % 11,9). Hortaz, Estatutuaren kontra emandako botoen ehunekoa (% 11,9) eta erreferendumean parte hartu ez zuen biztanleriaren ehunekoa (23.237 pertsona, hots, boto-emaileen % 41,5) batzen baditugu, % 50etik gorako kopurua lortzen da. Hori gertatu zen batez ere José Luis Oriol Elkarte Tradizionalista Estatutuaren aurka zegoelako. Iturria: José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit, 417. orrialdea.

71 *Euzkadi*, 1933-12-22.

72 *El Liberal*, 1933-12-26.

73 *El Liberal*, 1933-12-28.

74 *El Noticiero Bilbaino*, 1934-01-28.

75 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 5. orrialdea.

EAE/ANV BIURTEKO BELTZEAN

1933ko azaroaren 19ko legegintza-hauteskunderi begira, EAE/ANVk ahalegin guztiak egin zituen beste alderdi batzuekin koalizioan aurkezteko hauteskundeetara. Lehendabizi, fronte autonomiko bat sortzen saiatu zen autonomiaren alde zeuden indar guztiak batera, baina alderdi batzuek, hala nola PSOEek, hautagaitzan parte hartzeari uko egin ziotenez, ekimena pikutara joan zen. Ondoren, EAE/ANV EAJrekin eta Alderdi Erradikalarekin koalizio bat bilatzen saiatu zen edo, hori ezinezkoa bazen, EAJrekin soilik. Ez zen bi koalizioetako bakar bat ere egitea lortu zerrendak osatzeko garaian desadostasunak zeudelako; horregatik, EAE/ANV, 1931. urtean bezala, isolatuta geratu zen berriro, baina oraingo honetan nahi gabe. Egoera horren aurrean, lurralde-erakunde bakoitzak bide desberdinak hartu zituen: Bizkaiko EAE/ANVk erabaki zuen bere kideei gomendatzea EAJri eman ziezaiotela botoa; Araban, aldiz, kideek nahi zutenari botoa emateko askatasuna utzi zuten, eta Gipuzkoan hauteskundeetara aurkeztu zen, hainbat alderditako pertsonekin estatutu-zerrenda bat osatuz, nahiz eta alderdi horiekin inolako akordiorik ez eduki. Gipuzkoan bakarrik aurkeztu zen alderdia hauteskundeetara eta lurralde horretako hauteskunde-emaizta izugarri desilusionagarria izan zen berriro ere, emandako botoen % 1,6 soilik lortu baitzuten⁷⁶.

Hauteskunde-emaizta horren ondoren, eta Kudeaketa Batzordeak utzi ostean, arestian ikusi dugunez, EAE/ANV inorena ez den eremuan geratu zen, EAJrekin batera fronte nazionalistaren alde egin behar ote zuen edo berriro ere errepublikanoekin eta sozialistekin harremanak izaten hasi behar ote zuen jakin gabe, isolatuta euskal politikan oso eragin txikia zuelako.

1934ko urriko mugimendu iraultzaileak eragin handia izan zuen Euskadin, eta Bizkaian zehazki. Probintziako iraultza-batzordea Paulino Gómez Saiz, Santiago Aznar eta Juan Nadal sozialistek osatzen zuten, eta «aparatu egokia» zegoen iraultza egiteko. Mugimendua PSOEek prestatu zuen, eta azken unean soilik onartu zuten komunistekin elkarlanean jardutea. Hala eta guztiz ere, une erabakigarrian, ez zen inolako koordinaziorik izan probintziako elementu guztien artean, eta greba-batzordean bertan irizpide desberdinak zeuden mugimenduaren helburuei buruz. Bilbon, hilaren 5ean hasi zen greba eta lan eta zerbitzu guztiak gelditu ziren. Liskarren bat izan zen grebalarien eta indar publikoen artean, baita eztrandak eta tiroketak ere; guztira 16 hildako izan zirelarik. Urriaren 13rako Euskadi oso normalizatuta zegoen eta euskal sozialismoko buruzagi nagusiak kartzelan edo erbestean zeuden⁷⁷. José Luis de la Granja irakasleak dioenaren arabera, EAE/ANVk ez zuen parte hartu mugimendu iraultzailearen sorreran eta zuzendaritzan, nahiz eta alderdiko militante batzuk mugimendu horren alde azaldu ziren herri batzuetan, eta arrazoi hori dela medio haien aurkako errepresaliak hartu ziren, batez ere Nerbioi ibaiaren ezker aldean. Eremita horretan EAE/ANVko gazteek piketeak osatu zituzten eta aurre egin zieten segurtasun-indarrei beste indar politiko batzuetako militanteekin batera. Bigarren mailako parte-hartzea

76 José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit, 418.425. orrialdea.

77 Ricardo Miralles, *El socialismo vasco durante la II República*, Bilbo, UPV/EHU, 1988, 239.242. orrialdea.; Norberto Ibáñez eta José Antonio Pérez, «Orígenes y desarrollo del socialismo en el País Vasco», *Bilduma*, 19 (2005), 159.162. orrialdeak.

izan arren, EAE/ANVko gobernuaren errepresioa pairatu zuen, alderdi horretako egoitza asko itxi baitzituzten eta kide asko atxilotu eta espetxeratu baitzituzten.

Gonzalo Nardizek ez zuen iraultzan parte hartu, baina atxilotu egin zuten bere alderdiko beste kide batzuk bezalaxe. Gonzalo Nardizek honela gogoratu zituen gertakari horiek:

Nik dakidan gauza bakarra da atxilotu egin nindutela. Guardia Zibila etxera etorri zitzaidan bila eta ziega batean giltzaperatu ninduten. Gero, kapitaina –graduazio handiena zuena zen– iritsi zen ziegara eta askatu egin ninduen. Horren ondoren, egunkarian idatzi zuten nik Frantziara ihes egin nuela, eta nik esan nuen ez nengoela Frantzian Bilbon baizik. Nire bila etorri ziren eta atxilotu egin ninduten.

Gogoratzen naiz Bilbon atxilotuta nengoenean José Antonio, Josean eta Francisco Basterretxea ni bisitatzera etorri zirela, baina ez zirela baimenik eman ni ikusteko. Bakartuta nengoela esan zieten. Arratsalde horretan bertan Telesforo Monzón joan zen ni ikustera eta hari utzi zioten sartzen.

Nik uste dut haietzako zuhurtzia-neurri gisa atxilotu nindutela, nik nolabaiteko eragina nuelako joera ezkertiarreko hedabideetan.

Bi egun geroago askatu ninduten eta inork ez zidan ezer esan⁷⁸.

Adierazpen horrek EAE/ANVko buruzagiak mugimendutik kanpo egon zirela dioen hipotesia indartzen du, nahiz eta EAE/ANVko kide askok parte hartu zuten ekintza iraultzailean. Gainera, adierazpen horretan esaten digu, alde batetik, oso goiz hasi zirela EAE/ANVko buruzagiekin harremana izaten eta harreman hori ona zela, eta bestetik, Nardizek ezkerreko hedabideen artean lortu zuen nolabaiteko «ospea» aipatzen digu. Arestian aipatutako buruzagi horiekin, aurrerago, gobernu-lanak egin zituen.

1935. urtean, EAE/ANV barne-etzabaida batean sartuta egon zen zer norabide politiko hartu ez zekitelako. EAE/ANVren Batzorde Nazionalak Batzar Nazional batera deitu zuen alderdiaren programa berria egiteko. Zeregin horrek 1934an eragin zituen barne-desadostasunak, eta horrexegatik atzeratu zen. 1935. urtean, EAE/ANVn, hiru joera zeuden. Lehenengo joera euskal nazionalismo autonomista defendatzen zuen ezker moderatuak, ez-separatistak, errepublikaren alde zegoenak eta Azañaren tesiaren miresle zenak ordezkatzen zuen, ordezkariek honako hauek izanik: Andrés Perea eta Tomás Bilbao, besteak beste. Bigarren joerak ezker erradikaleko aukera nazionalista, sindikalista eta antikapitalista, EAE/ANV klaseko alderdi gisa definitzearen alde zegoena irudikatzen zuen eta honako hauek ordezkatzen zuten: José Olivares Larrondo «Telligorri» edo Luis Areitioaurtena. Hirugarren joera batez ere alderdiaren sortzaile gehienek, Comución Nacionalista Vasca alderditik eratorritakoek, joera liberaleko nazionalistek, alderdiari ezarri nahi zitzaion joera ezkertiarra onartzen ez zutenek osatzen zuten.

Egoera horrelakoa zela iritsi ziren 1935eko irailaren 29ko Eibarko Batzar Nazionalera. Batzar horretan alderdiaren Batzorde Nazionalaren egoera landu behar zen. Batzorde hori joera ezkertiarren aldekoek osatzen zuten batez ere, eta bi aste lehenago dimititu egin zuen alderdiaren programa zentzu sozial ezkertiarrean berriz definitzeko eta alderdiaren programaren proiektua eztabaidatzeko ahaleginean porrot egin zuelako. Hartutako erabakia, hots, arestian esan dugunez gehiengo ezkertiarra duen Batzorde Nazionalarengan konfiantza berrestea eta alderdiaren programa egiteko udalen arteko batzorde txostengile bat –alderdiko afiliatuek Batzar berri batean berretsi beharko luketena– izendatzea, ez zen inoren gustuko; izan ere, ezkertiarrek alderdiaren ildoari jarraitzen zioten, baina ikusten zuten programari buruzko eztabaida atzeratu egiten zela berriro, EAE/ANV eztabaida sozialetik kanpo zegoen alderdi

78 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 7. orrialdea.

nazionala izatearen alde zeudenek eztabaida luzatzea lortzen zuten, baina alderdiaren goreneko organotik kanpo jarraitzen zuten⁷⁹.

EAE/ANVren barnean eztabaidak izaten hasi ziren berriro Manuel Portela Valladares zentrista buru zuen Gobernuak Gorteak deuseztatu eta 1936ko otsailaren 16rako legegintza-hauteskunde berrietarako deialdia egin ondoren. Hauteskunde berrien aurrean, alderdiak berriro ere erabaki behar zuen ezkerreko indarrekin bat egingo zuen, berriz ere EAJrekin aliantza nazionalista bat egiten saiatuko zen edo bakarka aurkeztuko zen. Hala eta guztiz ere, 1935ean alderdiaren barnean izan ziren eztabaidak eta Batzorde Nazionalaren osaera ezkertiarra direla medio, argi zegoen alderdi politikoa lehenengo aukera lortzen saiatuko zela, hau da, Fronte Popularrean sartzea.

Aurreko urtean hasi ziren Batzordea prestatzen, errepublikanoen, sozialisten eta komunisten arteko harremanak estutuz; horregatik, ez zen inolako arazorik izan hauteskunde-deialdia egiteko. EAE/ANVk, Andrés Perea Batzorde Nazionalaren idazkariaren bitartez, gutun bat bidali zien Fronte Popularraren buru ziren alderdiei (Ezker Errepublikanoa, Alderdi Sozialista eta Alderdi Komunista) Errepublika aldarrikatu zen garaia abiapuntutzat hartuta euskal mugimendu autonomistaren historia eginez eta euskal Estatutuarekin hartu zuten konpromisomaila zalantzan jarriz. Hiru alderdiek erantzun zuten Fronte Popularraren programaren gaietako bat zela estatutua eta ez zutela inolako eragozpenik jarriko estatutua Gortean izapidetzeko. Eta halaxe izan zen; izan ere, Fronte Populistik urtarrilaren 16an argitaratu zuten manifestuan soilik errepublikanoek osatuko zuten eta langileen indarren kanpoko laguntza izango zuen ustezko gobernu baten programaz gain amnistia zabal bat eta ekonomiaren eta gizartearen alorreko neurriak eta lege autonomikoen aplikazioa biltzen ziren, Konstituzioan idatziz jasotako printzipio autonomiko guztiak garatzearen ildotik⁸⁰. Gai hori nahikoa izan zen EAE/ANVrentzat Fronte Popularreko alderdien borondate autonomistaren berme gisa; horregatik, aliantza ezkertiarren alderdiak handitzeari ekin zion.

EAE/ANV arazo handirik gabe egin zen Fronte Popularreko kide Nafarroan, hautagaitzako postuetako bat bete baitzuen Juan Carlos Basterra abokatu bizkaitarrak; eta Araban ere postu bat bete zuen errepublikano batek, lurralde horretan hautagai bakar bat izateko aukera baitzegoen. Gipuzkoan, ordea, gutxiengo batek adierazi zuen ez zegoela ados Fronte Popularrean sartzeko, eta, aitzitik, EAJrekin ongi moldatzearen alde zegoela; horregatik, burukide batzuk, gutxi, alde egin zuten alderditik. EAE/ANVk ez zuen inolako lekurik izan probintziako hautagaitzetan; hala ere, modu aktiboan hartu zuen parte hauteskunde-kanpainan. Kanpaina horretan, berriro ere arazoak izan ziren Bizkaian; izan ere, batzorde probintzialeko kide gehienak ados zeuden ezkertiarrekin ongi moldatzeko, baina hautagaitzetan postu bat izatea eskatu zuten. Bizkaiko Fronte Popularrak erantzun zuen atseginez hartuko zutela EAE/ANV, baina ezin ziotela hautagaitzarik eman Bilbon edo Bizkaian, postuen banaketa lehenago negoziatu zelako. Bizkaiko EAE/ANVk ez zuen ondo hartu erabaki hori, eta beren kideei boto-eskubidea ematea erabaki zuen; horregatik, alderdi nazionalista hauteskunde-aliantzetatik kanpo geratu zen berriro⁸¹.

Horrekin batera, EAE/ANV Fronte Popularrean sartzeak eragin zuen Fronte Popularreko buruzagi politikoak alderditik ateratzea. Arestian adierazi dugunez, alderdiaren Batzorde Nazionalak, joera ezkertiarrekoak, 1936. urtearen hasieran hainbat artikulua argitaratu zituen Acción Vasca astekarian. Artikulu horietan, alde batetik, Batzorde horrek berriro ere ezkertiarrekin aliantzak izateko estrategiara itzultzearen alde egiten zuen, baita programa politiko berri bat izatearen alde ere; eta beste alde batetik, salatzen zuen EAE/ANVko buruzagi moderatuenek ez zutela ezer egiten langileen alde. Buruzagi horietako gehienak nazionalista liberalak ziren eta gehienak

79 José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit., 548.549. orrialdeak.

80 Juan Avilés Farré, *La izquierda burguesa y la tragedia de la II República*, Madril, Madrilgo Erkidegoa, 2006, 384. orrialdea.

81 José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit., 557.563. orrialdeak.

alderdia 1930. urtean sortu zutenak ziren. Egoera horretan, alderdiko historiko horiek alderditik ateratzea erabaki zuten eta bidea aske utzi zioten alderdiko fakzio ezkertiarrenari⁸².

Suposatzen dugu EAE/ANVko kide moderatuenak alderditik ateratzea ekarri zuen barne-zatiketako prozesu horretan guztian, Gonzalo Nardiz ere ezkertiarrekin ondo moldatzearen alde zeuden alderdiko kide gehienen iritziaren aldekoa izango zela, baina ez dugu hori egiaztatzen duen dokumentaziorik, eta Gonzalo Nardiz lehenago ere gai horrekin kezkatuta zegoenez, suposatzen dugu, halaber, ados egongo zela alderdiak eduki sozial handiagoa izatearekin. Nolanahi ere, ez dugu uste alderdiaren albo erradikalenarekin bat etorriko zenik, EAE/ANVko buruzagiekin harreman ona zuelako –eta batez ere gero izan zuelako–; izan ere, arestian ikusi dugunez, bisitan joan zitzaizkion 1934an. Nolanahi ere, ematen du argi dagoela bere alderdiko ildo desberdinen arteko eztabaidetan ez zela lehenengo ildoan egon.

Maila nazionalean egin ziren hauteskundeetan Fronte Popularrak irabazi zuen; Euskadin, ordea, ezkertiarren aliantzak Bizkaia-hiriburuko barrutian soilik irabazi zuen, EAE/ANVk Bizkaia-probintziako barrutian eta Gipuzkoako barrutian irabazi baitzuen, eta eskuindarrek Araban eta Nafarroan irabazi zuten.

82 José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, *op.cit.*, 554.557. orrialdeak.

9.

FRONTE POPULARRA ETA ESTATU-KOLPEA

Manuel Azañaren Gobernu osatu ondoren, berriro ere Kudeaketa Batzordeak berritu egin ziren egoera politiko berria kontuan hartuta. EAE/ANV Gipuzkoako eta Arabako Batzordeetan sartu zen erakunde bakoitzean bi ordezkari zituela, baina Bizkaikoan ez zen sartu; izan ere, arestian ikusi dugunez, EAE/ANV ez zen Fronte Popularrean sartu hautagaitzen osaerarekin ados ez zegoelako.

Denboraldi horretan ere arazoak zeuden EAE/ANV barruan; izan ere, joera nazionalista liberaleko antzinako buruzagi talde handi batek alderdia utzi bazuen ere, alderdiko kide gutxi batzuk ez zeuden ados joera ezkertiarrekin eta Fronte Popularraren akordioarekin, eta, aitzitik, EAJrekiko hurbilpena nahi zuten. Hala eta guztiz ere, alderdiko zuzendaritzak EAE/ANV alderdi ezkertiar bihurtzeko planarekin jarraitu zuen; horretarako, haien ustez, ezinbestekoa zen San Andresko Manifestua alderdiko programa gisa ordeztea; horretaz gain, adierazten zuten gehiengoaren ildo horrekin ados ez zegoenak alderdia utzi egin behar zuela.

Era berean, Bizkaiko EAE/ANV Fronte Popularrean sartu zen 1936ko martxoaren amaieran, eta horrek ere barne-ondorioak izan zituen alderdian; izan ere, Batzarrean hartu zen erabakiaren aurka, Barakaldoko EAE/ANVren elkarte, Bilboko elkartearekin batera Bizkaiko elkarterik garrantzitsuenak, ez zegoen ados ideia horrekin. EAE/ANVko Batzorde Nazionalak kaleratu egin zuen Barakaldoko Udal Batzordea, eta harrezkero, Barakaldoko EAE/ANV elkarrengandik urrun zeuden bi erakunde osatu zuten; erakunde bat gehiengoduna da, EAE/ANVrekin ondo moldatzearen alde dagoena, bere buruari Eusko Abertzale Ekintza deitu ziona; eta, bestea, gutxiengoduna da, Batzorde Nazionalari atxikita dagoena, Luis Ruiz de Aguirre «Sancho de Beurko» buru zuena.

EAE/ANVren norabide ezkertiar hori alderdiak 1936ko ekainaren 28an Bilbon egin zuen Batzar Nazionalan burutu zen. Batzar horretan Batzorde Nazional berri bat aukeratu zen. Batzorde hori 12 kidek osatzen zuten, kide bat erakundea lurraldeen arabera zatituta zegoen eskualde bakoitzeko: 4 Bizkaitik (Bilbo, Ezkerraldea, Eskuinaldea, Gernika-Durango) eta Gipuzkoatik (Donostia, Goierri, Debagoiena eta Kostaldea) eta 2 Arabatik (Gasteiz 1. eta 2.) eta Nafarroatik (Iruñea 1. eta 2.). Fermín Mendizabal gipuzkoarra izan zen Batzorde Nazionalaren buru; aitzitik, idazkaritzan Tomás Echave bizkaitarra aukeratu zuten, eta batzordekideak honako hauek izan ziren: Luis Ruiz de Aguirre, Juan Carlos Basterra, José Zapirain, Gabriel Goitia, Tomás Michelena, Félix Benito Cárcamo, José Placer, Eladio Cilveti eta Gonzalo Nardiz. Arestian ikusi dugunez, azken hori alderdiaren goreneko organora itzuli zen 1933an organo horretan egon ondoren, eta EAE/ANVko ordezkaria izan zen Durango-Gernikako eskualdean⁸³.

83 José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit., 635.638. orrialdeak.

Bilboko Batzarrean, Batzorde berria aukeratzeaz gain, alderdiaren programa berria onartu zen. Programa hori martxotik maiatzera bitarteko aldian egin zuten alderdiko eskualde-batzordeek, eta programa horrek San Andresko Manifestua ordeztu zuen. Programa lau arlotan banatuta zegoen; funtsezko oinarri ideologikoa, printzipio politikoak, programa sozioekonomikoa eta kultura-arloa. Funtsezko oinarri ideologikoa Euskadi Pirinioen alde batean eta bestean dauden lurraldeek osatzen duten nazioa dela eta autodeterminaziorako eskubidea duela aitortzea da. Printzipio politikoei dagokienez, EAE/ANVk honako hau defendatzen zuen: liberalismoa (eskubide indibidualen eta kolektiboen eta Eliza eta Estatu bereiztearen berme gisa), eta euskal unitarismoa (Euskadi bakarra eta zatiezina da, nahiz eta udalerrien eta lurraldeen autonomia administratiboa aitortzen duen), Errepublika eta demokrazia gobernatzeko modu gisa, Euskadiren bateratzea eta Europaren batasuna. Aurreko adierazpenekin alderatuta, agindu sozioekonomikoetan izan ziren aldaketa handienak, eta agindu horiei dagokienez, EAEEK honako hau defendatu zuen: justizia soziala (sistema kapitalista beste sistema bidezkoago bat bihurtzea), Estatuaren ekonomia (Estatu bere baliabide naturalen, energia-iturrien, garraioen, bankuen eta abarren jabe izatea), justizia sozialeko printzipio batzuei lotutako ekimen pribatua, jabetza pribatua onartzen da ondasun nazionalizatuetakoa kasuetan izan ezik, lana bizitza sozialaren oinarri gisa eta ezinbestekoa da langileak sindikatzea. Kulturaren alorrean, EAE/ANVren ustez, euskara Euskadi bereizten zuen ezaugarririk garrantzitsuenak zen, eta proposatu zuen euskara bateratzea eta euskaldun guztien artean hedatzea; horrez gain, kultura herritar guztiei hedatzea aldarrikatzen zuen, kultura tresnarik hobereana delako bizi-baldintzak hobetzeko, beste neurri batzuen artean⁸⁴.

Azken batean, estatu-kolpe frankista gertatu baino aste batzuk lehenago, EAE/ANVk atzean utzi zuen 1930. urtetik 1934. urtera bitarte izandako ibilbidea eta ideologiari dagokienez, ezkerreko alderdi bihurtu zen, sozialista ez-marxista eta demokratiko ez-iraultzaile gisa defini daitekeen programa sozioekonomiko batekin.

Gorago esan dugunez, suposatzen dugu Gonzalo Nardiz Batzorde Nazionalako delegatu hautatu zutenez, ados zegoela alderdiak ildo sozioekonomikoan egin zuen aldaketa horrekin eta bat egin zuela bere alderdikide gehienekin. Garai horretan, Gonzalo Nardiz garrantzia izaten hasi zen.

Politikatik kanpo, denboraldi horretan bertan, Gonzalo Nardiz Bermeoko Kirol Elkarteko kide izendatu zuten. Elkarte horren zeregina Bermeon kirola sustatzea zen⁸⁵.

1936ko uztailaren 18a egun lasai samarra izan zen Bilbon. Euskadiko beste hiriburuetan ez bezala, Bilbon ez zen erreboltarien matxinadarik izan, eta probintziako gobernadore zibilak, Echeverría Novoak, kontrolpean eduki zuen egoera Fronte Popularra eta EAJ alderdien laguntzarekin. Joera nazionalako militarrek ezin izan zituzten Garellanon kuarteleratutako soldaduak kalera atera eta konspiratzaile zibilek, esate baterako José María de Areilzak, ezin izan zuten jardun. Kontrakoa gertatu zen, ordea, Donostian; izan ere, hiriburu horretan matxinada militarra egiteko ahalegina izan zen, baina Fronte Popularreko eta CNTko indarrek suntsitu egin zituzten; uda hartan, beraz, prozesu iraultzailea bizi izan zen Donostian. Gasteizen eta Araban, bestalde, indar ezkertiarrek ez zieten aurre egin matxinatuei, eta matxinatuek irabazi zuten egun hartan.

Gonzalo Nardizi galdetu ziotenean uztailaren 18ko matxinada militarra aurreikus ote zitekeen, honako hau erantzun zuen:

Ni, beste hainbat bezala, ezustean harrapatu ninduen. Militarrek ere ez zuten uste hain gauza garrantzitsua abiaraziko zela eta etorkizunean hain proiektio larriak eragingo zituela, eta batez ere hainbeste iraungo zuela. Espainiako armada ez zegoen hain lotuta matxinadarekin.

84 José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit., 638.645. orrialdea.

85 *El Noticiero Bilbaíno*, 1936-01-12.

Espanian zeuden 8 kapitaintza orokorretatik, soilik kapitaintza bat atxikitzea lortu zuen Francok. Gero, kapitain nagusiak fusilatu zituzten eta beste batzuk jarri zituzten haien ordean. Armadan ez zegoen batasunik. Indarraren, indarkeriaren eta beldurraren bitartez lortu zen batasuna izan zen. Francok, Afrikan, militarrek fusilatu zituen. Frankismoaren indarraren jatorria Afrikan dago Espainian kokatutako Armadan baino gehiago. Francok kondekoratu zituen lehenak mairuak izan ziren. Espainia Afrikatik inbaditu zuten. Guardia Zibilaren inspektore bakar bat ere ez zen Francoren alde egon.

Monarkikoek harremanak izan zituzten italiarrekin eta harreman horiei esker arma gutxi batzuk lortu zituzten eta batez ere dirua.

Europa osoa kezkatuta eta ikararuta zegoen nazismoa hartzen ari zen indarrarengatik. Europako nazio guztiak beldurtuta zeuden eta gerra saihestu nahi zuten. Hori guztia Espainian proiektatzen zen halaberrez. Espainiako matxinadak areagotu egin zuen Europa osoan zegoen ziurgabetasuna. Ez zekiten Espainian zer gertatuko zen. Espainian, joera ezkeriarrek oso erradikalizatuta egon dira. Nik uste dut nazionalismoak Gerra Zibilean Errepublikaren ondoan parte hartu izanak lasaitasuna eman zuela Europako herrialdeei. Demokrazia finkatuko zela ikusten zuten; izan ere, azken batean, herri hau kontserbadore samarra, katolikoa, ordenakoa eta abar da⁸⁶.

86 EAH, Eusko Jauriaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 8.9. orrialdeak.

10.

EUSKO JAURLARITZAKO NEKAZARITZAKO LEHEN SAILBURUA

Gerra Zibila piztearen ondorioz, Bilbo eta Bizkaiko probintzia Kantauriko eremuko gune garrantzitsu bihurtu zen, Errepublikarekiko leiala zen gunea, eta are gehiago Gipuzkoako probintzia ia osoa 1936ko udararen amaieran errebolta-riren esku geratu zenean, eta fronte-ildo egonkortua bi probintzien arteko muga geografikoetan geratu zenean.

Bizkaian, matxinadaren garrantzia jakin bezain laster, erregimena defendatzeko Komisaria Nagusia eratu zen⁸⁷, Komisaria horren xedea erregimena defendatzeko xehetasun guztiak antolatzeko gobernu-agintaritzarekin batera elkarlanean jardutea izanik. Erakunde hori Errepublikarekiko leialak ziren elkarte politiko eta sindikal guztien ordezkariak osatzen zuten, Bizkaiko Gobernadore Zibila buru zela. Osasun-ordezkaritzaren buru Unión Republicana alderdiko Alfredo Espinosa zen⁸⁸, garraio-ordezkaritzaren buru Alderdi Komunistako Juan Astigarrabia eta Ramón Ormazabal ziren; hornidura-ordezkaritzaren buru Izquierda Republicana alderdiko Cobo-Cayón eta Martínez Toro ziren; ordena publikoarena Echevarría Novoa gobernadore zibila; finantza-ordezkaritzarena EAJko Eliodoro de la Torre; informazioarena EAE/ANVko Juan Carlos Basterra eta Tomás Echave; eta gerrarena PSOEko Paulino Gómez Saiz. Azken ordezkariak hori hiru komisariak osatzen zuten: izena emateko eta errekrutatze komisaria, Mardaras jaunak zuzentzen zuena, unitate eta espedizioetako komisaria, Zapi-irain buru zuena, eta zamalanak, soldaduen armak eta hornidura komisaria, komisariora Gonzalo Nardiz izanik⁸⁹. Hiru komisaria horiek Bizkaiko Aldundiko Artxibo-Liburutegiaren eraikinean zeuden, Astarloa kalean.

Militarren altxamenduaren indarra egiaztatu ondoren, erakunde horren ordezkariak Bizkaia Defendatzeko Batzordea⁹⁰– 1936ko abuztuaren 12an eratu zena– jarri zen, bazekitelako Komisariaren funtzionamendua berrantolatu behar zela Komisariaren eraginkortasuna hobetzeko. Batzorde horretan, legezketasun errepublikanoarekin konprometituta zeuden indar politiko eta sindikal guztiek hartzen zuten parte. Batzorde horren buru José Echevarría Novoa gobernadore zibila, Gobernazio sailaz ere arduratzen zena, izan berriro ere, eta Batzordea honako hauek osatzen zuten: Paulino Gómez Saiz (PSOE) defentsan, Eliodoro de la Torre (EAJ) finantzetan, Juan Carlos Basterra (EAE/ANV) osasunean, Juan Astigarrabia (PCE) garraioetan, Alfredo Espinosa (UR) komunikazioetan, Julio Jauregui (EAJ) industrian, José Gorostiza (PSOE) lanean, Ramón Aldasoro (IR) merkataritzan eta horniduran, eta Pablo Valle (CNT) laguntza sozialean. Defentsa Batzordeak gobernadore zibilak zuen Errepublikaren

87 *El Liberal*, 1936-07-24.

88 Jon Penche, *Alfredo Espinosa Orive (1903-1937). Un republicano al servicio de Euskadi*, Bilbo, Eusko Jaurlaritza, 2012.

89 *El Liberal*, 1936-08-05 eta 1936-08-12.

90 *El Liberal*, 1936-08-13.

Gobernuan eskuordetutako ahalmenak zituen, baita zirkunstantzien ondorioz bete behar zituen beste batzuk ere. Batzordeak egunero bildu behar zuen, eta egunero ez bazen ere, astean hiru egunetan bildu behar zuen eta Batzordean hartutako erabakiak argitaratu egin behar ziren erabaki horiek jendeak jakitea komenigarria bazen. Erakunde horrek probintziako bizitza politiko eta administratiboaren zuzendaritza hartu zuen bere kontrolpean, eta indarrean egon zen Autonomia Estatutua onartu zen arte eta Eusko Jaurlaritza eratu zen arte. Eusko Jaurlaritza eratu zenean, hari eskualdatu zizkion eskumen guztiak.

Gonzalo Nardizek Defentsa Batzordean hartu zuen parte, Paulino Gómez Saiz sozialista buru zuen Defentsako ordezkartzan. Saileko delegatu berezi izendatu zuten soldaduak hornitzeari buruzko zeregin orotan esku hartzeko eta erabakiak hartzeko ahalmen guztia izanik,⁹¹ hau da, Komisarian garatzen zuen zereginaren oso antzeko zeregina bete behar zuen. Nardizek berak esan zuenaren arabera, Defentsa Batzordearen lehenengo helburua honako hau zen: «Gobernadore zibilaren agintaritza indartzea, gobernadorea altxamendua pairatu zuen Errepublikaren ordezkaria zen⁹²».

Nardizek postu horretan ez ezik, Komisarian betetzen zuen postuan ere bete behar zituen eginkizunak honako hauek ziren: herrialdean eta atzerrian soldaduak hornitzeko zeuden modu guztiak lortzea, bai soldaduei armak eta elikagaiak emateko baita bestelako baliabideak emateko ere. Nardizek berak esaten zuenaren arabera, lan asko egin behar zuenez, bulegoan bertan lo egin behar izaten zuen:

Gauza batzuk kanpotik ekartzen ziren. Leku guztietatik ekartzen genituen gauzak. Hornidurari dagokionez, esan daiteke antolamendua oso handia izan zela gerra batek dituen zailtasunak eta Bilbora emigratzen zuen jende kopurua (ez dakigu nondik etortzen ziren) kontuan hartzen baditugu. Baliabideen banaketa oso urria zen, baina jendea asebetetzea lortzen zen, eta batez ere banaketak egiteko garaian inbidiarik ez izatea lortzen zen, nahiz eta banaketak inperfektuak ziren halaberrez.

Fronteetan esan zidaten azienda hiltzen hasi zirela. Berehala lortu nuen horrekin bukatzea⁹³.

Soldaduei banatzeko une hartan zituzten armei dagokionez, Nardizek honako hau esan zuen:

Oso arma gutxi zeuden. Garellanon zerbait atera genuen Guardia Zibiletik. Gero itsasontzi batzuk iritsi ziren. Telesforok esku-hartze baten bitartez material asko samar lortu zuen. Horretan guztian militarrek, alderdietako jendeak eta beste hainbatek esku hartzen zuten. Oso zaila zen dena kontrolatzea⁹⁴.

Garellano kuarteletik armak lortzeari dagokionez eta han kuarteleratutako soldaduek errebolitari frankistekin elkartzeak zuen arriskuari dagokionez, altxamendu errebolitaria gertatu eta handik gutxira izandako gertaera hau kontaktzen zuen Nardizek:

Militarrak zirenez matxinatu zirenak, gu, jakina, oso erne geunden ez baikenekien Garellanon kuarteleratutako soldaduek zer jarrera hartuko zuten. Soldadu horiek Andrade komandantearen aginduetara zeuden, eta bagenekien komandante horrek ideia errebolitariak zituela. Armak behar genituen, eta kuartelean soilik lor genitzakeen, baina kuartelari eraso egiten bagenion, gerta zitekeen soldaduak haserretzea eta ordura arte egin ez zuten urratsa egiteko erabakia hartzea. Gure artean iritzi desberdinak zeuden nola jokatu

91 *El Liberal*, 1936-08-22; *El Noticiero Bilbaino*, 1936-08-22.

92 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 10. orrialdea.

93 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 11. orrialdea.

94 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 12. orrialdea.

behar genuen erabakitzeke garaian: batzuk Eraso Guardiako kapitain Aizpuruaren iritzi berekoak ziren, hau da, «manu militari» sartzearen aldekoak ziren, baina beste batzuen iritzia moderatuagoa zen, esate baterako Colinarena, hark uste baitzuen unitate militar orotan, matxinatzeko ideiar dagokionez, denbora-tarte labur samar batean matxinatzen ez baziren, matxinatzeko aukerak murriztu egiten zirela pixkanaka; eta, beraz, zuhurrak izatea gomendatzen zuen. Denbora pixka bat igaro ondoren, erabaki zen aldeko jende segurua sartzea Garellanon, gure unitateek –gure milizia sortu berriei horrela dei bageniezaiekeen behintzat– instrukziorik ez zutela eta unitateak trebatzea ezinbestekoa zela aitzakia jarrita. Paulino Gómez Saiz Defentsa Batzordeko buruak kudeaketa delikatu hori Apariciori, hau da, kuartelean jarduten zuen instruktoreari eta niri agindu zigun. Ni garai hartan Soldaduak Hornitzeko Komisariaren arduraduna nintzen. Gauzak horrela, gau batean kuartelera joan ginen, eta banderen gelan Anglada komandantearekin ofizialtasun osoz izan genuen bilera maltzur samar batean onartu zuten gure proposamena: Aparicio milizianoen instrukzioaz arduratuko zen eta ni zegoen guztiaz, hau da, arropaz eta elikagaiez arduratuko nintzen. Hurrengo egunean jende ugari sartu zen kuartelean, bereziki sozialistak, instrukzioa jasotzeko, eta horrela militarrek altxatzeko eduki zitzaizketen asmoak kontrolatzen zituzten. Gogoan dut materialaz arduratzeko bidali nuen mendekoa ikaratuta itzuli zela eta jaso zuenaren artean lau mila alkandora urdinen sorta bat aurkitu zuela esan zidala. Horrek argi eta garbi uzten zuen Garellanoko agintari militarrek benetan zer pentsatzen zuten, Herriko elementu errebolitaria sartzearen zain zeuden, baina azkenean ez zen horrelakorik gertatu. Ezikusiarrena egin genuen, eta gehiegi argitu gabe kendu egin nituen handik⁹⁵.

Estatutuaren gaiari dagokionez, nazionalistak eta fronte populistak, José Antonio Agirre eta Indalecio Prieto buru zutela, gerra hasi baino lehen ados jarri ziren euskal Estatutu berri bat egiteko, eta Estatutu hori onartzeko prozesua azkartu egin zen gerra hasi zelako. Urriaren 1ean, Gorte errepublikanoak bildu ziren Madrilen eta estatutu-testua onartu zuten aho batez. Testu horretan 14 artikulua zeuden; artikulua horietan eskundutza autonomikoak –aurreko proiektuetan baino txikiagoak– ezarri ziren eta euskal probintzietako ekonomia-itunei indarrean eutsi zitzaizkien; horrez gain, xedapen iragankor bat gehitu zen. Xedapen horretan gerrak irautean zuten bitartean behin-behineko Gobernu bat eratzea arautu zen, ezinezkoa zelako lehenengo Eusko Jaurlaritzak osatzeko hauteskundeak egitea. Gobernu horretako presidentea edo Lehendakaria botoa eman zezaketenean euskal zinegotzietatik Estatutua onartu eta handik 8 egunetara izendatu behar zen.

EAJk eta Fronte Popularrak akordio bat lortu zuten eta akordio horren bitartez Jose Antonio Agirre Lehendakari izendatu zuten. Erabaki horretan garrantzi handia zuen Gortetarako egin berri ziren hauteskundeetan EAJk diputatu gehiago lortu izanak eta euskal nazionalismoak Gerra Zibilarekin behin betiko konprometitu behar izateak⁹⁶.

Urriaren 7a aukeratu zen lehenengo Eusko Jaurlaritzako presidentea izendatzeko eguntzat. Goiz hartan, Bizkaiko eta Gipuzkoako udaletako eta Arabako udal batzuetako zinegotzien artean Lehendakaria aukeratzeko bozketa egin zen Bilbon. Boto-kontaktaren ondoren, espero zen bezala, ia aho batez hautatu zuten Jose Antonio Agirre, boto gutxi batzuk izan ezik, Ramón Madariaga errepublikanoak ere lortu baitzituen boto batzuk⁹⁷. Arratsalde horretan bertan, José Echevarría Novoa gobernadore zibilak eta Bizkaiko Defentsa Batzordeko presidentea,

95 Eugenio Ibarzabal, *50 años de nacionalismo vasco*, Donostia, Ediciones Vascas, 1978, 152.156. orrialdea. Gertakizun hori EAHn ere (Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 12. orrialdea.) kontatu zuen eta horrez gain, esan zuen aurkitu zuenaren berri eman ziola Paulino Gómez Saizi, eta aurkitu zuen hori laguntza zibilarekin Bilbon matxinoen mugimendu bat prestatu zela egiaztatzen zuen proba zela esan zion, baina ematen zuela ideia hori ez zela mamitu arrakasta izateko aukerari buruzko zalantza asko zituztelako.

96 José Luis de la Granja Sainz, *El oasis vasco. El nacimiento de Euskadi en la República y la Guerra Civil*, Madrid, Tecnos, 2007, 382.384. orrialdeak.

97 Iñaki Anasagasti (zuz.), *El Primer Gobierno Vasco. Del 18 de julio al 7 de octubre de 1936*, Bilbo, Eusko Jaurlaritzak, 1986, 147.149. orrialdeak.

Errepublikaren ordezkari gisa jardun zuenak, Agirre Lehendakari izendatu zuen Gernikako Batzar-etxean eta Agirrek zin egin zuen Gernikako arbolaren aurrean.

Ondoren, Agirrek bere Gobernuaren osaera jakitera eman zuen. Osaera hori Gobernu Zibilaren egoitzan, hots, Bilboko Bankuan, aurretik izandako bilera batean ezarri zen. Bilera horretara Fronte Popularra osatzen zuten alderdien ordezkariak, EAJren ordezkariak eta Iberiar Federazio Anarkistaren ordezkariak bertaratu ziren⁹⁸. Gobernu hori batasun edo kontzentrazio nazionalakoa zen, Gobernu horretan Errepublika defendatzearen alde zeuden indar guztiak baitzeuden ordezkaturak, anarkistak izan ezik. Sailburuen zerrenda honako hau da: zerrendaren buru Agirre bera zen, lehendakartzaz gain Defentsako sailburua zen, Telesforo Monzón (EAJ) Gobernazioaz arduratzen zen, Eliodoro de la Torre (EAJ) Ogasuneko sailburua zen, Jesús María Leizaola (EAJ) Justizia eta Kultura Sailekoa, Gonzalo Nardiz (EAE) Nekazaritzakoa, Juan de los Toyos (PSOE) Lan, aurreikuspen eta komunikazioetako sailburua zen, Juan Gracia (PSOE) Laguntza sozialekoa, Santiago Aznar (PSOE) Industriakoa, Alfredo Espinosa (UR) Osasuneko, Ramón Aldasoro (IR) Merkataritza eta horniduretakoa eta Juan Astigarrabia (PCE) Herri Lan eta Komunikazioetako.

Jaurlaritzaren osaeran ikusten zen orekatuta zegoela nazionalista eta ez-nazionalista kopurua (5 sailburu nazionalista, Nardiz barne, eta 6 ez-nazionalista), baina Fronte Popularreko sailburuak EAJkoak baino gehiago ziren (Fronte Popularrekoak 7 eta EAJkoak 4). Bestalde, garai hartan bizi zen gerra-egoeran garrantzi handiena zuten sailak EAJren esku zeuden: Defentsa, Gobernazioa, Ogasuna eta Justizia. Gobernu gaztea zen, batez besteko adina 37 urte zen, baina gobernu osatzen zuten pertsonen esperientzia handia zuten politikan, beren alderdietan eta sindikatueta garrantzi handia zuten pertsonak baitziren eta kargu publikoak bete baitzituzten Errepublikan edo Bizkaiko eta Gipuzkoako Defentsa Batzordeetan⁹⁹. Nardiz, hain zuzen ere, gazteena zen, Agirre eta Monzón (1904. urtean jaioak) baino urtebete gazteagoa zelako eta Jaurlaritzako beste bi sailburu gazteenak, hots, Espinosa eta Aznar (1903. urtean jaioak) baino bi urte gazteagoa zelako.

Agirrek Jaurlaritza berriaren programa ministro-adierazpen batean aletu zuen. Adierazpen horri «Gernikako Adierazpena» deitzen zaio. Lehenik eta behin, gai militarrik zuen lehentasuna, agintari bakar bat jarri behar zen, alderdietako eta sindikatueta miliziak militartu behar ziren Justizia Militarren Kodeari lotuta, eta Merkataritza Nabigazioko elementuek industria mobilizatuan lan egin zutenak izan behar zuten. Bestalde, helburu nagusia gauza guztien gaintetik ordena publikoari eustea zen; horren ondorioz, foru-poliziaren kidego bat sortu zen eta kidego hori modu modernoan eta eraginkorrean antolatu zen. Programa sozioekonomikoari dagokionez, programa hori erreformista zen eta sistema kapitalista errespetatzen zuen, baina aurrerapen sozial nabarmena izan zuen, produkzio-ondasunak sozializatzerarekin iritsiko baitzen behar izanez gero. Gainera, gerra-zirkunstantziek eskatzen zituzten ekintzak garatzea ahalbidetuko zuen aurrekontu zirkunstantzial bat osatu zen berehala, eta altxamendu errebolta egiten lagundu zuten pertsonen kalte-ordainak ematea ere eskatu zen. Azkenik, herritarren eskubideei dagokienez, Jaurlaritzak banako eskubideak eta eskubide sozialak bermatzen zituen, eta praktika konfesionalarekiko errespetua nabarmendu zen bereziki, egoera prekarioan zeuden herritarrek hezkuntza jasoko zutela bermatu zen, hezkuntzan euskararen erabilera arautu zen eta euskal herriaren ezaugarri nazionalak gorde ziren¹⁰⁰.

Gonzalo Nardiz ustekabeen harrapatu zuen Eusko Jaurlaritzako sailburu izendatu izanak, alderdiko bere kideak arduratu baitziren gobernu osatzeko negozioez eta kide horiek erabaki zuten zer sail esleituko zitzaion. Eusko Jaurlaritza osatu aurreko uneetan Nardiz erabat murgilduta zegoen armadak hornitzeko ordezkari-lanetan, fronteen zituzten premiengatik.

98 *Ibidem*, 153. orrialdea.

99 José Luis de la Granja Sainz, *El oasis vasco...*, op. cit., 386. orrialdea.

100 Programari buruz Agirrek emandako diskurtsoa hemen jasota dago: Iñaki Anasagasti (zuz.), *El Primer Gobierno Vasco...*, op. cit., 154.156. orrialdea. eta Iñaki Garrido Yerobi eta Aitziber Lekuona Iluldain, *Las raíces del árbol del exilio. Las biografías de los consejeros del primer Gobierno de Euzkadi*, Oñati, IVAP, 2006, 32.34. orrialdeak.

Beraz, Nardiz erabaki guztietatik kanpo egon zen azken uneraino eta Gernikara azken unean joan zen, Jaurlaritza osatuta zegoenean¹⁰¹.

101 Eugenio Ibarzabal, *50 años de nacionalismo vasco...*, op. cit., 156. orrialdea.

11. NEKAZARITZA SAILAREN KUDEAKETA

Gonzalo Nardizek zuzendu zuen saila «Villa Menan» edo «Zabalburu Jauregia» ere deitzen zitzaion egoitzan kokatu zen. Egoitza hori Heredia Spínola kondeen jabetzakoa zen eta gaur egun desagertuta dagoen finka zabal batean zegoen, gaur egungo Zabalburu plazan, eta Nekazaritza Saila han jartzeko konfiskatu zen. 1936ko martxoan, finka osoa desjabetu zen Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez eta lehengo jabeai ez zitzairen kalte-ordainik eman ondasunengatik¹⁰². Nolanahi ere, egoitza horretan kokatu aurretik, Jaurlaritzak eraberritze-lan batzuk egin behar izan zituen higiezinan; esate baterako, hegazkinen aurkako babesleku bat eraiki behar izan zuen saileko langileentzat eta herritarrentzat orokorrean¹⁰³. 1936ko azaroaren erdialderako, saila behin betiko ezarrita zegoen jauregian¹⁰⁴.

Gonzalo Nardizek laguntzaile leialak nahi zituen bere inguruan; horregatik, saileko idazkari nagusi izendatu zuen Telesforo Uribe-Echevarria¹⁰⁵, Nekazaritzako zuzendari nagusi izendatu zuen Luis María Elizalde¹⁰⁶ eta aholkulari juridiko izendatu zuen José Ramón Basterra¹⁰⁷; hirurak EAE/ANVko alderdikideak ziren. Mendietako Zuzendaritza Nagusian José Elorrieta Artaza –Bizkaiko Aldundiko baso-zerbitzuko buru zena– jarri zuen aldi baterako¹⁰⁸, eta Joaquín Carrandi Jainaga izendatu zuen Abeltzaintzako zuzendariorde¹⁰⁹. Nekazaritza Sailean 75 pertsonak lan egiten zuten, sailburua eta goi-kargudunak barne¹¹⁰.

Sailaren organigrama¹¹¹ ez zen oso konplexua. Sailburuaren buruzagitza nagusiaren pean, eta hark eskuordetuta, idazkari nagusiaren ikuskapen orokorraren pean, saila honako Zentro hauetan zatituta zegoen:

102 Joseba Agirreazkuenaga eta Mikel Urquijo (zuzendariak), *Senderos de la memoria*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2015, 68.70. orrialdeak.

103 *El Liberal*, 1936-10-28.

104 *El Liberal*, 1936-11-13.

105 Telesforo EAE/ANVren organo ofiziala zen *Tierra Vasca* egunkariaren zuzendari izana zen eta alderdiaren alde ezkertiarreneko kide.

106 Luis María Elizalde EAE/ANVren unibertsitate-batzordeko kide izan zen Madrilen 1931. urtearen hasieran.

107 Basterra 1930eko San Andresko manifestua sinatu zutenetako bat izan zen eta EAE/ANV sortu zuen behin-behineko batzordearen idazkari gisa azaltzen zen. 1936. urtearen hasieran bereizi zen alderditik Fronte Popularrerako joera hartu zuelako.

108 Hasiera batean Frantziara erbesteratu zen, baina 1940. urtean lanean ari zen Lugoko basoburu gisa. 1949. urtean *El castaño en España* liburua argitaratu zuen. Liburu hori Nekazaritza Ministerioak editatu zuen Madrilen. Informazio hori Aritz Ipiña Bidaurrázagak eman digu adeitsuki.

109 Algortako udal-albaitaria izan zen eta Bizkaiko Albaitarien Elkargoko presidentea izan zen 1920. urtetik 1922. urtera bitarte eta 1932. urtetik 1935. urtera bitarte. Gerra zibilaren ondoren Venezuelara emigratu zuen eta han Errepublikak horretako Nekazaritzako zerbitzu ofizialetan lan egin zuen.

110 Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroa, Atal Politiko-Soziala, Bilbo, 218/1.

111 EAHn bildutako erregelamendu batean oinarritua, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtza, Nekazaritza Funtza, Idazkaritza Nagusia, Korrespondentzia. Leg. 408 1. zenbakia.

—Zerbitzu Orokorren Atala.

—Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritza Nagusia.

—Mendietako, Ehizako eta Ibai Arrantzako Zuzendaritza Nagusia.

—Kontularitza eta Esku-hartzea.

—Aholkularitza Juridikoa.

Zerbitzu Orokorren Atala honako honetaz guztiaz arduratzen zen: langileak, materiala, erregistro zentrala, artxiboa, liburutegia, prentsa, baliabideak eta beste Zentroren batean espresuki hartzen ez zituzten gai zehaztugabe guztiak. Ataleko buruak zuzentzen zuen.

Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritza Nagusiak nekazaritza-zerbitzuei, eratorritako industriei, laneko kontuei, landarekin lotutako gaietara eta ikerketa biologikoei buruzko gai orotan zuen eskumena. Zuzendaritza horren mende zegoen Abeltzaintzako Zuzendariordetza eta Zuzendariordetza horrek abere Sustapenari eta Albaitari Higienari eta Osasunari buruzko oro artatzen zuen.

Mendietako, Ehizako eta Ibai Arrantzako Zuzendaritza Nagusiari mendi publiko eta pribatuen Katalogazioari eta mugaketari buruzko oro zegokion, baita birpopulatzeei eta mendiak, ehiza eta ibai-arrantza antolatzeari eta aprobetxatzeari buruzko oro ere.

Kontularitza eta Esku-hartzea arduratzen zen diru-sarrerak edo ordainketak ziren Saileko eragiketen kontabilitate oro formalizatzeko, sistemaren arabera eta ordezkatzeko Ogasun Sailetik jasotzen zituen aginduei jarraikiz. Gainera, ordainketaren bat ziren espediente guztietan eman behar zuen informazioa, funtsak kontsignatzeko, eta pertsonak eta materiala gaitzeko espedienteak prestatu behar zituen Zerbitzu Orokorren Atalburuaren aginduen arabera.

Aholkularitza Juridikoari sailburuaren, Idazkaritza Nagusiaren edo zuzendari nagusien eta Zerbitzu Orokorren Atalburuaren ustez, txostena behar zuen espediente guztietan zuzenbideko txostena egitea zegokion.

Sailburuari, Saileko goreneko burua zenez, Saileko zerbitzu guztien ekimena eta goreneko zuzendaritza zegokion, baita bere langileak izendatzea eta bereiztea, Saileko gainerako Zentroek eta bulegoek hartutako erabakien aurka aurkezten ziren baliabide guztiak behin betiko ebaztea, beste Sail edo erakunde batzuen eskumen-gaiak proposatzea eta ordainketa guztiak agintzea ere. Gainera, idazkari partikular bat zeukan bere agindupean, eta sailburuari espresuki zuzentzen zitzaizkion eskari, dokumentu eta entzuteko eskaera guztiak aurkeztu behar zitzaizkion idazkari horri.

Bestalde, Saileko idazkari nagusia, sailburua ordezkatzuz, gai guztiak ondo zihoazela zaintzeko arduratzen zuen Saileko buru ikuskatzailea zen. Bereziki, ministro-aginduak eta langileak izendatzeko aginduak lekuz aldatzeko baimena ematea zegokion, baita gai horri buruz sailburuak hartutako gainerako erabakiak hartzeko baimena ematea ere. Artxiboak edo Saileko beste bulego batzuek jaulki behar zituzten ziurtagiriak baimentzea, haien kontabilitatea agintzea eta fiskalizatzea, *Diario Oficial del País Vascon* argitaratu behar ziren xedapen orokorrak egunkari horretan sartzeko beharrezkoa zena edukitzea, Sailaren sinadura eramatea sailburuaren ordezkartzean eta bere sinadura eskuordeztea, halaber, Zerbitzu Nagusietako Zentroetako edo Ataleko buruei.

Bisita-erregimena zabala zenez, herritarren eskaerak eta gomendioak edozein ordutan artatzeko aukera zegoen. Zerbitzu Orokorren Atalari lotutako Erregistro Zentral batek Sailean sartzen eta ateratzen ziren dokumentuen berri ematen zuen egunero, eta bulego horrek bakarrik zuen Sailean ofizialki aurkezten ziren dokumentu guztiak jasotzeko baimena.

Gonzalo Nardizek zuzentzen zuen Sailaren xedea nekazaritza eta abeltzaintzako aberastasuna

sustatzea eta landa-jabetzaren erregimena aldatzea zen, baina gerra-egoera zela medio Sail horren ahalegin gehienak nekazaritzako, abeltzaintzako eta basoko ondarea kontserbatzera eta zaintzera bideratuta egon ziren; izan ere, ondare hori arriskuan zegoen gerra-garaian landan laneskurik ez zegoelako eta armadak nahiz biztanleria zibilak premiak zituelako.

Nekazaritza Sailak gerra-egoeran jarri behar izan zuen arreta berehala, eta beste proiektu oso garrantzitsu batzuk, hala nola jabetzarako sarbidea, aztertu gabe utzi behar izan zituen. Horri dagokionez, honako hau esan zuen Gonzalo Nardizek:

Guztion artean erabaki genuen gure herrialdeak nekazaritzari dagokionez zer etorkizun izango zuen aztertu behar zela, unean-unean urgentea eta premiazkoa zena artatzea bazter utzi gabe. Gure ezagutzak eta borondatea etorkizuneko azterlanak egiteko erabiliko genituen. Oso azterlan interesgarriak egin ziren.

Jabetzarako sarbidea izan da beti egon den arazo nagusia. Gure baserriak asko balio izan du beti, errentan ez, baina bai prezioan. Baserriarrak azken urte hauek arte ez du jabe izateko aukerarik izan inoiz. Hori guztia baserriarra baserrian bizi izan zen denbora kontuan hartuta aztertu zen, baina ez baserriarrak zeraman denbora kontuan hartuta aurreko belaunaldiak zeramatena kontuan hartuta baizik. Suposatzen zen horrek guztiak ekarriko zuela baserriarrak lantzen zituen lurak hobetzea, eta horren ondorioz, etekina lortzea prezioa murrizteko eta horretarako ezinbestekoak ziren kredituak ahalbidetzeko.

Horrekin guztiarekin dagoeneko bukatuta zegoen lege bat egin zen, baina nik ez nuen lege hori onartu nahi izan ez zelako une egokia. Lege horrek iraultza ekarriko zuen. Nik erakunde politikoei, sindikatuiei, ermandadeei, prentsari eta abarri eman nien horren berri, iruzkinen bat egin nahi bazuten ere. Arazo horiek guztiak aztertzeke esan nien, era horretan iruzkinak egin diezazkidaketelako, ni iruzkinak entzuteko gogoz nengoelako, eta, horrela, guztiontzat komenigarria eta baliagarria zen oro txerta zitekeelako¹¹².

Nekazaritzaren alorreko eskumenei dagokienez, Luis María Elizalde buru zuen Zuzendaritza Nagusiaren jarduna oso arlo zehatzetara mugatu zen gerra-egoera zela medio. Lehenik eta behin, tabakoa bildu eta landatu zuen; horretarako, 20 tona tabako-landare bildu ziren eta saileko lokaletan biltegiratu ziren landare horiek han tratatzeko. Gainera, haztegi ofizialak sortu ziren eta hainbat tabako-eremutan ikastaroak eman ziren tabakoa landatzen irakasteko¹¹³.

Bigarrenik, Zuzendaritza horren beste zeregin bat ongarriak eta haziak ikuskatzera eta aztertzerara bideratuta egon zen. Produktu horien merkataritza arautzeko erregistroak ireki ziren eta produktu horiek baliatzen zituzten guztiak erregistro horietan inskribatu behar izan ziren. Horrez gain, gai horri buruzko erregelamendu bat argitaratu zen eta haziak eta ongarriak aztertzeke Laborategi ofizial bat irekitzea pentsatu zen¹¹⁴ hazien eta ongarrien kalitatea kontrolatzeko, iruzurra saihesteko eta ezagutza berriak lortzeko, baina Laborategi hori ezin izan zen ireki hura garatzeko astirik izan ez zelako. Era berean, ongarrien fabrikazioa eta salmenta arautzeko, ongarrien izakinei buruzko estatistika bat egin zen¹¹⁵, hainbat zirkular argitaratu ziren ongarrien prezioa kontrolatzeko¹¹⁶, espekulaziorik ez izateko, eta ongarrien handizkako salmenta erregularizatu zen. Artoaren eta indaben haziei dagokionez, nekazariei¹¹⁷ eta udalei¹¹⁸

112 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 14. orrialdea.

113 Federico Zabala Allende, *El Gobierno de Euzkadi y su labor legislativa 1936-37*, Oñati, IVAP, 1986, 164. orrialdea.

114 *Diario Oficial del País Vasco* (aurrerantzean *DOPV*), 1936-11-19ko Dekretua.

115 *DOPV*, 1936-12-10eko Agindua.

116 *DOPV*, 1937-01-04ko Zirkularra, 1937-02-09ko zirkularra, 1937-03-20ko Agindua.

117 *DOPV*, 1937-04-02ko Agindua.

118 *DOPV*, 1937-03-13ko Agindua eta 1937-05-13ko Agindua.

agindu zitzaien soberakina entrega zezatela ereite-lanak amaitu ondoren. Azkenik, 1937ko apirillean patata goiztiarra ateratzea debekatu zen, eta patata tempranilloa ateratzeko baimena eman zen hurrengo hilean¹¹⁹.

Hirugarrenik, Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia pentsua hornitzeaz arduratu zen. Horretarako, zegoen pentsuaren banaketan zuzenean esku hartu zuen, aziendari buruzko estatistika-fitxategiak sortu zituen Udalen eta Elkartearen arabera, azienda bakoitzaren premien eta azienda horiek zeuden nekazaritza-eremuen baldintzen arabera egin zituen esleipenak, gerra-premiei lehentasunak emanez¹²⁰. Sobratutako pentsua eta bazka saltzeko baimena eman zen, baina saltzeko gehieneko prezioak ezarri ziren¹²¹. Azkenik, erremolatxa eta bazka-arbiak herritarrek jateko erabiltzea debekatu zen, eta erremolatxa eta bazka-arbia behar zituzten nekazariak landare horiek erosteko baimena Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusian eska zezatela ezarri zen¹²².

Laugarrenik, nekazaritza eta abeltzaintzako elkartearen Erregistro bat ireki zen Sailak ematen zituen onurak lortu nahi zituzten elkarte guztientzat; hala eta guztiz ere ezin izan zen gai horri buruzko legegintza finkorik eman gerrarengatik¹²³. Bestalde, soldadutzara deitu ziren eta landalanak egiteko ordezkorik ez zuten nekazariak armadan ez sartzeko baimena eman zitzaion¹²⁴.

Bosgarrenik, uztak eta bereziki patata areagotzeko kanpaina bat egin zen herritarrek hornitzeko asmoz; gainera, bazka-produktuak metatu ziren azienda elikatzeke eta erremolatxa-haziak metatu ziren ereiteko¹²⁵.

Seigarrenik, Nekazaritza Sailari ahalmena eman zitzaion jabeek edo maizterrek lantzen edo erabiltzen ez zituzten lur guztiak aprobetxatu behar zirela agintzeko eta aprobetxamendu hori arautzeko. Aprobetxamendu horiek egin nahi zituzten pertsonak Sailari eskatu behar zioten baimena, eta Sailak horri buruzko erabakia hartuko zuen¹²⁶.

Azkenik, Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusiak Laborantza Erreformari eta Jabetzarako Sarbideari buruzko proiektu bat egin zuen eta honako jarraibide hauek ezarri zituen proiektu horren gainean: jabetza berrerostea, kalte-ordaina eman ondoren, zuzenean lantzen ez duten titularrei maizterren mesedetan; ondorio gisa familia baten biziraupena ematen duten lursailak berriz elkartzea, denborarik eta lanik ez galtzeko; teknika hobetzea laboreak arrazionalizatu Sailak jarritako arauekin.

Abeltzaintzaren eta abeltzaintza-industriaren alorreko eskumenei dagokienez, Joaquín Carrandik zuzentzen zuen Abeltzaintzako zuzendariordetzak ahaleginak egin zituen hain gai zail batean ordena jartzeko gerra-garaian. Lehendabizi, zegoen aziendari buruzko estatistika bat egin zen eta hainbat neurri hartu ziren, hala nola etxe-abereak hornidura publikorako hiltzea debekatu zen¹²⁷, Holandako, Suitzako eta Pirinioetako arrazako 2 urtetik 8 urtera bitarteko behiak hiltzea debekatu zen, ugalketa-zerbitzuko behitarako zezanak hiltzea debekatu zen, Estatuko eta Aldundietako liburu nagusietan inskribatuta zeuden behiak eta txahalak hiltzea debekatu zen, eta, era berean, hegazti-espezietik, untxi-espezietik eta azienda beltzetatik hautatutako

119 DOPV, 1937-04-16ko Zirkularra eta 1937-05-27ko Zirkularra.

120 DOPV, 1936-11-30eko agindua. 12.000 tona pentsu baino gehiago banatu ziren 1936ko azarotik 1937ko maiatzera bitarte. Federico Zabala Allende, *El Gobierno de Euzkadi...*, op. cit., 165. orrialdea.

121 DOPV, 1937-02-09ko zirkularra.

122 DOPV, 1937-03-06ko dekretua.

123 DOPV, 1936-12-22ko zirkularra.

124 DOPV, 1937-03-10eko agindua.

125 Federico Zabala Allende, *El Gobierno de Euzkadi...*, op. cit., 166. orrialdea.

126 DOPV, 1937-04-21eko dekretua.

127 DOPV, 1936-10-14ko Dekretua.

animaliak hiltzea debekatu zen. Bestalde, behi-azienda markatu zen animalia horiek zuten berezitasuna zela medio kontserbatu behar zirenak ez hiltzeko, abeltzainek animaliak zaintzen hainbeste urtetan egindako lana ez hondatzearen. Ondoren, antzeko markak jarri zitzaizkien gainerako azientei eta etxeko hegaztiei.

Zuzendariordetza hau azientaren ebakuazioaz ere arduratu zen; hasiera batean Gipuzkoatik eta Arabatik ebakutzeaz, eta, ondoren, frontearen lerroa Bilbora hurbiltzen zen heinean, azienda biltzeko eremuak sortu zituzten atzeguardian¹²⁸.

Agindu murriztaileak eman ziren txahalak hiltzeko, azientaren aurrekoaren hazkuntza ahalbidetzeko¹²⁹; horretarako, mota horretako azientarako azoka berezi bat ezarri zen Portugaleten¹³⁰. Baimena eman zen lau familiaren artean txerri bat hiltzeko norberaren kontsumorako, baina arau batzuk kontuan hartuta. Santanderren esnetarako azienda erosteko oinarriak ezarri ziren¹³¹. Zaldi-azientaren haragia kontsumitzeko baimena eman zen¹³². Animalien ezkutuko trafikoaren aurka borrokatu zen. Aziendaren gaixotasunen agerraldi-kasu batzuetan esku hartu zen, gaixotasunak hedatzea saihesteko.

Azkenik, abeltzaintzako zuzendariordetzak, albitari gutxi izatearen arazoa konpontzeko, 4. eta 5. mailetako ikasleek lanbidea betetzeko ahalmena izatea ahalbidetu zuen, horretarako antolatutako ikastaro batzuetan gaitasunak zituztela erakutsi ondoren¹³³.

José Elorrietak zuzentzen zuen Mendietako, Ehizako eta Arrantzako Zuzendaritza Nagusiaren jardueri dagokionez, jarduera horiek gerra-egoerak markatu zituen, eta, hortaz, basoaren alorra hartu zuten kontuan batez ere. Erregairik ez zegoenez, zuhaitzen abusuzko mozketak debekatu zen¹³⁴. Apeak ataltzea debekatu zen eta apeak guztiak bahitu ziren¹³⁵. Zur-erregaiaren premia oso handia zenez eta baso-masa gazteena kontserbatu nahi zenez, zuhaitzak moztea debekatu zen aurretik Mendietako Zuzendaritza Nagusiari jakinarazten ez bazitzaion¹³⁶; gainera, agindu bat eman zen, non ezartzen zen Udal guztiak beren udal-mugartetako zuhaitzen zerrenda xehatua egin behar zutela eta industrialek zinpeko deklarazio bat egin behar zutela izakin horiek zeudela egiaztatuz¹³⁷. 1937ko martxotik aurrera, borroka areagotu zirenean, Sailak ezarri zuen hark bakarrik emango zizkiola sutako egurra eta zura armadari, era horretan saihesten zuen batailoien intendentziak beren kabuz hornitzea, eta horren ondorioz, kontrolik gabeko deforestazioa gertatzea¹³⁸. Apirilaren amaieran, zur-erregai izateko premia handia zenez, Nekazaritzako sailburuari ahalmena eman zitzaion jabetza partikularreko zuhaitz-masak bere eskura edukitzeko, desjabetzearen bitartez, baita jabetza publikoko zuhaitz-masak edukitzeko ere, betiere dagokion Udalari bidezko prezio bat ordaindu ondoren¹³⁹.

Ehizaren eremuari dagokionez, Euskadiko lurralde osoan ehiza egitea debekatzen zuen dekretua eman zen; horrekin lortu zen atzeguardian armak erabiltzeko baimenen kontrolik ez

128 *DOPV*, 1937-06-07ko Agindua.

129 *DOPV*, 1936-11-20ko Agindua.

130 *DOPV*, 1936-12-23ko Agindua.

131 *DOPV*, 1936-12-21eko Zirkularra.

132 *DOPV*, 1936-11-21eko Agindua.

133 *DOPV*, 1936-12-09ko dekretua.

134 *DOPV*, 1936-11-06ko Agindua.

135 *DOPV*, 1936-11-19ko Agindua.

136 *DOPV*, 1937-01-15eko Agindua.

137 *DOPV*, 1937-01-19ko Agindua.

138 *DOPV*, 1937-03-18ko Agindua.

139 *DOPV*, 1937-04-21eko Agindua.

izatea, Elkarre Zinegetikoen eskaerak kontuan hartzea, ehiza denboraldi luze batean eragozteari dagokionez, faunaren populazioa areagotzeko, atzeguardiako eremuetan tiroek sor zezaketen alarma saihesteko eta legez kontrako merkataritza sor ez zedin saiatzeko¹⁴⁰.

140 *DOPV*, 1936-12-30eko dekretua.

12. BILBOREN, SANTANDERREN, SANTOÑAREN ERORIKOA

1937ko martxoaren amaieran, Madrileko frontearen geldialdiaren ondoren, matxinatuak Errepublikarekiko leiala zen Kantauriko lurralderantz itzuli ziren. Lurralde hori isolatuta zegoen aurreko udan ia Gipuzkoa osoa hartu zutenetik eta fronte-lerroa Bizkaiko ateetan geratu zen. Lurralde hori konkistatzeak, gainera, baliabide estrategiko garrantzitsuak eman ziezazkiokeen bando nazionalari. Urtearen hasieratik, Bizkaiko hainbat herrik bonbardaketak pairatu zituzten maiz samar; horren ondorioz, baja ugari izan ziren eta herritarrak ikaratuta zeuden. Basakeria horren une ahaztezinak Durangoko bonbardaketa (martxoaren 31) eta Gernikako bonbardaketa dira (apirilaren 26a).

Matxinoak Bilbora hurbildu ziren, eta ekainaren 11n «Burdin Hesia» erasotzeari ekin zitzaion. Ekainaren 12an, Agirre Lehendakariak berak esan zuenaren arabera, bateriek eta aireko bonbardaketak egindako «eraso ikaragarri» baten ondoren, nazionalak Bilboko hesia gainditu zuten Gaztelumendi mendia parean, eta Bilboren erdigunetik 10 kilometrora utzi zituzten.

«Burdin Hesiaren» erorikoari dagokionez eta armada matxinoaren indar militarri aurre egiteko baliabide gutxi izateari dagokionez, Nardizek honako hau esan zuen:

Matxoan hasi zen erasoaldi handia, espero genuen gertatuko zela, baina harrিতa geratu ginen zigorra izugarria izan zelako; izan ere, zigorra ez zuen soilik tropak pairatu, herritar zibilek ere pairatu zuten, eta erasoaldi horren aurka ezin genuen ezer egin, ez lurretik eta are gutxiago airetik. Hori izan zen, halaber, «Burdin Hesiaren» erorikoaren azken arrazoia; izan ere, hesia ondo eraikita bazegoen ere, ez zen nahikoa izan erasoaldiak izan zuen gainezkatze-potentziari eusteko. Atzera-egite horietan zehatz-mehatz borrokatzen da, sufrimendu handiz, baina atsedetik hartu gabe; horregatik, soldaduek leher eginda bukatzen dute eta atzera-egite horiek ondoriogabeak izaten dira, baina hori guztia alde batera utzita, esan behar da «Hesiaren» erorikoaren arrazoi nagusia haren aurka zetorrenari gogor egiteko modurik ez izatea izan zela. Zer soldaduekin estali behar genituen lubaki haiek?, non zeuden kasamatetan jarri behar ziren metrailadoreak?, eta batez ere, nola defendatuko ginen abiaziorik gabe, ezin baikenuen ezer egin haien aurka? Horixe da euskal frontea erortzearen arrazoi nagusia, baina ezin dugu ahaztu euskal soldaduek ahalegin handia egin zutela eta ausardia handia izan zutela, eta horri esker borrokak amaieraraino iraun zuen, egunez izaten ziren bonbardaketa ugariak galarazten zizkiguten posizioak behin eta berriz berreskuratzen zituzten gauean¹⁴¹.

Ekainaren 13an, Agirre Lehendakariak Bilbo defendatzeko aginduak eman zituen, baina argi zegoen soldadu matxinatuak Hiria inguratzen zuten mendietara iristen zirenean, erabat ezinezkoa izango zela Bilbo defendatzea; horregatik, hilaren 14tik aurrera, Bilbo ia erabat inguratuta zegoela, Gobernu herritar zibilak ebakutzen hasi zen.

141 Eugenio Ibarzabal, *50 años de nacionalismo vasco...*, op. cit., 165.166. orrialdeak.

Hilaren 16an Eusko Jaurlaritza agintari militarrekin elkartu zen, Gamirrekin besteak beste. Bilera horretara, Lehendakariak gain, Leizaola, Torre, Aznar, Toyos, Astigarrabia sailburuak eta Nardiz bera joan ziren. Bilera hartan esan zen etsaia Bilbo inguratzen ari zela, eta Leizaolak esan zuen beste hiriburu batzuen aldean, Madril eta Oviedo, esaterako, oso zaila zela Bilbo defendatzea. Agintari militarrek esan zuen alferrik zela armada hiltzea Bilbo defendatzen eta komenigarriagoa zela beste lerro batzuk defendatzea. Azkenik, erabaki zen soldaduek atzera egiten zutenean beharrezkoa zena baino gehiago ez zezatela suntsitu¹⁴². Gonzalo Nardizek honela gogoratu zuen bilera garrantzitsu hura:

Erorikoaren bezperan, agintari militarrek jakinarazi ziguten Bilbok ez zuela aurka egiteko aukerarik; nahikoa omen ziren Artxandan jarritako metrailadore batzuk Bilbo geldiarazteko eta guztiok arratoiak sotoetan bizi diren bezala bizi behar izateko¹⁴³.

Hilaren 17an, Agirre eta Torre, Monzón, Toyos eta Aldasoro sailburuak eta Nardiz bera Turtziozera –garai hartako Santander probintziarekiko mugan dagoen Bizkaiko herrira– joan ziren eta Aznar, Astigarrabia eta Leizaola sailburuak Bilbon geratu ziren atzera-egitea agintzeko¹⁴⁴. Egun horretan bertan 20.000 bonba inguru erori ziren Bilbon, horrek aurrelari-talde bat ordezkatzeko zuten lurreko behin betiko eraso egiteko.

Ekainaren 18an, azken soldaduak hiritik erretiratzeko agindua eman zen. Azken unitatea hilaren 19ko goizaldean atera zen Bilbotik, eta hiriburuan gudaririk eta milizianorik geratu ez zenez, soldadu frankistak sartu ahal izan ziren, egun horretako arratsaldean bertan sartu ziren.

Turtziozen zeudela, Lehendakariak Gonzalo Nardizi eskatu zion Barakaldora laguntzeko iparraldeko armadako buru zen Gamir Ulibarri komandantearekin batera, soldaduak eremu horretan nola zeuden ikusteko eta irauteko aukerarik ote zegoen ikusteko:

Turtziozen geundela, Lehendakariak eskatu zidan lagundu niezaiola, Gamir Ulibarriekin batera, Barakaldoko eremuan egoera nolakoa zen ikustera. Garayren zapata-dendan elkartu ginen, Burtzeñan. Ez dakit Gamirrek zer pentsatuko zuen, baina nik Jose Antoniori argi eta garbi esan nion han ezin zela askorik egin; soldadu gehienak Barakaldokoak ziren, eta nik ez nuen defendatzeko aukera handirik ikusten, hura ia entrega bat izan zitekeen eta dena bukatzeko zorian zegoen, baina guk borrokatzen jarraitu behar genuen. Turtziozera itzuli ginen eta handik Santanderra¹⁴⁵.

Lehendakaria eta bere sailburuak, baita Nardiz ere, ekainaren 30era bitarte egon ziren Turtziozen. Egun horretan, ordea, matxinoek aurrera egin zuten, Lehendakariak Euskadi utzi egin behar izan zuen eta Santanderrera joan behar izan zuen. Turtzioztik atera aurretik, Lehendakariak manifestu bat egin zuen. Manifestu horretan Eusko Jaurlaritzaren jardun humanitarioa defendatu zuen eta errepresio frankistaren aurka eta atzerritarrek gerran izandako esku-hartzearen aurka protestatu zuen.

Turtzioztik atera ondoren, sailburuak –Leizaola, Aznar eta Astigarrabia barne– Santanderra joan ziren. Nardizek Jose Antonio Agirrerekin eta Modesto Arambarrerekin –euskar armadaren komandante eta Lehendakariaren aholkulariarekin– egin zuen bidaia¹⁴⁶. Santanderra iritsi zirenean, Cabo Mayorreko eremuko txalet batean gelditu ziren.

142 EAH Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtza, Defentsa Sailaren Funtza.

143 Eugenio Ibarzabal, *50 años de nacionalismo vasco...*, op. cit., 169. orrialdea.

144 Horri dagokionez, Nardizek honako hau esan zuen: «Bilbo ebakutzea erabaki genuenean, pentsatu genuen pertsona erantzule batzuek geratu behar zutela bertan indar armatuek eta zibilek eraispenik ez egiteko. Gehiegikeriak saihestu nahi genituen, besterik ez». Iturria: EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtza, Carlos Blasco Olaetxea Funtza, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 21. orrialdea.

145 Gonzalo Nardizen oroitzapenak Jesús María Leizaolaren heriotza dela-eta. Iñaki Anasagastik utzia adeitsuki.

146 Pertsonaiaren biografia bat irakur daiteke hemen: Andoni Bergara, *Modesto Arambarri Gallastegui (1902-1988)*, Bilbo, Bilboko Udala, 2006.

Santanderren, Eusko Jaurlaritzak ikusi zuen hango giroa eta Euskadikoa oso desberdinak zirela, desordena nagusitzen baitzen han. Tokiko agintariak etsaitasunez hartu zituzten buruzagi politikoak eta iheslariak. Eusko Jaurlaritzaren kezka nagusi bat Santanderreko euskal iheslariak artatzea izan zen, haiei alojamendua eta biziraupena bilatzen saiatu ziren, eta beste kezka bat iheslari horiek Frantziarantz ebakutzea izan zen.

Agirrek, bestalde, jarduera gogor bati ekin zion euskal armada Kataluniara eramateko asmoz, Frantziatik igaro ondoren. Horretarako, kudeaketa batzuk egin zituen Valentzian –Azañarekin eta Negrínekin–, Madrilen –Priorekin–, Bartzelonan –Companys presidentearekin– eta Parisen –Frantziako agintariekin–, baina Agirrerren plana ez zetorren bat agintari errepublikanoen errezeloekin, ezta Frantziako agintarien errezeloekin ere eta batez ere horiekin; izan ere, euskal armada Frantziatik igarotzeak esku ez hartzeko akordioa urratuko zuen.

Santanderren bizi izandakoari buruz, euskal iheslariak eta soldaduek Santanderren izan zituzten arazoak gogoratu ditu Nardizek:

Gudariren bat hilda azaldu zen hondartzan, baina heriotza horiek ezin zitzaizkion inori leporatu, ez baikenien norik egin zituen. Edozein izan zitekeen hiltzailea.

Gure jendeak zalantza asko zituen eta zer egin behar zuten galdetzera etortzen ziren guregana¹⁴⁷.

Soldadu frankistak hiriburua aretean zeudela, Lehendakaria abuztuaren 24an atera zen Santandertik Biarritzerantz Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoa zen Negus hegazkinean Monzón eta Torre sailburuekin. Nardiz eta Leizaola ere lehentxeago atera ziren Iparralderantz hegazkin batean.

Hori ez zen izan Gonzalo Nardizek Kantabria zapaldu zuen azken aldia gerrak iraun zuen bitartean; izan ere, geroxeago ere itzuli zen Santoñako Ituna zela medio. 1937ko udaberriaz geroztik, Bilboren erorikoa gertatu aurretik, EAJko buruzagiek errenditze-akordio bat negoziatu zuten Vatikanoren bitartekotzarekin. Bizkaiko hiriburua erori ondoren, eta Eusko Jaurlaritza Santanderren zegoela, EAJko burukideak Italiako armaden agintaritzekin eta agintariekin negoziatzen hasi ziren, euskal soldaduak Italiako soldaduen mende geratzeko eta euskal soldaduak Italiako soldaduen preso izateko indar frankisten preso izan ordez, eta horren truke zin egin zieten ez zutela inolako errepresaliarik izango eta ebakutu nahi zuten agintari politikoak, funtzionarioak eta ofizialak itsasoz ebakutzeko baimena eman zuten. Horren guztiaren ondorioz, Santoñako Ituna delakoa sinatu zen 1937ko abuztuaren 24an EAJko burukideen eta Italiako indarren agintarien artean. Azkenean, erabateko porrota izan zen; epeak ez ziren bete, Santoñan bildu ziren euskal batailoiak ebakutzen laguntzeko kontratatutako itsasontziak ez ziren iritsi eta Espainiako agintariak negoziazioen berri izan zuenean ez zuten inolako akordiorik onartu¹⁴⁸.

Nardiz Santandertik atera ondoren Biarritzera joan zen eta han zegoela Lehendakariak berriro ere Santoñara bidali zuen Leizaolarekin batera. Lehendakaria iritsi berria zen Santanderra, abuztuaren 24tik 25era bitarte, presoak trukatzeko eta euskal soldaduek Kantabriako herri horretan zer egin zezaketen ikusteko. Leizaolak eta Nardizek Irungo mugako buru zen Troncoso komandante frankistarekin egin zuten bidaia hori. Nardizek honela kontatu zuen, oso grafikoki:

Jose Antonio Agirrek esan zidan pentsatu zuela ni Leizaolarekin joan nintekeela Santoñan zer egin zitekeen ikusteko. Ni atsegin handiz joango nintzen, zeren, gainera, nire anaia atxilotuta baitzegoen Donostian eta trukeren batean sartu nahi bainuen.

147 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 23. orrialdea.

148 Ludger Mees (koord.), *La política como pasión. El Lehendakari José Antonio Aguirre (1904-1960)*, Madril, Tecnos, 2014, 354.371. orrialdea.

Santoñara joan ginen itsasontziz. Gogoan dut lo nengoela ofizial bat etorri zitzaidala esatera Eguía kapitaina, Arambarri eta besteren bat ekarriko zituen eta gu itxaroten ari ginen txalupa ez zela inon ageri eta komandanteak Donibane Lohizunera itzultzeko asmoa zuela. Ni pattal samar nengoen, baina jantzi nintzen eta berehala igo nintzen komandantearekin hitz egitera. Galdetu nion zergatik ez zuen itsas txalupa botatzen gu Santoñara joan ahal izateko. Hark esan zidan itsasontzia baztertuta zegoela, baina azkenaldi honetan prestatu zutela. Azkenean konbentzitu nuen eta bota genuen txalupa uretara. Txalupa horretan Leizaola, Britainia Handiko kontsula Santanderren, Troncoso komandantea, Britainia Handiko kontsulatuan Bilbon zegoen pertsona bat eta ni ontziratu ginen.

Santoñan metrailadore-tiroekin hartu gintuzten. Bira batzuk eman behar izan genituen han barrena, frankistak ez ginela konturatu ziren arte. Santoñan lehorreratu ginen eta Ibarrietia izeneko gidari batek Laredora eraman gintuen. Han Rezolarekin, Ajuriaguerrarekin eta horiekin guztiekin egon ginen.

Nik ikusi nuen han zegoela ateratzeko erraztasunik. Itsasontziak ez ziren iristen. Nik ez dakit nondik etorri zitzaien itxaropena edo konfiantza Leizaolari eta besteei soldaduak ontziratzeke itsasontziak iritsiko zirela hara.

Hara eraman gintuen itsasontziko komandanteak esan zigun ordu jakin batean itzuli behar genuela hara, bestela gu gabe itzuliko zela Donibane Lohizunera. Itsasontzira itzuli ginen, baina komandanteak ez zuen uzten geunden guztiak sartzen. Guk askatzen genituen preso adina pertsonak joan behar zutela esaten zuen. Uste dut 17 preso zirela. Nik egin nituen zerrendak, Jesús orduan zorabiatuta zegoelako. Gainerakoek itzuli egin behar izan zuten. Ni beldurtu egin nintzen jarrera horrekin.

Gogoan dut Santoñatik ateratzen ari ginela Troncosok galdetu zidala zer egiten zuen jende horrek guztiak han. Nik erantzun nion beren material eta armamentu guztiarekin zeudela handik ateratzeko aukeraren zain. Esan nion frankistak han sartzen baziren, bi alderdietako odol asko isuriko zela. Troncosok galdetu zidan zein izan ote zitekeen konponbidea eta nik esan nion ofizialak atera zitezkeen utz zezaketela, adibidez, ofizialik gabeko armadak ez baitu borrokatzen. Gainera, ofizialak ziren beren bizia galtzeko eta errepresaliak izateko beldur handiena izan zezaketanak.

Nik gauza batzuk kontatu nizkion eta nahita puztu nituen, esate baterako, gure soldaduek material asko zeukatela han bilduta eta galdu egingo zela haiek defendatu egingo zirelako. Hark esan zidan hori konpontzeko aginterik ez zeukala, baina gau horretan bertan hitz egingo zuela Buruzagiarekin eta berriro hitz egingo genuela hurrengo egunean.

Donibane Lohizunera iritsi ginen eta ni Biarritzera joan nintzen Jose Antonioren etxera. Hara iritsi nintzenean izan nuen elkarrizketa kontatu nion eta zer iruditzen zitzaion galdetu nion baita zer egin behar nuen ere. Jose Antoniok esan zidan hurrengo egunean joateko bilera horretara, argi ikusten zelako haietakoren baten onespenean gabe ezin izango zela itsasontzi bakar bat ere atera handik.

Troncosorekin geratu nintzen lekura joan nintzen hurrengo egunean, eta hantxe zeuden Troncoso eta Viloresko markesa. Sartu bezain laster ezin zela ezer egin esan zidaten, dagoeneko Buruzagiarekin hitz egin zuelako eta Laredo erortzear zegoela esan ziolako. Nire soldaduek zer egiteko asmoa zuten galdetu zidaten eta haiek egin behar zuten gauza bera egingo zutela esan nien, hau da, jarraitu egingo zutela. Gaizki pasako genuela esan zidan, eta, orduan, altxatu eta alde egin nuen¹⁴⁹.

149 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 24.26. orrialdea.

Santoñako Itunari dagokionez eta negoziazioei dagokienez, Nardizek esan zuen guztiak zekiten gauza bat zela, nola bukatuko zen eta zer ondorio ekarriko zituen gerra bati amaiera ematea esan nahi zuela:

Santoñakoa guztiok genekien, baina nahi ez nuena zen konfesatu gabeko gauza bat izatea. Konfesatzea noiz bukatuko zen eta zer ondorio ekarriko zituen ez genekien gatazka bati amaiera ematea zen. Niretzat hori zen arazoa¹⁵⁰.

Abuztuaren 27an, gertakari horiek jazo ondoren, Agirre Irujorekin, aita Onaindiarekin, Jaurlaritzako EAJko sailburuekin eta Nardizekin elkartu zen, Eusko Jaurlaritzako gainerakoak alde batera utzita. Onaindiaren memorien arabera, Lehendakariak azaldu zuen kapitulazioa EAJk adostu zuela, ez, ordea, Jaurlaritzak, baina egintzak azkenduta zeudenez, Jaurlaritzak erabaki bat hartu behar zuela. Iturri horren arabera, Nardizek proposatu zuen Jaurlaritzak EAJren kudeaketa onarrezala, eta dimisioa aurkezteazala; badirudi gainerako sailburuek onartu zutela proposamen hori, baina ez zen gauzatu. Egun batzuk geroago, Eusko Jaurlaritzak bilera bat egin zuen eta bilera horretan Lehendakariak gertatutakoaren berri eman zien bere sailburuei. Sailburu guztiak ados zeuden hartutako erabakiarekin, eta Jaurlaritzan ez zen inolako krisirik izan Santoñako kontua zela-eta¹⁵¹.

Carlos Blascok Nardizi egindako elkarrizketak zertxobait gezurtatzen du bertsio hori; izan ere, elkarrizketa horretan Nekazaritzako sailburuak adierazi du berak behin eta berriz esaten zuela Eusko Jaurlaritzak aurrera jarraitu behar zuela:

Alberto Onaindiak libururen batean aipatzen ditu Villa Endaran egin ziren bilera horiek. Ni bilera horietara joaten nintzen Jose Antoniok gonbidatu ninduelako. Alderdiko bilerak ziren, baina Jose Antoniok esan zidan ni bilera horietan egotea nahi zuela. Nik nire iritzia eman nuen eta aurrera jarraitu behar zela esan nuen, egoera horrekin amaitzea eragingo zigun ezer ez zegoelako. Azkenean, Bartzelonara joatea eta gure zoriarekin amaieraraino jarraitzea erabaki zen¹⁵².

Santoñan barrena ibili ondoren berriro ere Biarritzera itzuli zenean, Nardiz Mercedes Iriondo Lachiondorekin ezkondu zen 1937ko urriaren 5ean Baionako San Andres parrokiari. Mercedes 1916ko apirilaren 4an jaio zen Deustuan; gurasoak José Luis Iriondo Sánchez eta Tomasa Lachiondo Omar ziren. Aita Bilbon jaio zen 1878ko martxoaren 19an eta ama Ibarrangelun 1882ko martxoaren 30ean. José Luisek medikuntza ikasi zuen eta Elantxoben aritu zen lanean; herri horretan ezagutu zuen Tomasa eta 1908ko uztailaren 16an ezkondu ziren; ondoren, Bilbora itzuli ziren, eta José Luisek mediku-lanetan jardun zuen hiriburu horretako Astilleros Euskaduna enpresan. 1918an hil zen gripe-epidemiaren ondorioz.

Gonzalok Elantxoben ikusi zuen lehenengo aldiz Mercedes, oraindik neskatu bat zela, gaztea zenean Bizkaiko kostaldean barrena motoz egiten zituen bidaietako batean. II. Errepublikan hasi zen bien arteko harremana. Mercedesek medikuntza ikasten zuen Madrilan, baina Bilbon ikusten zuten elkar. 1936an, gerra piztu zenean, Mercedes mobilizatuta egon zen militariki; izan ere, Basurtoko Ospitalean lan egin zuen eta teniente-kargua izatea lortu zuen. Bilbo erori ondoren, Mercedesek Ospitalean zuen postuarekin jarraitu zuen, baina ahal izan zuen bezain laster, Bizkaia utzi eta muga gurutzatu zuen Gonzalorekin elkartzeko Iparralden. Lehendakariaren emazteak Biarritzeko etxean hartu zuen Mercedes. Handik gutxira, arestian esan dugunez, ezkondu egin ziren Baionan.

150 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 19. orrialdea.

151 Ludger Mees (koord.), *La política como pasión...*, op. cit., 369. orrialdea.

152 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 26. orrialdea.

13.

FRANTZIAREN ETA BARTZELONAREN ARTEAN

Euskal lurraldea galdu ondoren, eta Santander abuztuaren bukaeran frankistek hartu zutenean, Eusko Jaurlaritzako kideak Frantziara joan ziren aldi baterako. Beren lurraldetik kanpo egon arren, Lehendakariak Turtziozen hitzeman zuen bere gobernuak jarduten jarraituko zuela; horregatik, hori kontuan hartuta jardun zuen.

1937ko urrian, Ipar Frontea behin betiko erori baino zertxobait lehenago, Agirre Lehendakariak bere Gobernua Bartzelonan jartzea erabaki zuen, Kataluniako Generalitatearen babesean. Negrínek, uztailean, Agirrerri aukera eman zion euskal gobernua Valentziara eramateko, Errepublikako Gobernuarekin batera, baina Agirrek ez zion berehala erantzun. Eusko Jaurlaritzaren egoitza gisa Bartzelona aukeratzeak eduki politiko handia zuen; izan ere, ardatz euskaldun-katalana sortzea eta Errepublikako bi gobernu autonomiko lurralde berean elkartzeko ekarri zuen. Litekeena da Agirrek eta Companysek 1937ko uztailean izan zuten lehenengo elkarrizketan izandako sintonia onak eragina izatea erabaki horretan.

Eusko Jaurlaritza 1937ko urrian jarri zen ofizialki Bartzelonan eta Euskadiko antzinako Ordezkaritza Orokorrean, Kataluniako hiriburuko Paseo de Gracian kokatu zen. Eusko Jaurlaritza Bartzelonan kokatzea erabaki zen egun berean, Eusko Jaurlaritzak akordio batzuk onartu zituen. Akordio horiek, alde batetik, Jaurlaritzaren antzinako ordezkaritzarekin eta alderdi politikoetako ordezkaritzekin amaitzeari buruzkoak ziren, eta, bestetik, sailek behin-behineko aurrekontuaren aurrerapena eta fase berri horretan dagokion sailari emango zioten antolamenduaren gaineko eskema aurkezteari buruzkoak ziren. Eusko Jaurlaritzak denboratarte labur batean erabateko errendimenduan jardutea zen helburua. Hala eta guztiz ere, Agirre Lehendakaria bera ere ez zen normalean Bartzelonan egoten; izan ere, hurrengo urte eta erdian denbora gehiago eman zuen Parisen bizi izaten Katalunian baino, ordezkaritza diplomatikoak eta propaganda-ordezkaritzak egin behar izaten baitzituen.

Eusko Jaurlaritzaren egoitza ofizial berriaren kokatu ziren sailak honako hauek izan ziren: Merkataritza eta Hornidura, Laguntza Soziala, Justizia eta Kultura, Ogasuna, Osasuna, Gobernazioa, Lana eta Defentsa. Nekazaritza, Industria eta Garraioak eta Herri Lan Sailak ez ziren egoitza horretan kokatu, Sail horren jardunak ez zuelako inolako zentzurik Katalunian. Hortaz, Nardizek Katalunian gauzatu zuen jarduna arrazoi horrek baldintzatu zuen, eta litekeena da hori izatea arrazoi nagusia Nardizek denbora gehiago emateko Baionan bizi izaten Katalunian baino, beste lan batzuk eginez; izan ere, Katalunian Jaurlaritza ordezkatzea zen gauzatu behar zuen zeregin zehatz bakarra. Egoera hori ez zen salbuespeneko, beste sailburu batzuk ere atzerrian bizi baitziren, hala nola Monzón, Leizaola eta Gracia¹⁵³, Lehendakariaren jardunetik bereizita, arestian esan dugunez.

153 Monzón eta Leizaola Bruselan bizi ohi ziren. Gracia 1937ko maiatzaren hasieratik Parisen bizi zen, eta hiriburu horretatik saiatu zen euskal erbesteratuei babeslekuak bilatzen eta sostengua ematen Parisen.

Nardizen alderdia, hots, EAE/ANV ere Katalunian kokatu zen ofizialki. Gregorio Arrienek eta Iñaki Goioganak esaten dutenaren arabera, ez dakigu zehazki ezkerreko alderdi nazionalista noiz kokatu zen Bartzelonan, baina argi dago azaroaren erdialderako alderdiaren ordezkariak erabat martxan zegoela Kataluniako Rambla kaleko 13. zenbakian¹⁵⁴.

Gonzalo Nardiz 1937ko urriaren hasieran iritsi zen Bartzelonara Baionatik. Baionan ezkondu zen urriaren 5ean. Hegazkinez egin zuen bidaia bere emaztearekin, eta berehala, Valentziara joan zen Errepublikaren gobernuaren aurrean gai jakin batzuk kudeatzeko:

Ni Valentziara joan nintzen deitu nindutelako. Gogoan dut egun batzuk lehenago ezkondu nintzela Baionan. Ondoren, nire emazteak eta nik hegazkina hartu genuen Bartzelonara joateko. Aerodromora iritsi ginenean, Bartzelonan zegoen Eusko Jaurlaritzako ordezkari bat ari zitzaidan itxaroten eta Jose Antoniok ni Valentziara joatea nahi zuela esan zidan. Nire emaztea Bartzelonan geratu zen eta ni hegazkin batetik atera eta beste batean sartu ondoren, Valentziara joan nintzen.

Gai politikoei buruz hitz egiteko zen. Orain ez dut gogoan zertaz hitz egin genuen. Handik egun batzuetara iritsi nintzen Bartzelonara autoz¹⁵⁵.

Nardizek Bartzelonan aurkitu zuen giroa eta Bilbon zegoena oso desberdinak ziren, Bilbon dena markatu baitzuen gerrak:

Guri paradisuan geundela iruditzen zitzaigun Bilbon izan genituen murrizketak kontuan hartuta. Bartzelonan saltoki guztiak martxan zeuden eta denetik zegoen. Giroa oso desberdina zen. Gurekin ongi portatu ziren, eta, esate baterako, gure jendeari laguntzeko ahalmenak utzi zizkiguten¹⁵⁶.

Arestian esan dugunez, Nardiz Baionan bizi zen, eta hortik joaten zen aldizka Bartzelonara Lehendakariarekin biltzera eta beste jarduera batzuk egitera. Hainbat dokumentutan jasota daukagu Nardizek hainbat egonaldi egin zituela Bartzelonan 1938an. Lehenengo egonaldia 1938ko urtarrilaren amaieran izan zen, Nardiz Lehendakariarekin eta Gracia sailburuarekin Bartzelonarantz joan zenean Perpinyan barrena. Pedro Basaldúa, Agirrearen idazkari partikularra, joan zitzaie bila. Egonaldi horretan hainbat bilera izan zituen Lehendakariarekin, bakarka edo beste sailburu eta agintari politiko batzuekin, hala nola Eliodoro de la Torre, Juan Gracia, Juan de los Toyos, Paulino Gómez Beltrán edo Julio Jaureguirekin¹⁵⁷.

Bigarren egonaldia martxoan izan zen, kasu hartan emaztearekin; bilerak egin zituen Lehendakariarekin¹⁵⁸, Konstituzio Bermeen Epaitegiaren presidentearekin bazkaldu zuen¹⁵⁹, bilerak egin zituen Arabako diputatu Ramón de Biguriarekin¹⁶⁰, Gorteetako presidente Diego Martínez Barriorekin¹⁶¹ eta iheslariei laguntza emateko arazoa beste sailburu batzuekin landu zuen¹⁶².

154 Gregorio Arrien eta Iñaki Goiogana, *El primer exilio de los vascos. Cataluña 1936-1939*, Bartzelona, Sabino Arana Fundazioa, 2002, 217. orrialdea.

155 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 28. orrialdea.

156 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 27. orrialdea.

157 *Euzkadi*, 1938-01-22, 1938-01-25, 1938-01-29, 1938-02-03, 1938-02-06, 1938-02-08, 1938-02-09 eta 1938-02-16.

158 *Euzkadi*, 1938-03-05, 1938-03-08, 1938-03-19.

159 *Euzkadi*, 1938-03-23. Presidentea Pedro Vargas Gerendiain zen, Irungoa. Aldasoro eta Toyos ere izan ziren bazkari hartan.

160 *Euzkadi*, 1938-03-24. Bilera hartan Toyos, Monzón eta Aldasoro sailburuak ere egon ziren.

161 *Euzkadi*, 1938-03-25. Toyos, Monzón eta Aldasoro sailburuak ere izan ziren bilera hartan, baita Manuel de Irujo eta Julio Jauregui jeltzaleak eta Nardizen emaztea, Mercedes Iriondo, ere.

162 *Euzkadi*, 1938-03-27. Toyos, Monzón eta Aldasoro sailburuekin, eta PSOeko Paulino Gómez Beltrán jaunarekin, eta Gizarte Laguntza Saileko idazkari nagusi eta Gracia sailburuaren laguntzaile Joaquín Bustosekin batera. Erabaki zen

Egonaldi horretan, Nardiz EAE/ANVren batzorde betearazlearen bilera baten buru izan zen Bartzelonan. Bilera horretan, une hartan bizi zuten egoera politikoaren alderdi garrantzitsuenak aztertu ziren. EAE/ANVk Errepublikarekiko atxikimendua eta leialtasuna berretsi zituen, faxismoaren aurka borroka egiten jarraituko zuela adierazi zuen eta Kataluniako herriak eta gobernuak egindako harrera eskertu zuen. EAE/ANVren arabera, ezinbestekoa zen euskal herritar guztiak beren erakunde eta lege-helburuen inguruan elkartzea; horregatik, Euskadiko alderdi politiko antifaxista guztiak Fronte Nazional batean elkartzearen alde egiten zuen¹⁶³. Proposamen horren ondorioz, bilera bat egin zen 1938ko martxoaren 10ean. Bilera hartan ANVz gain, EAJ, PSOE, PCE-EPK, Jagi Jagi eta Unión Republicana bildu ziren, baina Izquierda Republicana eta Ezquerria Vasca ez ziren bertaratu. Bilera hartan EAE/ANVk bileraren arrazoia azaldu zuen, hau da, Euskadiko alderdi politiko guztiak Euskal Fronte Nazional batean, Fronte Bakarrean elkartzea nahi zutela. Bilera hura bukatu zenean beste bilera bat jarri zuten hurrengo egunerako, baina azken bilera hori ez zen egin, eta EAE/ANVk egindako proposamena gauzatu gabe geratu zen¹⁶⁴.

1938ko uztailaren amaiera bitarte ez dugu Nardizen berririk Bartzelonan, harik eta *Euzkadi* egunkariak Nardiz eta Leizaola Bartzelonara iritsi zirela iragarri zuen arte¹⁶⁵. Bidaia horri buruz motza izan zela eta abuztuaren hasieran Lehendakariarekin bildu zela dakigu¹⁶⁶. Abuztuaren amaieran itzuli zen Bartzelonara, eta berriro ere *Euzkadi*¹⁶⁷ egunkarian iragarri zen hiri horretara iritsi zela. Irailaren 3an, Eusko Jaurlaritzako beste kide batzuekin batera, Euzko Etxera lagundu zion Lehendakariari; han ohorezko presidente izendatu zuten Jose Antonio Agirre¹⁶⁸.

Ez dugu bidaia gehiagoren berririk, baina Nardizen lekukotzarengatik dakigu Gonzalo Bartzelonan izan zela frankisten aurrean erori baino zertxobait lehenago.

Bartzelonan, Manuel de Irujok kargua utzi zuelako haren ordez Nardizen alderdikide Tomás Bilbao Negrín gobernuan sailik gabeko ministro izendatu izanak EAE/ANVren eta EAJren artean sortu zuen krisiarekin ere borrokatu behar izan zuen Nardizek. Jaume Ayguadé Laneko eta Gizarte Laguntzako ministro-kargua utzi zuen 1938ko abuztuan Kataluniako armagintza nazionalizatzearen aurka protesta egiteko, Ayguadéren ustez Generalitatearen aurkako gobernu-erasoa zelako; Manuel de Irujok, Ayguadérékiko elkartasunean, utzi egin zuen ministro-kargua. Negrínek, orduan, EAE/ANVko Tomás Bilbaori eta PSUCko José Moixi deitu zien gobernuan zeuden bi postu huts betetzeko, eta ordezkapen horiekin Gobernuan zegoen euskal nazionalismoaren eta nazionalismo katalanaren hutsuneak betetzeko. Izendapen horren berri izan zutenean, EAJko Leizaola, Monzón eta Torre sailburuek beren dimisioa aurkeztu zuten, uste zutelako Tomás Bilbaok postua onartzea traizio bat zela eta traizio horren ondorioz ezinezkoa zela EAE/ANVrekin batera jardutea Eusko Jaurlaritzan. Jose Antonio Agirrek esku hartu behar izan zuen bere kabineteko kideak lasaitzeko eta dimisioak saihesteko.

Dirudienez, Tomás Bilbaori bere alderdiko alde ezkertiarreneko kideek lagundu zioten gai horretan, hala nola Luis Areitioaurtenak¹⁶⁹ eta Tomás Echavek, alderdikide horiek gobernu

kudeaketak Errepublikako Jaurlaritzatik eta Generalitatetik hurbil egitea, oro har iheslarien eta bereziki euskaldunen egoera arintzeko.

163 *Euzkadi*, 1938-03-03.

164 Gregorio Arrien eta Iñaki Goiogana, *El primer exilio de los vascos...*, op. cit., 218. orrialdea.; Santiago de Pablo et al., *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco*, II: 1936-1979, Bartzelona, Crítica, 2001, 49. orrialdea.; egileek adierazi dute EBB hasiera batean ados egon zela, baina apirillean ezezkoa eman ziola proposamenari eta porrottera bideratu zuela.

165 *Euzkadi*, 1938-07-26.

166 *Euzkadi*, 1938-08-07.

167 *Euzkadi*, 1938-08-24.

168 *Euzkadi*, 1938-09-04.

169 Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria zen Bartzelonan.

errepublikanoan sartzearen alde baitzeuden, baina alderdiko beste batzuk, Gonzalo Nardiz, esaterako, Negrínen proposamena onartzearen eta katalanekin bat egitearen aurka zeuden¹⁷⁰. Gonzalo Nardizi elkarrizketa egin ziotenean, esan zuen Bartzelonan «lanpetu samar» ibili zela Tomás Bilbaoren gaiarekin. Nardizek erabat desenkusatu zuen Tomás Bilbao, eta honako hau esan zuen hari buruz:

Tomás gizon aktibo, langile eta saiatua zen. Negrínek egindako lege-hauste batzuegatik dimititu zuen gero. Tomás Bilbaok ez zuen anbizio politikorik, baina ezin izan zuen gai hori ukatu¹⁷¹.

170 Gregorio Arrien eta Iñaki Goigana, *El primer exilio de los vascos...*, op. cit., 217.218. orrialdea.; Ludger Mees (koord.), *La política como pasión...*, op. cit., 380.381. orrialdeak; Santiago de Pablo et. al., *El péndulo patriótico...*, op. cit., 61. orrialdea.

171 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 27. orrialdea.

NEKAZARITZA-BABESLEKUAK

Gonzalo Nardizek Bartzelonan gauzatzen zuen jardueraz gain, –Bartzelonan bizi ez zenean Lehendakariak Biarritzen alokatu zuen txaletean bizi zen bere emaztearekin eta Lehendakariaren familiarekin– Frantziaren hegoaldean nekazaritza-babeslekuak sortzeko modua aztertu zuen. Bere saileko zereginarekin lotuta zegoen jarduera hori bakarrik egin zuen bere erbestealdiaren lehenengo zati honetan. Nekazaritza-babeslekuak sortzeko aukera aztertzeko Tomás Bilbao buru zuen batzorde bat izendatu zen. Nekazaritza-babeslekuak sortzearen helburua iheslariak egindako lana erabiliz babesleku horien mantenu-kostua berreskuratzea zen; era horretan, iheslariak mantentzeko Eusko Jaurlaritzak inolako diru-sarrerarik jaso gabe etengabe egin behar zuen diru-gastutik eratorritako zailtasunak saihestuko ziren. Helburua honako hau zen: behar adina eraikin zituzten produkzioko lursailak eskuratzea. Lursailak Frantzian zeuden eta nolabaiteko despulazioa zuten. Nekazaritza-produkzioaz gain mota guztietako abeltzaintza egingo zen, hegaztiak eta laborantza bereziak. Horrekin lortuko da, lehenik eta behin, erbesteratutako mantendu behar izateak soilik eragiten zituen gastuak murriztea, babesleku horietan bizi izango ziren kolektibitateak produkzioan jarriko zirelako, eta horrek bere bizitza propioa emango zien kolektibitatei¹⁷².

Dirudienez, nekazaritza-babeslekuen ideia Santander erori eta Gonzalo Nardiz Iparraldera iritsi ondoren hasi zen gauzatzen, hau da, 1937ko abuztuaren amaieran, eta handik gutxiarik batzordea eratu zen, batzordearen lehenengo txostena 1937ko urriaren 6koa delako¹⁷³. Txosten hartan, batzordeak Iparraldeko eremuan hainbat lursailetan barrena ibili ondoren egindako azterlanaren emaitza adierazten du. Batzordeak hainbat motatako tokiak aurkitu zituen:

1. Proposatzen den helbururako egokiak diren eraikinik gabeko lursailak, baina ustiatzeko baldintza onean dauden lur landuak eta behar adina baserri dituztenak.
2. Nekazaritzako ustiatzea gauzatzeko baldintza onean dauden eta egungo babeslekuetatik hurbil dauden lursailak.
3. Nekazaritzako ustiatzeari dagokionez aurreko kasuan biltzen diren eta bizilekua egiteko egoki daitekeen eraikin handi bat duten lursailak.
4. Neurriko eraikinik ez duten eta batez ere landugabeko lurak dituzten lursailak.

Kasu bakoitzaren aldeko eta kontrako alderdiak aztertu ondoren –bisitatu ziren lursail jakin batzuen adibideak emanez– eta lursail bakoitzean nekazaritza-babeslekuen eredia jartzeak eragingo zukeen kostu ekonomikoa kalkulatu ondoren, batzordeak landugabeko lurak zituzten lursailak alde batera utzi zituen lortu nahi zuten helburua betetzeko; izan ere, lur horiek ustiatu

172 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Nekazaritza Funtsa, Idazkaritza Nagusia, Korrespondentzia, Leg. 407 2. zenbakia.

173 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Presidentzia Funtsa, Idazkaritza Nagusia (Bilbo, Bartzelona, Paris), Idazkaritza, Korrespondentzia, Leg. 34 10. zenbakia.

aurretik gutxienez bi urtez prestatu behar ziren, lursail horiek abian jartzeko kapital handia behar zen eta beso gutxi zeuden horretarako. Aitzitik, uste zuten lursailen beste hiru ereduak egokiagoak zirela babeslekuak jartzeko, baina lehentasun-ordena bati jarraitu behar zitzaion: lehendabizi babeslekuetatik hurbilen zeuden lursailak, bigarrenik edukiera handia zuten eta hasieratik egoki zitezkeen lursailak, eta lursail horietan, produkzio-ahalmenak uzten bazuen eraikinak handi zitezkeen jende gehiago hartu ahal izateko; eta hirugarrenik, eraikinik ez zuten, baina hedadurarengatik eta produkzio-ahalmenarengatik aterpetxeak eraikitzeak aukera ematen zutenak, nahiz eta alde txar bat ere bazuten; izan ere, eraikitzen ari ziren bitartean ezin izango zen inor hartu. Azkenik, batzordeak gomendatu zuen nekazaritza-babeslekuak Iparraldean jartzea iheslarien hizkuntzarengatik eta ohiturengatik; gainera, ikuspegi teknikitik eta jabetzaren sistematik begiratuta eremu hori beste eremu batzuk baino gomendagarriagoa zen.

Nekazaritza-iheslarietako buruzko bigarren txostena 1937ko urriaren 25ekoa da. Txosten horretan lursailak euskal mugetatik kanpo bilatzeko aukera aztertu zen, zehazki Bearnon, Landetan eta Garona Garaian. Euskal Herritik kanpo aztertutako jabetza guztien ezaugarri komuna zen ustiatzen ari ziren eremu handiko lursailak aurkitzeko aukera zegoela han, baina nekazaritzako makinerian inbertsio handia egin behar zela¹⁷⁴.

Gai horri buruzko hirugarren eta azken txostena¹⁷⁵ 1937ko azaroaren 23an egin zen. Dokumentu horretan, ordura arte onartu ziren lursail guztiei buruzko azterlan sistematiko bat egin zuen batzordeak, lursail bakoitzaren ezaugarriak adierazi zituen, baita lursail horiek nekazaritza-babesleku bihurtzeak ekar zitzakeen abantailak eta desabantailak ere. 26 lursail ziren; horietatik erdiak Iparralderen mugen barnean zeuden, eta beste erdiak Paueko, Akizeko eta Tolosako eremuetan. Horren ondoren, nekazaritza-babesleku bihurtuko ziren lursailak hautatzeko batzordeak kontuan hartuko zituen oinarri batzuk ezarri ziren. Neurri horiek honako hauek ziren:

1. Garraio- eta kontrol-gastuak sinplifikatzea, elkarrengandik oso urrun ez zeuden lursailen nukleoak eratuz.
2. Beren produktuekin iheslarien premiak estaliko dituzten nekazaritza-eremuak, eremu horiek ezartzeko lurren kalitatea kontuan hartuta; landatzeko eta etxeko erabilerarako ur-hornidura izatea; kokapena; topografia, eta abar.
3. Errentamenduari dagokionez sor daitezkeen arazoak jabeak konpondu ondoren berehala eskuratu daitezkeen lurak eta eraikinak.
4. Ahalik eta jende gehien hartzeko baldintzetan dauden eraikinak dituzten lursailak izanik, berehala prestatzeko gastu handirik egitea eskatzen ez dutenak.
5. Ustiategiak eskuratzeko kostuak merkataritza-balio bat izatea beti, baita besterentzeko aukeran badaude eta geroago besterendu badira ere.
6. Hiri-fokuetatik urrun samar egotea agintaritzek gai horri buruz eman ditzaketan debeku-neurriak saihesteko.

Oinarri horiek kontuan hartuta, eta txostenak aurretik jasotzen zuen lursail-zerrendaren ondorioz, batzordeak ondorioztatu zuen irizpide horietara gehien egokitzen ziren lursailak, Frantziaren hego-mendebaldean zeudenak, eta batez ere Pirinio Behetako departamenduan zeudenak, honako jabetza hauek zirela:

174 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Nekazaritza Funtsa, Idazkaritza Nagusia, Txostenak, Leg. 409 1. zenbakia.

175 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Nekazaritza Funtsa, Idazkaritza Nagusia, Txostenak, Leg. 409 3. zenbakia.

1. Labadie: Lussagnetan kokatuta dago, Paue inguruan. 60 hektareakoa, oso kalitate oneko lurrak ditu eta erantsitako etxebizitza eta aziendarako, makineriarako eta produktueterako pabiloiak ditu.

2. Corberos: Pauetik 36 kilometrora dago, 220 hektareako hedadura du, chateau bat, bi etxebizitza eta bost baserri zituen.

3. Semeacq: Pauetik 37 kilometrora, 101 hektarea ditu, baita jauregitxoak, etxebizitza eta ukuilu zabalak ere.

4. Peyrelongue: Pauetik 35 kilometrora, 45 hektareakoa eta chateau duena.

Ikus daitekeenez, 4 lursailak Paueren inguruan zeuden eta elkarrengandik hurbil samar; horrez gain, arestian aipatutako oinarrietan agindutakoa betetzen zuten oro har. Guztira, kalkulatu zen, alde batetik, lau lursailen artean 500 pertsona har zitzaketela, eta, bestetik, lurrak behar bezala lantzen baziren, behar adina produktu lortuko zela hartu behar zen biztanleria mantentzeko eta beste 2.000 pertsona mantentzeko. Lau lursailak eskuratzeko 2.390.000 frankoko inbertsioa egin behar zen; horrez gain, beste 1.870.000 franko beharko ziren iheslariak hartzeko behar ziren obrak egiteko eta lursailak lurra produzitzeko moduan jartzeko; hortaz, 4.260.000 franko beharko ziren guztira.

1937ko abenduaren 8an, Lehendakariak galdetu zionean, Nardizek gutun bidez azaldu zion nekazaritza-babeslekuaren proiektuari buruzko lanen nondik norakoa. Nekazaritzako sailburuaren arabera, batzordeko kideak beren azterlana osatzen ari ziren; inbertsio-gastuak kalkulatu ari ziren eta eskuratzeko gauzatzeko modu hobereana zein zen aztertzen ari ziren. Gainera, adierazi zion batzordea Maine-et-Loireko Angersera joan zela, hiri horretan Frantziako hego-mendebaldean egin ziren lursailen azterketa berak egiten ari zirelako¹⁷⁶.

Halaber, Telesforo Monzónek galdetu zionean, zeinak Bruselatik Nardizi galdetu zion nekazaritza-izaerako babeslekuaren antolamenduari buruz, 1937ko abenduaren 9an Nardizek hari ere erantzun zion lanak azterketa-fasean zeudela, eta Paueren, Angersen eta Iparralderen inguruan kokatuta zeuden lursailen kostua kalkulatu ari zirela. Bestalde, aurreratu zion Paueren inguruan zegoen eta arestian aipatu diren lursail multzoaren azterketa oso aurreratu zegoela eta Angerseko lursail batean gerrako elbarriak har zitezkeela lurra landuko zuten nekazariekin batera¹⁷⁷.

Nekazaritza-babeslekuak aztertzen zituen batzordeko kide Marcos de Aguirreoleak 1938ko urtarrilaren 22an Nardizi idatzitako gutunean sailburuari esan zion Pauera joango zela batzordeko beste bi kiderekin batera hango lau lursailak aztertzeraz. Aguirreoleak esan zuen, gainera, aurrekontuan sartutako diruaren erdia besterik ez zutenez, komenigarria zela Corberoseko lursaila, hau da, lursail handiena, erosteko proposamena alde batera uztea¹⁷⁸.

1939ko martxoaren 25a arte ez dugu aurkituko batzordearen lanei buruzko berririk artxiboetan, hau da, Alpes-de-Haute-Provence inguruan Nekazaritza Sailari eskainitako hainbat lursail buruz Marcos Aguirreoleak eta Luis de Basterrecheak aurkako txosten bat egin zuten arte. Txosten horren amaieran gomendatu zuten Nardiz sailburuak biztanleak landa-lursailetan kokatzeko asmoarekin jarraitzen bazuen, askoz ere abantaila handiagoak ekarriko zituela biztanleria hori beste leku batean kokatzeak, nahiz eta egin beharko zen gastu ekonomikoa handia izan¹⁷⁹.

176 EAH, Eusko Jaurilaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Nekazaritza Funtsa, Idazkaritza Nagusia, Korrespondentzia, Leg. 408 3. zenbakia.

177 EAH, Eusko Jaurilaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Nekazaritza Funtsa, Idazkaritza Nagusia, Korrespondentzia, Leg. 408 2. zenbakia.

178 EAH, Eusko Jaurilaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Nekazaritza Funtsa, Idazkaritza Nagusia, Korrespondentzia, Leg. 408 3. zenbakia.

179 EAH, Eusko Jaurilaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Nekazaritza Funtsa, Idazkaritza Nagusia, Txostenak, Leg.

Horiexek dira nekazaritza-babeslekuak jartzeko kudeaketei buruz artxiboek eskaintzen dizkiguten berriak. Azken bi gutunetatik ondoriozta daitekeenez, aurrekontuan sartutako proiektuaren kostu ekonomikoen ondorioz murriztu egin behar izan zen kapital erabilgarria, eta litekeena da horrek eragozteak ekimen osoa. Ez dakigu zein izan ziren gaiaren kontuak, baina argi dagoena da plana ez zela gauzatu; Nardizek honako hau esan zuen gai horri buruz: «Nekazaritza-babeslekuak aztertu zituen batzordea deuseztatu egin zen ezer egiteko ez zegoela ikusita¹⁸⁰».

409 3. zenbakia

180 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtza, Carlos Blasco Olaetxea Funtza, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 27. orrialdea.

15.

ERBESTEA FRANTZIAN: SAILARTEKO BATZORDEA

Matxinoek Kataluniaren aurkako behin betiko erasoaldiari ekin zioten 1938ko abenduan. Kanpaina azkar baten ondoren, urtarrilaren amaieran, agintariak, euskal agintariak barne, Bartzelona utzi egin behar izan zuten eta Gironara joan behar izan zuten. Geroxeago, Katalunia osoa frankisten esku erori zen eta euskal iheslariak berriro ere muga gurutzatu behar izan zuten eta Frantziara itzuli behar izan zuten. Iheslari horiek urte eta erdi lehenago Frantziatik iritsi ziren Kataluniara.

Agirre Lehendakariak 1939ko otsailaren 5ean gurutzatu zuen Kataluniaren eta Frantziaren arteko muga. Antza denez, Gonzalo Nardizek ere egun horietan gurutzatu zuen muga; Nardizek diotenaren arabera, elkarrekin bizi ziren Eusko Jaurlaritzako sailburuek Bartzelona utzi zuten «bukaeran, ebakutzeko garaia ia iritsi zenean» eta sailburu bakoitza bere aldetik eta modu desberdinean atera zen «horrela errazagoa eta erosoagoa zelako». Ondoren, Baionan elkartu ziren denak, eta hiriburu horretan «iheslarien gaia antolatzen hasi ziren». Nardizek dienez, «Eusko Jaurlaritzaren antolamendu-ekintza horiei esker, Frantziako Gobernuak erraztasun mota guztiak ematen zituen. Errepublikak ez zuen ezertan laguntzen eta bagenituen horretarako baliabideak».

Frantziaren zati batek Francoren Espainia onartu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren ondasunak frankistek eskatzeko arriskua zegoenez, Eusko Jaurlaritzak, 1939ko udaberriak aurrera, Euskaldunen Lagunen Nazioarteko Ligaren babesean jardun zuen. Erakunde hori euskal kausarako joera zuten Frantziako pertsona ospetsu batzuek sortu zuten 1938ko abenduan eta parapeto gisa jardun zuen asmo frankisten aurrean, Gizarte Laguntzaren mendeko establezimendu asko Ligaren eta haren arduradunen titulartasunekoak izatera igaro ziren, eta Frantziako herritarrek konfiskazioak saihestu zituzten. Hortaz, 1939ko martxotik aurrera agindu zen dokumentazio ofizial osoan Euzkadiko Gobernuari buruzko erreferentzia oro kentzeko eta Euskaldunen Lagunen Nazioarteko Ligari buruzko aipamena ager zedila¹⁸¹.

Kataluniatik atera zirenetik alemaniarrek Frantzia sartu ziren arte dagoen aldiak, Nardizen ministerioak ez zuen inolako eginkizunik bete erbestean; horregatik, Lehendakariak Nardizi agindu zion Sailarteko Batzorde baten buru izateko. Batzorde horren eginkizuna Jaurlaritzaren laguntza jasoko zuten arduradunen errolda bat eratzeko zegoen arazoa aztertzea zen. Batzorde hori euskal herritarrei ematen zitzaizkien onuren banaketa bidezkoa izan zedin zaintzeko ezarri zen, baita zeuden zerbitzuen likidazioa azkartzeko eta helburu hori betetzeko zerbitzuburuekin egiten ziren lanak koordinatzeko ere.

181 Hortaz, dokumentuetan honako hitz hauek agertzen ziren: «Ligue Internationale de Amis des Basques. Comité de Secours aux Basques». Euskaldunen Lagunen Nazioarteko Ligak II. Mundu Gerraren aurretik eta ondoren egindako zeregina sakon aztertu da honako liburu honetan: Jean-Claude Larronde, *Exilio y solidaridad. La Liga Internacional de Amigos de los Vascos*, Villefranque, Bidasoa, 1998.

1939ko uztailan egindako Gobernu Kontseilu batean erabaki zen presidentziei erabateko ahalmenak ematea behar-beharrezkoak ziren gastuak murrizteko behar ziren aldaketa guztiak egiteko Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu guztietan. Batzordea arduratu zen lan hori egiteaz; horretarako, erbesteratuen erantzukizun politikoak lau taldetan banatu ziren.

Lehen ere esan dugunez, batzordeak euskal erbesteratuen erantzukizun politikoak sailkatu zituen; horretarako, lau taldetan banatu zituen. Lehenengo taldean alderdietako batzorde nazionaletako kideak, gorteetarako diputatuak, alkateak, idazkari eta zuzendari nagusiak Euskadiko herri-auzitegiko eta auzitegi militarreko fiskalak eta presidenteak, defentsa-batzorde probintzietako kideak, kudeaketa-batzorde probintzietako presidenteak eta graduazio handieneko militarrek zeuden. Guztira, batzordearen arabera, talde horretan 266 arduradun eta 497 senitarteko zeuden.

Bigarren taldean alderdietako eta sindikatuetaiko batzorde probintzietako kideak, udal-zinegotziak eta udal-idazkariak, aholkulari juridikoak eta ikuskatzaile orokorrak, kudeatzaile probintzialak, Euskadiko herri-auzitegiko kideak eta epaileak, aurreko alderdietako batzorde nazionaletako kideak, lehenengo taldean aipatu den kargua betez, komandante-graduazioa zuten militarrek, erbesteratutako apaizak, gerran jardunean aritu ziren medikuak, defentsa-batzorde probintzietako eta Eibarko polizia-etxeetako presidenteak, Gorteetarako diputatu ohiak eta espetxeburuak eta Informazio Militarreko zerbitziburua¹⁸². Batzordearen arabera, talde horretan 623 titular eta 856 senitarteko zeuden.

Hirugarren taldean, bestalde, atalburu edo bulegoburu ofizialak, egunkariko idazlariak, sailburu ahalduak eta bankuko langileak, armadako ofizialak, eremu matxinatutik trukaturakoak eta ihes egindakoak, defentsa-batzorde probintzietako komisarioak eta udaleko eta tokiko defentsa-batzordeetako kideak, udal-epaileak eta -fiskalak, alderdi politikoetako eta sindikatuetaiko tokiko batzordeetako kideak, gobernuaren agindupean zeuden itsasontziko ofizialak eta makinistak, gobernuak izendatutako enpresa-aholkulariak eta espetxeetako zaintzaileak eta guardiak. Guztira, batzordearen arabera, 1.652 arduradun eta 1.636 senitarteko zeuden.

Azkenik, laugarren taldea fusilatuen alargunek eta gurasoek, hildakoek, atxilotuek edo desagertuek, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, Eusko Jaurlaritzako edo aldundietako eta udaletako takimekanografoek eta funtzionarioek, telefono-zerbitzuko eta bestelako enpresa publikoetako langileak osatzen zuten, eta, azkenik, era askotako talde handi samar batek osatzen zuen. Batzordearen arabera, 2.416 titular eta 2.803 senitarteko ziren talde horretakoak.

Guztira, hainbat erantzukizun politiko zituzten 4.957 pertsona eta pertsona horien 5.792 senitarteko mantentzeko ardura zuen Eusko Jaurlaritzak, guztira 10.749 gizon eta emakume.

1939ko uztailaren 26an, batzordeak egindako lanaren emaitza mahai gainean zegoela, Lehendakariak gobernu-kontseilu bat deitu zuen. Kontseilu horretan Agirrek egindako proposamena eztabaidatu zen. Proposamen horretan Agirrek adierazi zuen beren familia-osaera kontuan hartuta esleitu zitzaizkien zenbatekoa jasoko zutela arduradunek. Arduradun horiek, zenbateko horrekin, beraiek bakarrik edo familiarekin batera edo zeuden babeslekuen arabera erakunde handiagoetan elkartuta bizi zitezkeen; kasu horretan, administrazioa, alokairua, bizirauteko baliabideak eta abar arduradunek ordaindu beharko zituzten, eta era horretan, euskal administrazioa gutxienez murriztuko zen¹⁸³. Lehendakariaren proposamenak Juan Graciaren Gizarte Laguntza Sailaren amaiera ekarri zuen; izan ere, Lehendakariak amaitutzat ematen zuen babeslekuen eta errepublikaren erregimenean oinarrituta zegoen Sail horren egitura guztia.

Hiru sailburu sozialistek dokumentu bat idatzi zuten 1939ko abuztuaren 1ean egingo zen Gobernu Kontseiluan eztabaidatzeko. Gizarte Laguntza Saila funtzionaltasunik gabe uzteko Lehendakariak emandako argudioen aurka egiten zuten dokumentu horretan, hori eginda

182 Informazio Militarreko Zerbitzua, Errepublikaren inteligentzia-zerbitzua.

183 Gregorio Arrien eta Iñaki Goiogana, *El primer exilio de los vascos...*, op. cit., 472. orrialdea.

ez zelako ezer aurreztuko, eta uste zutelako taldeetan elkartuta zeuden arduradunei Eusko Jaurlaritzak ematen zizkien laguntzak hobeto administratuko zituela Graciaren beraren Sailak.

Gobernu Kontseiluaren bilera batean Lehendakariaren proposamena eta sailburu sozialisten dokumentua eztabaidatu ziren, eta azkenean aho batez onartu zen erabateko konfiantza-botoa ematea Agirrerri, eta Agirre arduratzea euskal gobernuaren aurrekontu berria egiteaz. Abuztuaren 9an aurkeztu zen aurrekontuan Gizarte Laguntza Sailaren, Kultura Sailaren eta Osasun Sailaren kitapena bildu zen, eta Nardiz buru zen Sailarteko Batzordeari ahalmena ematen zitzaion aurrekontu-arauak betetzeko eta subsidioak banatzeko eta Eusko Jaurlaritzaren babeslekuak kontrolatzeko. Era berean, egun horretan bertan zirkular bat eman zen jakitera. Zirkular horretan erbesteratuak mantentzeari dagokionez Jaurlaritzak zuen jarrera eman zen ezagutzera, hau da, Jaurlaritzak justifikatu egiten zuen erantzukizun politikorik ez zuten pertsona guztiak aberriratzea.

Zirkularrean eta aurrekontuetan bildutako erabaki guztiak interesdun guztiei jakinarazi zitzaizkien eta irailaren 15ean jarri ziren indarrean, zirkularrean adierazten zenaren arabera. Nolanahi ere, II. Mundu Gerra hasi zenez, aldatu egin ziren Eusko Jaurlaritzaren planak. Eusko Jaurlaritzak, Euskaldunen Lagunen Nazioarteko Ligaren bitartez, bere zerbitzuak eskaini zizkion Frantziako Gobernuari eta egoera hori zela medio gobernuaren laguntzak jasotzeko baldintzak aldatu egin ziren; izan ere, irailaren 23an, Gobernu Kontseiluak honako erabaki hartu zuen: urriaren 1etik aurrera, Euskaldunen Lagunen Nazioarteko Ligak banatutako mobilizazio-orrria sinatu zuten arduradunei soilik ordainduko zitzaien subsidioa¹⁸⁴. Sailarteko Batzordea Eusko Jaurlaritzak arlo ez-politikoan gauzatzen zituen zeregin guztiak elkartzeko eta zeregin hori gauzatzea ahalbidetzen zuen aparatua osoa deuseztatzeko sortu zen, eta Batzorde hori izan zen, halaber, babeslekuetako subsidioez eta diru-sarrerez arduratu zena. 1939ko irailaren 26an, Juan Graciak zirkular bat bidali zien babeslekuetako gerenteei. Zirkular horretan jakinarazten zitzaien Eusko Jaurlaritzaren erabakiak indarrean jarriko zirela, eta gogorarazten zien, alde batetik, iheslari askok toki horietatik atera behar zutela, eta bestetik, Frantziako agintaritzek ezin zutela bermatu babesleku horiek izatea, eta babesleku batzuk konfiskatuta zeudela dagoeneko; eta, azkenik, agintaritzek laguntzen zirela Espainiara itzultzen laguntza hori eskatzen zutenei; horregatik, Gobernuaren zirkularra betetzeko eskatzen zuen behin eta berriz.

Eusko Jaurlaritzak zituen babeslekuak itxi egin ziren pixkanaka, baina ixteko zailtasun handiak izan zituzten, pertsona askok ez zutelako babesleku haietatik atera nahi. Izan ere, Frantzian bizi zen gerra-egoeraren ondorioz, erbesteratuak Frantzian barrena askatasun osoz mugitzea eragozten zuten neurriak agindu ziren dekretuz; horregatik, lana aurkitu zuten euskaldun askok zailtasunak zituzten bizilekuak utzi eta kontratatu zituzten lekura joateko.

Sailarteko Batzordeak oso zeregin garrantzitsua izan zuen Eusko Jaurlaritzaren aparatua ez-politiko osoa deuseztatzeko, ordura arte Juan Graciaren Gizarte Laguntza Sailak bete zituen eskumen guztiak hartu zituen pixkanaka; nolanahi ere, ezin izan zituen Osasun, Kultura, Emigrazio eta Lan Sailak eskumenak hartu, eskumen horiek sailburu nazionalisten esku zeudelako.

Gonzalo Nardiz Sailarteko Batzordearen buru izan zen 1939ko urriaren 28ra arte. Sailburu sozialistak ez zeuden pozik haien mende zegoen Gizarte Laguntza Sailaren edukiak husten ari zirelako; horregatik, Batzordea aldatzea eskatu zioten Lehendakariari eta Batzordearen zuzendaritza eta Lanaren alorreko eskumenak haientzat izatea eskatu zioten. Lehendakariak Batzordera eraman zuen gaia, eta gorago aipatu den egunean erabaki zen lan-arloko eskumen guztiak Batzordearen barruan sartzea, eta egun hartatik aurrera Batzordearen buru Nardiz izan ordez Juan de los Toyos izatea, Agirrek Gonzalorekin eta EAE/ANVrekin bitartekotza-lanak egin ondoren¹⁸⁵.

184 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Gizarte Laguntzaren Funtsa. Ebakuazioak-idazkaritza-informazio-espeditak. Leg. 461 04. zenbakia.

185 Gregorio Arrien eta Iñaki Goiogana, *El primer exilio de los vascos...*, op. cit., 572. orrialdea.

16.

GONZALO NARDIZ ETA EUSKO JAURLARITZAREN KRISIA

Katalunia erori ondoren eta Espainiako Gerra Zibilaren amaiera hurbil zegoela, Euskadiko Gobernuaren programa egoera berrira egokitzeko barne-gogoeta egiteko prozesu bati ekin zion EAJk 1939ko martxoan. Eusko Jaurlaritzari dagokionez, EAJk uste zuen ez zela Sail kopurua murriztu behar, baina gobernu-aparatua murriztu behar zela Sail guztiak Sail bakar bat izateko, hots, Presidentzia Saila izateko, honako hiru atal hauekin: Ogasuna, Propaganda eta Gizarte Laguntza, Osasuna eta Kultura. Jaurlaritzaren bizitza politikoak lehentasuna zuen, eta jarduera guztiak helburu horren mende egon behar zuten.

Berrikuntza horretan, eztabaida handiena eragin zuen gaia honako hau adierazten zuena izan zen: EAJk «gutxieneko oinarri gisa, ahaleginak egingo ditu gainerako alderdiek Eusko Jaurlaritzan lagundu dezaten, alderdiek guztiek printzipio-adierazpen bat sina dezaten haien euskal filiazio nazionala eta Espainiako erakundeekiko orientazioaren independentzia aldarrikatuz».

Agirre Lehendakariak idatzi zuen Eusko Jaurlaritza osatzen zuten eta euskal espiritu nazional horrekiko lotura eskatzen zitzaien gainerako alderdiei aurkeztu zitzaien oharra:

Euskadiko Gobernuak osatzen duten ordezkariak politikoa gerra zibila bukatu denean elkartu direnean aho batez eskatu dute askatasuna lortzeko hildako milaka pertsonen odolarekin gudu-zelaian zigilatutako euskal elkartasun nazionalarekiko atxikimendua orain eta etorkizunean; izan ere, gerra zibilean ausardia eta jarraitutasun eredugarri borrokatu dute ordezkariak politikoa horien lurreko eta itsasoko soldaduek hainbat gudu-zelaitan Europako indar totalitarioen koalizioaren aurka.

Eta sakrifizio horri erantzuteko, aipatutako ordezkariak adierazi dute, halaber, beren jokabidea eta diziplina erakunde ororen mendekotasunik gabe bideratuko direla eta jokabide eta diziplina horiek ez direla Euskadiko eremura eta Euskadiko herritarrengana mugatuko¹⁸⁶.

«Euskal obedientziaren» gaiak, 1939ko udaberrian, hainbat eztabaida piztu zituen sailburu jeltzaleen eta sozialisten artean, baita EBBren eta CCSEren artean ere. Lehenengo eraso horren ondoren, gaia berpiztu egin zen urtearen amaieran, eta horren ondorioz, krisi larri bat sortu zen euskal gobernuan.

Izan ere, euskal sozialistak euskal obedientziaren adierazpenarekin lotzea lortzeko asmoz, Agirre Lehendakariak Telesforo Monzóni ahalmena eman zion kudeaketak egiteko sentimendu nazional horretarako joera handiena zuten sozialistetatik hurbil. Monzón azaroaren 18an

186 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Gizarte Laguntzaren Funtsa. Idazkaritza partikularra-korrespondentzia. Leg. 412 07. zenbakia.

elkartu zen mugaz bestaldeko Getarian Gipuzkoako diputatu sozialista Miguel Amilibiarekin¹⁸⁷ Gonzalo Nardiz sailburua aurrean zela. Bilera horretan, Amilibiak akusazioak egin zituen hiru sailburuen aurka, adierazi baitzuen sailburu horiek otzantasun handiegia zutela Eusko Jaurlaritzaren politiken aurrean:

Sozialistekin gauzatzen zuten elkarlana (...) oso eroso zitzairen, nahi zuten guztia egiten zutelako, eta gure ordezkari, izugarritzko otzantasuna erakutsiz, bost axola zitzairen dena. Baina, euskal abertzaleak zirenez, ezin zuten onartu ordezkari sozialisten ulertezintasuna eta ezjakintasuna Euskadiren azaro espezifikoei eragiten zien neurrian¹⁸⁸.

Amilibiak esandakoa Juan de los Toyosen belarrietara iritsi zen Amilibiak gai horri buruz CCSEko kide Sergio Echevarriarekin izan zuen korrespondentziaren bitartez. Gutun horretan, gainera, adierazi zuen euskal nazionalistak prest zeudela Eusko Jaurlaritzaren osaera aldatzeko sozialistak PSOEtik bereizten baziren.

Amilibiak Echeverriari bidali zion gutunean azaltzen ziren bi gertakari horien ondorioz, Toyosek Eusko Jaurlaritzan betetzen zituen kargu guztien dimisioa aurkeztea erabaki zuen. Jaurlaritzan zeuden bere kide sozialistek, hots, Juan Graciak eta Santiago Aznarrek ez zuten dimisioa aurkeztu, Alderdi Sozialistaren jarrera ahultzen zela uste zutelako. Toyosen dimisioak urtearen amaiera arte iraun zuen; Gobernu Kontseiluak abenduaren 30ean izan zuen bileraren ondoren, zeinetan bi ordezkari sindikal Oficina de Colocación Obrera izeneko bulegora bidaltzea erabaki zen, abenduaren 31n CCSE batzordea Aznarrekin eta Graciarekin bildu zen eta Toyosi Gobernura eta lan politikora itzul zedin eskatzea erabaki zuten.

Toyos itzuli zen, baina Getariako janariaren kontua astinduak ematen ari zen oraindik, euskal obedientziaren krisiaren gaia atzean zegoela beti. 1940ko otsailaren 10ean, nazionalistek bilera batera deitu zuten CCSE batzordea, baina ez zuten bilerara joan nahi izan Getariako kontua argitu arte. Hurrengo egunean, Lehendakari gutun bat bidali zion Paulino Gómez Beltráni gertatu zenari buruz Nardiz eta Monzón sailburuek idatziz emandako bertsioekin. Gutun horietan, Nardiz eta Monzón sailburuek adierazi zuten haiek ez zituztela sailburu sozialistak iraindu, eta Amilibiarekin egindako bileraren helburua Euskadiko eremu nazionalen sozialisten laguntza bilatzea zela.

Otsailaren 14an Lehendakaria eta Nardiz eta Monzón CCSE batzordeko ordezkariekin elkartu ziren Parisen, Gómez Beltrán, Gracia, Aznar eta Toyos sailburuak, eta Miguel Amilibia diputatu sozialista buru zirela. Amilibiak bere adierazpen guztiak berretsi zituen, baina Monzónnek eta Nardizek CCSE batzordera bidali ziren gutunetako edukia berretsi zuten. Juan Graciak, bestalde, gertatutakoari buruzko azalpenak eskatu zituzkien Gonzalo Nardizi eta Telesforo Monzóni. Bi sailburu horiek erantzun zuten Amilibiarekin izan zuten elkarrizketaren helburu bakarra Amilibiaren konplizitatea bilatzea zela euskal sozialismoa euskal nazionalismoaren kontuari atxikitzeko.

Bileraren ondoren, hiru sailburu sozialistek uste zuten beren ohorea eta CCSE batzordearen ohorea babestuta zeudela Getariako bazkarian gertatutakoari buruz Amilibiak eta Nardiz eta Monzón sailburuek egindako adierazpenak ikusi ondoren. Gainera, uste zuten Amilibiak berriro egin zituela akusazioak, antzeko akusazioak egin baitzituen Katalunian Graciaren, Toyosen eta Aznarren aurka.

Amilibiaren kasua konpondu bazen ere, EAJren eta PSOEren artean konpontzeko hainbat gai geratzen ziren, hala nola euskal obedientziaren kontua eta sozialistek Eusko Jaurlaritzako

187 Miguel Amilibia nazionalistekin ulertzearen oso alde zegoen euskal sozialismoaren euskal obedientziaren gaiari dagokionez. Gogora dezagun gatazka hori ez dela sailburu sozialistekin zuen lehenengo gatazka; izan ere, 1938an adierazi zuen ez zegoela ados sailburu horiek Eusko Jaurlaritzan gauzatutako politikarekin.

188 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Gizarte Laguntzaren Funtsa. Idazkaritza partikularra-korrespondentzia. Leg. 412 08. zenbakia.

organoetan izango zuten ordezkariak. Horregatik, otsailaren 17an, PSOEek dossier bat bidali zuen Alderdi Sozialistak Lehendakariari proposatu zizkion eta oraindik konpondu gabe zeuden arazoei buruz. Alde batetik, dossier horretan kekatzen ziren sozialistek kontrolatzen zituzten Sailetan nazionalisten eskumenak sartzen zirelako eta Sail sozialistekiko diskriminazioak zeudelako. Bestalde, dokumentu horretan erbesteratu sozialista batzuek Eusko Jaurlaritzaren bizilekuetan nahiz kontzentrazio-esparruetan eta langile-brigadetan jaso zuten tratu diskriminatzaileari buruz kekatzen ziren. Azkenik, txosten horretan, PSOEek esan zuen adierazpen politikoak, euskal obedientziaren gaia aipatuz, alderdi politikoek egin behar zituztela, baldin eta adierazpen politikoek ezarritako programa politikoa nabarmen aldatzea ekarriko bazuten.

Lehendakariak otsailaren 23an erantzun zion dossier sozialistari, Monzón eta Torre sailburuei kontsultatu ondoren. Politikari dagokionez, euskal obedientziaren krisiari eta adierazpen politikoek dagokienez, Agirrek honela ezeztatu zituen argudio sozialistak:

Egia da adierazpen politikoak Alderdiek egin behar dituztela, programa-aldaketak eragiten badituzte edo gai politikoak soilik badira, eta elementu politikoek egin behar dituztela, Lehendakariarengandik hasita sailburuekin bukatzeraino, baldin eta adierazpen horiek Jaurlaritzak aurretik ezarritako programen ondorio eta garapen badira edo Euskal Herrirako aukera bat direla eta egokiak direla uste bada¹⁸⁹.

Lehendakaria 1936ko urriaren 7ko Gernikako Adierazpena ari zen inplizituki aipatzen. Adierazpen horretan esaten zen Eusko Jaurlaritzak «konpromisoa hartzen zuela Euskal Herriaren ezaugarriak gordetzeko, euskal nortasuna –Jaurlaritza hau nortasun horren adierazle eta berme da– onartzera behartzen duen begirune eta babes guztia eskainiz ezaugarri horien sustapenari; horregatik, behartuta dago lege bidez aitortzen diren eta odol bidez zigilatzen diren askatasuna eta balio espiritualak eta sozialak defendatzera». Adierazpenaren gai hori Euskadiko Alderdi Sozialistaren adierazpen nazionalaren alde agertzearen alde zeuden sozialistek erabiltzen zuten tresna da; gainera, tresna hori bera erabili zuen EAJk foru-abolizioaren mendeurrena zela eta sozialistekin izandako gatazkan, formula hori sartu baitzuten sozialistek proposatutako testuaren amaieran, arestian ikusi dugunez.

Une horretan iritsi zen punturik gorenera Eusko Jaurlaritzako bi alderdi garrantzitsuenen arteko enfrentamendua. Alderdi nazionalistek, hau da, EAJk eta EAE/ANVk gainerako alderdi politikoek jakinarazi zieten euskal nazionaltzat hartu behar zutela beren burua, bestela krisi bat sortuko zela Jaurlaritzan eta uko egingo ziotela aldarrikapen horren alde agertu ez zirenekin kabinetea sortzeari. EAJren oharrean honako hau azaltzen zen:

Eusko Alderdi Jeltzalearen ustez, Euzkadiko Gobernuak bete du bere edukiaren lehenengo fase zat har daitekeena, hots, gerraren aldiaren eta hurrengo aldiaren arteko aldia hartzen duena. Une horretako zirkunstantziak direla medio eduki politiko garbiaren programa bat zehaztu behar da aurreragoko.

Eusko Alderdi Jeltzaleak euskal nazionalitatea onartzearen printzipiora eta nazionalitate hori onartzetik eratortzen diren eskubide guztien printzipiora egokitzen diren erakunde politikoekin elkarlanean jardungo du. Euzko Alderdi Jeltzaleak euskal demokrazia eta askatasun tradizionalen printzipioek eusten die eta eskatzen du adierazpen hori agerikoa ere izatea, baita Herrialde demokratikoen alde daudela adierazteko modu bat ere izatea, totalitarismo erasotzaileak erabat gaitzetsiz¹⁹⁰.

PSOEek nahitaez erantzun eta definitu behar zuenez, kontsultak egin zizkien bere buruzagi adierazgarrienei, Eusko Jaurlaritzako hiru sailburuei besteak beste, erronka nazionalistari

189 Gregorio Arrien eta Iñaki Goiogana, *El primer exilio de los vascos...*, op. cit., 587. orrialdea.

190 Gregorio Arrien eta Iñaki Goiogana, *El primer exilio de los vascos...*, op. cit., 589. orrialdea.

erantzuteko. Juan de los Toyosek adierazi zuen bera ez zegoela euskal sozialismoa alderdi nazionalizat hartzearen alde; izan ere, hark uste zuen EAJren oharra espiritu separatista duen adierazpen politikoa zela, eta esaten zuen konpondu behar zen arazo bakarra Espainiako Errepublika eta Euskadiko autonomia berreskuratzea zela¹⁹¹. Santiago Aznarrek, bestalde, ez zuen inolako eragozpenik ikusten euskal sozialismoa nazional bihurtzeko; bere txostenean lau oinarritzko ondorio biltzen zituen: Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako sozialistei Euskadiko Langileen Alderdi Sozialista deituko zitzaaien, ELAS horrek Gernikako adierazpena berresten zuen, euskal nazionalitatera egokitzen ziren gainerako indar politikoekin elkarlanean jardungo zuen Euskadiko Gobernuan, eta, azkenik, totalitarismoa gaitzesten zuen eta demokraziekiko atxikimendua aitortzen zuen¹⁹². Juan Graciak, bestalde, txosten bat egin zuen 1940ko martxoaren 2an¹⁹³. Txosten horretan Aznarren jarreraren alde jarri zen, euskal nazioaren egitatea aitortzearen eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean jardutearen alde agertu baitzen, bere alderdikide Juan de los Toyosen iritzia aurka jarritz.

CCSEk, hiru sailburuen eta beste pertsona ospetsu batzuen txostenak jaso ondoren, gutun bat bidali zion Lehendakariari euskal sozialismoak gai nazionalaren inguruan zer jarrera zuen adierazteko. Gutun horretan, euskal sozialismoaren gorenko organoak gaitzetsi egin zuen alderdi jeltzaleak egindako proposamena, hau da, alderdi sozialistak bere burua nazionalizat hartzea, gai horri buruzko erabakia hartzeko militanteak deitzeko ezintasunean oinarrituta, bere alderdiaren erregelamenduan azaltzen zenaren arabera. Gainera, adierazi zuten hobe zela Eusko Jaurlaritzan ordezkariarik ez izatea beren barne-estatutuekin tabula rasa egitea baino. Ikus daitekeenez, jarrera hori oso urrun zegoen Graciak eta Aznarrek beren txostenetan proposatu zutenetik eta nolabaiteko kontraesanean zegoen 1936ko urriaren 7ko Gernikako Aldarrikapenari dagokionez eta Foru Abolizioari buruzko 1839ko Adierazpenarekin izan zuten jarrerarekin, bi kasu horietan Alderdi Sozialistaren onespina izan zuten eta bietan aipatzen zen euskal herriaren ezaugarri nazionalak gordetzea, arestian ikusi dugunez.

Euskal sozialismoak bere burua nazionalizat hartzearen ondorioz sortu zen krisiak hiru taldetan zatitu zuen alderdia. Alde batetik, Juan Gracia eta Santiago Aznar buru ziren taldea zegoen, Euskadiko Alderdi Sozialistaren autonomiaren eta euskal nazioaren egitatea aitortzearen aldekoak zirenak. Bestetik, Paulino Gómez Beltrán eta Ángel Giménez zeuden, CCSEren presidentea eta idazkaria, hurrenez hurren. Euskal nazioaren egitatea onartzearen aurkako korrontearen buru ziren eta sailburu sozialisten lana ezesten ahalegindu ziren sailburu horiek dimititzeko eta haien ordezkari beste batzuk jartzeko. Azkenik, Miguel Amilibia Gorteetarako diputatuaren taldea zegoen, alderdiak bere burua nazionalizat hartzearen alde zegoen taldea, baina sailburuei aurre egiten ziona, behin baino gehiagotan kritikatu baitzituen, eta CCSEren zuzendaritzari ere aurre egiten ziona, batzorde horretako buruzagiei buruz esaten baitzuen ez zutela kudeaketa txarra egin.

Gobernuaren krisia Eusko Jaurlaritzaren programa berria 1940ko maiatzaren 8an onartu zenean konpondu zen. Programa horretan hiru zati zeuden, bat doktrinala, beste bat organikoa eta azkena jarduneko. Zati doktrinalean euskal nortasuna aldarrikatu eta onartzen zen, 1936ko urriaren 7ko Gernikako Aldarrikapenaren edukian oinarrituta. Baiesten zen Euskadiko Gobernu eta haren legitimitatea behar bezala adierazitako euskal subiranotasunetik sortzen zirela.

Zati organikoan, Lehendakariak eta Eusko Jaurlaritzaz gain, Euskal Kontseilu Nazionalaren funtzionamendua arautzen zen, Kontseilu horrek kontsulta-organo gisa jardungo zuen parlamentu edo legebiltzar gisa erbesteak irauten zuen bitartean. Eusko Jaurlaritzako kideek, Gorteetarako diputatuek eta diputatu ohiek, Euskadiko eta Nafarroako probintziako lau

191 Gregorio Arrien eta Iñaki Goigana, *El primer exilio de los vascos...*, op. cit., 591. orrialdea.

192 Koldo San Sebastián, *El fuego de la utopía. Biografía de Santiago Aznar Sarachaga. Primer Consejero de Industria del Gobierno Vasco*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzak, 2001, 181.182. orrialdeak.

193 Txostena hemen dago: Santiago Aznarren Familiaren Artxiboa.

hiriburuetako alkateek, kulturaren alorreko bi ordezkariak eta Lehendakariak modu askean hautatutako beste lau kidek osatu zuten.

Azkenik, jardun praktikoaren zatian, esaten zen Euskadiko Gobernuak erregimen politiko penintsular bat ados zezakeela Espainiako erakundeekin, betiere honako oinarri hauek onartzen baziren:

- a) Euskal pertsonalitate nazionala onartzea, eta, horrenbestez, bere pertsonalitatea hobekien gordeko duen erregimena modu askean emateko duen eskubidea onartzea.
- b) Proposatzen den erakunde politikoa gidatuko duten printzipio demokratiko batzuk, etorkizunean izan ditzaketen aldaketa demokratikoak alde batera utzita.
- c) Benetako justizia sozialeko printzipio batzuk, euskal bizitza sozialaren errealitateari aplikatu dakizkiekeen arau argietan adierazita.
- d) Indar demokratikoen atxikimendu argi eta irmoa totalitarismoaren aurka egiten duten borrokan¹⁹⁴.

Programa onartu zenean desadostasunak sortu ziren euskal sozialismoaren barnean eta CCSEren zati batek Eusko Jaurlaritzatik ateratzea proposatu zuen, tirabira handiak sortu ziren eta Gracia, Aznar eta Toyos sailburuak ordeztuko ahaleginak egin ziren.

Gobernu-programa hori, Eusko Jaurlaritzaren krisia eta euskal sozialismoaren barruko gatazka etenda geratu ziren naziak geldiezinezko aurrerapena egiten ari zirelako Frantzia eta Agirre Lehendakaria desagertu egin zelako maiatzaren 8an Belgikara senitarteko batzuk bisitatzera joan zenean.

Zer jarrera izan zuten Gonzalo Nardizek eta EAE/ANVk krisi horretan? Amilibia diputatu sozialistarekin izandako gertakariaren ondoren Toyos sailburuaren dimisioaren zeharkako protagonista izateaz gain, «euskal obedientziaren» gaiaren prozesu osoan, Nekazaritzako sailburua Agirre Lehendakariaren euskal politika nazionalera makurtu zen eta ez zuen adierazi estrategiarekin ados ez zegoenik. EAE/ANVren barruan, ordea, gobernu autonomikoa Euskal Gobernu Nazional bihurtzeak hainbat desadostasun sortu zituen, baina alderdiaren zati handi batek, Nardizek adibidez, zalantzarik gabe bultzatu zuen Agirren estrategia. Alderdi politikoaren idazkari nagusi Tomás Echave ez zen EAJz eta Lehendakariak fidatzen, batez ere Tomás Bilbaorekin izandako aferaren ondoren, eta susmatzen zuen Eusko Jaurlaritza nazionala izan zedin onartzeko eremu jeltzaleak CCSE batzordean egiten zituen presioen atzean zerbait zegoela. Laburbilduz, Echaveren ustez hiru arrazoi zeuden Lehendakariaren politikaren aurka egiteko: EAJren eta Agirrearen ezkutuko arrazoiak izatea, presio politiko neurrigabea erabiltzea sozialisten gain eta horrek guztiak Eusko Jaurlaritzarako ekar zitezkeen arriskuak, Eusko Jaurlaritzaren haustura gerta zitezkeelako¹⁹⁵. Echavek ez zuen bere iritzia EAE/ANVn ezartzea lortu, nahiz eta, arestian ikusi dugunez, gertakariak arrazoia eman zioten, Eusko Jaurlaritzako krisia oso garrantzitsua izan zelako.

194 Koldo San Sebastián, *El fuego de la utopía...op. cit.*, 184.185. orrialdeak.

195 Ludger Mees (koord.), *La política como pasión...*, op. cit., 415.417. orrialdeak.

ALEMANEN INBASIOA FRANTZIAN

1940ko maiatzaren 10ean Hitlerrek Frantziaren, Belgikaren eta Holandaren aurka eraso egitea agindu zuen, eta ezinezkoa izan zen naziak Frantziako lurraldera eta Frantziaren hiriburura, hots, Parisera aurrera egin zezaten gelditzea. Maiatzaren 20an, Eusko Jaurlaritzak Parisen, Marceau etorbidean, zuen Ordezkaritza itxi egin zuten Senako Poliziaren Prefeturako agenteek¹⁹⁶. Eusko Jaurlaritzak, Parisen naziak sartuko zirela ikusirik, 1940ko maiatzaren 26an erabaki zuen bere egoitza ofiziala Bordelera eramatea, Frantziako agintariek gomendatuta¹⁹⁷. Parisen Eusko Jaurlaritzaren Ordezkaritza bat geratu zen, Leizaola eta Gracia sailburuek osatzen zutena. Helburu moralak betetzeko eta Eusko Jaurlaritzak bere herrikideekin zituen materialak likidatzeko, ordura arte martxan egon ziren zerbitzu guztiak bulego administratibo bakar batean elkartu ziren¹⁹⁸. Hori gertatzen zen bitartean, Lehendakaria Belgikan harrapatuta geratu zen, eta ezohiko gorabehera batzuk pairatu behar izan zituen bizirik irteteko eta Europatik ateratzeko.

1940ko ekainaren 14an, alemanek Paris hartu zuten; Frantziako hiriburuan zeuden euskal arduradunak, horien artean Gracia, klandestinitatera igaro ziren eta Marceau Etorbideko eraikin enblematikoa frankistei eman zieten naziak.

Hiria alemanek hartu aurretik, Nardiz Parisen bizi zen Eusko Jaurlaritzako gainerako kideekin batera. Nardizek eta Eusko Jaurlaritzako beste kide batzuek eta beren senitartekoek, hala nola Leizaolak eta bere senitartekoak Garaipen Arkuaren plazako hotel batean, Elysée-Star izenekoan, hartu zuten ostatu. Parisen, sailburuek bilerak egiten zituzten, eta Nardizek dioenaren arabera, euskal Ordezkaritzaren eraikina itxi zutenean ere kafetegietan eta jatetxeetan elkartzen jarraitu zuten. Gonzaloren semeak, hots, José Luis Nardizek esan duenaren arabera, bere aita Parisen geratu zen alemanak Parisen sartu baino egun batzuk lehenago arte. Nardizek eta Leizaolak izan zuten elkarrizketa bat ere kontatzen du. Parisko sakabanaketa orokorra gertatu zen bezperan, Nardizek eta Leizaolak eztabaidatzen zuten naziak hirira etorriko ziren ala ez. Leizaolaren ustez, oso zaila zen hori gertatzea. Dena dela, ekainaren 11n, alemanak Parisen sartzeaz zeudela, Nardiz eta bere emaztea Frantziako hegoalderantz irteten ahalegindu ziren. Lehendakariaren idazkari Pedro Basaldúa ere Parisen zegoen une hartan, eta hark ere Paristik irten behar izan zuen 1940ko ekainaren 11n:

Zirrara eragiten du hiriburutik nola atera ziren ikusteak. Milaka pertsonak utzi zuten Paris autoz, orgaz, bizikletaz eta askok eta askoz oinez, bizkar gainean paketeak, fardelak, maletak eta abar zituztela. Ezinezkoa zen geltokien inguruetan ibiltzea¹⁹⁹.

196 Jean-Claude Larronde, *Exilio y solidaridad...*, op. cit., 193. orrialdea.

197 Maiatzaren hasieran, Agirre Lehendakaria Paristik atera zen Belgikarantz; bidaia horretan une gogorak bizi izan zituen alemanek ez harrapatzeko.

198 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Gizarte Laguntzaren Funtsa. Idazkaritza orokorra-aurrekontuak. Leg. 433 05. zenbakia.

199 Pedro de Basaldúa, *Con los alemanes en París*, Buenos Aires, Ekin euskal argitaletxea, 1943, 36. orrialdea.

Nardiz-Iriondo senar-emazteak tren-geltokira joan ziren, ez dakigu zehaztasunez zeinetara, ilunabarrean, eta Bordelerantz zihoan tren bat hartu ahal izan zuten. Nardizek bere semeari kontatu zionaren arabera, bagoia jendez gainezka zegoen, jendeak borroka egiten zuen sartzeko; norbaitek esan zuen Nardiz judua zela eta trenetik bidaltzeko zorian egon ziren. Azkenean, senar-emazteek bidaia egin ahal izan zuten, baina hainbeste jende zegoenez bagoiaren eskaileretan eserita joan behar izan zuten, hankak zintzilik zituztela egin behar izan zuten Bordelerainoko bidea, gauzez, eta barrei ahal izan zuten bezala helduta²⁰⁰.

Bordeletik Capbretoneraino joan ziren, (Landetako departamenduko kostaldeko herri bat, Baionatik oso hurbil dagoena) eta han Leizaolarekin, Torrerekin, Monzónekin eta Eusko Jaurlaritzako beste kide batzuekin elkartu ziren. Han zegoela, Nardiz Ingalaterrarentz ateratzen saiatu zen, arrantza-ontziren bat alokatuz, baina azkenean ezin izan zuten bidaiatu. Nardizek honela gogoratzen zuen:

Bordeletik Capbretonera joan ginen. Capbretonen, Telesforok eta horiek handik atera nahi zuten berehala. Leizaolak esaten zuen haiek antolatuta zeukatela zerbait. Ni Luisa eta Patxo Arreguierekin joan nintzaion ikustera, eta modu pertsonalean lortu zuten zerbait zela ikusi nuen. Gero Capbretonera itzuli nintzen eta Leizaolari esan nion ez zegoela hark niri esandako antolamendurik. Esan nion hark baimena ematen bazidan nik kudeaketaren bat egin nezakeela itsasontziren batekin edo horrelako zerbaitekin. Hark esan zidan saiatzeko zerbait lortzen. Eliodororekin egon nintzen eta dirurik ba ote zuen galdetu nion. 2.000 liberako Gamboako txeke bat zuela esan zidan. Nik emateko esan nion, itsasontzi bat kontratatzeko erabil nezakeelako. Diru horrekin atunontzi bat kontratatatu nuen.

Leizaola ez zegoen itsasontzi hori hartzearen oso alde. Nik esan nion hura joaten ez bazen ni ere ez nintzela joango. Aguirretzek, Camiñak eta beste batzuek itsasontzia baliatu zuten eta Ingalaterrara joan ziren. Gu han geratu ginen. Capbretonera itzuli ginen eta gogoratzen naiz Madrileko alkate izan zen Pedro Ruiz jaunarekin eta Gorteetarako presidentea izan zenarekin jaitsi ginela. Autoz etorri ginen eta María Josefak esan zigun Telesforo eta haiek Pauerantz abiatu zirela. Hara joan ginen Telesforo, Lasarte eta abar jasotzera²⁰¹.

Paristik atera eta handik egun gutxi batzuetara, ekainaren 22an, Frantziak armistizio bat sinatu zuen Alemaniarekin. Armistizio horren bitartez, alde batetik, «eremu okupatu» bat ezartzen zen Frantziaren iparraldean eta mendebaldean, Nardiz zegoen eremu atlantikoa eremu horren barnean zegoen; eta, bestetik, «eremu aske» bat Frantziaren hegoaldean eta ekialdean; eremu horretan sortu zen Petain mariskala buru zuen gobernu kolaborazionista. Horregatik, Nardiz, bere emaztea eta Eusko Jaurlaritzako beste kide batzuk Marseillaraino joan ziren, Frantzia «askera». Marseillan, Gonzalo eta Merche gela batean bizi ziren, gorriak pasatu zituzten, zeren, nahiz eta patrikan dirua izan, hirian ezin baitzen ezer erosi, hiria hornikuntzarik gabe gelditu zelako. Nardizek kontatzen duenaren arabera, Eusko Jaurlaritzako bere kideekin biltzen jarraitu zuen Marseillan. Nardizek kide horiei esaten zien albait lasterren atera behar zutela Frantziatik, han ezin zelako ezer egin²⁰²:

Gero Marseillara joan ginen eta han izaten genituen gure bilerak. Ni ere presidentearen iritzi berekoa nintzen, hau da, albait lasterren atera behar genuela han jarduteko modurik ez genuelako. Oraindik ere Eusko Jaurlaritzak ote zegoen esatea nahi nuen

200 Badirudi maletak bidaian galdu zituztela. Hori esan zuen Leizaolak 1940ko ekainaren 14an Bordeletik Nardizi bidali zion gutun batean. Gutun horretan euskal ordezkarietako gainerako kideak Paristik nola atera ziren azaldu zion. Iturria: Nardiz familiaren artxiboa.

201 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 29. orrialdea.

202 Jiménez de Aberásturik dioenaren arabera, Leizaola zen bilera horien buru eta bilera horietan ahaleginak egiten zituzten Gobernu eta Gobernuko arduradun politiko nagusiak Amerikara ebakutzeko, subsidioak banatzeko, bisatuak bilatzeko, eta abar. Juan Carlos Jiménez Aberasturi, *De la derrota a la esperanza: políticas vascas durante la Segunda Guerra Mundial (1937-1947)*, Oñati, IVAP, 1999, 282.283. orrialdea.

nik, bestela nik nire kabuz alde egingo bainuen; izan ere, nik banituen baliabideak ateratzeko²⁰³.

Zalantza-une horretan, bat-batean, poliziak Gonzalo Nardiz atxilotu zuen, eta hainbat egunetan bakartuta eduki ondoren, langileen talde batean sartu zuten eta Riansera eraman zuten, mendietan egur egitera, eta han urtebete eman zuen. Bizi izandako esperientzia honela kontatzen zuen:

Ni hotel batean bizi nintzen. Egun batean, ni bizi nintzen hotelaren parean zegoen kiosko batera joan nintzen egunkariak erostera. Gizon bat hurbildu zitzaidan eta paperak eskatu zizkidan. Paperak erakutsi nizkion eta Polizia-etxera joan behar genuela esan zidan. Polizia-etxean jende pila bat zegoen. Suediar batzuk zeuden, haiek ez zirela lapurrak esaten zuten eta nik ere halaxe esan nuen, ni ere ez nintzela lapurra. Itsasontzi batean sartu gintuzten eta han eduki gintuzten lau egunetan. Gero handik atera gintuzten, kamioi batzuetan sartu gintuzten eta Riansera eraman gintuzten, mendietara egur egitera.

Nire emazteak Leizaolari jakinarazi zion lau egun neramatzala bakartuta itsasontzian. Gero jakin zuten Riansen nengoela eta ezin izan zuten ezer egin.

Oso ondo egon nintzen. Han jende pobrearekin, behartasun gorrian bizi zirenekin eta beren senitartekoak non zeuden ere ez zekitenekin harremanetan egon ahal izan nintzen. Horrek guztiak pena handia ematen zidan. Nik pentsatzen nuen nik behintzat banituela hainbat arrazoi Espainian ez egoteko, baina ez nekien haiei zer gertatuko zitzaien Espainian geratu izan balira. Oso nahigabetuta zeuden.

Nik han ez nuen gaizki pasa, aurrera atera nintekeela uste nuelako. Gogoratzen naiz Marseillatik Rianserako bidaiari nire ondoan zihoan mutil batek bere burua leihotik behera bota behar zuela ikusi nuela. Mutil hark uste zuen Alemaniara eraman behar gintuztela. Tontakeriarik ez egiteko esan nion, eta pixka bat itxaroteko, nik ere ez nuelako Alemaniara joan nahi eta beharrezkoa izanez gero, ihes egingo genuela mugara iritsi baino lehen.

Horrela, Riansera iritsi ginen. Ukuilu batean sartu gintuzten eta lotarako prest geundela ofizial bat sartu zen eta nitaz galdetu zuen. Ni nintzela esan nion eta hark galdera bat egin ondoren Bilbokoa nintzela esan nion. Hura Legio Atzerritarrekoa zen. Zer egiten zuen han galdetu nion eta hark erantzun zidan Legio Atzerritarrekoak Alemaniara preso ez joateko, lan-konpainia horien buru jarri zituztela. Nire izena irakurri zuen eta Euzkadiko Gobernuakoa ni izan nintekeela pentsatu zuen eta nik baietz erantzun nion. Gizona joan egin zen eta handik gutxira manta bat eta tabakoa ekarri zizkidan. Manta ez nuela nahi esan nion han zeuden guztiekin partekatu ezin nuelako, baina tabakoa hartu egin nuen.

Hurrengo egunean itzuli zen eta esan zidan komandantea harrিতuta zegoela ni han nengoelako eta ez zekiela nola iritsi nintzen hara. Nik esan nion atsegin handiz erantzungo niola, baina nik ere ez nekiela zergatik nengoen han. Taldearen buru izan nahi ote nuen galdetu zidan, baina nik hori zer zen ez nekienez, galdetu egin nion. Hark argitu zidan zer zen eta ondo iruditzen ez zitzaidanez, ezetz esan nion eta nire kideekin batera joan nintzen lanera.

Egur egiten genuen. Mozten eta metatzen genuen lehenengo metro kubikoa ez ziguten ordaintzen, han ematen ziguten janaria ordaintzeko zelako. Lehenengo metro kubikoaz gain egiten genuen metro kubiko bakoitzeko 25 franko ematen zizkiguten. Jendeak asko laguntzen zuen laguntza behar zuten senitarteko asko zituztelako. Nik lagundu egiten nien. Tranpak egiten zituzten untxiak harrapatzeko mendian eta horrela otordu onak egiten genituen.

203 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 30. orrialdea.

Iheslarien kontua beste mundu bat zen. Malagakoak, andaluziarrak eta abar zeuden. Ni oso ondo moldatu nintzen guztiekin²⁰⁴.

Urtebete igaro ondoren, Venezuelako kontsulak egindako kudeaketen bitartez eta Leizaolak eta beste lagun batzuek (Pierre Dumas, adibidez) egindako ahaleginen bitartez, bortxazko lanen esparru hartatik ateratzea lortu zuen²⁰⁵. Marseillara itzuli zen bere emaztearekin eta Eusko Jaurlaritzako gainerako kideekin elkartzeko. Nardizen egoera konplikatuak zen: «ezin nintzen Marseillan bizi eta Marseillan bizitzera behartuta nengoen», adierazi zuen. Azkenean, ematen duenez, eta dagoen dokumentazioaren arabera, bere jarrera gordetzeko, nekazaritzako langile gisa erroldatu zen Penne-d'Agenaisen, Agenen inguruan, eta han egon zen Lehendakaria Amerikan zegoela jakin zuen arte. Hori jakin ondoren, Nardizek kontinente berrira ateratzeko erabakia hartu zuen, baina Leizaolari jakinarazi zion lehenago. Pennetik Marseillara joateko dirua eskatu behar izan zien Eliodoro de la Torreri eta Santiago Aznarri 1942ko martxoaren amaieran eta Kosta Urdinera joan zen apirilaren hasieran²⁰⁶.

1941eko urtarrilaren 15ean, euskaldunen talde bat Marseillatik Amerikarantz abiatu zen «Alsina» transatlantikoan. Harrezkero, gerra-egoerak eta alemanen eta frankisten presioek ezarritako zailtasunaren aurrean, areagotu egin ziren itsasontzi berriak irtetea lortzeko kudeaketak. 1941. urtearen amaieran, Aznar, Toyos eta Nardiz sailburuak ez ezik beste pertsona batzuk ere Frantziatik ateratzeko izapideak egiten hasi zen Julio Jauregui. Asko itxaron ondoren, 1942ko apirilaren 14an, bidaia bat antolatu zen «Maréchal Liautey» itsasontzian. Itsasontzi horretan ehun euskaldunek baino gehiagok (horien artean Nardiz eta bere emaztea zeuden) lortu zuten Casablancarantz bidaiatzea, eta hiriburu hartan itsasontzia zeukaten zain Mexikora joateko. Nardizekin batera, honako hauek ere bidaiatu zuten: Aznar eta Toyos sailburuak, EAE/ANVko Tomás Bilbao eta Tomás Echave edo EAJko Julio Jauregui, José María Lasarte eta Pedro Basaldúa. Ontziratzeke aukerarik izan ez zuten, Leizaola eta Torre sailburuak Frantzian geratu ziren. «Maréchal Liautey» itsasontzia apirilaren 20an iritsi zen Casablancara. Nardizek eta gainerako erbesteratu euskaldunek 11 egun eman behar izan zituzten Marokoko hiriburuan Lisboatik zetorren «Nyassa» itsasontzia iritsi arte. Azkenean, apirilaren 30ean, «Nyassa» itsasontzian ontziratu ziren erbesteratzeko egindako bidaia horretako jomuga berrira joateko: Mexikora²⁰⁷ joateko, alegia.

204 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtza, Carlos Blasco Olaetxea Funtza, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 30.31. orrialdea.

205 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtza, Carlos Blasco Olaetxea Funtza, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 30. orrialdea.

206 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtza, Presidentzia Funtza, Ordezkaritzak, Baiona, Delegatua, Korrespondentzia, Leg. 180 l. zenbakia.

207 Juan Carlos Jiménez Aberasturi, *De la derrota a la esperanza...*, op. cit., 293.295. orrialdea.

18. MEXIKO

«Nyassa» 1942ko maiatzaren 22an iritsi zen Mexikora, eta garai horretan euskal erbesteratzeak Amerikan zuen garrantzi politikoa nabarmen indartu zen, talde iritsi berria 1941. urtearen amaieran «Alsina» itsasontzian iritsi zen taldearekin elkartu baitzen. EAJko Leizaola eta Torre sailburuak soilik geratu ziren Frantzian, sailburu horiek, azkenean, ezin izan baitziren Amerikarantz ontziratu.

1939ko urtarrilaz geroztik euskal ordezkari bat zegoen martxan Mexikon. Ordezkari horren buru Francisco Belausteguigoitia zen. Agirre Amerikara iristearen ondorioz, Belausteguigoitiak dimititzea pentsatu zuen eta bere negozioetan jardutea, baina Telesforo Monzón «Alsina» itsasontzian iritsi zen arte ez zuen dimisioa aurkeztu. 1941. urtearen amaieratik aurrera, Monzón Mexikoko euskal ordezkari bihurtu zen, Julio Jaureguik laguntzen zion idazkari nagusiaren lanak eginez eta Germán de Iñurrateguik funtzionario-lanak egiten zituen. Hortaz, Monzón Eusko Jaurlaritzaren ordezkari ofiziala izan zen Mexikon, «Nyassa» itsasontzian iritsi ziren beste hiru sailburuen –Nardiz, Toyos eta Aznar– jarduna koordinatzen zuen eta, Lehendakariak aginduta, Amerikan zeuden euskal iheslarien errola bat egin zuen. Mexikoko euskal ordezkari izan zen politikazio-maila handiena izan zuena, erbesteratze errepublikanoaren talde aktiboena han kokatu zelako²⁰⁸.

Mexikon lehorreratu ondoren, Toyosek, Aznarrek eta Nardizek gutun bat bidali zioten Lehendakariari New Yorkera iritsi zirela esateko:

Besarkada bat bidaltzen dizugu, besarkada soil eta amultsu bat. Hunkitzeko duzun gaitasunaren esku uzten dugu hunkitzeko dugun gaitasun osoaren eta agur simple honetan jartzen dugunaren interpretazioa: agur honen bitartez gure bihotza eta gure herrialdearen etorkizunari buruzko itxaropen erakargarrienak bidaltzen dizkizugu.

Lehenengo harreman hori izan ondoren eta harreman horri esker Parisen elkarrengandik banandu ondoren eta zu Amerikan zinela jakin arte murriztuta eta desagertzeko zorian geratu zen oro berreskuratu dugula sentitu ondoren, guregan pizten jakin duzun Federa itzuliz esaten dizugu biziz beteta eta Euzkadiri zerbitzatzeko gogoz gaudela²⁰⁹.

Lehendakariak honako hau erantzun zien:

Jaso nuen zuen gutuna eta izugarri hunkitu nintzen gure herriarekiko erakutsi duzun leialtasunarengatik –banekien hori horrela izango zela– eta Amerikako lur hauetan, azkenean, aske zaudetela jakiteagatik (...)

Ilusioz beteta nago gure Gobernu hiriburu horretan elkartzeko, guztiok gorriak pasatzen bi urte igaro ondoren, gure bi kideen estela loriatsua herrestan daramagula –kide bat Francok fusilatu zuen, eta bestea Frantzian hil zen zoritxarreko herri hartako errepideetan

208 Koldo San Sebastián, *El exilio vasco en América 1936-1946*, Donostia, Txertoa, 1988, 97.98. orrialdea.

209 Mexiko DF, 1942-05-25. Nardiz familiaren artxiboa.

barrena ibiliz pairatutako nekearen ondorioz—. Biek zeukaten beren eserlekua gure artean, gurekin ez dauden guztiek bezalaxe (...)

Egon zaitezkete beti elkarrekin. Utzi alde batera eztabaidak. Ez nahasi guztioi horrenbesteko kaltea eragin diguten eztabaidetan. Egin kasu niri. Begira diezaiegun aurrez aurre herri izateko duin diren herrientzat eta herri horientatik sakrifikatzeko gai diren gizonentzat egin diren arazoei. Eta kategoria horretan dago Euzkadi eta kategoria horretan egon behar dute –eta daude– Eusko Jaurlaritzako gizonak²¹⁰.

Gonzalo Nardiz eta bere emaztea Mexikora iritsi zirenean senitarteko batzuegana joan ziren, Mercedes lehengusinarengana zehazki. Mercedes Abiaga abizena zuen eta berez Enkaterrikoa zen gizon batekin ezkondu zegoen. Abiaga arkitektoa zen eta harreman onak zituen gizona zen, negozioak ondo zihoazkion, eta Nardizi berarekin lan egitea proposatu zion. Ekonomikoki, esan dezakegu ingurune horretan gauzak ondo joaten hasi zirela Gonzalorentzat eta Mercedesentzat; izan ere, lan bat zuten eta Dionisia Bengoecheak, Gonzaloren amak, laguntza ekonomiko bat bidaltzen zien Bermeotik. Alabaina, berriro ere politika gurutzatu zitzaion Gonzalori, Lehendakariak berriro deitu baitzion euskal kausarako.

Mexikon, Nardizek euskal erbesteratzearen hainbat jardueratan parte hartu zuen. Lehendabizi *Euzko Deya* egunkariaren argitalpenean parte hartu zuen. Egunkari hori Euskal Ordezkaritzak babesten zuen eta 1943ko martxoaren 1ean azaldu zen hamabostean behin. Francisco Turrillas Bordegaray zen egunkari horren zuzendaria, Gonzalo Nardizen alderdikide eta lagun mina zen, Frantziatik ihes egiten lagundu ziona Indalecio Prietorekin egin zituen kudeaketei esker. Nardizek esaten duenaren arabera, Paco Turrillasek eta berak bakarrik egiten zuten ia-ia egunkari osoa²¹¹, nahiz eta erbestean zeuden euskal figura batzuen laguntza ere bazuten, hala nola honako hauena: Vicente Amézaga, Julio Jauregui, Telesforo Monzón, Tomás Echave, Tomás Bilbao, Ambrosio Garbisu, Pío Caro Baroja, eta abar. *Euzko Deya* 1973ra bitarte argitaratu zen Mexikon²¹².

Gonzalok parte hartu zuen beste ekimenetako bat 1942. urtearen amaieran eratu zen Euskal Kulturaren Batzordea izan zen. Batzorde horren helburua kolonizazio-garaitik Mexikon zegoen euskal presentzia aztertzea zen, baita euskal gaiaren alderdiei buruzko indize bibliografiko bat eratzea eta euskal herritarrei buruzko edozein gai hedatzea ere. Mexikoko euskal erbesteko pertsona askok osatzen zuten Batzordea, eta Telesforo Monzón zen Batzorde horren buru²¹³.

Bestalde, Nardizek parte hartu zuen bere alderdiaren, hau da, Eusko Abertzale Ekintzaren bizitzan ere. Mexikon abian jarrita zegoen EAE/ANVren erakunde bat, Tomás Echave idazkari nagusia izanik erakunde horren buru; Tomás Bilbao eta Gonzalo Nardiz ere erakunde horren barnean sartuta zeuden. EAE/ANVk Agirre Lehendakariari eta bere Gobernuari laguntzeko manifestu bat sinatu zuen EAJrekin, CCSErekin, ELA-STVrekin eta CNTrekin batera. Manifestu hori sinatu zuten erakundeek manifestu horretan errepikatu egiten zuten frankismoaren aurkako borroka eta Espainian monarkia berriz ezartzearen aurkako borroka, euskal herritarrek modu askean adierazitako nahia errespetatzeko konpromisoa hartzen zuten, erakundeen artean etengabeko harremana izango zuten, eta, azkenik, zalantzarik gabeko laguntza ematen zioten Eusko Jaurlaritzari, Eusko Jaurlaritza baitzen euskal herritarrak gehien ordezkatzeko zituen erakundea²¹⁴.

210 New York, 1942-07-09. Nardiz familiaren artxiboa.

211 EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Carlos Blasco Olaetxea Funtsa, Gonzalo Nardizi egindako elkarrizketa, 33. orrialdea.

212 Amaya Garriz eta Javier Sanchiz, *Euskal Etxea de la ciudad de México*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2003, 80.82. orrialdea.

213 *Euzko Deya*, 1943-03-01.

214 *Euzko Deya*, 1943-12-15.

Gainera, Monzónek zuzentzen zuen Mexikoko Euskal Ordezkaritzan gauzatutako ekitaldi politiko askotan parte hartu zuen Nardizek. 1943ko otsailaren 4an, Monzónekin eta Aznarrekin batera, Kataluniako pertsona ospetsu batzuk hartu zituen Euskadiren eta Kataluniaren arteko anaitasun-ekitaldi bihurtu zen ekitaldi batean. Kataluniatik honako hauek hartu zuten parte, besteak beste: Santaló, Sbert, Andreu, Bosch Gimpera edo Aiguadé, Tomas eta Piera.

Urte horretako martxoaren amaieran, Mexikoko Errepublikaren presidentearen ohorez egin zen oturuntza batean hartu zuen parte Nardizek. Oturuntza hori Mexikoko Kasino Militarrean egin zen eta Mexikoko emigrazio errepublikanoaren zati batek antolatu zuen. Gonzalo, Monzón, Toyos eta Aznar Eusko Jaurlaritzaren ordezkari izan ziren ekitaldi batean. Ekitaldi horretara Diego Martínez Barrio, Espainiako ministro errepublikano ohiak, Kataluniako Generalitateko ordezkariak eta Mexikon zeuden hainbat errepublika amerikarretako enbaxadoreak bertaratu ziren²¹⁵.

1944ko ekainaren 3an Frantziako diplomatiko mexikarren omenez Euskal Zentroan egin zen ekitaldi batera joan zen. Nardiz buruzagien mahaian zegoen Monzónekin, Aznarrekin eta Euskadiko nahiz Kataluniako beste buruzagi batzuekin eta omendutako pertsona batzuekin batera. 200 pertsona inguru joan ziren oturuntzara, non euskal erbesteratu askori laguntzearen alde eta erbesteratu horien bizitza babestearen alde zeuden diplomatikoen lana eskertu zen. Horrez gain, «Nyassaren» bidaiaren pasarte batzuk gogoratu ziren²¹⁶.

1944ko urriaren 7an euskal baieztapenaren ekitaldi batean parte hartu zuen Eusko Jaurlaritza eratu zeneko zortzigarren urteurrena zela medio. Euskal Zentroan afari bat egin zen Mexikon bizi ziren sailburuen omenez. Omenaldi horretan EAJko, CCSEko, CNTko, ELA-STVko eta EAE/ANVko ordezkariak hartu zuten parte, eta Telesforo Monzón izan zen hitz egin zuen azkena. Euskal batasunaren alde 1943ko manifestua sinatu zuten indar berak ziren²¹⁷.

Garai horretan, 1942tik 1944ra bitarte, Gonzalo Nardizek eta Jose Antonio Agirrek gutun asko idatzi zituzten elkarri une politikoari buruz zituzten ikuspegi desberdinen berri emateko eta etorkizunean egin behar ziren urratsen berri emateko elkarri; ondorio horietako asko bat datoz Eusko Jaurlaritzaren 1945eko otsaileko komunikatuan bildu zenarekin²¹⁸.

1945. urtearen hasieran, Eusko Jaurlaritzak erakunde-arloan prestatuta eta legitimatuta egon behar zuen II. Mundu Gerraren amaiera hurbil zegoelako eta horren ondorioz, erregimen frankista buka zitekeelako. Hori zela medio, Lehendakariak bere kabinetea bildu behar izan zuen New Yorken. Frantzia aske zegoen dagoeneko eta euskal talde politikoek berriro ekin zioten beren jarduerari; horregatik, ezinbestekoa zen Eusko Jaurlaritzak aurrea hartzea Espainian egon zitekeen eta orduan saihestezina ematen zuen balizko demokratizazio-prozesu batean abangoardian egoteko.

Eusko Jaurlaritzako bilerak New Yorken egin ziren 1945eko otsailean. Agirre izan zen bilera horien buru eta honako sailburu hauek joan ziren bilera horietara: Monzón, Aznar, Aldasoro eta Nardiz; aitzitik, Leizaolak eta Torrek, Frantzian zeudenez, akordioekin bat egin zuten²¹⁹. Bileretan honako hauek laburbildu ziren: erbestean egindako jarduerak, Ordezkaritzen jarduna, euskaldunen laguntza ekonomikoa Amerikan eta aliatuen aldeko borrokan parte hartzea II. Mundu Gerran. Era berean, eta euskal eremuari dagokionez, gai politikoak eta lortu gabe zeuden helburuak aztertu ziren. Horrela, Jaurlaritzak 1936ko urriko Gernikako adierazpena berretsi zuen bere oinarri politiko gisa, eta honako lelo hau gehitu zion: «1940ko maiatzean

215 *Euzko Deya*, 1943-03-31.

216 *Euzko Deya*, 1944-06-15.

217 *Euzko Deya*, 1944-10-15.

218 Nardiz familiaren artxiboa.

219 *Euzko Deya*, 1945-03-15. Toyos sailburuak 1943an utzi zuen bere kargua.

luzatua Parisen», euskal obediencia nazionalaren kontua aipatuz, obediencia hori ezinbesteko baldintza baitzen Jaurlaritzan parte hartzeko. Gainera, Mexikoko 1943ko adierazpena ere oso kontuan zeukan. Adierazpen hori euskal alderdi politikoek berretsi zuten. Azken komunikatuan, Jaurlaritzak frankismoaren aurka zuen jarrera berretsi zuen, eta soilik demokratikoak ziren bideen aldeko apustuan –«bide demokratikoetatik aldentzen den soluzio oro arbuizatu du Euzkadiren izenean»– euskal herriaren autodeterminaziorako eskubidea aipatzen zen hitz-erdika –«akordio-aldarrikapena aurrekari horiekin eta euskal herritarren borondatea, euskal herriak bere gobernu propioa izateko eta modu askean adierazitako borondate nazionala errespetatzeko eskubidea» – baita Nafarroak euskal unitatean sartzeko zuen eskubidea ere, baina Espainiako kausa errepublikanoa irmoki defendatzen zen – «berresten du irmoki defendatzen duela Espainiako kausa demokratikoa berriro ere Errepublikak jartzeko Espainian (...) eta, era berean, herritarren nahi askearekin bat datorren antolaketa defendatzen du²²⁰». Gainera, euskal gobernuak erabaki zuen Frantziara joatea zirkunstantziek hori egitea ahalbidetzen zutenean.

Nahiz eta Agirrek Eusko Jaurlaritza gertaera berri horietarako prestatu nahi izan, Eusko Jaurlaritzak ez zuen behar adinako batasunik; izan ere, EAJk eta EAE/ANVk bazituzten beren ordezkariak bilera hartan, baina Aznar han egoteak euskaldunen norabidearen aldean azaltzen ziren sozialisten laguntza izatea soilik bermatzen zuen; aitzitik, Izquierda Republicana alderdiak Aldasorori ematen zion laguntza ez zen aspalditik ematen. Hortaz, euskal sozialismoaren zati handi bat bilera hartatik kanpo geratzen zen, baita indar errepublikanoak – Izquierda Republicana eta Unión Republicana–, komunistak eta UGT sindikatua ere. Lehendakariak bere gobernuaren osaera aldatu behar zuen 1936az geroztik Jaurlaritzan buru izan ziren indar politikoaren arteko adostasuna berreskuratzeko.

New Yorken bilerak egin ondoren, Lehendakaria Frantziara eta Ingalaterrara joan zen, eta herrialde horietan jardura politiko eta diplomatiko handia egin zuen. Frantzian bilera asko egin zituen euskal alderdi politikoekin indar politiko guztien batasuna lortzeko asmoz, pragmatismoa berreskuratuz eta 1939an ezarritako euskal norabide nazionala alde batera utziz, eta bilera horien ondorioz Baionako ituna sinatu zen 1945eko martxoaren 31n. EAJ, EAE/ANV, CCSE, PCE/EPK, IR, ELA-STV, UGT eta CNT alderdiek sinatutako testuan honako hau berretsi zen: frankismoaren aurkako indarren batasuna, Eusko Jaurlaritzan jarritako konfiantza eta euskal herritarrek modu askean adierazten zuten nahiarekiko errespetua, eta horrek guztiak Eusko Jaurlaritzaren jardura bultzatuko zuen aholku-erakunde bat eratzen zuen²²¹.

Gonzalo Nardizek hegazkinez egin zuen bidaia New Yorkera euskal gobernuaren bileretara joateko, eta Mexikoko hiriburuan jarraitu zuen bizitzen. 1945eko ekainean, *Euzko Deya* egunkarian adierazi zen Acapulcon egon zela oporretan bere emaztearekin. 1945eko abuztuaren 25ean, Lehendakaria Mexikora iritsi zen New Yorketik Errepublikak bizi zuen krisia konpontzeko asmoz. Mexikoko hiriburuan, bildu berriak ziren erbesteko Gorte errepublikanoak Prietoren aldekoen eta Negrínen aldekoen arteko borrokaren erdian. Borroka horretan Martínez Barriok Errepublikaren jarduneko presidentzia hartu zuen beren gain, Negrínen dimisioa onartu zuen eta José Giralen esku utzi zuen Gobernu berri bat eratzeko jarduna, baina komunistak eta Negrínen aldekoak horren aurka zeuden.

Nardiz eta Mexikon zeuden gainerako euskal ordezkariak Agirrerri harrera egitera joan ziren aireportura. Lehendakaria errepublikako gaiak arduratuko zen, baina, horrez gain, Mexikon bizi ziren bere sailburuei beste hainbat gairi buruzko informazioa ematera etorri zen; alde batetik, Ingalaterrara eta Frantziara egin zituen azken bidaien berri eman zien, eta bestetik, Baionako Itunaren sinaduraren berri eman zien. Agirrek hainbat bilera egin zituen Martínez Barriorekin, Álvarez del Vayorekin, Giralekin, Negrínekin, Kataluniako eta Galiziako buruzagiekin, euskal alderdiekin eta abar, hau da, jardura politiko izugarria gauzatu zuen egun horietan.

220 *Euzko Deya*, 1945-03-15 eta Juan Carlos Jiménez Aberasturi, *De la derrota a la esperanza...*, op. cit., 613.614. orrialdea.

221 *Euzko Deya*, 1945-06-15.

Lehendakariarekin egun haietan egin ziren bilera eta afari askotan egon zen Gonzalo Nardiz eta berak dioenaren arabera, Agirreraren auto berean joan zen Indalecio Prietok eskatuta.

Lehendakaria Mexikon egon izanaren eta Lehendakariak egindako kudeaketa politikoen ondorioz, Eusko Jaurlaritzak adierazpen politiko bat egin zuen. Adierazpen horretan esan zuen pozik zegoela krisi errepublikanoa amaitu zelako, Giralen gobernuari lagunduz, baina nahigabetuta zegoela etorkizunerako garrantzitsua zen iritzia zuten sektoreak gobernu errepublikanoaren ordezkarietatik kanpo geratu zirelako. Euskal gaiari dagokionez, New Yorken lortutako akordioak berretsi zituen Jaurlaritzak eta adierazi zuen abian jarrita zegoela Jaurlaritza berrantolatzekeo prozesua, hutsik zeuden postuak alderdi politikoek izendatutako ordezkariekin eta euskal norabide nazionalaren barruko kideekin betetz²²².

1946. urtearen hasieran, eta Eusko Jaurlaritza Frantziara eramateari dagokionez adostutakoaren arabera, Mexikon bizi ziren sailburuek utzi egin zuten herrialdea. Jose Antonio Agirrek «Jaurlaritza Frantziara eramateko Batzorde Antolatzaile» bat jarri zuen abian. Batzorde horren buru Julio Jauregui zen eta Batzorde horrek erbestetik lekuz aldatu behar zuten pertsonen zerrenda bat egiteko zeregina zuen. Zerrenda horretan sailburuak eta haien familiak sartzen ziren eta pertsona horiei bisak kudeatu behar zitzaizkien eta bidaia Errepublikako Jaurlaritzak ordaindu behar zien²²³. 1946ko martxoaren 1ean *Euzko Deya* egunkariak aditzera eman zuen Monzón, Aznar eta Nardiz sailburuak hilabete horretan bertan aterako zirela Mexikotik; horrez gain, adierazi zuen Eusko Jaurlaritza Mexikon egongo zela «gure aberriaren hurrengo askapena izango dena uste duguna gertatu arte». Era berean, Monzónek Mexikoko hiriburuan betetzen zuen Eusko Jaurlaritzaren ordezkari-kargua utzi zuen eta Julio Jauregui jarri zen haren orde²²⁴. Koldo San Sebastiánek esan digu Monzón eta Aznar eta haien emazteak eta seme-alabak martxoaren 27an atera zirela Mexikotik Pariserantz New Yorken barrena²²⁵, baina Gonzalo Nardiz eta Mercedes Iriondo geroago atera zirela Lehendakariarekin batera egoteko New Yorken²²⁶. Nardiz eta bere emaztea, Parisera joan aurretik, 8. Hiribideko Lincoln Hotelean egon ziren New Yorken, 1946ko apiril osoan eta maiatzaren zati batean²²⁷. Gure pertsonaia, beraz, Europara itzuli zen eta bere erbestealdiaren beste fase bati ekin zion: Iparralde.

222 *Euzko Deya*, 1945-09-15.

223 Koldo San Sebastián, *Exilio vasco en América*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2014, 375. orrialdea.

224 *Euzko Deya*, 1946-03-01.

225 *Euzko Deya*, 1946-04-01.

226 Koldo San Sebastián, *El exilio vasco en América 1936-1946*, Donostia, Txertoa, 1988, 105. orrialdea.

227 Nardiz familiaren artxiboa.

19.

IPARRALDEKO ERBESTEA: AGIRREREN GOBERNUAK (1946-1960)

Beraz, Gonzalo Nardiz Frantziara itzuli zen 1946ko udaberrian eta Parisen kokatu zen, Elysée-Star Hotelean, berriro ere. Urte horretako abuztuan, Eusko Jaurlaritza hainbat aldiz bildu zen Baionako Ordezkaritzan. Agirre Lehendakariak bere gobernu eraberritu ahal izan zuen; izan ere, gobernu hori sarraskituta zegoen Espinosaren, Graciaren eta Torreren heriotzen ondorioz, Toyosen dimisioaren ondorioz eta Astigarrabia eta Aznar beren alderdiek kargutik kendu izanaren ondorioz. Gobernu berria honako hauek osatzen zuten: Jesús María Leizaola (EAJ) Ogasun eta Finantza Sailean, Telesforo Monzón (EAJ) Kultura Sailean, José María Lasarte (EAJ) Barne Arazoak Sailean, Fermín Zarza (PSOE) Industria eta Nabigazio Sailean, Sergio Echeverría (PSOE) Lan Sailean, Enrique Dueñas (PSOE) Gizarte Segurantzaren Sailean, Ramón Aldasoro (Izquierda Republicana) Merkataritza eta Hornidura Sailean, Manuel Campomanes (Unión Republicana) Osasun Sailean, Leandro Carro (PCE-EPK) Herri Lanak Sailean, eta Gonzalo Nardiz (EAE/ANV) Nekazaritza Sailean. Osaera berri horrekin matxinoen erasoaldiari aurre egiteko 1936an aldendu ziren alderdi politiko guztiak elkartu ziren berriro, Agirrek aurre egin nahi baitzion faxismoak Europan porrot egin ondoren ireki zen garai berriari, uste zutelako Franco Espainian erortzea ekar zezakeela horrek²²⁸.

Halaber, Eusko Jaurlaritzak Baionan urriaren 30ean, eta abenduaren 11n eta 12an Parisen egin zituen bileretara joan zen Nardiz. Bilera horietan hainbat gai landu ziren, hala nola Lehendakariak Belgikara eta Holandara egin zuen bidaia, Amerikan bizi zen egoera edo Lasarte sailburuak barnealdera egin zuen bidaia. Garai horretan, Gonzalo eta bere emaztea Parisen bizi ziren. Gonzaloren emazteak 1946ko Gabonetan muga gurutzatu zuen ezkutuan Deustuko bere senitartekoei bisita egiteko. Geroago, Baionako ordezkarieren jarduneko sailburu-egoiliar izendatu zuten; hortaz, 1947ko apirilean, Paristik Donibane Lohizunera joan zen bizitzera, zehazki Rue Cepe kalean zegoen Villa Les Fleurs izeneko txalet batera, eta urriaren 8an han jaio zen bere seme José Luis. 1950. urtera bitarte, hau da, Gonzaloren ama hil zen urtera arte egon ziren etxe horretan. Gonzaloren amak dirua bidaltzen zien eta diru horrekin Eusko Jaurlaritzako soldata osatzen zuten. Dionisiaren ondasunak eta negozioak Gonzalok jarauntsi zituen, baina erantzukizun politikoak zirela medio, agintari frankistek konfiskatu egin zituzten ondasun eta negozio horiek. Estualdi ekonomikoa zela medio, hortaz, txaleta utzi zuten eta Tourrase kaleko apartamentu txiki batera joan ziren, baina, geroago, Victor Hugo bulebarrean zegoen beste apartamentu batera joan ziren bizitzera.

Harrezkero, Gonzalo Nardizen bizitzak nolabaiteko errutina hartu zuen. Goizean Donibane Lohizuneko bere etxebizitzatik ateratzen zen Baionara joateko trenez, Baionan bere zeregin politikoak betetzen zuen Eusko Jaurlaritzak Baionan, Alsazia eta Lorena bulebarrean, zeukan

228 *Euzko Deya*, 1946-09-01.

Ordezkaritzan, eta etxera itzultzen zen gauean. Garai hartan Eusko Jaurlaritzak Baionan zeukan ordezkaria Javier Gortázar zen, eta José Luis Nardiz gogoratzen denez, ordezkartzan 6 bat lagun aritzen ziren lanean.

Dokumentazioan ez dira ondo zehazten Nardizek zer eginkizun bete behar izaten zituen Ordezkaritzan, baina gordetzen diren gutunetatik eta bulegoa Iparralden zegoenez, ondorioztatzen dugu Ordezkaritza horretan lan egiten zuten pertsonak Iparralden erbesteratuta zegoen euskal komunitateari lagundu beharko ziotela ahal zuten neurrian, Amerikara joan nahi zutenei Amerikara joaten lagunduko ziotela, muga gurutzatzen zuten iheslariari lagunduko ziotela, barruko euskal buruzagi politikoeekin harremanetan egon beharko zutela eta jakinaren gainean egon beharko zutela Euskal Herrian gertatzen ziren gertakari politiko eta sozialei dagokienez, hala nola grebak, atxilotetak, eta abar.

Nardiz Baionara iritsi zenetik Lehendakaria hil zen urtera arte (1960) dagoen garaian, mendebaldeko nazioarteko komunitateak –Estatu Batuak buru zituenak– Espainian soluzio demokratiko bat derrigortu zezan lortzeko Eusko Jaurlaritzak eta, bereziki, Agirrek erabilitako estrategia suntsitu egin zuen pixkanaka NBEak eta Estatu Batuek erregimen frankistarekin izan zuten gero eta ildo etorkorragoa zela medio, hori guztia Sobietar Batasunaren eta Estatu Batuen artean gero eta handiagoa zen tentsioak markatzen zuten nazioarteko testuinguruaren barruan.

Frankismoa lehengoratzeko nazioarteko politika horren hainbat mugarri izan ziren. 1950eko azaroaren 4an, Koreako gerra piztu eta hilabete batzuk geroago, NBEren Batzar Nagusiak atzera bota zuen gehiengo handi batez, Estatu Batuen laguntzarekin eta Frantziaren eta Erresuma Batuen abstentzioarekin, erregimen frankista gaitzesteko 1946ko abenduan hartutako erabakia, eta horren ondorioz, mendebaldeko enbaxadoreek Madrilerara itzuli behar izan zuten eta Espainiak NBEren nazioarteko erakunde espezializatuetan sartu behar izan zuen. 1953ko abuztuaren Estatu Espainolaren eta Egoitza Santuaren arteko Konkordatua sinatu zen; horrek ekarri zuen beste urrats garrantzitsu bat egitea erregimen frankista nazioartean onartzeari dagokionez; Konkordatuak dagoeneko Elizan zegoen statu quo eta erregimena berresten zituen nazionalkatolizismoarekin, eta hori Estatuko ideologia ofizial bihurtu zen. Urte horretako irailean Espainiaren eta Estatu Batuen arteko Madrileko Itunak sinatu ziren. Itun horien bitartez, amerikarrek base militarrik ezarri zituzten Espainiako lurlean laguntza militarra eta ekonomikoa lortzearen truke eta Espainiak konpromisoa hartzen zuen, besteak beste, Europa mendebaldeko herrialdeekiko harremanak hobetzeko eta NATO n sartzeari ahalbidetzeko moduko erakunde politiko onargarria bihurtzeko. Frankismoaren nazioarteko lehengoratzearen azken mugarri handia Eisenhower Ipar Amerikako presidentek 1959ko abenduan Madrilerara egindako bisita izan zen, Francok nazioartean lortutako arrakasta handitzat hartu baitzen.

Gonzalo Nardizek nazioarteko gai horietako batzuei buruz hitz egin zuen Lehendakariari bidali zizkion gutunetan. Bereziki, 1953an elkarri bidali zizkieten gutun batzuk gordetzen dira. Gutun horietan nazioarteko egoera, Egoitza Santuarekin Konkordatua sinatzearen ondorioak, Madrileko Itunak eta frankismoaren aurkako euskal sektoreen artean izan zuten erreakzioak aipatzen ziren, eta Lehendakariari aholkuak ematen zizkion gauzatu behar zituen ekintzei buruz. Ildo horretan, Nardizek Agirrerri gomendatzen zion Madrileko Itunak sinatu ondoren Amerikako bidearen atea ez ixteko:

Argi dago amerikarrek egindakoak ez duela onarpenik, eta Francorekin itundutakoa gaitzesten duen arrazoi moralik ez badago, normala da pentsatzea komenigarria dela herri-sentimendu hori nabarmentzea guk protesta egitea justifikatzeko.

Baina protesta egin ondoren, eta haserrea desagertu ahal izateko denbora pixka bat igarotzen utzita ere, ezin da zalantzan jarri zer-nolakoak aztertu beharko ditugula modu saihetsezinean ezartzen zaigun errealitatearen aurrean, errealitate hori gure gustukoa izan ala ez.

Nire ustez, gaia honela proposa daiteke: egiaztatu da gure protestak ez duela inolako ondoriorik, baina onar al dezakegu amerikarrek pentsatzea soilik Franco izan daitekeela haien aliatua Espainian?

Nire galderak berekin daraman gogoeta arbuiatzea ahalbidetuko lukeen gauza bakarra Espainian berehalako aldaketa egitearen ikuspegia izango litzateke, nazioarteko politika definitzen duten jarreretan erabateko aldaketa egitea ahalbidetuko lukeena, politika horren aholkulari garrantzitsuen Ameriketako Estatu Batuak izanik.

Nik ez daukat zalantzarik kasua ez dela hori, eta argi dago amerikarrek Europan duten presentzia funtsezkotzat hartuko dutela guztiek denbora luze batez; horregatik, nik uste dut ez dela komenigarria jarrera bateraezinei denbora-mugarik gabe eustea (...)

Aldaketa egon daiteke, baina ez amerikarrak alde batera uzteko moduko erabateko aldaketa. Horregatik, nik uste dut ez dela komenigarria Francoketako aliantza sendotzen lagunduko duen oro.

Nik susmatzen dudana aldaketa izanda, desegokia izango litzateke ditxosozko itunak eragindako jarrera ezeztazintzat hartzen jarraitzea. Nik ez dut uste egindakoarekiko solidarioak garela adierazi behar dugunik, ez. Baina, tratua egiteko aukerarik badago, hori ez dadila oztopo izan gaia jorratzeko (...)

Espero diren aldaketak ezarri nahi dituztenen ondoan egon behar dugu, hots, demokrata amerikarren ondoan, hain zuzen ere. Baliabide horiek aztertzeak, jarrerak ezagutzeak, hurbilketak edo nahiago bada bat-etortzeak ezartzeak eta abar lagundu dezakete hurbil samar dagoen etorkizunerako zubi bat prestatzen, hortik kanpo ez baitago konponbiderik nire ustez²²⁹.

Nazioartean hori guztia gertatzen zen bitartean, euskal eremuan, Baionako Itunak ekarri zuen euskal batasunaren espirituari 1947ko maiatzaren 1eko greba orokorrak izandako arrakasta gehitu zitzaion. Greba hori egin zen langileak oso haserre zeudelako azken 10 urte haietan bizi zuten egoera prekarioarengatik, horri, gainera, erbesteko Eusko Jaurlaritzak –eta Gobernu horri eusten zioten alderdi guztiek– grebari eman zion laguntza gehitu behar zaio. Horrek guztiak ikuspegi politikoa eman zion gatazkari eta erakutsi zuen frankismoaren aurkako euskal oposizioak benetako indarra zuela herrialdearen barnean. Gainera, Agirre Lehendakariari aukera ematen zion herrialde demokratikoen aurrean erakusteko, Mundu Gerra bukatu ondoren, euskal herritarren lider izateko gaitasuna zuela. Deialdi hori Erresistentzia Batzordeak egin zuen. Batzorde hori Eusko Jaurlaritzak eta UGT, CNT eta STV sindikatuak osatzen zuten. Grebarako deialdiak arrakasta handia izan zuen; izan ere, kalkulatu da gutxi gorabehera 400 enpresatako 20.000 langilek baino gehiagok geldiarazi zutela Nerbioi ibaiaren arropa maiatzaren 1ean. Enpresa horietako batzuk garrantzitsuak ziren, hala nola Babcock Wilcox, AHV, la Naval, Basconia edo Euskalduna. Hurrengo egunetan, protestari hasiera eman zion metalaren sektoretik kanpo zeuden beste industria-sektore batzuetako enpresa berriek hartu zuten parte gatazkan.

Botere frankistak oso errepresio gogorra erabili zuen greban parte hartu zutenekin, atxiloketak, kaleratze masiboak eta lan-murrizketa handiak izan baitziren grebalariak beren lanpostuetan berriro hartu zituztenean, esate baterako, antzinatasun-eskubideak, gizarte-segurantza edo ekonomatoa kendu zizkieten. 47ko gatazka frankismoaren aurkako oposizioak ekintzak elkarrekin gauzatzeko izan zuen azken aukeretako bat izan zen; izan ere, harrezkero erbesteko alderdiak eta sindikatuak Bizkaiko langileen gizarte- eta lan-errealitatek urrun geratu ziren.

229 Gonzalo Nardizek 1953ko urriaren 21ean Agirrerri bidalitako gutuna. EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtza, Presidentzia Funtza, Parisko Idazkaritza Nagusia, Gobernu, Euzkadiko Gobernuko Sailak, Korrespondentzia Gobernua-Nekazaritza, Leg. 86 4. zenbakia.

Greba egin ondoren, eta Gerra Hotzaren hasierarekin marrazten ari zen nazioarteko testuingurua zela medio, aldaketak egin ziren Eusko Jaurlaritzan. Sozialistek eta nazionalistek PCE/EPKri leporatu zioten elkartasun-kutxako funtsak –grebak iraun zuen bitartean zapalduta egon ziren grebalarientzat bildutakoak– desbideratzen zituztela beren propaganda-jarduera finantzatzeko. Komunistek hasieratik esan zuten ez zutela funtsik desbideratu, eta azaldu zuten Eusko Jaurlaritzatik kanpo egin zituzten diru-bilketen bitartez lortu zuten dirua UGTren bitartez bideratu zela. Gertaera hori ez zen inoiz argitu erabat, baina gertaera horrek erakusten zuen indar politikoen artean lehiak zeudela eta gero eta handiagoa zen antikomunismoaren mugimendua –Gerra Hotzean bizi zen mundu-egoera berritik eratoritzen dena– euskal politikara iritsi zela. Hortaz, Euskal Aholku Batzordeak 1947ko abenduan egin zuen bileran sozialistek eta nazionalistek aipatu zuten mundu-agindu berria zela medio bateraezina zela Batzorde horrek PCE/EPKn ordezkari izatea. 1948ko maiatzaren 18an, Agirre Lehendakariak bilera bat egin zuen Eusko Jaurlaritzak PCE/EPKn zuen ordezkari Leandro Carrorekin eta PCE/EPKren goreneko ordezkari Cristóbal Errandonearekin eta Jaurlaritzatik ateratzeko eskatu zien²³⁰. Baina haiek alde egin ez zuten, Jose Antonio Agirrek berehala bota zuen Leandro Carro Eusko Jaurlaritzatik, «eraginkortasun politikoko» irizpideetan oinarrituta. Izquierda Republicana eta EAE/ANV soilik kexatu ziren Lehendakariak hartutako erabakiaz.

1951n greba gehiago egin ziren Euskadin. Greba horiek izan ziren Eusko Jaurlaritzak nolabaiteko eragina izateko aukera izan zuen azken grebak, baina greba horiek erabat akituta utzi zuten barneko erresistentzia eta Agirre ikusten hasi zen lan-mugimendu horiek mendebaldeko potentziek frankismoaren aurka zuten mesfidantza areagotu besterik ez zutela egiten, potentzia horiek uste zutelako gatazka horiek komunismoa sartzea eta komunismoaren eragina ahalbidetzen zutela, frankismoa nazioartean lehengoratzeko bidea finkatuz. Urte horretan bertan bota zuten Eusko Jaurlaritzak Avenue Marceau etorbideko eraikinetik eta eraikina agintari frankistei eman zitzaie; hori zela medio Eusko Jaurlaritzak Rue Singer kaleko askoz ere higiezin xumeago batean kokatu behar izan zuen. Egoera hori mingarria izan zen.

1952an, Agirrek bere kabinetea birmoldatu zuen izandako bajak estaltzeko, hala nola Leandro Carro kanporatu izana, Ramón Aldasororen heriotza eta José María Lasartek politika utzi izana, baita Kabineteko kide kopurua jaisteko, gastuak murrizteko eta Kabineteko eraginkortasunari eusteko ere²³¹. Gobernu berria Agirrez gain honako hauek osatzen zuten: Jesús María Leizaola (EAJ) Lehendakariordetza Sailean eta Osasun eta Justizia Sailean, Telesforo Monzón (EAJ) Kultura Sailean, Paulino Gómez Beltrán²³² (PSOE) Gizarte Laguntza Sailean, Ambrosio Garbisu (Izquierda Republicana) Merkataritza eta Hornidura Sailean, Manuel Campomanes (Unión Republicana) Osasun Sailean, eta Nardiz (EAE/ANV) Nekazaritza Sailean. Monzónek, ordea, bere kargua utzi zuen hurrengo urtean, Agirreraren politikari buruz egindako kritikengatik eta Eusko Jaurlaritzan euskal politika nazionalik ez zegoelako. Agirrek Monzóni eskatu zion bere erabakia berriz pentsa zezala, baina Monzónek berriz aztertu ez bazuen ere, onartu zuen hartutako erabakia 3 urte igaro arte ez jakinaraztea jendeari.

Agirreraren hirugarren kabinetearen arrakasta handiena 1956an Euskal Mundu Biltzarra antolatzea izan zen. Eusko Jaurlaritzak eratu zenetik 20 urte igaro zirelako deitu zen ofizialki,

230 Agirre Lehendakariak 1948ko maiatzaren 19an gutun bat bidali zion Leandro Carrori Paristik. Gutun horretan honako hau esaten zion: «Atzoko (hilak 18) Kontseiluan ikusi zen bateraezintasun-arazo bat dagoela Alderdi Komunistarekin Eusko Jaurlaritzaren barruan dauden ordezkari sozialisten aldetik, eta Euzko Alderdi Jeltzalearen ordezkariak adierazi zuten eraginkortasun politikoko arazoak direla medio Lehendakariari eskatzen ziola Alderdi Komunista Euzkadiko Gobernutik ateratzeko; euskal politikaren orekak eta jarraitutasunak, indar gehiengodunen jarrera zela medio, eskatzen zuen Eusko Jaurlaritzaren osiera aldatzea nahitaez, eta Alderdi Komunistak dimititzen bazuen egin zitekeen aldaketa hori». Hemen jasotakoa: Carlos Alonso Zaldivar, *Notas sobre el Partido Comunista de Euskadi*, Donostia, Haramburu, 1977, 24. orrialdea.

231 Agirrerri bidalitako gutun batean honako hau esaten zuen: «Ugariagoa den eta gaizki ordainduta dagoen administrazio baten eta txikiagoa den, baina duintasunez hormituta dagoen talde baten artean aukeratu behar da. Eraginkortasunak eta egungo zirkunstantziak azken aukera horren alde egitea gomendatzen dute». 1952-03-10eko gutuna, Nardiz Familiaren Artxiboa.

232 Haren biografia hemen dago: Fermi Rubiralta i Casas, *Un panadero socialista en Gobierno Vasco. Biografía política de Paulino Gómez Beltrán (1892-1963)*, Donostia, Hiria, 2014.

eta Biltzar horren helburua demokraten batasuna Eusko Jaurlaritzaren inguruan finkatzea eta etorkizunerako erronkak ezartzea izan zen. Biltzarra Parisen egin zen 1956ko irailaren 23tik urriaren 1era bitarte, erbesteko nahiz barneko 400 pertsona inguru bertaratu ziren eta propagandari dagokionez arrakasta handia izan zuen, nahiz eta batzuek adierazi zuten Agirrek bi hamarkada horietan jarraitu zuen ildoarekin bat ez zetozeela; esate baterako, Telesforo Monzón²³³, barneko beste agintari gazte batzuek eta Federico Krutwig-ek adierazi zuten hori. Biltzarra oso propaganda bikaina izan zen Eusko Jaurlaritzarentzat eta Agirrek jarraitzen zuen ildo politikoa berretsi zen, baina ez zuen ondorio praktikorik izan.

Gonzalo Nardizek, jakina, modu aktiboan hartu zuen parte Biltzarra eratzen, Baionan betetzen zuen kargutik, topaketa egin aurretik euskal kolektibitateei eta pertsoneri bidaliko zitzaizkien galde-sortak berrikusiz. Gainera, Gonzalo Nardizek eta Manuel de Irujok egin zuten Biltzarraren hitzaldi politikoa; erabaki hori Agirrek hartu zuen ekitaldiari izaera instituzionalagoa emateko eta EAJk ekitaldi horretan zuen garrantzia kentzeko, baita indar politiko guztien batasuna sustatzeko ere, tonu nazionalista jaitsiz²³⁴.

Irujok eta Nardizek idatzi zuten hitzaldi politikoaren ondorioetan aldarrikatzen zen Euskal Estatutuari atxikitzea Euskal Estatutua politikarako tresna eta batasunerako, antolamendurako eta hierarkiarako oinarri demokratikoa zelako; Estatutuan onartutako subiranotasunaren, jurisdikzioaren eta gobernuaren edukia onartzen zen etorkizuneko jardunak alde batera utzi gabe; ezinbestekotzat irizten zioten Estatuaren bitartez sortutako batasun konstituzionalari eustea, eta adierazi zuten euskal indar politikoen batasuna ezinbestekoa zela herrialdeko demokrazia gordetzeko; Estatutua eta gainerako erakunde errepublikanoak sortzearen jatorri izan zen legitimitate juridikoa onartu zen; esaten zen euskal demokrazia Errepublika berreskuratu nahi zuela bere legitimitate-baldintzan, Espainiari demokrazia eta Euskadiri autonomia itzultzeko beste formula batzuk aztertzea alde batera utzi gabe; foruak indargabetzeko 1839ko urriaren 25eko legearen aurkako protesta egin zen berriro; uste zuten ezinbestekoa zela 1936ko uztailaren 18an hasitako borrokaren eta gorrotoaren garaia desagerraraziko zuen adiskidetze nazional zabal eta oparoa gauzatzea; elkartasun-arau derrigorrezko eta egokitzat ezarri ziren Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Jaurlaritza osatzen zuten indarren eta talde eta pertsona politikoen artean adiskidetasun- eta lankidetzaren harremanak izatea penintsulan eta nazioartean, esate baterako Europako mugimenduak; euskararen gainean egindako errepresioa nabarmendu zen; azkenik, euskal herria desagertzeko arriskua, hots, Euskadiren gain genozidio-delitu bat egiteko arriskua salatu zen²³⁵.

Biltzarraren bilkuretan, EAE/ANVk ez zuen oso zeregin nabarmenik izan. EAE/ANVk Biltzarraren atal politikoari aurkeztu zion hitzaldia soilik nabarmendu behar da. Suposatzen dugu Nardizek betetzen zuen postua zela medio, Nardizek asko lagunduko zuela hitzaldi hori idazten. EAE/ANVk bere hitzaldiaren hasieran nabarmendu zuen Eusko Jaurlaritza legitimoa zela eta biziraun behar zuela; horren ondoren, nabarmendu zuen ezinbestekoa zela euskaldun guztiak elkartzea Euskadi askatzeko; horixe izan zen Nardizen alderdiak erbestealdi osoan mantendu zuen bandera, aurrerago ikusiko dugunez. Ondorioetan, EAE/ANVk munduko euskaldun guztiei egin zien deialdia Euskal Herriak biziraun zezan laguntzeko, Eusko Jaurlaritza Euskadiren agintaritza legitimoa zela onartu zuen eta errespetua berretsi zuen 1936ko autonomia-erregimenean, euskaldunak elkartzeko oinarria baitzen²³⁶.

233 Biltzarrean gertatutakoa laburbiltzeko Gonzalo Nardizek Tellagorri bidali zion idazki batean adierazi zuen Monzónen esku-hartzeen aurrean, «Lehendakaria oso haserre zegoela arduragabekeria handia zegoela ikusten zuelako. Bereiz hartuta, esku hartu behar ote zuen galdetu zidan eta nik ezetz esan nion.» Nardizek Tellagorri bidalitako gutuna, 1956-10-03, Nardiz Familiaren Artxiboa.

234 Ludger Mees (koord.), *La política como pasión...*, op. cit., 586.587. orrialdea.

235 Hitzaldi politiko osoa hemen dago: EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Presidentzia Funtsa, Euskal Mundu Biltzarra, Nardizen Korrespondentzia, Leg. 360 3. zenbakia.

236 EAE/ANVren hitzaldia hemen dago: *Euskal Batzar Orokorra. Congreso Mundial Vasco. 25 aniversario*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 1981, 165.177. orrialdeak. eta *Tierra Vasca*, 1956-10-15.

Biltzarra egin ondoren, Agirreraren politikaren eta bere gobernuaren aurkako kritikak areagotu egin ziren euskal sektoreen artean, eta Lehendakariaren karisma gainbeheratu egin zuten. Kritikak egin zituzten, alde batetik, Amerikako diasporako sektoreek, bereziki Caracaseko *Irrintzi* argitaratu zenetik, albistari horretan Agirreraren oihartzuna oso ahul iristen baitzen Paristik, eta, bestetik, barnetik, euskal abertzaleek aukera bideragarriak antolatu nahi zituztelako EAJ alde batera utzita, eta aukera horien ondorioz sortu zen ETA 1959ko uztailean. Nolanahi ere, Jose Antonio Agirrek ez zuen gauza askoz gehiago egiteko astirik izan, 1960ko martxoaren 22an hil baitzen Parisen.

Euskal Mundu Biltzarraren eta Agirreraren heriotzaren artean dagoen denbora-tartean, Nardizek jardura politiko handia egin zuen Baionan betetzen zuen kargutik. Lehenik eta behin, euskal errepublikanoak lasaitu behar izan zituen, bereziki haien lider karismatikoena, Eusko Jaurlaritzako sailburu Ambrosio Garbisu, zeren nahiz eta Euskal Mundu Biltzarraren ondorio politikoetan adierazten zen legitimitate errepublikanoa onartzen zela, ez baitzen alde batera uzten Espainiari demokrazia itzuliko zioten beste aukera batzuk biltzeko aukera, eta hori, euskal errepublikanoen ustez, soluzio monarkiko bati ateak irekitzea zen. Garbisu ez zen fidatzen, EAJren eta PSOEren artean itun bat sina zitekeelako errepublikanoak alde batera uzteko; horregatik, Agirrek Nardizi eskatu zion Garbisu eta Campomanes lasaitzeko.

Bestalde, Nardizek elkarrizketak izan zituen hainbat alderditako kideekin 50eko hamarkadaren amaieran. Alderdi horietako kideen ustez, Nardiz Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria zen eremu horretan, eta Agirrerengana iristeko bidea zen. Aipatutako elkarrizketatik honako hauek nabarmenduko ditugu: ordezkari sozialistekin elkartu zen, ordezkari horiek kexatzen zirelako nazionalistek etsai-jarrera zutelako haiekiko, baina Nardizek esan zien hori ez zela horrela; Enrique Múgica Herzogekin, garai hartan alderdi komunistan zegoenarekin, frankismoari tokia kentzeko etorkizunean egingo zen greba batean Eusko Jaurlaritzak laguntzea eskatzen baitzuen, baina Nardizek esan zion hark ez zuela bere kabuz jarduten eta «euskaldunen batasunaren» alde zegoela; PSOEko Pascual Tomásen eta CNTko kide baten bisita ere izan zuen, haiek eskatu zioten Espainiako iparralde osoan egingo zen ekintza antifrankista batean parte hartzea euskaldunek, eta gainera adierazi zuten haiek ere bat zetozela nazionalisten eta sozialisten arteko mesfidantzarekin; era berean, bisita batzuen bitartez jaso zituen informazio batzuen berri eman zion Agirreri, informazio horien bitartez barneko mugimendu politiko batzuen berri izan zuen, bereziki Ridruejo eta Gil Roblesenak; halaber, ordezkari komunistekin elkartu zen Lehendakaria hil aurretik²³⁷.

Gainera, 1958ko abenduan Nardizen artikulu bat argitaratu zen *Tierra Vasca* aldizkarian EAE/ANVren sorreraren urteurrena zela medio. Artikulu hori Caracaseko kideentzat zen eta une hartan alderdiak zuen jarrera politikoaren berri eman zigun. Nardizen ustez, EAE/ANVren indar nagusia «gizon askeak aberri askean» zen, eta, gainera, nabarmentzen zuen euskaldunek elkartuta egon behar zutela euskal herriak bizi zuen zoritxarreko unea gainditzeko:

Nik ondorio hauetarako gogoratu behar dut antzinako liskarrak eta axolagabekeriak gainditu ondoren, batasun hori badagoela eta ez dela beharrezkoa esatea Eusko Jaurlaritzak dela batasun hori gauzatzen duena eta gai horretaz arduratzen dela modu nekaezinean gure aldarrikapenak ez ahazteko eta ez saihesteko.

Nire ustez, batasun hori indartzen laguntzea eta sakabanaketara eramaten duten eskaerak arbuizatzea da GIZON ASKEAK ABERRI ASKEAN leloak proposatzen dituen helburuak lortzeko bermerik hoberena.

Asmo hori nabarmendu nahi izan dut eta zuekin batera oihukatzen dut.

237 Lehendakariarekin izandako korrespondentzia hori guztia hemen dago: EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtza, Presidentzia Funtza, Idazkaritza Nagusia (Paris), Gobernua, Euzkadiko Gobernuko Sailak, Korrespondentzia Gobernua-Nekazaritza, Leg. 86 4. zenbakia.

Gora Eusko Abertzale Ekintza!

Gora Euzkadi Askatuta²³⁸!

Nardizek garai horretan EKA (Euskal Kulturaren Alde) sortzen eta garatzen parte hartu zuen. Elkarre hori euskara sustatzeko eta defendatzeko sortu zen. EKA 1956ko azaroaren 30ean eratu zen Euskal Mundu Biltzarraren ondorioak zirela medio, euskara oso egoera txarrean zegoela ohartarazten baitzuten ondorio horiek²³⁹. EKA elkartean Euskadiko pertsona ospetsu askok hartu zuten parte²⁴⁰, beren egoitza Parisko eta Baionako euskal ordezkarietan izanik. 1957ko apirilean, EKA Elkarreak hitzaldi bat egin zuen euskara eta euskal kultura suspertzen hasteko plan bati buruz. 1960an Euskararen zapalkuntzari buruzko txosten bat aurkeztu zuen Bruselan egin zen Dialektologiaren Nazioarteko Biltzarrean, 1966an inkesta bat egin zuen euskararen kultibadoreen artean prestakuntza egokia antolatzeke herrialdearen irakaskuntza publikoan euskarari erabateko askatasuna ematen bazitzaion ere²⁴¹.

Agirrereren heriotza hondamendi handia izan zen Nardizentzat. Gonzalo Nardizen semeak gogoratzen duenez, Nardizek benetako fedea zuen Agirrerengan, kide guztiak Jaurlaritzan batuta egotea lortzen zuen funtsezko pertsonaia zen, gobernuaren kohesioari eusten zion harria zen. Lagunak ziren Eusko Jaurlaritza sortu aurretik ere eta Agirrek konfiantza handia jarri zuen Nardizengan; izan ere, ezkerreko sailburuen artean Nardiz zen Agirrereren ideietatik hurbilen zegoena, Nardiz nazionalista zelako.

Agirre hil zela jakin ondoren, Gonzalo Parisera joan zen eta, Leizaolarekin batera, Lehendakaria bizi zen etxea bisitatzen joan zen. Nardizek berak gogoratzen duenez, Parisen zegoela, Eusko Jaurlaritzak jarraitu behar zuela uste zuenez, Leizaola euskal lehendakari berritza hartu zuen eta hala tratatzen hasi zen:

Bizi naizen bitartean ezin izango ditut inoiz ahaztu 1960ko martxoko egun haiek. Leizaola nire zain zegoen Parisko geltokian eta elkarrekin joan ginen Agirrereren etxera. Han, ni izan nintzen lehena Leizaolari Lehendakariaren tratamendua eman ziona. Biak hunkituta, Agirrereren bulegoan sartu ginen eta haren mahaian nik bezperan bidali nion gutun bat ikusi nuen. Gutun hartan Tarradellasekin eta Ormazabal euskal komunistarekin izandako elkarriketen berri ematen nion.

Zalantzarik izan gabe, Leizaolari esan nion horrek jarraitu egin behar zuela, eta, horregatik, gutun horiek harentzat izan balira bezala hartu behar zituela. Ni ez nintzen gehiago bueltaka ibili gaiarekin. Nik argi neukan nork izan behar zuen Agirrereren ondorengo naturala. Handik egun batzuetara Leizaola niregana etorri zen, seguru aski ordurako hitz egin zuen Ajuriaguerrarekin eta Alderdiko agintariarekin, eta EAJk Eusko Jaurlaritzaren lehendakariorde proposatzen ninduela esan zidan. “Orain ere ez didazu harroputz izaten jarraitzen utziko -erantzun nuen- baina eginkizun hori Alderdi Jeltzaleko kide batek bete behar du, zu ere istripuren bat izateko arriskuan zaudelako”. Handik gutxira Landaburu etorri zitzaidan eta “errieta egin zidan” egokitu nion lanbidearengatik²⁴².

238 *Tierra Vasca*, 1958-12-15.

239 Biltzarraren kultura-atalean honako hau bildu zen: «Euskarak Euskadin bertan bizi duen egoera kritikoa aintzat hartuta, (...) kultura-atalak gomendatzen du batzorde bat eratzea berehala. Batzorde horrek, Biltzarrean azaldutako ekimenak bildu ondoren, euskal kultura sustatzeko taula orokorraren barnean, euskara salbatzeko programa efektibo bat antolatu behar du lehenbailehen. Batzorde horrek, osatu ondoren, bizitza autonomoa izan behar du ahalik eta eraginkorrena izateko soilik.» Jose Antonio Agirrek Gonzalo Nardizi idatzitako gutuna, 1956-11-20. Nardiz familiaren artxiboa.

240 Horien artean honako hauek zeuden: Barandiarán, Zaitegui, Jon Bilbao, Urrestarazu, Leizaola, Monzón, Manu Sota, Rezola, Solaun, Landaburu eta Nardiz bera. Nardizek Tellagorri bidalitako gutuna, 1956-12-04, Nardiz Familiaren Artxiboa.

241 Sabino Arana Fundazioa, REZOLA, KDP. 00148, C.7 1956 – 1957.

242 Gonzalo Nardizen oroitzapenak Jesús María Leizaolaren heriotza dela-eta. Iñaki Anasagastik utzia adeitsuki.

Iparralden bizi zen sailburua zenez, Nardiz arduratu zen Lehendakaria lurperatzeko tokia aurkitzeko kudeaketak egiteaz. Lehendakaria Donibane Lohizunen ehortzi zuten 1960ko martxoaren 28an. Nardiz eta EAE/ANVko beste buruzagi batzuk ere joan ziren ehorzketara, jakina, eta alderdiak ohar bat idatzi zuen Agirrereren heriotza asko sentitzen zuela esanez; horrez gain, Agirrek Eusko Jaurlaritzaren buru gisa egin zuen lana aitortu zuen —«gure eskubidea gauzatzen zuen itzal handiko nagusia», «buruzagi bizkor eta gogotsua, zoritxarrean suspertzen eta etorkizunaren aurrean elkartuta eta seguru egon gintezen jakin zuena»— baina, aldi berean, bere konfiantza eta errespetua lehendakari berriarengan jarritz, erakundearen jarraitutasuna bermatuta utziz²⁴³.

Agirrereren hiletaren bezperan, Eusko Jaurlaritza Garbisu sailburuaren etxean elkartu zen, Baionan, eta erabaki zuten ordura arte lehendakariorde izan zen Jesús María Leizaola izatea «lehendakariaren eginkizunak beteko zituen Agirre jaunak bete zituen baldintza beretan, eta lehendakari berriak hurrengo egunean egin behar zuen adierazpena onartu zen». Hilaren 29an, Euskal Aholku Batzordeak eta Batzorde hori osatzen zuten ordezkari politiko eta sindikalek lehendakari berriarekiko eta Jaurlaritzarekiko atxikimendua erakutsi zuten²⁴⁴. EAE/ANV, *Tierra Vasca* aldizkariaren 1960ko maiatzeko editorial batean, baieztatu zuen Eusko Jaurlaritzak martxoaren 27an egin zuen bileran ez zela inolako zalantzarik izan Agirrereren ordezkari jarriko zena Leizaola izateko, Leizaolak une horretan EAJren ordezkari izateari utziko zion eta euskal demokrata guztien ordezkari bihurtuko zen, demokrata horien ideologia edozein izanda ere²⁴⁵. Eusko Jaurlaritzak jarraitzeko eta Leizaola Lehendakari berri aukeratzeko kudeaketa horietan guztietan Nardizek izan zuen zeregina funtsezkoa izan zen, José Luis Nardizek gogoratzen duenaren arabera.

243 *Tierra Vasca*, 1960-04-15.

244 *Tierra Vasca*, 1960-04-15; hemen ere jasota dago: Santiago de Pablo et. al., *El péndulo patriótico...*, op. cit., 238. orrialdea.

245 *Tierra Vasca*, 1960-05-15.

20.

NARDIZ ETA EUSKAL MUGIMENDU FEDERALISTA

Federalismoa EAE/ANVren ezaugarrietako bat zen. Alderdiak 1936ko ekainaren 28ko Batzar Nazionalen onartutako programan dagoeneko aipatu zen alderdiak herri askeen nazioarteko etorkizuneko konfederazioan sartu nahi zuela Euskal Herria, eta, gainera, Europa Mendebaldeko Errepubliken batasunari laguntzen ziola²⁴⁶. Bokazio europeista eta federalista hori behin eta berriz azaldu zen erbestealdi osoan *Tierra Vasca* egunkariaren orrietan. Egunkari hori EAE/ANVren organo ofiziala zen eta 1956an argitaratzen hasi zen Buenos Airesen:

Benetako europar asko gara Europa Berria, Europako Parlamentu eta Gobernu bat, moneta bat, lege ekonomiko eta sozial bat eta pasaporte bakar bat, kontinente osoa hartuko duen leku erkide bat nahi dugunak. Europa abian jarri da (...)

Baina gure pentsamenduetako Europa hau herrien eta nazioen Europa da, ez Estatuena Europa. Gaia denbora-arazoa da, denbora gutxienez arazoa. Flandria eta Walonia Europako eskualde gisa funtzionatzen hasi ondoren ez da denbora asko igaroko Estatuak ez dutela ezertarako balio argi eta garbi ikusteko (...)

Euzkadi-Europa, beraz, formula osoa da. Bizitza autonomo batean proiektatzen gaitu, eta, gainera, Europako Erakundeak behar duen bilakaeran, gauzatze nazionala, Zazpirak-Bat esaten dugunean adierazi nahi duguna bezalakoa, ahalbidetzen digu²⁴⁷.

Askatasuna nahi dugu Euzkadi gure aberriarentzat. Euskal herritarrak beren jomugak aukeratzeko aske izatea nahi dugu, eta, euskal nortasun nazionala aitortu ondoren, espero dugu, jakina, behin betiko sartzea Europako familia handian. Europa Federala nahi dugu, arrazen eta herrien mosaiko bat izatea nahi dugu eta arraza eta herri guztiak ordezkaturik egotea bertan: flandiarak, waloierak, normandiarak, bretoiak, siziliarrak, tioldarrak, euskaldunak, katalanak, galegoak, andaluziarrak, gaztelauak, eta abar. Batasun bat batuz egiten da eta guk Europari gure ekarpena egin diezaiokegu ekonomiaren, industriaren eta merkataritzaren alorrean, baina horretaz gain, gure espiritua, gure kultura eta gure hizkuntza eraman behar ditugu Europara eta, era berean, alor guztietan, gure mesedetan eta Europa batua, federala, askea eta demokratikoa osatzen duten herrien komunitatearen mesedetan aurrera egiteko erabil ditzakegun balioak jaso behar ditugu Europako herrialdeetatik²⁴⁸.

Bide federalista eta europeista horretan, EAE/ANV eta EAJ elkarrekin joan ziren. Aliatuek II. Mundu Gerran lortu zuten garaipenak adore eman zien euskal nazionalisten itzaropenei; izan ere, euskal nazionalistek ikusi zuten eraikitzeko zegoen Europa berria erregimen frankistari

246 José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco...*, op.cit, 639. orrialdea. *Tierra Vasca*, 1970-11-15.

247 *Tierra Vasca*, 1963-06-15.

248 *Tierra Vasca*, 1966-06-15.

presioa egiteko modu bat zela eta euskal nazionalisten asmoak bete ahal izateko esparru berri bat zela. EAJren europazaletasuna demokrazia kristauaren eta federalismoaren printzipioetan iradoki zen; printzipio horiek alderdiaren doktrina-esparru orokorrean lotzen dira Agirre Doktrina delakoaren bitartez. Doktrina horrek Euskadi aske bat aldarrikatzen du nazioek osatzen duten Europa elkartu eta federal batean, estatuz gaindiko erakunde europar horrek konponbide bat emango baitzion euskal aldarrikapen nazionalari; Europa horretan Euskadik ez zuen euskal Estatu gisa parte hartuko, zeren eraikin horri eutsiko zioten zutabeak ez baitziren Estatuak izango, nazioak baizik. Doktrina hori Euzko Alderdi Jeltzalearen 1949ko Adierazpen Politikoarekin indartu zen. Adierazpen horretan, alderdi horrek kristaua eta demokrata zela adierazi zuen, eta, gainera, federalismoaren alde zegoen erakunde europar bat eratzearen alde zegoela²⁴⁹.

Nazionalismoaren bokazio europazalearen helburuak euskal kasua nazioartean ezagutzera ematea ziren, erregimen frankistaren aurkako borrokan laguntzak lortzeko eta laguntza politikoak edo ekonomikoak lortu ahal izateko. Gainera, uste zuten nazioak oinarriztat hartuta eraikitako Europa bat plataforma ezin hobea zela nazionalitateen arazoa konpontzeko European, ez, ordea, Estatuak oinarriztat hartuta sortutakoa, nazionalistek nahi zuten bezala, arazo hori konpontzea ezinbestekoa zelako bake iraunkorra lortzeko kontinentean.

Nazionalistak 1946an sartu ziren erakunde federalistetan. EAE/ANVko buruzagi eta federalista porrokatu Juan Carlos Basterrak Lehendakariari esan zion komenigarria zela urte hartako urrian, Luxenburgon, Federal Unioneke antolatuta egingo zen federalisten Mundu Biltzarrean parte hartzea. Agirrek erabaki zuen Basterra eta Francisco Javier Landaburu jeltzalea Luxenburgora joan zitezela eta biek ordezkari zezatela Eusko Jaurlaritza topaketa hartan. Biei bururatu zitzaizen biltzarraren akta Euskal Mugimendu Federalistaren ordezkari gisa sinatzea, eta, era horretan sortu zuten, modu ez-ofizialean, erakunde hori²⁵⁰. Euskal Mugimendu Federalista, ordea, 1947ko martxoan sortu zen modu ofizialean, Parisen, EAJ, EAE/ANV, PSOE eta Izquierda Republicana alderdien laguntzarekin, ideia federalistak zituzten euskaldunak elkartzeko eta «doktrina federalistak balio-eskalaren maila guztietan egin daitezen sustatzeko, gizabanakotik hasita, Udalerrietik, Naziotik, Estatutik igarota, Federazio Europarrera iristeko Konfederazio Mundiala eratzekeko elementu gisa²⁵¹».

Euskal Mugimendu Federalista sortzeak euskal ordezkariari aukera eman zien garai hartako Europako organo federalista garrantzitsuenean parte hartzeko, hau da, Hagako Biltzarrak 1948ko maiatzean antolatu zuen Federalisten Europar Batasunean²⁵² (FEB) parte hartzeko aukera eman zien. Biltzar horretara Agirre Lehendakaria joan zen, baita Landaburu eta Basterra ere begirale gisa, baina ekintza diplomatiko handia egin ondoren, eta hainbat mugimendu federalisten lankidetzarekin, euren kategoria handitu zuten, eskubide osoko ordezkarien mailara, Bruselan, 1948ko urriaren 25ean eraturako Europako Mugimenduaren kofundatzaile bihurtuta. Urte horretako azaroan, Euskal Mugimendu Federalista Federalisten Europar Batasunean sartu zen erakunde horrek Erroman egin zuen Biltzarrean.

Hagako Konferentzian ezarri zen ezinbestekoa zela estatu-izaerako ekipoak eratzea; horregatik, 1949ko otsailean Europako Mugimenduaren Kontseilu Federal Espainiarra sortu zen (EMKFE).

249 Leire Arrieta Alberdi, «Años de esperanza ante la nueva Europa: la estrategia europeísta del PNV tras la Segunda Guerra Mundial». *Ayer*, 67 (2007), 215.216. orrialdeak.

250 Leire Arrieta Alberdi, *Estación Europa. La política europeísta del PNV en el exilio (1945-1977)*, Madril, Tecnos, 2007, 145.147. orrialdeak.

251 Manuel de Irujo (EAJ) zen Mugimendu horren buru eta Juan Carlos Basterra (EAE/ANV), Laureano Lasa (PSOE) eta Ramón Aldasoro (IR) presidenteordeak ziren, Francisco Javier Landaburuk (EAJ) idazkari-lanak egiten zituen. Alexander Ugalde Zubiri, *El Consejo Vasco del Movimiento Europeo. La aportación vasca al movimiento europeo*, Gasteiz, Mugimendu Europarraren Euskal Kontseilua, 2001, 80.81. orrialdeak.

252 Federalisten Europar Batasuna 1947an eratu zen, bokazio europazalearekin eta korrante federalista ugarien elkartze-eta kohesio-lotura gisa sortu zen.

Kontseilu hori Parisko Euskal Ordezkaritzaren egoitzan sortu zen. Salvador de Madariaga presidente aukeratu zuten eta José María Lasarte jeltzalea lehen idazkari nagusi izendatu zuten²⁵³.

EAJren barnean Agirrerren politikaren aldekoen eta Espainiako indar politikoeekin inolako lankidetzarik izan nahi ez zutenen eta euskal ahotsa desagerrarazi nahi zutenen artean zegoen liskarraren ondorioz, jendea lasaitzeko, EBBk Europako Federazioaren aldeko Euskal Kontseilu bat (EFEK) sortzea erabaki zuen²⁵⁴. 1951ko otsailaren 1ean, Avenue Marceau etorbideko euskal ordezkaritzara Manuel de Irujo, Ramón Aldasoro, Jesús María Leizaola, Gonzalo Nardiz, José María Lasarte, Laureano Lasa, Julio Jauregui, Víctor Gómez Barcenilla, Iñaki Aguirre, Ramón Agesta eta Francisco Javier Landaburu bertaratu ziren eta Kontseilu hori sortzeko bilera egin zen. Erakunde berria bederatzita taldetan egituratu zen²⁵⁵ eta Zuzendaritza Batzorde bat eratu zen EAJ, EAE/ANV, PSOE alderdietako eta alderdi errepublikanoetako buruzagi politikoen aurrean. Batzordearen presidentea Gonzalo Nardiz (EAE/ANV) izan zen, hiru presidenteordeak Leizaola (EAJ), Lasa (PSOE) eta José María Lasarte (EAJ) izan ziren, idazkaria Landaburu (EAJ). Europako Federazioaren aldeko Euskal Kontseiluaren ordezkaria Europako Mugimenduaren Kontseilu Federal Espainiarrean Ramón Aldasoro (Izquierda Republicana), propagandaren arduraduna Manuel Irujo (EAJ), eta 5 batzordekideak Iñaki Renteria (EAJ), Ramón Agesta (ELA-STV), Iñaki Aguirre (EAJ), Víctor Gómez (PSOE) eta Julio Jauregui (EAJ) izan ziren²⁵⁶.

Nardizek, presidente zela, emandako izendapena eskertu zuen eta adierazi zuen espero zuela gainerako kideek laguntzea Kontseiluaren lanetan. Horrez gain, esan zuen Kontseilua «Euzkadiren ordezkaria izango zela Europako herriak federatzeko lanetan». Erabaki zen Kontseiluko kide izatea eskatzen zuten eta Kontseiluak onartzen zituen euskal demokrata guztiak izan zitezkeela Kontseiluko kide. Espainiako Kontseilu Federalaren osoko bileretarako, Nardiz, Aldasoro, Lasa eta Irujo aukeratu zituzten Euskal Kontseiluaren ordezkariei.

1951ko ekainean, Avenue Marceau etorbidean kokatuta zeuden euskal erakunde guztiak, Europako Federazioaren aldeko Euskal Kontseiluak barne, eraikina utzi behar izan zuten, epailearen epaiaren ondorioz, eraikina agintari frankistei eman baitzitzaizen eta agintari horiek eraiki horretan kokatu zuten Espainiako enbaxadaren kultura-saila. Frantziako mugimendu federalistak Euskal Mugimendu Federalistaren aurka hartu berri ziren neurrien aurka protestatu zuten eta euskaldunek mugimendu federalistari eta europazaleari egindako ekarpena gogorarazi zuten.

1951ko irailean, Europako Federazioaren aldeko Euskal Kontseiluak Euskadiko arazo ekonomikoari eta sozialei buruzko eta euskal ekonomia Europako ekonomian sartzeko gai espezifikokoari buruzko azterketa egiteko jardunaldi batzuk antolatu zituen Baionan.

1952an, Lasartek Europako Mugimenduaren Kontseilu Federal Espainiarraren idazkari nagusi izateari utzi zion. Salvador Madariagak proposatu zuen Landaburu jartzea haren ordez, baina Agirrek, Leizaolak eta Nardizek uste zuten aukera hori ez zela egokia, eta, azkenean, Kataluniako Enric Gironella sozialista jarri zuten Lasarteren ordez. Halaber, Ramón Aldasoro hil zenean, Europako Mugimenduaren Kontseilu Federal Espainiarrean Euskal Kontseiluaren etengabeko ordezkariei gisa betetzen zuten postua bere alderdikide Ambrosio Garbisuk hartu zuen.

253 Euskaldunek presentzia handia izan zuten erakunde horretan, eta, gainera, ekarpen handia egin zuten; izan ere, Europako Mugimenduaren Kontseilu Federal Espainiarrak Europako Mugimendura bidali zituen 24 pertsonen artetik 9 euskaldunak ziren.

254 Alexander Ugalde Zubiri, *El Consejo Vasco del Movimiento Europeo...*, op. cit., 106. orrialdea. eta hurrengoak.

255 Euskal Mugimendu Federalista, Nazioarteko Talde Berriak, Europako Federazioaren aldeko Euskal Mugimendu Sozialista, Federalisten Europar Batasuna, Europako Gutxiengoen eta Eskualdeen Kontseilu Federala, Nazioarteko Batasun Liberala, Gazte Federalistak, NTBetako Gazteak eta Europa Elkartuaren aldeko Langile Kristauak.

256 Europako Federazioaren aldeko Euskal Kontseilua eratzeak akta hemen dago: EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtza, Presidentzia Funtza, Parisko Idazkaritza Nagusia, Europako Mugimendua, Leg. 106 1. zenbakia. Nardiz Familiaren Artxiboan ere aurki daiteke.

Urte haietan, Europako Federazioaren aldeko Euskal Kontseiluak hainbat ekitalditan hartu zuen parte: 1952ko urriaren 3an, Irujo, Leizaola eta Lasa Europako Mugimenduaren Kontseilu Federal Espainiarrak Parisen egiten zituen ohiko bileretara joan ziren; 1953ko urrian, Aguirre, Landaburu eta Leizaola Hagako Europako Mugimenduaren II. Biltzarrera joan ziren; 1954ko urtarrilean, Leizaola eta Irujo Europako Mugimenduaren Kontseilu Federal Espainiarreko kide izan ziren eta Europako Mugimenduak Westminsterren antolatu zuen Europako Konferentzia Ekonomiko batera joan ziren.

50eko hamarkadaren bigarren erdian gertakari nabarmenak jazo ziren Europako integrazio-prozesuan, hala nola 1957ko Erromako Itunen sinadura; horregatik, Europako Erkidego Ekonomikoa eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa sortu ziren. Aitzitik, nazioarteko komunitateak pixkanaka onartu zuen erregimen frankista, NBE, LANE edo NDF erakundetan sartu baitzen, besteak beste.

1955eko urrian, Europako Mugimenduaren Kontseilu Federal Espainiarraren bileretan, Nardiz, Irujo, Leizaola eta Landaburu bertan zeudela, protesta egiteko idazki bat bidali zen NBE erakundera, Espainia erakunde horretan sartzearen aurka zeudela adieraziz. 1957ko apirilean, Europako Mugimenduaren Kontseilu Federal Espainiarrak antzeko idazki bat bidali zuen Europako Kontseilura, Lankidetzak Ekonomikorako Europako Erakundera edo NATOra gogoraraziz erakunde horietan sartzeko ezinbestekoa zela askatasun demokratikoak aplikatzea. 1957an Erroman egin zen Europako Mugimenduaren Biltzarrera Leizaola joan zen euskaldunen ordezkari gisa; Biltzar horretan duela gutxi sinatutako Erromako Itunak aztertu ziren.

1962ko ekainaren 7an eta 8an, Europako Mugimenduak bere IV. Biltzarrera antolatu zuen. Biltzar horretako gai nagusia Europako Erkidego Politikoaren kontua eztabaidatzea izan zen. Aukera baliatuz, hilaren 5ean eta 6an, bilera bat deitu zen aurretik eta bilera horretara erbesteko nahiz Espainia barneko buruzagi politikoak joan ziren, kontrako sentsibilitateak ordezkatzuz. 120 ordezkari inguru joan ziren bilera horretara; 80 ordezkari barrukoak ziren, hainbat joeratakoak; euskal ordezkariak Parisen eta Iparralden erbesteratuta zeudenak eta barruko ordezkariak izan ziren²⁵⁷. Nardiz bigarren multzokoa zen eta beste 7 pertsonarekin batera joan zen Baionatik; pertsona horien artean Manu Robles Arangiz zegoen²⁵⁸. Guztien artean Aldarrikapen bat egin zuten eta aldarrikapen hori ordezkari guztiek eta Europako Mugimenduko kide guztiek berretsi zuten²⁵⁹. Municheko Biltzarrean frankismoaren aurkako oposizioaren zati handi bat elkartu zen eta oihartzun handia izan zuen nazioartean.

1962tik 1975era bitarte, Europako Federazioaren aldeko Euskal Kontseiluak bilera, hitzaldi eta biltzar askotan hartu zuen parte. Nardizek eta Irujok Europako Mugimenduaren Kontseilu Federal Espainiarraren ordezkari izan ziren eta 1965eko urriaren 1etik 5era bitarte Cannesen egin zen Europako Mugimenduaren Biltzarrera joan ziren. Irujo eta Nardiz, Euskal Kontseilua ordezkatzuz, Europako Mugimenduaren Kontseilu Federal Espainiarrak 1967ko irailaren 23an Parisen egin zuen Ezohiko Batzar Orokorra joan ziren Europako Mugimenduaren Kontseilu Federal Espainiarraren egitura Europako Mugimenduak Bad Godesberg-en egin zen konferentzia batean hartu zuen egitura berrira egokitzeko. Urte horretako abenduaren 10ean, Nardiz Irujo, Agesta eta Rezola Europako Mugimenduaren Kontseilu Federal Espainiarrak egin zuen beste Batzar Orokor batera joan ziren. 1972ko maiatzaren 13an Europako Mugimenduak Bonnen egin zuen Biltzarrera Leizaola, Irujo eta Nardiz joan ziren; bilera hartan honako gai hauek jorratu ziren: une hartako erkidegoaren hedapena, moneta-krisia eta Greziako gertaerak.

257 Biltzar horretara joan ziren pertsonen zerrendak Nardiz familiaren Artxiboetan gordeta daude eta ikus daiteke zerrenda horietan 34 euskal ordezkari daudela.

258 Leire Arrieta Alberdi, *Estación Europa...*, op. cit., 306.313. orrialdeak. Alexander Ugalde Zubiri, *El Consejo Vasco del Movimiento Europeo...*, op. cit., 132.137. orrialdeak.

259 Espainiari eskatzen zitzaion ordezkari izateko erakundeak eta erakunde demokratikoak ezartzeko, baita eskubide indibidualak bermatzeko, erkidego naturalen nortasuna onartzeko, sindikatu-askatasunak baliatzeko eta iritzia emateko korranteak antolatzea eta alderdi politikoak izatea ahalbidetzeko ere. *Tierra Vasca*, 1962-07-15.

1973an, Irujo Europako Mugimenduaren Kontseilu Federal Espainiarraren presidente izendatu zuten eta kargu hori 1976ko azarora bitarte bete zuten. 1974ko martxoaren 2an, Espainiako Kontseilu Federalak Europako Mugimenduaren aurrean zituen ordezkarien izenak berrikusi zituen. Kontseilu Federalerako ordezkari Irujo aukeratu zuten, besteak beste, eta ordezkioen artean Gonzalo Nardiz azaltzen zen. 1974. eta 1975. urteetan, Irujo Europako Mugimenduaren bilera nagusietara joan zen, eta 1975eko maiatzaren 9an eta 10ean Parisen egin zen bileran Nardizek ordeztu zuen²⁶⁰.

Francoren heriotzak eta Espainian trantsizio demokratikoa hasi izanak eragina izan zuten Espainiako mugimendu federalistaren antolamenduan. Europako Mugimenduak 1976ko otsailean Bruselan egin zuen Biltzarrera erbesteko eta barruko hogeita hamar bat ordezkari espainiar joan ziren. Ordezkari horien artean euskaldun hauek zeuden: Irujo (Europako Mugimenduaren Kontseilu Federal Espainiarraren presidentea), Nardiz (Europako Federazioaren aldeko Euskal Kontseiluaren presidentea), Enrique Múgica eta Juan Aldecoa. Europako Mugimenduaren Kontseilu Federal Espainiarraren osoko bilkuran erakunde Paristik Madrilera eramatea erabaki zen. Urte horretako urriaren 27an bilera bat egin zen Madrilan. Bilera horretan aho batez erabaki zen lekualdaketa berrestea; era berean, berretsi zen Irujo eta Nardiz Europako Mugimenduaren Kontseilu Federal Espainiarraren ordezkariak izango zirela Europako Mugimenduan, ordezkari titularra eta ordezkoa, hurrenez hurren. Barrura eramateko erabakia hartu zenez geroztik, Europako Federazioaren aldeko Euskal Kontseiluaren egoera ez zen oso egokia garai politiko berrietarako, eta ikusi zen Euskadin egitura berri bat sortzeko premia zegoela, erbestetik gauzatutako lanei berriro ekingo zien egitura bat, baina hori ez zen 90eko hamarkada arte benetan gauzatu, trantsizio-garai hartan indar politikoen lehentasunak beste batzuk zirelako. Beraz, hirurogeita hamarreko hamarkadaren bukaeraz geroztik beste aldi bati ekin zitzaion. Aldi horretan Europako Federazioaren aldeko Euskal Kontseilua bazegoen paperean, baina ez zuen lortu erakunde zabal bat izatea ordezkari politikoari eta sozialari dagokionez, ezta erakunde dinamiko bat ere gauzatzen zituen jardueren kopurua txikia zelako²⁶¹.

260 Alexander Ugalde Zubiri, *El Consejo Vasco del Movimiento Europeo...*, op. cit., 139.146. orrialdea.

261 Alexander Ugalde Zubiri, *El Consejo Vasco del Movimiento Europeo...*, op. cit., 147. orrialdea. eta hurrengoak.

21. EAE/ANV ERBESTEAN

Arestian adierazi dugu EAE/ANV ezkerreko alderdi txiki bat zela aldi errepublikanoan, eta alderdi horrek berak bakarrik oso hauteskunde-emaizta txikiak lortu zituela, eta erakundeetan izan zuen ordezkariak ezkerreko beste indar batzuekin (alderdi errepublikanoak eta PSOE) lortutako batasunen ondorioz gertatu zela. Gainera, alderdian barne-borrokak izan ziren, esate baterako, 1936an izandako borroka, arrazoi hori zela medio alderdia sortu zuen taldea alderditik irten zen. Bestalde, 1936ko ekainean, alderdi politikoak bere Batzar Nazionala egin zuen. Batzar horretan alderdiak beste Batzorde Nazional bat izendatu zuen eta joera ezkertiarreko programa berri bat onartu zuen. Programa hori ez zen aldatu beste Batzar Nazional bat deitzeko aukerarik ez zegoelako.

1952an, Pello Mari Irujo, Buenos Airestik, Gonzalo Nardizekin harremanetan jarri zen eta EAE/ANVri buruzko oso balantze txarra egin zion; horrez gain, alderdia politika-arloan bidera zezala eskatu zion:

Ekintza-talde txiki batzuk gabilta munduan zehar. Leku bakoitzean gutxi gara, baina ... ongi moldatzen gara elkarrekin (...)

Eta Ekintzakoek zerbait izan beharko genuke, gutxi, baina zerbait. Alderdiek existitzen garelako jakin dezaten gutxienez, eta Alderdikoak ez diren gainerako euskaldun eta errepublikano guztiek ere jakin dezaten, batez ere azken horiek jakin dezaten. Nik ez dakit Ekintzakoek zerbait egiten duten nonbait. Hemen ez dugu ezer egiten (...)

Ekintza alderdiak prestatuta egon behar du Euskadira itzultzen garenerako –egun hori hurbil edo urrun egon edo ezinezkoa izan kontuan izan gabe–. Horretarako, lehendabizi existitu egin behar dugu (...)

Zu Ekintzako sailburua zara. Ekintzakoen artean zerbait zaren bakarra. Badirudi zuri dagokizula gu zerbaitetan bideratzea. Ez dizut proposatuko euskal herritarrei programa politiko bat idaztea, ezta gutxiago ere, ezta manifestu bat idaztea ere, ez. Baina eskatuko dizut talde bakoitzari gutun zirkular bat idaztea, noizbait, iruditzen zaizuna esanez²⁶² (...)

Oinarri urri horiekin aurre egin behar izan zion EAE/ANVk alderdia aurrera ateratzeko zereginari bere buruzagi nagusien erbestealdia iraun zuen 40 urte luzeetan. Azken batean, zein izan zen alderdiaren ildo politikoa erbestean? Hori jakiteko, EAE/ANVk 1956. urtetik 1975. urtera bitarte Buenos Airestik hilero argitaratu zuen egunkaria dugu: *Tierra Vasca – Eusko Lurra*. José Luis Nardizek gogoratzen duenez, bere aitak argitalpen horren ale bakoitzean kolaboratzen zuen artikulua bat edo batzuk bidaliz izenorde desberdinak erabiliz, egunkariaren jardura handia zela eman zezan. Nardiz familiaren Artxiboan kontsultatutako korrespondentzian egiaztatzen da hori horrela zela; izan ere, Tellagorrik edo egunkariaren beste arduradun batek eskerrak ematen zizkion Gonzalori artikulua bat edo batzuk bidali zituelako.

262 Pello Mari Irujoren gutuna, 1952-09-01ekoa. Nardiz familiaren artxiboa.

Tierra Vasca egunkarian jasotzen denaren arabera, ahultasunez antolatutako gune batzuk zituen EAE/ANVk Mexikon, Venezuelan, Argentinan eta Txilen. Hori gorabehera, gune horien bizitza publikoa, gehienetan, alderdia sortu zeneko urteurrena ospatzeko biltzea izaten zen ekitaldiren bat, oturuntzaren bat edo adierazpenen bat egiteko, eta, ondoren, egunkariak horren berri ematen zuen. Argi dago jarduera handiena gauzatzen zuen gunea Venezuelakoa izan zela; izan ere, alderdia sortu zeneko urteurrena ospatzeko ekitaldiez gain hitzaldiak eta beste ekitaldi batzuk antolatzen zituen; jarduera handiena zuen hurrengo Mexikoko gunea zen. 50eko hamarkadan Luis Ruiz de Aguirre²⁶³, «Sancho de Beurko» izan zen EAE/ANV alderdiaren buru Caracasen; 1960ko uztailen jaso zen EAE/ANVren zuzendaritza-batzordea berriro zela Venezuelan, Juan Carlos Basterra presidente izendatu zuten, Luis Zubia idazkari, José María Aranguren diruzain eta Dolara, Laniella eta Gonzalo Munarriz batzordekide²⁶⁴; 1973an Carlos Otaño izan zen EAE/ANVren presidente Venezuelan²⁶⁵. Amerikako gainerako alderdiei buruz berri gutxiago ditugu; badakigu Mexikon Tomás Echave izan zela alderdiaren goreneko ordezkaria hil zen arte, hau da, 1967ko abenduaren 29ra arte; 1956an Víctor Villanueva zen alderdiaren presidente Argentinan eta 1968ko irailaren 3an Emilio Galdos Lasagabaster, hots, EAE/ANVren presidente izan zena Txilen hil zela²⁶⁶.

Alderdiaren bizitza politikoari dagokionez, EAE/ANVk soilik komunikatu batzuk argitaratu zituen eta bileraren bat egin zuen. 1959ko abenduan, EAE/ANVren Batzorde Nazionalak manifestu bat egin zien «Caracaseko alderdikideei» alderdia sortu zeneko urteurrena zela medio. Manifestu hartan Eusko Jaurlaritzaren boterea, Autonomia Estatutuaren legitimitatea eta euskaldun guztiak elkartuta egoteko premia aitortzen zuten²⁶⁷. 1960ko apirilean, Jose Antonio Agirre hil eta Jesús María Leizaola lehendakari izendatu ondoren, EAE/ANVren Batzorde Nazionalak ohar bat argitaratu zuen «Aurrera... Euzkadiren alde» izenburuarekin. Ohar horretan Batzordeak adierazten zuen sentitzen zuela lehendakariaren heriotza eta Lehendakari berriarekiko errespetua, konfiantza eta lankidetzat bermatzen zituela²⁶⁸. Urte horretako azaroan, EAE/ANVren Batzorde Nazionalak ohar bat egin zuen alderditik kanpoko elementu batzuk alderdiko kideen artean monarkiaren alde egiten ari ziren kanpainari erantzuteko, alderdiaren ildo errepublikanoa berretsiz²⁶⁹. Hilabete bat geroago, Batzorde Nazionalaren beste ohar batek EAE/ANVk jarraitu behar zuen ildo ezarri zuen, hau da, euskal batasunaren politika, honako lelo honetan laburbilduta: «Herri bat, Gobernu bat»²⁷⁰. Ohar hori Batzorde Nazionalaren idazkari nagusiak sinatu zuen.

1961eko azaroan, EAE/ANVren sorreraren 31. urteurrena zela medio, alderdiko idazkari nagusi Gabriel Goitiak berriro azpimarratu zituen alderdiaren ildo politikoa, Eusko Jaurlaritzaren jarraitutasuna eta euskaldun guztien batasuna. Egunkariaren ale horretan bertan Eusko Jaurlaritza eratu zeneko 25. urteurrenean Tomás Echavek Mexikotik egin zuen hitzaldia biltzen da. Hitzaldi horretan argudio bera errepikatzen zuen: euskaldunen batasuna²⁷¹.

1965eko azaroaren 5ean, Caracaseko EAE/ANVk bere urteko ohiko Batzarra egin zuen. Batzar horretan alderdiak Eusko Jaurlaritza jarraituko zuela berretsiz zen, Gonzalo Nardizi egin zuen lan «nekaezina» aitortu zitzaion eta Gabriel Goitia idazkari nagusiari eta alderdiaren Batzorde Nazionalari konfiantza-boto bat eman zitzaion²⁷².

263 *Tierra Vasca*, 1959-07-15.

264 *Tierra Vasca*, 1960-07-15.

265 *Tierra Vasca*, 1973-01-15.

266 *Tierra Vasca*, 1968-09-15.

267 *Tierra Vasca*, 1959-12-15.

268 *Tierra Vasca*, 1960-04-15.

269 *Tierra Vasca*, 1960-11-15.

270 *Tierra Vasca*, 1960-12-15.

271 *Tierra Vasca*, 1961-11-15.

272 *Tierra Vasca*, 1965-12-15.

1967ko apirilean, EAE/ANVren Batzorde Nazionalak bere kideei gogorarazi zien oso garrantzitsua zela beren kuoten ordainketari dagokionez egunean egotea, ezinbestekoa zelako alderdiaren garapenerako ez ezik, atxiloketak izaten zirenean barruko afiliatuei laguntzeko ere²⁷³.

Halaber, eta *Tierra Vasca* egunkaritik ondorioztatzen denaren arabera, EAE/ANVk afiliatu talde bat zeukan barruan, eta kide horiei buruzko berriak ematen ziren, noizean behin, egunkarian. 1960ko abenduan, barruko afiliatuek idatzitako gutun luze baten zati bat jaso zen. Gutun horretan, afiliatuek Euskadi frankistan egiten zituzten proselitismo-lanen berri ematen zen eta alderdiaren doktrinarekin, hots, Euskal Batasunarekin, bat egiten zuten²⁷⁴. 1965eko irailean aditzera eman zen Euskal Herriaren barruan EAE/ANVri lotutako argitalpen klandestino bat sortu zela *Acción* izenburuarekin. Argitalpen horrek EAE/ANVren Bizkaiko, Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako militanteen ahotsa ordezkatzen zuen²⁷⁵. 1969ko azaroko alean, EAE/ANVren 39. urteurrena zela medio, «erresistentziako» gazteen gutun bat jaso zen. Gutun horretan, gazteek alderdiaren printzipio ideologikoak biltzen zituzten, politikan zeuden joera berrietara irekitzen ziren, 68ko maiatzeko gertakariari erreferentzia eginez, eta eskerrak ematen zizkioten alderdiaren iraganari, idazkari nagusi Gabriel Goitiari, Eusko Jaurlaritzako sailburu Gonzalo Nardizi eta erbesteko nahiz barruko militantei²⁷⁶. Azkenik, nabarmendu behar da EAE/ANVren barruko buruzagi José María Larrearen heriotzaren berri eman zela 1973ko ekainean²⁷⁷.

EAE/ANVk frankismoan eutsi zien koordenada politikoei dagokienez, lehenik eta behin adierazi behar da 1936ko ekainean onartu zen programa ez zela aldatu programa hori berretsi edo aldatuko zuen Batzar Nazionala ezin zelako deitu, baina 60ko hamarkadaren amaieraz geroztik, *Tierra Vasca* egunkariaren orrietan esaten zen programa eguneratu egin behar zela eta al bait lasterren eguneratuko zela.

Hori alde batera utzita, EAE/ANVk Eusko Jaurlaritzari laguntzea defendatu zuen batez ere:

Eusko Jaurlaritza horretako bertako kideak erori dira, baina erakundeak aurrera jarraitzen du patuak ezarri duen egunera iritsi arte. Eta iritsiko da egun hori. Bitartean, guk Jaurlaritza hori defendatu behar dugu, gure konfiantza osoa eta gure laguntza osoa, euskal herritar guztiena, ematen jarraitu behar dugu, itxaronaldia luzea bada ere gainerakoek, kanpokoek nahiz barrukoek, partekatzen dutela jakin dezan. Denak elkarrekin, lehen, orain eta beti²⁷⁸.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzarekin gaude. Jaurlaritza bezalako inork eta ezerk ez duelako orain arte lortu gure herriaren nahi politikoen inguruko asmo kopuru handiagorik²⁷⁹.

Eusko Jaurlaritzarekiko laguntzari atxikita, EAE/ANVk euskaldun guztien elkartasun-politika nabarmentzen zuen lehenik eta behin, eta frankismoaren aurkako indar guztien elkartasun-politika orokorrean:

EAE/ANV sortu eta handik 31 urtera, gerra zibila piztu eta lehen Eusko Jaurlaritza eratu eta handik 25 urtera geunden tokian gaude (...) Euskal Batasunarekin gaude beti, Baionako Itunean, Euskal Mundu Biltzarreko akordioekin, Galeuzcarekin, Aliantza Sindikalean, Indar Demokratikoen Elkartasunean²⁸⁰.

273 *Tierra Vasca*, 1967-04-15.

274 *Tierra Vasca*, 1960-12-15.

275 *Tierra Vasca*, 1965-09-15.

276 *Tierra Vasca*, 1969-11-15.

277 *Tierra Vasca*, 1973-06-15.

278 *Tierra Vasca*, 1958-10-15.

279 Gabriel Goitiaren hitzaldia. *Tierra Vasca*, 1962-12-15.

280 *Tierra Vasca*, 1961-11-15.

Ildo horretan, EAE/ANVrako dokumenturik garrantzitsuena, *Tierra Vasca* egunkariaren orrietan urtero jasotzen zena, Baionako Ituna izan zen. 1945ean sinatu zen Itun hori, euskal elkartasunaren politikaren gauzatze ezin hobea izan zen haientzat:

Inork ezin du zalantzan jarri Baionako Ituna sinatu zuten pertsonen egiazkotasuna eta leialtasuna; izan ere, pertsona horiek tirania frankistaren aurka eta herrialdearen autonomiaren zerbitzura egin zuten borroka iraunkor eta etengabeak elokuentziaz frogatzen du herriaren etengabeko idealekiko leialtasuna. Euzkadiko nazionalistak, errepublikanoak, sozialistak, libertarioak eta UGT, STV eta CNT sindikal askeak herriaren eta Eusko Elkartasunaren iritzi demokratiko gehiengodunaren ordezkariak gara, eta Gernikan 1936an sortu zen Eusko Elkartasuna eta 1945ean Baionan berretsi zena, lubakietan eta kartzeletan indartu zena, exekuzio-hormen aurrean, erresistentzian eta erbestean, promesa da –erori ziren gudarien ordezkariak gazte gudariak daude– Euzkadiren askapenaren promesa seguru eta irmoa, baita Araban, Gipuzkoan, Nafarroan eta Bizkaian bizi eta lan egiten duten gizon eta emakume guztien askapenaren promesa ere. Langileak eta ikasleak gaur egun egiten ari diren borroka askapen horren atarikoak da. Gora Baionako Ituna! Gora Euzkadi Askatuta²⁸¹!

Gainera, erbestealdi osoan, EAE/ANVk indar errepublikano gisa definitu zuen bere burua:

Guk, euskaldunok, askatasun nazionala izateko dugun eskubideari buruzko ideia garbia dugu, askatasun pertsonalak duen balio handia estimatzen dugu, langileek justizia soziala izateko eskubidea dutela uste dugu, kontzientzia-askatasuna defendatzen dugu, mendeetako gure erakunde demokratikoak ohoratzen ditugu; horregatik, ezin dugu konponbide monarkiko bat onartu, ezta hipotesi gisa ere, konponbide hori, berez eta tradizioz, horren guztiaren kontrakoa delako.

Guk konponbide errepublikanoa nahi dugu, eta espero dugu errepublikanoak benetakoak izatea, beren ondorio guztiekin, bizio monarkikorik gabe, elkar ulertu ahal izateko eta bizikidetzeta baketsua eta emankorra benetako gertakaria izan dadin²⁸².

Nardizen bokazio federalista eta europazaleari buruz hitz egin dugunean ikusi dugunez, Errepublikaz gain Estatu Espainolaren federazioa defendatzen zuten:

Errepublika Federalak monarkia zentralistaren akats historikoak zuzendu ditzake, baita «federa daitekeen» edo «federaliza daitekeen» Errepublika liberalaren eta tirania totalitarioaren akats historikoak ere, eta penintsulako herrien arazo nazionalak konpon ditzake Nazioen Erkidego Iberiko gisa. Gure ustez, beraz, berriro diogu Errepublika Federala Nazioen Erkidego bat dela, Europako Erkidegoan eta Munduko Erkidegoan sartu nahi duena²⁸³.

Frankismoak iraun zuen bitartean, EAE/ANV hainbat akordiori atxiki zitzaion, dagoeneko aipatu dugun Baionako Itunari eta organo federalisten inguruan sinatuta zeuden itunei atxikitzeaz gain. 1957ko otsailean, «Parisko Akordioekin» bat egin zuen erbesteko beste indar demokratiko batzuekin batera: PSOE, Izquierda Republicana, Partido Republicano Federal, EAJ, Esquerra Republicana de Catalunya, Kataluniako Mugimendu Sozialista, UGT, CNT eta STV. Akordio horiek ez ziren interesgarriak erbesteko indar garrantzitsu horiek defendatzen zuten dokumentuaren edukiarengatik, baizik eta akordioak definitzen zuen formula emigrazioko indar demokratikoek sinatzen zutelako lehenengo aldiz²⁸⁴.

281 *Tierra Vasca*, 1965-03-15.

282 *Tierra Vasca*, 1958-02-15.

283 *Tierra Vasca*, 1971-04-15.

284 Alicia Alted, «Gobierno y partidos republicanos españoles en el exilio (1950-1962)». *Mélanges de la Casa de Velázquez*, 27-3 (1991), 93.95. orrialdeak.

Parisko Akordioak oposizioko indarrek «hiru hipotesien» dokumentuari ematen dioten erantzuna da. Dokumentu hori Tierno Galvánek, Gil Roblesek eta Dionisio Ridruejok idatzi zuten barnealdean eta dokumentu horretan hiru aukera ematen dira erregimen frankista ordezteko. Parisen, erbesteko indar demokratikoek dokumentu horretan biltzen zen lehenengo hipotesiaren alde egin zuten, hau da, Espainiako herritarrek hauta zezatela gobernatzeko modua «Espainiako egungo egoerarako konponbide baketsu gisa, uste zutelako hipotesi hori arrazoizkoena eta demokratikoena zela; uste dugulako atzoko beligeranteek eta gaur egungo belaunaldi berriak, monarkikoek, errepublikanoek eta axolagabeek edo gobernu motari dagokionez oraindik definitu gabe daudenek transakzio eraginkortzat eta inori desohorerik eta umiliaziorik eragiten ez dion konponbidetzat har dezaketela²⁸⁵».

EAE/ANVren aldetik, bere idazkari nagusi Gabriel Goitiak sinatu zuen dokumentua, baina Gonzalo Nardiz ere joan zen akordioen sinadurara, Agirre Lehendakariak 1957ko otsailaren 21ean telegrama bat bidali ziolako berehala Parisera joateko aginduz, eta, ondoren, biek gertatutakoari buruzko xehetasunak jakinarazi zizkioten elkarri²⁸⁶.

Bestalde, 1961eko ekainaren 4an ezagutzera eman zen Indar Demokratikoen Batasunaren aldeko Itunari atxiki zitzaion EAE/ANV. Indar Demokratikoen Batasuna erbesteko eta barnealdeko alderdiek bat egin zuten lehenengo erakundea da, Ezker Demokrata Kristaua²⁸⁷, PSOE, ARDE, EAJ, EAE/ANV, ERC, UGT eta STV alderdiek eta sindikatuek sinatu baitzuten. Honako oinarri hauek garatzeko konpromisoa hartu zuen Indar Demokratikoen Batasunak: demokrazia, behin-behineko gobernu, akzidentalismoa Estatu moduan, bere herrialdeen autonomia, bake zibila, komunistekin koalizioan jarduteari uko egitea, munduko herri askeekiko elkartasuna eta Diktaduraren ondorioz hartutako erantzukizunak desagerraraztea²⁸⁸. München 1962an gertatu zenaren atarikoa izan zen. Gorago ere aipatu dugu.

285 *Tierra Vasca*, 1957-04-15.

286 EAH, Eusko Jauriaritzako Artxibo Historikoaren Funtsa, Presidentzia Funtsa, Idazkaritza Nagusia (Paris), Gobernua, Euzkadiko Gobernuo Sailak, Korrespondentzia Gobernua-Nekazaritza, Leg. 86 4. zenbakia.

287 Barneko alderdia zen, Gil Roblesen alderditik bereizitako adar bat.

288 Santos Juliá et al., *La España del siglo XX*, Madrid, Marcial Pons, 2007, 209. orrialdea.

22.

ORDEZKARIA BAIONAN: LEIZAOLAREN GOBERNUAK (1960-1979)

Agirre Lehendakaria hil aurretik ere, Gonzalo Nardizek ordeztu zuen Javier Gortázar Gobernuaren ordezkari gisa Baionan. Ordezte hori 1959ko martxoan izan zen; egun horietan, Javier Gortázarrek xehetasun handiz egin behar ziren jarduerak irakatsi zizkion Nardizi²⁸⁹ eta Prefeturako eta Renseignemet Generauxeko tokiko agintariak aurkeztu zizkion. Nardizek berak Lehendakariari idatzitako gutun batean esan zuen Frantziako agintariekiko harremanak oso delikatuak zirela:

Prefeturan izandako elkarrizketa egokia izan zen. Badakizu prefetak ez gaituela kontuan hartzen, eta idazkari nagusiak are gutxiago, baina azken horrek hartu gintuen (...) uste dut egokia zela agerian jartzea banekiela Prefeturaren eta gure arteko harremanak egoera delikatuak zeudela. Baina, horrez gain honako hau adierazi nuen: aurkezten dugun arazoa bizirik dago eta nik espero dut denbora asko igaro behar ez izatea bi aldeek gorde behar genuen diskrezioa ez desagertzeko²⁹⁰.

Kokagune horretatik egingo dio aurre Nardizek bere erbestealdiaren azken zatiari. Izan ere, 1959ko udan, Donibane Lohizune utzi eta Lapurdiko hiriburura joan zen bere familiarekin. Han apartamentu bat alokatu zuen Les Allées Paulmy kalean; era horretan, Donibane Lohizunetik Baionara egunero egin behar zuen bidaiaren kostua eta denbora aurrezten zituen. 1962an Les Allées Marine kaleko beste apartamentu batera aldatu zen. 1974an, frankismoak konfiskatutako ondasun batzuk berreskuratu ondoren, Bermeoko lurak saldu ondoren eta egoera ekonomiko pertsonala hobetu ondoren, Gonzalo Nardiz eta bere familia Donibane Lohizunera itzuli ziren berriro eta apartamentu bat erosi zuten Urdazuri auzoan.

Espainian, «bigarren frankismoa» edo «frankismo desarrollista» deitzen zuten denboraldi horretan, hazkunde ekonomiko handia izan zen, baina hazkunde horrek gizarte-erlaketak eragin bazituen ere, ez zen aldaketa politikorik izan. Euskal Herrian «bigarren prozesu industrializatzailea» deitu zena gertatu zen eta horren ondorioz, milaka etorkin iritsi ziren Euskadira lan-aukera bila.

Erbestean, ordea, gauzak ez zeuden ondo; izan ere, Espainiako gobernu NBE erakundearen sartu ondoren, Gordón Ordásen gobernu errepublikanoa krisian sartu zen eta Gordón Ordásek bere dimisioa aurkeztu zuen 1960ko apirilean.

289 Lehendakariarentzako txosten batean (1955eko apirilaren 21eko data duena), Javier Gortázarrek azaltzen zuen Baionako Euskal Ordezkaritzak 1936az geroztik zer jarduerak gauzatu zituen, eta nabarmendu zuen 1945az geroztik bulegoaren zeregin nagusia iheslarien premiei erantzutea eta iheslarietara lana bilatzea zela; horretarako, ordezkariordetzak ireki zituzten Landetako Departamenduetan (Ychoux), Girondan (Bordele) eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Prefeturaren egoitzan (Paue). Iñaki Anasagastik adeitsuki emandako txostena.

290 Gonzalo Nardizek Jose Antonio Agirrerri idatzitako gutuna, 1959-03-19. Nardiz familiaren artxiboa.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, Jesús María Leizaolak Lehendakari berri gisa zin egin zuen Jose Antonio Agirreren hilkutxaren aurrean. Gobernuak izaera kontinuista nabarmena zuen, baina Lehendakari bataren eta bestearen arteko aldeak nabarmenak ziren; izan ere, Agirre karisma handiko gizona zen, baina Leizaola bulegoko gizona zen. Baina Jaurlaritzaren arazorik larriena izan zen erbestearen eta barnealdearen arteko diferentziak gero eta handiagoak zirela; izan ere, barnealdean frankismoaren aurkako elementu berri batzuk azaltzen hasi ziren eta elementu horiek ez zeuden hain lotuta Eusko Jaurlaritzarekin. Oposizio berri horrek ez zuen harremanik Eusko Jaurlaritzarekin, eta esaten zuen Eusko Jaurlaritza ez zela batere eraginkorra. Eta, egia esan, kritikak ez zihozen okerreko bidetik; izan ere, Eusko Jaurlaritza lozorroaldian sartuta zegoen eta arazo ekonomikoengatik kezkatuta zegoen. Gainera, Eusko Jaurlaritza osatzen zuten alderdietako batzuk, EAJ eta PSOE izan ezik (egitura sendoagoak zituztelako), birtualagoak ziren benetakoak baino, eta 60ko hamarkadako egoerari erantzun ordez 1936ko egoera bati erantzuten zioten; horrenbestez, EAE/ANVk eta alderdi errepublikanoek ia izen gisa jarduten zuten, ez baitzuten benetako ezarpenik. Dena den, Eusko Jaurlaritzak bere postuari eutsi nahi zion, balio sinboliko handia zuelako, legezketasun errepublikanoaren ondoriozko Autonomia Estatututik atera zen erakundea zelako eta euskaldun guztien elkartasuna ordezkatzen zuelako.

Oposizio-elementu berri horien artean ETA zegoen. 1959an agertu zen ustekabea, eta horren ondorioz, euskal abertzaleen belaunaldi berri bat sortu zen. Abertzale horiek uste zuten EAJ eta Eusko Jaurlaritza pasibotasunez eta eraginkortasunik gabe jarduten ari zirela frankismoaren aurka. Egia zen, arestian adierazi dugunez, Eusko Jaurlaritzak frankismoaren aurka egiten zuen borroka nabarmen jaitsi zela eta 60ko hamarkadan barnealdean jarri zuela arreta, 1964. urtetik 1967. urtera bitarte Gernikan, Bergaran, Gasteizen eta Iruñean ospatu baitzuen Aberri Eguna, hurrenez hurren. Alabaina, lehenengo urteetako ETAn eta Eusko Jaurlaritzaren arteko desberdintasunak handiagoak ziren eremu estrategikoan eremu ideologikoan baino; izan ere, EAJri deitzen zioten sozialistak eta errepublikanoak kanpo utzi zituen Fronte Nazional bat eratzeko, baina jeltzaleak ez ziren inoiz ados egon ideia horrekin. Hala eta guztiz ere, 60ko hamarkadaren erdialdean, ETA Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu gisa definitu zen, Aljerian, Kuban edo Vietnamen gertatzen ari zenaren babesean, eta bere helburuak lortzeko bitarteko gisa borroka armatua hartu zuenez, EAJ eta Eusko Jaurlaritza izugarri aldendu ziren ETArengandik. 1968. urtetik aurrera gertatu zen jauzi kualitatiboa ETAn, bere lehen ekintza armatu planifikatuak garatzen hasi zenean.

Eusko Jaurlaritza berrituz joan zen bere kideak hiltzen ziren heinean. Gauzak horrela, 1963an Joseba Rezola (EAJ) eta Juan Iglesias (PSOE) sartu ziren zendutako Landabururen (EAJ) eta Gómez Beltránen (PSOE) ordez; 1965ean, Ambrosio Garbisu (Izquierda Republicana) hil ondoren eta Manuel Campomanesek (Unión Republicana) erretiroa hartu ondoren, Carlos Pérez Carranza eta Manuel Carabias errepublikanoak sartu ziren. Urte horietan kudeaketa diplomatikoak egin zituzten eta frankismoaren aurkako oposizio osoa bildu zuten foroetan eta foro europazale eta federalistetan hartu zuten parte, gorago ikusi dugunez.

70eko hamarkadaren hasieran ETAn 16 kideren aurkako Burgosko Prozesua izan zen, eta horrek eragin zuen Euskadin, Espainian eta nazioartean izugarritzko mobilizazioa izatea 6 akusatuei ezarri zizkieten heriotza-zigorren aurka, baina azkenean, frankismoak aldatu egin zituen heriotza-zigor horiek nazioarteko presioaren aurrean. Eusko Jaurlaritzaren jarrera auzipetuei laguntzea izan zen, nahiz eta indarkeriaren erabilera ez onartu. José Luis Nardizek gogoratzen du bere aitak garai hartan jarduera diplomatiko handia garatu zuela Europako potentzien bitartekotza lortzeko eta Franco behartzeko.

Bestalde, hamarkada horren hasieratik, alderdi politikoetan erabaki politikoak hartzeko gunea erbestean eduki ordez barnean jarri zen, buruzagien belaunaldi berri bat agertu zelako, diktadorearen heriotzarako prestatuta egoteko; EAJn, adibidez, Leizaolak, Irujok edo Ajuriaguerrak gizon garrantzitsuak izaten jarraitu zuten, baina Xabier Arzalluz, Luis María Retolaza, Sabin Zubiri, Gerardo Bujanda, Mikel Isasi, eta abar azaldu ziren; PSOEn, aldiz, Txiki Benegas, Ramón Jauregui, Nicolás Redondo, Eduardo López Albizu, Enrique Múgica, eta abar azaldu ziren.

1972an berriro aldatu zen Eusko Jaurlaritzaren osaera, 1971n Joseba Rezola (EAJ) lehendakariordea hil zelako; haren ordez Martín de Ugalde burukidea jarri zen. 1974an beste aldaketa bat egin zen: lehendakaria Leizaola zen eta sailburuak Mikel Isasi (EAJ), Juan Iglesias (PSOE), Gonzalo Nardiz (EAE/ANV) eta Jesús Ausín (Izquierda Republicana) izan ziren. Urte horretan bertan, hots, 1974an karga sinboliko handiko ekitaldi bat egin zen; izan ere, Leizaola Lehendakariak ezkutuan igaro zuen muga eta Gernikako Batzarretxea bisitatu zuen. Argazki horrek izugarritzko eragina izan zuen estatuan eta nazioartean. Eusko Jaurlaritzaren efektukolpe bat zen, oraindik ere jardunean zegoela eta euskaldunen batasuna ordezkatzen zuela erakusteko, jasotzen ari zen pasibotasun-akusazioak nolabait baztertze.

Gonzalo Nardiz Eusko Jaurlaritzaren ordezkari zen Baionan, eta kargu hori zela medio hurbiletik bizi izan zituen aldaketa horiek guztiak, denboraldi horretan ere zeinu politiko desberdinetako pertsonekin eta kolektiboekin elkartu baitzen. ETArri dagokionez, 1961az geroztik Nardiz harremanetan egon zen taldeko kideekin; urte horren amaieran, ETako kide batzuk ordezkartzara joan ziren presoei ematen zitzaizkien laguntzen gaia zalantzan jarriz, ETako kideak ez baitzeuden ados laguntza horiek ematen ziren moduarekin. Hurrengo hilabeteetan, ETako beste kide bat Nardizekin elkarrizketatu zen eta adierazi zion banda terrorista haserre zegoela Eusko Jaurlaritzaren aldetik jaso zuten tratuaengatik; izan ere, ETak Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean jarduteko asmorik ez bazuen ere, harreman egokia izan nahi zuen. Laburbilduz, Gonzalok Lehendakariarekin izandako korrespondentzia bere ingurunean ETarekin gertatzen denari buruzko informazioak ematen dizkio normalean, batez ere 60ko hamarkadaren lehenengo zati honetan, jarduera armatuari ekin aurretik.

Era berean, Frantziako poliziak askotan galdetu zion Nardizi zer zekien ETako kideek Iparraldean gauzatzen zituzten jardueri buruz. Gonzalo polizia lasaitzen eta neurri batean taldearen jarduerak estaltzen saiatzen zen, baina bazekien bere portaerak ondorioak ekarriko zizkiela Frantziako agintarien aurrean:

Polizia hemen kezkatuta dago ETakoen ibilerengatik. Polizia behin baino gehiagotan etorri da guregana haiek egiten dituzten jardueri buruz eta haien helbideari buruz galdetzer. Ematen du batzuek beren helbideak aldatu zituztela poliziari jakinarazi gabe. Guk ahaleginak egiten ditugu hutsegite txiki horiei garrantzia kentzen gazte horiek ez dakitela esanez eta gure babes-estalkiarekin babestuz. Baina poliziak bisita asko egiten dizkigu eta askotan deitzen digu telefonoz helbideei eta abarri buruzko informazioa eman diezaiogun, eta uste dut, arrazoirik ematen ez badiogu, poliziak edozein aitzakia jarriko duela haiek gainetik kentzeko. Nik behin baino gehiagotan esan diet arriskuan daudela²⁹¹.

1962ko abuztuan, Frantziako poliziaren komisario batek galdeketa zorrotz bat egin zion Nardizi ETak Iparraldean gauzatzen zituen jardueri, kokapenari, finantzaketari eta elkarlanean buruz, poliziak susmatzen zuelako organizazioko kide batzuek industria bat jarri nahi zutelako eta industria etorkizuneko ekintzetarako «lehergailuak» egiteko estalki gisa erabiliko zutelako; Nardizek ahalik eta hobekien erantzun zion galdeketa horri eta ahaleginak egin zituen polizia haien zelatan zegoela ohartarazteko ETako kideei. José Luis bere semeak esaten duenez, Gonzalo Nardizek gai horri buruz direnak eta ez direnak egin behar izan zituen Baionan; izan ere, alde batetik, jarrera ordenatua izan behar zuten Frantziako agintarien aurrean, bestela euskal ordezkariak ixteko arriskuan zegoen; baina, beste alde batetik, euskal iheslari guztiak artatu behar zituen, haien filiazioa edozein izanik ere.

Gai horri berari dagokionez, José Luis Nardiz gogoratzen da bere aitak eta Leizaola Lehendakariak bilerak egiten zituztela aldi-aldi Frantziako poliziako agintari batekin Baionako

291 Nardizek Leizaolari 1961eko abenduan idatzitako gutuna. EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtza, Presidentzia Funtza, Idazkaritza Nagusia (Paris), Gobernua, Euzkadiko Gobernuko Sailak, Korrespondentzia Gobernua-Nekazaritza, Leg. 86 4. zenbakia.

suprefeturan, agintari horri egoerari buruzko eta Frantziako euskaldunen mugimenduei buruzko informazioa emateko, Frantziako agintariak lasaitzeko asmoz, suposatzen dugu.

Bestalde, 1969ko irailaren 21ean, Gonzalo Nardizek bilera batean parte hartu zuen, UGT, CNT eta STV sindikatuek osatzen zuten Euzkadiko Aliantza Sindikalak Parisen egin zuen bilera batean, hain zuzen ere. Nardizek zehatz-mehatz azaldu zuen zein zen Euzkadiko une politiko/soziala, eta euskal herritarrek bizi zuten errepresioa aipatu zuen batez ere, eta errepresioaren biktimei laguntzeko Eusko Jaurlaritzak eta bere ordezkariak mendebaldeko munduko buruzagien eta eragin handiko balibideen aurrean etengabe egiten zituzten kudeaketak ere aipatu zituen eta, horrez gain, erregimen frankistak egiten zituen prozesu sumarisimoak salatu zituen²⁹². Azalpen horri esker jakin dezakegu, neurri batean, zer nolako zeregina bete behar zuen Nardizek Baionako ordezkariak; izan ere, alde batetik, iheslariak artatu behar zituen, eta, bestetik, Francoren erregimenak egindako bidegabetasunak salatu behar zituen Frantziako agintarien aurrean, eta lortu behar zuen agintari horiek jarrera ulerkorra izatea muga gurutzatzen zuten euskal iheslarien aurrean. Iheslari horietako askok muga gurutzatzen zutenean Ordezkariak joaten ziren Frantzian egon ahal izateko bizileku-baimena lortzeko izapideak egiteko, baita lanen bat bilatzeko orientabidea bilatzeko ere.

Nardizek Leizaolari bidaltzen zizkion gutunetan behin eta berriz azaltzen den beste gaietako bat Aberri Eguna Iparralden ospatzea da; gai hori azaltzen zen Agirrerri bidaltzen zizkion gutunetan ere. Askotan, Lehendakaria ez zen Paristik Iparraldera joaten euskal aberriaren eguna zela medio garatzen ziren ekitaldietan parte hartzera, baizik eta Nardiz bera edo inguru hartan bizi zen beste sailburu bat bidaltzen zuen bere ordezkari. Kontua da erbestaldiaren garai honetan, arestian adierazi dugunez, iritzi-korronte batek salatu zuela Eusko Jaurlaritzak ez zuela jarduerarik gauzatzen eta ez zela eraginkorra; horregatik, 1965ean, Nardizek Leizaolari eskatu zion Aberri Egunean parte har zezala eta hitzaldi bat eman zezala, hitzaldiaren helburua akusazio horietatik defendatzea eta Eusko Jaurlaritzaren batasuna goraiatzea izanik:

Egokia iruditzen zait Aberri Eguna gurekin batera igarotzea, zu hemen egoteak jaiaren goratuko duelako eta gure elkartasunaren kohesioak hori eskatzen duela uste dudalako (...)

Ez dut emango zehaztasunik eta xehetasunik gure elkartasuna agerian jartzeko erabiltzen diren amarruak eta azpijokoak direla medio nire ustez bizi dugun egoerari buruz. Amarruak eta azpijoko horiek direla medio ematen du gure elkartasuna inertiaren ondoriozkoa dela eta nahita atzeratzen ari dela (...)

Bada, nik iradoki nahi nizun gure kontrakoa adieraztea. Uste dut zuk, gure Lehendakaria zarenez, Lehendakari izateak ematen dizun agintaritzarekin kontrakoa adierazi behar duzula, eta nire ustez, Aberri Eguna aukera egokia da, jaiaren izaerarengatik eta jende asko bertaratuko delako, egun horrek hotsanditasuna ematen lagundu behar diolako (...)

Eusko Jaurlaritzaren azken adierazpenaren amaieran alderdi erabakigarri bat aipatzen da eta komenigarria da egun horretan nabarmentzea; izan ere, guztiek esan eta onartzen badute eta berriz ere gogorarazten eta baieztatzen bada, aipatutako amarruei erantzuteko balio izango du eta, era berean, etengabe berritzea komeni diren betebeharrak, balio dutena balio dutela, eraberritzeko²⁹³.

Bestalde, Nardizek eta Leizaolak etengabe idazten zizkieten gutunak elkarri nazioarteko egoera politikoari, frankismoaren martxari, barruko mugimendu politikoei, oposizio demokratikoak erbestean egiten zituen jarduerari eta bilereki edo euskaldunek bilera europazale eta federalistetan zuten partaidetzari buruz.

292 *Tierra Vasca*, 1969-10-15.

293 Nardizek Leizaolari 1965eko apirilaren 7an idatzitako gutuna. EAH, Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoaren Funtza, Presidentzia Funtza, Idazkaritza Nagusia (Paris), Gobernua, Euzkadiko Gobernuko Sailak, Korrespondentzia Gobernua-Nekazaritza, Leg. 86 4. zenbakia.

EUSKADIRA ITZULTZEA

Franco hil ondoren, Espainian berriro ere demokrazia jartzeko eta Euskadirako esparru autonomiko bat eratzeko gertaerak bata bestearen ondotik etorri ziren, mugarri nagusiak honako hauek izanik: Erreforma Politikorako Legea onartzea 1976ko abenduan, Gorte Konstituziogileetarako 1977ko ekainaren 15eko hauteskundeak, Konstituzioa 1978ko abenduan onartzea eta Euskal Herriko Autonomia Estatutua 1979ko urrian onartzea. Erbesteko Eusko Jaurlaritzak ia ez zuen parte hartu gertakari horietan guztietan, barruko indar politikoez hartu baitzuten aurrea eta Leizaola buru zen gobernu bigarren mailan utzi zuten.

1977ko maiatzean, Gorteetarako hauteskundeak egin aurretik, hainbat indar politikok, hala nola EAJ, PSOE eta EAE/ANV alderdiek, besteak beste, «konpromiso autonomikoa» delakoa sinatu zuten. Konpromiso horren bitartez adostu zen hauteskundeetatik ateratzen ziren euskal legebiltzarkideak izatea etorkizuneko autonomia-estatutua idatziko zutenak.

EAE/ANV ahul eta gaizki prestatuta iritsi zen hauteskunde-hitzordura; barruan Batzorde Nazional bat bakarrik eratu zen 1976ko abenduan, eta batzorde horrek prestatuko zuen 1977ko hauteskunde-hitzordua; horretarako, alderdia berrantolatuko zuen, militanteak prestatuko zituen eta erbesteko alderdiaren zuzendaritzarekin harremanetan jarriko zen botere-aldaketa egiteko²⁹⁴.

Hauteskundeen emaitzen ondorioz, Euskadi benetan plurala zen, alderdi politiko garrantzitsuenak, hots, EAJ eta PSOE Eusko Jaurlaritzan geratu ziren, boto gehien jaso zituzten alderdiak izan zirelako; aitzitik, Eusko Jaurlaritza osatzen zuten gainerako alderdiak, hau da, EAE/ANV eta Izquierda Republicana ia ez ziren azaltzen. EAE/ANV oso emaitza txarrak izan zituen, botoen % 1 baino gutxiago lortu zituen Bizkaian eta Gipuzkoan, hots, bera bakarrik aurkeztu zen barrutietan; aitzitik, Nafarroan EAJrekin eta Nafarroako Batasun Autonomistako Euskal Sozialista Biltzarrearekin (ESB-PSV) batera aurkeztu zen, baina hor ere etsigarriak izan ziren emaitzak; alderdi politikoak botoen % 6 besterik ez baitzuen lortu.

Horrek nolabaiteko eragina izan zuen Eusko Jaurlaritzan; izan ere, errepublikanoek eta EAE/ANVko kideek, arestian esan dugunez, Eusko Jaurlaritzan zuten ordezkaritza ez zetorren bat benetako hauteskunde-indarrarekin, eta Historiak ematen zien legitimitatearengatik bakarrik eusten zioten beren postuari.

Hauteskundeak egin ondoren, ekainaren 19an, eta adostu zenaren arabera, Euskal Legebiltzarkideen Batzarra eratu zen. Batzar hori Euskadiko eta Nafarroako probintzietako diputatu eta senatari guztiek eratu zuten –UCDko legebiltzarkide nafarrek izan ezik, etorkizunean sor zitekeen Euskal Autonomia Erkidegoan sartzearen aurka baitzeuden– prozesu autonomikoari hasiera emateko. Preautonomia-proiektua indar gehiengodunen artean adostu

294 Eduardo Renobales, *ANV, el otro nacionalismo*, Tafalla, Txalaparta, 2005, 308.309. orrialdeak. Nardiz familiaren Artxiboan Getxoko EAE/ANVren 1976ko urriko txosten bat dago. Txosten horretan adierazten da alderdia berpiztu egin zutela Getxon eta nabarmentzen da Valentín Solagaistuaren partaidetza erabakigarria izan zela.

zen, hau da EAJren eta PSOEren artean eta irailaren 19an onartu zen Euskadiko Ezkerraren abstentzioarekin. Testua onartu ondoren, Gobernu zentralak onartu behar zuen. Gobernu horrek Nafarroa euskal preautonomiari anexionatzeko aukerari jarri zion eragozpen handiena. Azkenean, 1978ko urtarrilaren 8an euskal preautonomia onartu zen eta Euskal Kontseilu Nagusia eratu zen. Kontseilu hori Euskadiko hiru probintziek eratzen zuten eta etorkizunean Nafarroa sartzeko aukera zegoen. Euskal Kontseilu Nagusia 15 sailburuk (EAJko 5, PSOEko 5, UCDko 3, EEko 1 eta independente 1) eratu zuten eta lehenengo lehendakaria Ramón Rubial izan zen²⁹⁵.

Barruan izandako aurrerapen horiek gorabehera, EAJk jarraitzen zuen erbestean Eusko Jaurlaritzak izan behar zela defendatzen, nahiz eta haren jarrera arriskutsua zen, ostrazismoan egon behar zuelako denboraldi horretan jarduerarik ez zeukalako eta protagonismo guztia galdu zuelako; are gehiago PSOEk 1979ko urtarrilean bere sailburu Juan Iglesias kentzea erabaki zuenean eta Leizaola ia bakarrik utzi zuenean. Leizaolari Nardizek laguntzen zion beti. Hala eta guztiz ere, Jaurlaritzak bere postuari eutsi zion legitimitateari esker eta hark ordezkatzeko zuten euskal kausarekiko leialtasunari esker.

Aurrerapen autonomiko horiek guztiak gertatzen ziren bitartean, EAE/ANVk ahaleginak egiten zituen egoera politiko berrian birkokatzeke. 1976ko abenduan alderdiaren II. Biltzarra egin zegoen Sarrrikoko unibertsitate-campusean (Bilbo), non 1936ko programa eta Eusko Jaurlaritzan jarraituko zuela berretsi zen eta erbesteko liderrak ordeztu ziren, haien artean Nardiz. Lider horien ordezkariak berriak jarri ziren: Juan Domínguez presidente izendatu zuten eta Valentín Solagaistua idazkari nagusi²⁹⁶.

Hauteskunde-porrotaren ondoren, EAE/ANVk ahaleginak egin zituen Euskal Sozialista Biltzarrearekin (ESB) bat egiteko aukera bultzatzeko eta horixe izan zen alderdiaren III. Biltzarra monopolizatu zuen gaia. Biltzarra Gernikan egin zen 1978ko ekainaren 30etik uztailaren 1era bitarteko aldiaren, eta ikusi zen militante historikoen eta militante berrien arteko aldeak bateraezinak izaten hasi zirela. Biltzarrean alderdiaren printzipio berriak –kutsu marxista argia zutenak– onartu ziren, eta bi alderdiak elkartzeko ESBrekin izandako negoziazioen martxaren berri eman zen; horren ondorioz, alde izugarriak sortu ziren afiliatu zaharrenean artean, afiliatu horiek uste zutelako EAE/ANVren zuzendaritza gauzatzen ari zen ildo politiko berriarekin alderdiaren oinarriak desitxuratzen ari zirela. Hori pentsatzen zutenetako bat Ruiz de Aguirre zen. Militante askok Biltzarretik alde egin zuten zuzendaritza berriak jarduteko zuten moduarekin pozik ez zeudelako; horien artean José Luis Nardiz zegoen, Gonzaloren semea, uste zutelako Gernikako biltzarretik aterako zen alderdi hark ez zuela inolako zerikusirik EAE/ANVren funtsarekin. Gogora dezagun Gonzalo Nardizek alderdiaren liskar horietatik urrun jarraitzen zuela, baina argi zegoen ez zegoela ados Domínguezek eta Solagaistuak alderdiari ezarri zioten ildo marxistarekin, eta estatutu-akordioaren alde egin zuen.

Barne-zatiketako giro horretan, EAE/ANVk eskatu zuen Nardizen ordezkari alderdiaren kontseilu politikoaren idazkari Josu Aizpurua jartzea Eusko Jaurlaritzan, baina Leizaolak ezezko biribila eman zuen eta Gonzalok Eusko Jaurlaritzan jarraitzearen alde egin zuen irmoki eta haren legitimitate historikoa onartu zuen²⁹⁷. Barneko gatazka eta desadostasun horien guztien ondorioz EAE/ANV «historikoa» sortu zen, alderdiko lider historikoek eta militante zaharrenek, EAE/ANV bideratuta zegoen jito marxistatik urrun zeudenek osatzen zuten EAE/ANV.

Barruan, bestalde, prozesu demokratizatzaileak aurrera jarraitzen zuten. 1978ko abenduaren 8an Espainiako Konstituzioa onartu zen erreferendum bidez, euskal probintzietan boto-emaitza gehienek onartu zuten, baina % 55eko abstentzioa izan zen. Konstituzioaren ondoren

295 José Antonio Pérez Pérez: «La transición en el País Vasco (1976-1979)», hemen: *Historia del País Vasco. Edad Contemporánea*. San Sebastián, Hiria, 2005, 407.408. orrialdeak.

296 Eduardo Renobales, *ANV, el otro nacionalismo*, op. cit., 323.325. orrialdeak.

297 Santiago de Pablo et. al., *El péndulo patriótico...*, op. cit., 351.352. orrialdeak.

Autonomia Estatutuaren txanda zen: euskal indar politikoak erabat ados jarri ziren testua idazteko eta Euskal Legebiltzarkideen Batzarrak 1978ko abenduaren 29an Gernikan egin zuen bileran proiektua berretsi zuen eta Diputatuen Kongresuan utzi zuen proiektua eztabaidatzeko.

1979ko martxoaren 1eko hauteskunde orokorren ondoren, Euskal Legebiltzarkideen Batzarrak Estatutuaren testua berretsi zuen. Hauteskunde-emaizten ondorioz, EAJk indar handiagoa hartu zuen eta Euskal Kontseilu Nagusia aldatu egin zen, EAJk 9 sail hartu baitzituen bere gain, PSOEk 4, UCDek 4 eta EEk 1; lehendakari izan zen Carlos Garaikoetxea jeltzalea jarri zen Rubial sozialistaren ordean. Legebiltzarrean eztabaidatu ondoren, estatutu-erreferenduma urriaren 25ean egitea ezarri zen. Estatutua boto-emaileen % 90i esker onartu zen, eta % 60ko partaidetza izan zen²⁹⁸.

Estatutua onartu ondoren, erbesteko Eusko Jaurlaritza Euskadira itzultzeko bidea laututa zegoen; izan ere, azkenean, gobernu autonomiko eta demokratiko berri bat jartzeko aukera zegoen. Leizaolak 1979ko abenduaren 15ean desegin zuen bere kabinetea, Parisko euskal Ordezkaritza itxi zuen eta Euskadira itzuli zen.

Gonzalo Nardiz Leizaola baino lehenago itzuli zen. Gonzalo Nardiz ordeztzeko bere alderdiak egin zituen ahaleginen ondoren, 1979ko maiatzean Nardiz ziur zegoen ezinezkoa zela estatutu-prozesuak atzera egitea eta Leizaola saiatu bazen ere pixka bat gehiago iraun zezan konbentzitzen, 1937az geroztik Euskaditik kanpo bizi ondoren, Euskadira itzuli zen lehenengo aldiz eta bere sailburu- eta ordezkari-postuak utzi egin zituen. Horrela jakinarazi zion Lehendakariari:

(...) hortaz, kontuan hartuta duela hilabete bat baino gehiago aurkeztu nizun dimisioaren onarpena behin eta berriz ukatu izana ondorioz gabe uzten dudala eta hilabete honetako 12ko bileran nire alde egin zenuen dudazko aintzatespen garbia aintzat hartuta hura kentzea indargabetzen dudala, gaur berriro aurkeztu dizut dimisioa, oraingo honetan atzera bota ezin den erabakia izanik, eta horrekin lagundu nahi dut –horixe baita biziki nahi dudana– istilu guztiekin bukatzen eta ziur nago nire eragozpenaz libratzen bazara askeago geratuko zarela eta gaitasun handiagoa izango duzula euskal herriak merezi duen onura emateko²⁹⁹.

EAE/ANV Historikoa, bestalde, haserre zegoen buruzagi berriek EAE/ANVn egin zuten aldaketarekin, eta gainera, Herri Batasunan sartu zirelako; horregatik, erabaki zuten 1979ko hauteskundeetarako Euskadiko Ezkerrari laguntzea, eta, gainera, prozesu autonomikoari laguntzea³⁰⁰. Gonzalo Nardizek ere parte hartu zuen EEren mitinen batean eta autonomia-estatutuaren aldeko mitin unitarioetan. Hala eta guztiz ere, Euskadira itzuli zenean, Gonzalo Nardizek erabat utzi zuen politika ia 50 urtez partaidetza aktiboa izan ondoren.

Harrezkero, Bilboko bere etxean, Deustu auzoan, bere familiarekin bizi zela, Nardizek ia ez zuen ekitaldi publikoetan parte hartu. Harrezkero, honako ekitaldi hauetara bakarrik joan zen: Euskadiko Ezkerraren mitinen batera eta lehenengo Eusko Jaurlaritza, orokorrean, eta Nardiz bera, bereziki, aitortuz egindako ekitaldiren batera. Pozik zegoen bere bizitza osoan lortu nahi izan zuen helburua, hau da, Euskadi demokraziara eta autonomiaren eta estatutuaren bidera itzultzea bete zelako, eta beste denbora politiko bateko gizona zela sentitzen zuelako.

Nardizek egindako lana aitortu zion bere jaioterriak, seme kutun izendatu baitzuten, eta horrek izugarritzeko poza eman zion, nahiz eta Herri Batasunak kontrako botoa eman, ez ziotelako barkatzen EAE/ANV Historikoaren zatiketa eta estatutuaren bidearen alde agertu izana.

1990. urtean, Eusko Jaurlaritzak «Gonzalo Nardiz Bengoetxea» etologiako sariak sortu zituen

298 José Antonio Pérez Pérez, «La transición en el País Vasco...», op. cit., 409.412. orrialdeak.

299 Gonzalo Nardizek Jesús María Leizaolari idatzitako gutuna, 1979-05-24. Nardiz familiaren artxiboa.

300 Gaizka Fernández Soldevilla, *Héroes, heterodoxos y traidores. Historia de Euskadiko Ezkerra (1974-1994)*, Madril, Tecnos, 2013, 154. eta 173. orrialdeak.

Nekazaritzako eta Arrantzako lehen sailburu gisa egindako lana aintzatesteko. Lehenengo edizioan, hots, 1991n, Gonzalo bera joan ahal izan zen saria ematera. Ondoren, sari horiek aldatu egin ziren, nekazaritzako, arrantzako eta elikagaien industriako sektoreetako ibilbide profesionalak aitortu baitzitzaizkien nekazaritzako, abeltzaintzako, basoko edo arrantzako sektoreetan garrantzi bereziko ibilbide profesional luzea garatzeagatik nabarmendu ziren pertsona edo kolektiboek.

Urte horretan bertan, hau da, 1991n, «Sabino Arana» saria jaso zuen Sabino Arana Fundazioaren presidente Jesús Insausti «Uzturre»ren eta Joseba Agirrereren, hots, Jose Antonio Agirrereren semearen eskutik.

Era berean, garai bertsuan, 1990ean zehazki, Nardizen emaztea, Mercedes Iriondo, hil zen; bere patua dudazko erbestean Gonzaloren patuarekin elkartzeko 1937an Bilbo utzi zuen ezinbesteko laguna. Garai horretan, era berean, ikusmena galtzen hasi zen, eta arazo hori larriagotu egin zen urteek aurrera egin ahala.

Bilbon hil zen 2003ko urriaren 25ean. Hileta-elizkizuna Bermeoko Santa Maria elizan egin zen eta Eusko Jaurlaritzako kide guztiak bertaratu ziren. Bere gorpuzkia aitarenarekin batera dago bere jaioterriko hilerrian.

ONDORIOAK

Sarreran adierazi dugunez, lan honen helburu nagusia Gonzalo Nardiz Bengoechea nor izan zen eta Eusko Abertzale Ekintza ordezkatzuz lehen Eusko Jaurlaritzako sailburu izendatzeko zer merezimendu zituen galderei erantzutea zen. Horrez gain, honako hau ere jakin nahi genuen: Nekazaritza Sailaren aurrean zer kudeaketa egin zuen eta zer zeregin betetzen zuen Eusko Jaurlaritzaren sailburu gisa Amerikan eta Frantzia bizi izan zuen 42 urteko erbestealdi luzean.

Gonzalo Nardiz Bermeoko familia bateko kide zen. Familia horren egoera ekonomikoa ona zen, bere aita Gregoriok sortu zuen eta, ondoren, bere ama Dionisiak kudeatu zuen ontzi-jardueraren bitartez merkataritza-jarduera bat garatzen zuen. Horri esker, Gonzalo gazteak batxilergo-ikasketak garatu ahal izan zituen Bilbon eta nautika-karrera ere egin ahal izan zuen; horrez gain, prestakuntza osagarria jaso zuen Frantziako hegoaldean eta Londresen, hizkuntzak ikasi zituen eta hainbat itsas portu ezagutu ahal izan zituen.

Bere aita EAJko militante izan zen eta Bermeoko Udaleko zinegotzi izan zen, baina Gonzalo Nardizek politikarekin izan zituen lehenengo harremanak alderdi jeltzaletik kanpo egon ziren. Bermeoko beste pertsona ospetsu batzuekin garatutako solasaldi batzuetan hasi zen bere pentsamendu politikoa osatzen; pertsona horien artean 1930ean EAE/ANV sortu zutenetako bat zegoen. Nardiz alderdi horri atxiki zitzaion berehala, berak funtsezkotzat hartu zituen balioekin bat zetorrelako. Balio horiek honako hauek dira: abertzaletasuna, arazo soziala eta laizismoa.

Gonzalo Bermeoko Udaleko zinegotzi hautatu zuten 1931n. Han, euskal-mailan, euskal nazionalismoaren eta monarkiaren aurkako blokeko alderdien artean zegoen enfrontamendu politikoa ondorioak pairatu behar izan zituen; izan ere, Bermeon, EAJk zuen gehiengo alderdi prerrepublikanoen aurka. Asalduzko legegintzaldian, bere aurkari jeltzaileek ez zuten gaizki ikusten Nardizen zeregina, hainbat proposamen aurrera ateratzen saiatu baitzen, euskara irakasteko proposamena, besteak beste.

Bestalde, 1933ko urrian, Nardiz Bizkaiko Aldundiaren kudeatzaile izendatu zuten bere alderdia ordezkatzuz, urte horretako azaroan egin zen estatutu-erreferenduma prestatzeaz arduratu zen, baita Estatutu-proiektua Madrileran eramateaz ere parlamentuan izapidetzeko. Estatutuak euskal-eremutik kanpo ekin zionean bere bidetara, Nardizek eta EAE/ANVko bere kideek batzorde probintzian zituzten karguak utzi egin zituzten, uste zutelako beren lana, hau da, Estatutua lortzea, eginda zegoela.

1935. eta 1936. urteen inguruan, alderdiari izaera ezkertiar handiago bat ematearen ondorioz EAE/ANVn izandako eztabaidetan, Nardiz alderdiari eduki sozial handiagoa izango zuen programa bat ematearen alde zeudenen alde jarri zen, ezkerrean jotzearen alde, beraz; baina ez dugu uste EAE/ANVren fakzio erradikalenarekin bat etorriko zenik. Nahiz eta lehenago ere zuzendaritzako kide izan zen, une horretan hartu zuen garrantzi handiena Batzorde Nazionalen sarteak, erakunde horretan egon baitzen trantsizioa iritsi zen arte.

Altxamendu armatua izan zenean, 1936ko uztailaren 18an, Errepublikako etsaiei aurre egiteko sortutako erakunde guztietan hartu zuen parte Gonzalo Nardizek, esate baterako, Erregimena

Defendatzeko Komisaria Nagusian, non zamalanen, soldaduen armen eta horniduraren komisario izan zen, Defentsa Batzordean, non soldaduak hornitzeko ordezkari bereziaren erantzukizuna izan zuen, eta jakineko Eusko Jaurlaritzan, Nekazaritzako sailburu gisa.

Gerra Zibilak Euskadin iraun zuen bitartean, Nardiz buru zen Nekazaritza Saila nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta basoaren ondarea kontserbatzeaz eta zaintzeaz arduratu zen batez ere, ondare hori arriskuan baitzegoen gerra-garaian landan eskulanik ez zegoelako eta armadak nahiz biztanleria zibilak zituzten premiengatik.

Gonzalo Nardiz Santanderra joan zen Lehendakariarekin eta Eusko Jaurlaritzako beste kide batzuekin, nahiz eta bere Sailak eskumenik ez izan Euskaditik kanpo. Santandertik Iparralderantz atera ondoren, Nardiz Santoñara itzuli zen presoak trukatzeko «Santoñako Ituna» izeneko egikaritzea aurreikusita zegoen garai berean, baina Nardiz berehala konturatu zen egoera hori kaltegarria zela euskal soldaduentzat.

Iparraldea erori ondoren eta Espainiako Gerra Zibilaren amaiera arte, Nardizek sailburu gisa zuen jarduera betetzen jarraitu zuen Bartzelonaren eta Frantziaren artean. Denboraldi horretan, «nekazaritza-babeslekuak» sortzen ahalegindu zen, euskal iheslariak lurra lantzeko, beren burua mantendu ahal izateko eta soberakoak Eusko Jaurlaritzak mantentzen zituen beste babesleku batzuetara bidaltzeko, baina proiektua ez zen inoiz gauzatu zailtasun ekonomiko handiak zeudelako. Gainera, Nardiz sailarteko batzordearen buru izan zen. Batzorde hori euskal iheslarien erantzukizun politikoak sailkatzeko lana egiteko eta Eusko Jaurlaritzaren organigramaren bolumena murrizteko sortu zen. Lehendakariak eskatu zuen alderdiak euskal eremu nazionalarekiko leial deklaratzeko, eta horren ondorioz «Eusko Jaurlaritzaren krisia» izenekoan, bestalde, Nardiz Agirrerren ideia alderdiaren alde jarri zen, baina bere alderdian eztabaidak izan ziren gai horren inguruan.

Parisen zegoela, alemaniarren inbasioa izan zenean, Bordelerantz eta Landetarantz joan zen, hortik Frantzia «askean» kokatuta zegoen Marseillara joan ziren. Han atxilotu egin zuten eta urtebete eman zuen bortxazko lanen esparruan, askatu eta Toyos eta Aznar sailburuekin batera Mexikorantz ateratzeko aukera izan baino lehen.

Mexikon hiri hartako Gobernuaren Ordezkaritzarekin lotuta egon zen. Ordezkaritza horren buru Telesforo Monzón izan zen eta hainbat jardura politiko egin zituen; izan ere, Euzko Deya egiten parte hartu zuen eta etorkizunean egin behar zituzten urratsei buruzko iritziak trukatu zituen Lehendakariarekin. 1946an, Lehendakariaren aginduei jarraikiz, berriro ere Parisera joan zen.

Frantzia Baionako Ordezkaritzari atxikitako sailburu izendatu zuten 1959. urtera arte. Urte horretan Jaurlaritzaren ordezkari izendatu zuten Baionan. Bere jardura honako hau zen: Iparralden, Bearnon, Landetan eta Girondan bizi ziren euskal iheslariak laguntzea, mugaz bestaldean gertatzen zenaz erne egotea eta sortzen ziren oposizio-taldeen eta Parisko Eusko Jaurlaritzaren arteko zubi izatea.

Gainera, Gonzalo Nardizek zeregin garrantzitsu bat izan zuen euskal ordezkari gisa kontinente zaharreko mugimendu europazale eta federalistetan. Europako Federazioaren aldeko Euskal Kontseiluaren (Espainiako Kontseilu Federalaren kide zen erakundea) presidente izan zen.

Eusko Jaurlaritzan izan zuen jarduna honako honetara bideratuta egon zen: edozein eragozpenen aurrean Eusko Jaurlaritzak irautea eta indarrean egotea, eta euskal joera politiko demokratiko horiek guztiak elkartuta egotea erakunde horren inguruan. Horregatik, «agirrezaletzat» har daiteke, zalantzarik gabe, Nardizek erabateko fedea zuelako Lehendakariarengan.

Gerra Zibila amaitu ondoren, Nardizen alderdiko kideak, hau da, Eusko Abertzale Ekintzako kideak sakabanatu egin ziren Amerikan eta Frantzian, eta horren ondorioz, ezin izan zuten biltzarrik edo bilerarik egin beren programa eguneratu edo alderdiaren zuzendaritza berri ahal

izateko; horregatik, alderdiaren ideialak iraunkor geratu ziren 1936tik trantsizio demokratikora bitarte, eta horrek desfasea eragin zion alderdiari. Hain zuzen ere, Trantsizioan, alderdia bi joeratan zatitu zen: joera batean «historikoak» zeuden, Gerra Zibiletik eratorritako militante zaharrak, Nardiz buru zutela, eta beste joeran barruko militante gazte berriak zeuden, EAE/ANVk bere programan zituen ideiak baino ideia erradikalagoen alde zeudenak.

Hala eta guztiz ere, frankismoa bere gailurrera iristen ari zen neurrian, aurkako ekimena erbestetik barnera igaro zenez, esaten zuten Eusko Jaurlaritza ez zela eraginkorra. Nardizek eta Jaurlaritzak gero eta jarduera gutxiago egiten zituzten eta trantsizio-garaian oso garrantzi gutxi izan zuten. Estatutu-prozesu berria bideratu zenean, eta egoera horrek atzera egiteko aukerarik ez zuela ikusi zenean, Gonzalok Jaurlaritzan zuen postua utzi zuen eta zaratarik egin gabe barnera joan zen erbestean 42 urte eman ondoren. Euskal Herritik 1937an atera zenetik iraunarazi zuen sugarra, hots, Eusko Jaurlaritza autonomia izatearena, berriz ere indar handiz piztu zen Euskadin.

ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

Aipatutako artxiboak:

- Nardiz familiaren artxiboa
- Santiago Aznarren Familiaren Artxiboa
- Archivo Histórico de Euskadi – Euskadiko Artxibo Historikoa (AHE/EAH)
- Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia – Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa (AHEB/BEHA)
- Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroa (MHDZ)
- Sabino Arana Fundazioa (SAF)
- *Iturri Hemerografikoak:*
- *Euskal Herriko Egunkari Ofiziala.*
- *El Liberal.* Bilbo.
- *El Noticiero Bilbatino.* Bilbo.
- *Euzkadi.* Bartzelona.
- *Euzkadi.* Bilbo.
- *Euzko Deya.* Mexiko
- *Oficina Prensa Euzkadi.* Paris.
- *Tierra Vasca.* Buenos Aires, Mexiko.

Bibliografia:

- AGIRREAZKUENAGA, Joseba eta URQUIJO, Mikel (zuzendariak), *Senderos de la memoria*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2015
- ALONSO ZALDÍVAR, Carlos, *Notas sobre el Partido Comunista de Euskadi*, Donostia, Haramburu, 1977
- ALTED, Alicia, «Gobierno y partidos republicanos españoles en el exilio (1950-1962)». *Mélanges de la Casa de Velázquez*, 27-3 (1991),
- ANASAGASTI, Iñaki (zuz.), *El Primer Gobierno Vasco*, Bilbo, Eusko Jaurlaritza, 1986, 3 liburuki.

- ANASAGASTI, Iñaki eta SAN SEBASTIÁN, Koldo, *Los años oscuros. El Gobierno Vasco-El exilio (1937-1941)*, Donostia, Txertoa, 1985.
- ARRIEN, Gregorio eta GOIOGANA, Iñaki, *El primer exilio de los vascos. Cataluña 1936-1939*, Bartzelona, Sabino Arana Fundazioa, 2002.
- ARRIETA ALBERDI, Leire, «Años de esperanza ante la nueva Europa: la estrategia europeísta del PNV tras la Segunda Guerra Mundial». *Ayer*, 67 (2007),
- ARRIETA ALBERDI, Leire, *Estación Europa. La política europeísta del PNV en el exilio (1945-1977)*, Madril, Tecnos, 2007
- AVILÉS FARRÉ, Juan, *La izquierda burguesa y la tragedia de la II República*, Madril, Madrilgo Erkidegoa, 2006.
- BASALDÚA, Pedro de, *Con los alemanes en París*, Buenos Aires, Ekin euskal argitaletxea, 1943.
- BORRAS BETRIÚ, Rafael, *Cambio de régimen. Caída de la Monarquía y proclamación de la República*, Madril, Flor del Viento Ediciones, 2000
- COMONTE SANTAMARÍA, Ángel, *Juan de los Toyos González. Biografía de un pequeño gran hombre*, Bilbo, Juan de los Toyos Fundazioa, 2010.
- DE PABLO CONTRERAS, Santiago, et. al., *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco*, II: 1936-1979, Bartzelona, Crítica, 2001
- DELGADO CENDAGORTAGALARZA, Ander, *Bermeo en el siglo XX: política y conflicto en un municipio pesquero vizcaíno (1912-1955)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1998
- *Estatuto General del Estado Vasco. Anteproyecto de la Sociedad*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1931.
- ESTORNES ZUBIZARRETA, Idoia, *La construcción de una nacionalidad vasca. El autonomismo de Eusko-Ikaskuntza (1918-1931)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1991
- *Euskal Batzar Orokorra. Congreso Mundial Vasco. 25 aniversario*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritz, 1981
- FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka, *Héroes, heterodoxos y traidores. Historia de Euskadiko Ezkerra (1974-1994)*, Madril, Tecnos, 2013
- FUSI, Juan Pablo, *El País Vasco 1931-1937. Autonomía, Revolución, Guerra Civil*, Madril, Biblioteca Nueva, 2002.
- GARRIDO YEROBI, Iñaki eta LEKUONA ILULDAIN, Aitziber , *Las raíces del árbol del exilio. Las biografías de los consejeros del primer Gobierno de Euzkadi*, Oñati, IVAP, 2006.
- GARRITZ, Amaya eta SANCHIZ, Javier, *Euskal Etxea de la ciudad de México*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritz, 2003
- GRANJA SAINZ, José Luis de la, *El Lehendakari Aguirre y sus Gobiernos*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritz, 2010.
- GRANJA SAINZ, José Luis de la, *El oasis vasco. El nacimiento de Euskadi en la República y la Guerra Civil*, Madril, Tecnos, 2007.
- GRANJA SAINZ, José Luis de la, *Nacionalismo y II República en el País Vasco. Estatutos de autonomía, partidos y elecciones. Historia de Acción Nacionalista Vasca: 1930-1936*, Madril, Siglo XXI, 2008.

- IBÁÑEZ, Norberto eta PÉREZ, José Antonio, *Orígenes y desarrollo del socialismo en el País Vasco (1890-1936)*, Bilduma, 19 (2005), 7.184. orrialdea.
- IBARZABAL, Eugenio, *50 años de nacionalismo vasco*, Donostia, Ediciones Vascas, 1978
- JIMÉNEZ ABERASTURI, Juan Carlos, *De la derrota a la esperanza: políticas vascas durante la Segunda Guerra Mundial (1937-1947)*, Oñati, IVAP, 1999.
- JULIÁ, Santos, et al., *La España del siglo XX*, Madril, Marcial Pons, 2007
- LARRONDE, Jean-Claude, *Exilio y solidaridad. La Liga Internacional de Amigos de los Vascos*, Villefrance, Bidasoa, 1998.
- MEES, Ludger (koord.), *La política como pasión. El Lehendakari José Antonio Aguirre (1904-1960)*, Madril, Tecnos, 2014.
- MIRALLES, Ricardo, *El socialismo vasco durante la II República*, Bilbo, UPV/EHU, 1988.
- PENCHE, Jon, *Alfredo Espinosa Orive (1903-1937). Un republicano al servicio de Euskadi*, Bilbo, Eusko Jaurlaritza, 2012.
- PENCHE, Jon, *Republicanos en Bilbao (1868-1937)*, Bilbo, UPV/EHU, 2010.
- PÉREZ PÉREZ, José Antonio: «La transición en el País Vasco (1976-1979)», hemen: *Historia del País Vasco. Edad Contemporánea*. Donostia, Hiria, 2005
- RENOBALLES, Eduardo, *ANV, el otro nacionalismo*, Tafalla, Txalaparta, 2005
- RUBIRALTA i CASAS, Fermí, *Un panadero socialista en Gobierno Vasco. Biografía política de Paulino Gómez Beltrán (1892-1963)*, Donostia, Hiria, 2014.
- SAN SEBASTIÁN, Koldo, *El exilio vasco en América 1936-1946*, Donostia, Txertoa, 1988
- SAN SEBASTIÁN, Koldo, *El fuego de la utopía. Biografía de Santiago Aznar Sarachaga. Primer Consejero de Industria del Gobierno Vasco*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2001.
- SAN SEBASTIÁN, Koldo, *Exilio vasco en América*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2014
- UGALDE ZUBIRI, Alexander, *El Consejo Vasco del Movimiento Europeo. La aportación vasca al movimiento europeo*, Gasteiz, Europako Mugimenduarren Euskal Kontseilua, 2001
- VERGARA, Andoni, *Modesto Arambarri Gallastegui (1902-1988)*, Bilbo, Bilboko Udala, 2006
- ZABALA ALLENDE, Federico, *El Gobierno de Euzkadi y su labor legislativa 1936-37*, Oñati, IVAP, 1986.

Argazkien artxiboa



1. Gonzalo Nardiz komunio egunean. Nardiz familiaren artxiboa.



2. Bermeoko kaia, eta, erdian, familiaren konpainiako baporeetako bat. Nardiz familiaren artxiboa.



"Lagun Etxea" 26-27 denboraldian

Goiko lerroan, zutunik: Juan Barandika, Marcelo Renteria, Enrique Zumalabe, Luzarraga "kaskabel", Gonzalo Nardiz, Olaeta, Cristo, Sebastian Muñoa, Jose Nardiz eta Jose Erekatxo.
Beheko lerroan, makurtuta: Cruz Gandarias eta Jose Letona.

3. Gonzalo eta José Nardiz Bermeoko futbol-taldean (1926). Nardiz familiaren arxiboa.




4. Gonzalo eta Euskadiko diputazioetako gainerako gestoreak, estatutuaren testua entregatzeko egunean, Madrilen (1933). Nardiz familiaren arxiboa.



5. Eusko Jaurlaritza agindua hartzen Gernikan (1936). Bidasoa funtsa, Euskadiko Artxibo Historikoa.



6. Eusko Jaurlaritzaren kontseilua, Bizkaiko Foru Aldundian (1936). La Sanidad Militar en Euzkadi, 1937.



7. Gonzalo Nardizen sailburu txartela (1936). Nardiz familiaren artxiboa.



8. Gonzalo Nardiz bulegoan (1936). Aznar familiaren artxiboa.



10. Sailburu Ramón Aldasoro, Gonzalo Nardiz eta Telesforo Monzón eta beste batzuk Laredoko hondartzan (1937). Nardiz familiaren artxiboa.



11. Gonzalo Nardiz Santanderren (1937). Nardiz familiaren artxiboa.



12. Sailburu Monzón, Aldasoro eta Nardiz Santanderren (1937). Nardiz familiaren artxiboa.



13. Gonzalo Nardiz eta emaztea, Mercedes Iriondo, Kataluniako kostaldean (1938). Nardiz familiaren artxiboa.



14. Sailburu Aznar, Nardiz, Torre eta ministro Tomás Bilbao, Kataluniako beste handiki batzuekin, Bartzelonan (1938). Nardiz familiaren artxiboa.



15. Gonzalo Nardiz eta Mercedes Iriondo paseoan, Marseillan. Nardiz familiaren artxiboa.



16. Gonzalo Nardiz paseoan, Marseillan. Nardiz familiaren artxiboa.



17. Gonzalo Nardiz pasean, Marseillan. Nardiz familiaren artxiboa.



18. Sailburu Aznar eta Tomás Bilbao, eta beste batzuk, Nyassa ontzian, Mexikora bidean (1942). Nardiz familiaren artxiboa.



19. Euskal errefuxiatuak Nyassan (1942). Nardiz familiaren artxiboa.



21. Gonzalo Nardiz (ezkerrean) eta Francisco Turrillas kazetaria (erdian), Mexikon. Nardiz familiaren artxiboa.



20. Lehendakari Aguirre eta Gonzalo Nardiz berriz elkarrekin Mexikon. Nardiz familiaren artxiboa.



22. Telesforo Monzón eta Gonzalo Nardiz Mexikon. Nardiz familiaren artxiboa.



23. Ezkerretik eskuinera: Aznar, Toyos, Mendizabal, Bilbao eta Nardiz Mexikon. Aznar familiaren artxiboa.



24. Toyos, Aguirre, Bilbao, Aznar, Aldasoro eta Nardiz, eta beste batzuk, Mexikoko Euskal Etxean. Aznar familiaren artxiboa.



25. Eusko Jaurlaritzaren bilera, New Yorkeko ordezkartzan (1945). Nardiz familiaren artxiboa.



26. Eusko Jauriaritzaren bilera, Parisen (1952). Aznar familiaren artxiboa.




27. Eusko Jauriaritza 1952. Aznar familiaren artxiboa.



28. Eusko Jaurlaritza Munduko Euskal Kongresuan 1956. Aznar familiaren artxiboa.



29. Munduko Euskal Kongresua 1956. Irudiaren erdian Mercedes Iriondo eta José Luis Nardiz. Nardiz familiaren artxiboa.



30. Gonzalo Nardiz Donibane Lohitzuneko Hotel Madisonen (1978). Aznar familiaren artxiboa.



31. Gonzalo Nardiz Bermeorantz, lehenengo aldiz 1937tik (1979). Nardiz familiaren artxiboa.



32. Gonzalo Nardiz mitin batean (1979). Nardiz familiaren artxiboa.



33. Gonzalo Nardiz mitin batean (1979). Nardiz familiaren artxiboa.



34. Gonzalo Nardiz mitin batean (1979). Nardiz familiaren artxiboa.



35. Leizaola eta Nardiz Gernikako Juntetxean. Nardiz familiaren artxiboa.



36. Gonzalo Nardiz 1991ean. Sabino Arana Fundazioa.



37. Jesús Insausti "Uzturre", Joseba Aguirre eta Gonzalo Nardiz, honek Sabino Arana Saria jaso zuen umean (1991). Sabino Arana Fundazioa.